
Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea

Zuzendariak:
José Luis de la Cuesta Arzamendi
Gema Varona Martínez

Egilea:
Gema Varona Martínez

Ikerlariak:
Virginia Mayordomo Rodrigo
Alberto Olalde Altarejos



IVAC-KREI



2015eko ekaina

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia
Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza

PRESIDENCIA
Secretaría General para la Paz
y la Convivencia
Dirección de Víctimas y Derechos Humanos

Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea

Memoria eta justizia proiektua:
terrorismoaren biktimen
memoriarako eta parte hartzeko
eskubidea gauzatzuz,
euskal herritarren bake,
askatasun eta bizikidetzarako
eskubidearekin uztartuz

Zuzendariak:

José Luis de la Cuesta Arzamendi
Gema Varona Martínez

Egilea:

Gema Varona Martínez

Ikerlariak:

Virginia Mayordomo Rodrigo
Alberto Olalde Altarejos



IVAC-KREI

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren
enkarguz egina


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Bakegintza eta Bizikidetzarako
Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General
para la Paz y la Convivencia



© Azalaren eta kontrazalaren diseinua: Carlos Varona Martínez.

*“Denon artean bihur dezagun hitza
lirain eta iheskor nahigabetik atera gaitzan”*

Carlos Bousoño (*Salvación en la palabra*)

Aurkibidea

I. Sarrera	11
1. Helburuak	11
2. Egitura eta metodologia	12
3. Ikerketa taldea	13
4. Kronograma	14
5. Eskertzak	15
II. Memoria eta parte-hartzea eskubide eta betebeharrak gisa: arauaren esparrutik zer, zergatik, nor/nork, nola eta noiz galderei erantzunez	16
1. Memoria: kontzeptu elastiko bat. Haren agertzea eta globalizazioa	16
2. Memoria: eskubidea-betebeharra	17
2.1. Memoria giza eskubide gisa: funtsezko eskubidea besteen ondoan?	17
2.2. Oinarria nazioarteko eta barruko arautegietan	18
2.2.1. Nazioarteko arautegia	18
2.2.2. Barne arautegia	19
2.3. Eskubide mota, hartatik datozen obligazioen arabera	20
2.4. Edukia eta helmena	21
2.5. Eskubidearen titulartasuna eta izaera subjektiboa	22
2.6. Babesa	22
2.7. Bigarren biktimizazioa, zuzenbide sinbolikoaren erabileraren poderioz sortua	23
3. Memoriarako eta parte hartzeko eskubideen artikulazioa, haiek bermatu beharra gorpuzten duen edukiaren barruan	26
3.1. Terrorismoaren biktimen parte hartzeko eskubidearen edukia	26
3.1.1. Nazioarteko erakundeen gomendioak	26
3.1.2. Terrorismoaren biktimen parte-hartzearen gaineko barne araudia	28
3.2. Parte-hartzea eta bigarren biktimizazioa	30
III. Memoriaren agerikotasuna euskal espazio publikoan	31
1. Memoria moldeak denboran eta espazioan	31
2. Eragile publikoek eta pribatuek partekaturiko espazioa	32
3. Eragile publiko eta pribatuen ekimenez orain berri bultzatu diren memoria praktiken adibideak euskal testuinguruan	33
3.1. Eusko Jaurlaritza	35
3.2. Eusko Lrgebiltzarra	38
3.3. Foru Aldundiak	38

3.4. Udallerriak	38
3.5. Ararteko/euskadiko herriaren defendatzailea	39
3.6. Epaitegiak	39
3.7. Segurtasun indarrak eta taldeak	39
3.8. Unibertsitateak	39
3.9. Eliza eta erlijio taldeak	39
3.10. Terrorismoaren biktimekin lan egin duten biktimen eta bakearen aldeko elkarteak	39
3.11. Hedabideak	41
3.12. Ekimen literarioak eta artistikoak	41
3.13. Familien ekimenak	43
IV. Memoria konponarazlearen eredua: oinarria eta printzipioak	44
1. Oinarria: memoria justiziatzat hartua	44
2. Memoria konponarazle baten printzipioak euskal herriaren testuinguruko biktimizazio terroristetan	46
3. Eredua bideragarritasuna konponbiderako topaketan erraztaileekin eta biktima-eragileekin egindako galdeketa eta elkarrizketen emaitzen argitara	47
3.1. Hausnarketa orokorra	47
3.2. Konponbiderako topaketetako erraztaileei egindako galdetegiaren emaitza	49
3.3. Terrorismoagatik kondenatutako pertsonekin egindako galdeketa eta elkarrizketen emaitzak	52
3.3.1. Galdetegia	52
3.3.2. Elkarrizketa	53
3.3.3. Bigarren mailako iturrietatik jasotako testigantzak	54
V. Biktimekin izandako eztabaida-taldearen emaitzak	55
1. Aurrekariak: IVAC/KREI Institutuak 2013an egindako ikerketaren emaitzei helduz	55
2. 2014ko eztabaida-taldearen diseinua eta emaitzak aztertze teknikak	56
3. Prestakuntza ikasleekin	57
4. Gonbita eta harremana biktimekin	58
5. Eztabaida-taldeetan parte hartutakoen kopurua eta profila	60
5.1. Kopurua	60
5.2. Profil soziodemografikoa	60
6. Arartekok terrorismoaren biktimen memoriari buruz egindako sarrera txostena	61
7. Eztabaida-taldearen garapena	61

7.1. 1. taldea	61
7.2. 2. taldea	75
7.3. Eztabaida-taldeen materialen eta biltzeko erabilitako gelen argazkiak	89
7.4. 2015eko agendetan bildutako hitzak	94
7.5. Memoria-proposamenen artean irekitako katalogoko fitxari emandako erantzuna (1. eta 2. Taldeak)	94
7.6. Parte-hartzaileen eta dinamizatzaileen ebaluazioa	96
7.7. "Ez nazazu ahaztu" argazkian jasotako hitzak:	97
8. Laburpena	98
VI. Ondorioak	98
1. Memoria kontzeptua eta eskubidea	98
2. Memoria kontzeptua eta biktimologia: biktimen ekarpena	99
3. Espazio publikoa eta memoria: kultura, komunitateak eta memoriaren errituak	99
4. Ikuspegi konponarazle batetik, memoriaren politika eta jardunetarako aholkuak	101
5. Terrorismoaren biktima batzuen iritziarekin alderatzea	101
Bibliografia	103
Eranskinak	112
1. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak biktimei proiektua aurkezteko bidali beharreko gutunaren zirriborroa	112
2. EAE-n bizi diren terrorismoaren biktimek memoria-proiektuei buruz eztabaidatzeko taldeen gaineko informazio osagarria, 2014ko azaroaren 28a	113
3. Dinamizatzaileak eta eztabaida-taldetan erabilitako materialak prestatzea	117
4. Terrorismoagatik zigortutako pertsonentzako galdetegia	123
5. Konponbiderako topaketak errazteko galdetegia	126
6. Nazio batuen giza eskubideetarako goi ordezkariaren bulegoko kultura eskubideetarako txostengile bereziak, Farida Shaheed-ek, 2014ko urtarrilaren 23an memoria historikoa zaintzeko prozesuei buruz idatzitako txostenaren ondorioak eta gomendioak A/HRC/25/49	128
7. Terrorismoaren biktimen memoriari buruzko araudiaren zatiak	130
8. Eztabaida-taldeetan aipatutako lekuen argazkiak	134

I. Sarrera

“...zientzia, historia, literatura memoriak bizitzaren inguruko galderak egiten, bizitza, bizitza guztiak, geure bizitza bera, ulertzen erakusten digunean –eta, beraz, jakinduria bilakatzen denean– hobeak gara herritar eta pertsona gisa... Zeinen beharrezkoa den zinemaren, liburuaren, entzutearen eta izendatzen eta adierazten duen hitzaren “balio eza”; zeinen beharrezkoak, baliotsuegiak direlako, desberdinak direlako, oraindik ez dena, izan zena, bizi dugun oraina ikusarazten dizkigutelako! (Casanovas 2000, 14).

Euskal Herrian terrorismoaren biktimen memoriaren inguruko eskubide eta betebeharren esanahiari buruz hausnarketan jarraitzeko borondatearen isla dugu lan honen izenburua (Etxeberria 2014). Bereziki azpimarratu dute autore batzuek memoriaren “betebeharrari” buruz ari beharra; alabaina, terrorismoaren biktimek eta gizarteak memoriarako duten “eskubidearen” eta, beste batzuekin batera, parte hartzeko eskubidearen positibizazio progresiboa frogatzen ari garen honetan.

Hurbildu orduko egiten dugun lehen gauza da gaiaren konplexutasun eta gaurkotasun maila handia egiaztatzea, hala gurean nola munduko beste lekuetan ere. Oinaze isildu, adierazi eta/edo entzunarekin lotura duen zerbitu da memoria, eta argi eta garbi aitortu beharra daukagu haren norainokoa ezin dela beti hitzez adierazi, hitz horiek zeinahi diziplinatan bidera litezkeen gogoeta sakonenen fruitu badiratekeen arren.

1. Helburuak

“Pharmakon”-aren metafora platondarraz baliatu zen Eligio Resta zuzenbidearen filosofo italiarra egungo Zuzenbidearen legitimazioak dakartzan kontradikzioei buruz aritzeko unean (grezieraz, sendagai eta pozoia adierak ditu “pharmakon” hitzak). Gogoeta hau memoriaren eremura ekarriaz, diogun iraganeko eta etorkizuneko biolentziaren aurkako antidoto gisa erabiltzen dela, baina biolentziaren iraupena eta zabalkundea justifikatzen eta sustatzen dituzte memoria molde batzuek, haren adierazpen guztietan. Halatan, guztiz premiazkoa da auto-gogoeta eta biolentzia ezkutatzeke, aintzakotzat hartu gabe baztertzeko edo legitimatzeko, modu eta interesen desmitifikazio lana, gizartearen berezko bulka baita nolabait biolentzia (Baratta 1995, 123), han eta hemen sortzeko eta garatzeko une eta gunee aproposak topa litzakeena.

Biktimen gaineko ikerketa lan honen helburua da terrorismoaren biktimen memoriaren inguruko eremu interdiziplinarioaren barruan analisi kritiko bat bideratzea. Abiaguneko hipotesi gisa esan dezagun memoriarako eskubidea-betebeharra, parte hartzeko eskubidearekin batean, araudian jaso den moduak eragin mugatua izan duela espazio publikoetan, eskubide eta betebeharen horien agerikotasun mailari dagokionez. Gainera, kontsentsu handiago batean oinarriturik bidera liteke agerikotasun maila horretarako prozesua, memoria konponarazlerako eredu batetik abiatuta.

Hona hemen, azken batean, lan honen gai nagusiak:

- a) biktimen parte hartzeko eskubidearen, eta biktimek eta gizarteak memoriarako, eta memoria justizia gisa hartuko duen kontzeptualizaziorako, duten eskubidearen positibizazioaren gaineko ikuspegi teorikoak, alde batetik.
- b) eta biktimen begiradak tokian tokiko biktimizazio eta lehengoratze espazio eta testuinguruaren duen garrantziaren, eta haien parte-hartzeak proiektu sortzaileetan duen izaera terapeutikoaren, gaineko ikerketa enpirikoak, bestetik.

Espazio publikoetako memorializazio prozesuek biktimetzako dituzten esanahiak aztertzea da azken helburua. Horretarako, bibliografiaren berrikuste lanetan eta landa-lanean berean oinarriturik, memoria konponarazlerako eredu baten eraikuntza sustatzen duten edo ez duten faktoreak eta testuinguruak identifikatuko dira. Eredu horren izaera parte harrarazlea, inklusiboa, ardura emalea, ahalduzko eta prebentziozkoa izango da gakoa, eta horrenbestez abiatu ahal izango gara biktimen esperientzien narratibatik eta espazio publikoetan (politikan, hezkuntzan edo artean), esparru birtuala baztertu gabe, parte-hartzeari begira egingo dituzten proposamen zehatzetatik.

2. Egitura eta metodologia

Sarrera, konklusioak, bibliografia eta zortzi eranskinak alde bat utzirik, funtsezko lau zatitan banatua da azterketa. Memoriarako eskubidearen eta betebeharraren positibizazioa eta parte hartzeko eskubidea landu ditugu aurrenik. Eskubide-betebehar horrek espazio publikoarekin dituen harremanak aztertu ditugu bigarrenik, gizarte eragileen ekimen batzuk zehazki aipatuz. Memoria konponarazle baterako eredu proposatu dugu, hirugarrenik, eta biktimekin gai honi buruz antolatu diren eztabaida-taldeen emaitzak aurkeztu eta aztertu dira, laugarrenik, hasierako hipotesi batzuk testatzeko eta etorkizuneko ikerketei begira beste batzuk aintzat hartzeko.

Ikerketan bideraturiko teknikei dagokienez, honako sei hauek bereizi ditugu, metodologia kualitatibo baten barruan betiere:

A) Gaiaren inguruko bibliografiaren berrikustea.

Bilatu dugun interdiziplinariotasunaren araberako zailtasunekin egin dugu topo arlo honetan. Halatan, gero eta material gehiago ari da sortzen memoria, bake, justizia konponarazle, justizia trantsizional¹, trauma eta abarren gaineko azterketen arloan, eta elkarren artean ongi bereiziak diren molde askotako diziplinen ikuspegietatik, Filosofia, Zientzia Politiko, Historia, Soziologia, Antropologia, Geografia, Arte, Biktimologia, Zuzenbide nahiz Psikologiatik, landu dira elementu horiek.

B) Adituei igorriko galdeketen garapena.

Galdeketa labur bana igorri zaie posta elektronikoaren bidez, 2011. eta 2012. urteetan hain zuzen ere, biktimen eta terrorismoagatik kondenaturiko pertsonen artean konponbiderako topaketak erraztu zituzten adituei, memoriaren adiera konponarazleari buruz galdetzeko.

C) Eztabaida-taldeak osatu eta garatu dira UPV/EHUko Kriminologia graduko Biktimologiako ikasleekin.

2014-2015 ikasturteko jardunean biktimizazio terroristari buruzko klaseetan aurkezturiko lanak aztertu dira arlo honetan, memoriak belaunaldi gazteengan duen adiera aztertu nahian.

D) Bi eztabaida-talde terrorismoaren biktimekin.

Memoriak elkarbizitzan duen dimentsioa, dituen adierak eta eragiten dituen inplikazioak aztertu ziren talde bakoitzean, modu bizian, parte-hartzea bultzatuz eta ekintzara bideraturiko jardunean. Eztabaida-taldeak ikaskuntza eta askotariko parte-hartze zabaleko ikerketa prozesu baten barruan hartzen dira betiere aintzat, kezkak eta interesak zehazterakoan eta jarduerarako proposamenak sortzerakoan protagonismoa biktimei berei (zuzenekoei/zeharkakoei) utziz (Bassi 2014).

Beste ikerketa batzuetan bezala (de la Cuesta 2014a), ikusirik unibertso hori osatzen duten pertsonengana heltzea zeinen zaila den eta kontuan harturik ikerketarako epearen mugak, guztiz garrantzitsua izan zen (BGEZ) Eusko Jaurjaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren lankidetzak biktimekin harremanetan jartzeko eta hala nahi zuten guztiei taldeetan parte hartzeko aukera emateko orduan, horretarako behar bezalako epe malguak aintzat harturik, 4. epigrafeko kronograman zehaztu den bezala.

Elkarrizketa sakonak egitea pentsatu genuen hasieran, toki bakoitzean arte, kultura edo sorkuntzaren arloetan memoriari begira bidera litezkeen proposamenen inguruan. Eztabaida-taldeetan parte hartzeko interesa agerturiko pertsonak izango ziren biktima part-hartzaileak. Azkenean, taldeen emaitzak nolakoak ziren ikusiz, ez da metodologia hori bideratu, baina etorkizuneko ikus-entzunezko proiektu batean berriro ere aintzat hartzea proposatu da. Landa-lan honek aukera emango luke memoriak biktima desberdinengan duen adiera konponarazlearen konplexutasuna aztertzeko, denboran barrena gauzatu eta, ahal bada, eguneratu ahal izateko, eta haren aukerak eta arriskuak, eta ezaugarri horietako proiektu batean ariko liratekeen eragileak, identifikatzeko.

E) Terrorismoagatik kondenaturiko pertsona biktima-eragileekin elkarrizketa sakonak egitea edo, bestela, haiei zuzenduriko galdeketak bideratzea.

Helburua da memoria konponarazlerako proiektuetan zer eskaini lezaketen aztertzea, eta biktimen eta biktima-eragile ohien arte sorkuntza memoria moldetzat hartzea. Beraz, biktimen lehengoratzearen, gizarteratzearen, eta memoria eta elkarbizitzarako kultura eta heziketa modu desberdinen artean dauden harremanen gaineko hausnarketa bideratzea da helburua.

¹ Euskal testuingurua berez trantsizio testuingurutat ezin har litekeen arren, testuinguru horri dagozkion mekanismo batzuk bidera daitezke hartan biktimen eskubideei dagokien arloan. Cfr. Landa (2014).

F) Albisteen edukiaren gaineko azterketa.

Aztergai den gaiarekin loturiko albisteak bereizi dira ikerketa jardunean egon den bitartean, Fernando Buesa Fundazioaren hemeroteca digital espezializatua baliatuz. Puntualki erabili da eduki horren azterketa kontestualizazio orokorrari eta hainbat epigrafetako edukien prestakuntzari begira.

Lorturiko emaitzei dagokionez, guztiz azpimarratu nahi genuke lehenik inoiz ere ez zaigula, gure ikerketa ibilbidean, hasierako hipotesiak lana aurrera zihoan heinean aldatu beharra horren argiro azaldu. Gaiaren konplexutasunaren aurrean, aldiro konturatzen ginen ez zeudela beharbada ongi perfilatuak edo, aitzitik, ulerpenerako tarte oso estuan zehaztuak zirela. Adibidez, hasierako uneetan, memoria gauzatu beharreko espazioa edo lekua bereziki fokatu genuelarik, aldi berean gutxietsi genituen biktimen memoriaren hautemate prozesuko alderdi intimoak eta denboraren eragina, kontu neurtezinak nolabait, baina garrantzitsuak haien esanahira eta biktimentzako proposamen esanguratsuetara hurbildu nahi izanez gero. Edo, adibidez, haiengandik proposamen katalogo oso eta/edo berritzaile bat lortuko genuela uste genuelarik, alde bat utzi genuen eztabaida-taldeak jardunean ari zirelako datua, jardun hura, soil-soilik memoriari loturiko ekintzat hartzen zen aldetik, mugatua zen arren, eta ez ginen ohartu biktima batzuk oraindik ez zeudela proiektuak zehazteko prestaturik.

Hala nahi izan zuten pertsonak hurbildu ziren eztabaida-taldeetara, BGEZen zerrenda aintzat hartuta dei orokor bat egin ondoren, eta, esan gabe doa, kopuru handiena osatzen zuten ETaren biktimek. Ez zen gure asmoa talde terrorista desberdinen biktimak bildu eta talde haietako bakoitzaren berezitasunak besteekin alderatzen hastea, baina horixe gertatu zen momentu batzuetan eta denek hartu zuten aniztasun hura aintzat.

Beraz, biografia eta gizarte arazo gisa ageri da memoria lan honen emaitzetan, eta ez nagusiki geografia kontu gisa. Memoriari buruz hausnartzeko uneetan (lehen eta/edo bigarren) biktimizazioaren espaziotik arian-arian aldendu eta biktimen gorputzetarantz edo presentziarantz hurbilduz joan ginen: haien oinazertantz, haien begiradarantz (Benjamin 1978), haien proposamenetarantz, eta taldeetan eta banan-banan, beren idatzien bitartez, egiten zituzten gogoetetarantz. *Ortles* bat, memoriarako proiektuen gaineko elkarrizketa gune bat, sortu genuen, nolabait, haiekin guztiekin, leku fisikorik gabe, baina testuinguru argikoa. Hartan garrantzitsuena ez zen memoriaren non zehatza, baizik eta aitortze harremanen sorrera eta zainketa, gizartearen konpromiso eta erantzukizun aktiborako ondorioak ekarriko dituen justizia esperientzia intimo gisa.

Parte hartzeko eskubideari dagokionez, ongi ikasi dugu ebidentzia enpiriko gehiago behar dela biktimen parte-hartzearen onurak egiaztatu ahal izateko, giza eskubideen ikuspegitik guztiz desiragarriak diren arren ezin baitira onura horiek begien bistakotzat hartu (Taylor 2014; Kenny 2000; Triponek eta Pearson 2010; Martin Beristain et al. 2010).

3. Ikerketa taldea

Hona hemen ikerketa taldearen organigrama:

Zuzendariak	José Luis de la Cuesta IVAC-KREIko Zuzendaria eta Gema Varona Doktore ikertzaile iraunkorra IVAC/KREI
Ikertzailea	Gema Varona
Zuzendariekiko eztabaida-taldean aholkulariak eta prestatzaileak	Virginia Mayordomo Irakasle Atxikia Zuzenbide Fakultatea Alberto Olalde Irakasle laguntzailea Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

4. Kronograma

2014-2015

Maiatza-abuztua	Iraila	Urria - azaroa	Abendua	Urtarrila - otsaila:	Martxoa
<p>-Ikerketaren diseinuaren berraketa onarpena, BGEZekin batera</p> <p>-Adituei igorri beharreko galdeketen prestakuntza.</p> <p>-Adituekin harremanetan jartzea, galdeketa igortzea, erantzunak hartzea eta aztertzea</p> <p>-Biktimiekiko harreman gutunaren prestakuntza</p> <p>-Eztabaida-taldearen lan-gidaren prestakuntza</p> <p>-Pertsona biktima-eragileekiko elkarrizketa sakonaren gidariaren prestakuntza</p> <p>-Pertsona biktima-eragileekiko elkarrizketak egitea eta haien emaitzak aztertzea</p> <p>-Biktimei igorri beharreko aurkezpen-gutunaren zirriborroa eta GBEZI helaraztea</p>	<p>-GBEZek bere fitxategian¹ dauden pertsona guztiei aurkezpen-gutuna igortzea, eztabaida-taldeen parte hartze-ko gonbidatuz. Horretarako, 2014ko azaroaren 28a baino lehen jakinarazi behar zioten KREIri erabakia.</p> <p>-UPV/EHUko Kriminologia graduako Biktimologiako ikasleekin eztabaida-taldeak osatzea eta garatzea.</p> <p>-Eztabaida-taldeen parte hartzeko interesa agertu duten biktimen deien eta posta elektronikoen harrera</p> <p>-Eztabaida-taldeen sarre-irabaztearen gonbidapena</p> <p>-Informazio gehigarriaren prestakuntza, balizko parte-hartzaileei eskaintzeko</p> <p>-Biktimizazio larrietako memoria-lizazioaren gaineko proiektu bateratua Belgika, Erresuma Batu eta Herbehereetako Unibertsitateekiko bileren (Herbehereak)².</p>	<p>-Eztabaida-taldeen dinamizazioaren prestakuntza eta lan-gidaren zehaztea</p> <p>-Biktimiekiko eztabaida ikastaroetan parte hartu beharreko ikasleen prestakuntza</p> <p>-Taldeen garapenerako materialen eta azpiegituraren prestakuntza</p> <p>-Harreman berriak pertsona interesdunei informazio gehigarria igortzeko eta parte hartu izanaren egiaztagiria igortzea, lanpostuan hala behar den kasuetan (taldeen helburua aipatu gabe, unibertsitate jardueran parte hartu izana baizik ez adierazirik)</p> <p>-IVAC/KREIren berezko memoria proiektu bat garatzen den argazkiaren eskuratzea eta entrega</p> <p>-Biktimiekiko eztabaida-taldeen garapena</p>	<p>-Parte-hartzaileen joan-etorrien gastuak ordaintzeko gestioak, hala behar izanez gero</p> <p>-Landa-lanean zehar jasoriko informazio guztiaren azterketa</p>	<p>-Amaierako txostenaren erredakzioa eta berrikustea, hartan zehaztu dira:</p> <p>Azterketaren aurrerakariak</p> <p>Haren emaitzak, ekimen zehatzen bilduma barne</p> <p>-Amaierako txostenaren helaraztea GBEZI</p>	<p>-Konklusioen helaraztea biktimei eta beste pertsona parte-hartzaileei eta txostenaren zabalkunde orokorra</p>

1 Iturri honetatik abiatuz (gogoan har bedi ikerketaren unibertsoa murriztu egiten dela oro har), aintzat hartu behar dira erabaki horiek ikerketaren emaitzetan izango dituen inplikazio metodologikoak eta ondorioak. Zuzendaritzak haiekin beste ekimen batzuk bururatu behar zituela-eta, biktimiekiko harreman gehiegi bideratzen ari zirelako ustea gogoan hartu eta gero, guztiz erabaki zen, sarrerarako berdintasuna eta parte-hartze handiagoa bereziki ziurtatzearen, gutuna zela harreman ez inbaditzailea bideratzeko bitarteko egokiena. 2014ko irailaren 17an igorri zen gutuna. IVAC-KREIk hala iradoki eta gero, kasu horien zerrenda berezia ez zegoelarik, harremanetan jarri zen Zuzendaritza aurrez kontaktuan egona zen zauritu batzuekin eta Zaitu, mehatxatuen elkartearekin, haiei ere parte-hartzeko aukera eskaintzearen..

2 (UPV/EHU) Euskal Herriko Unibertsitateko Instituto Vasco de Criminologia/Kriminologiaren Euskal Institutua ikerkuntza zentroen sare bateko kidea da, eta prestakuntza berritzaileko (H2010-MSCA-ITN-2015) sarean finantzazio proposamen bat aurkeztu du 2015ean Europar Batasuneko Batzordearen Marie Skłodowska-Curie Ekintzen atalaren barruan. "PRACMEM: Practices of Memorialization and the Process of Social Reconstruction after Atrocities" ("PRACMEM: Memoria praktikak eta gizarte berreraikitzearen prozesuak basakerien

5. Eskertzak

Aurren-aurrenik eskertu nahi genuke Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak eta Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak emaniko konfiantza eta, bereziki, Enrique Ullibarriarana Errastik eztabaida-taldeetan parte hartu duten pertsonetako harremanak antolatzeke eta bideratzeko eskaini digun laguntza.

Eskerrak ematen dizkiogu orobat Iñigo Lamarca, Ararteko jaunari, talde horien sarrerako bilkuran ponente gisa parte hartzeagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu konponbiderako topaketen antolatzaileei eta gure galdeketari edo elkarrizketa eskariari erantzun zieten pertsona kondenatuiei. Haien ekarriak baliotsuak oso gertatu dira gure ikerketaren helburuari begira.

Arazo honen aurrean duten ikuspegi gogoetatsua eskaini dute, bestalde, 2014-2015 ikasturteko UPV/EHUko Kriminologia graduako Biktimologia ikasle guztiek. Zehazkiago, biziki eskertu nahi genuke Nahia Puentek, Miren Perezek, Andrea Sotok, Yeray Parronek eta Osertz Escobarrek eztabaida-lanetan bideratu duten lana. Eskerrak bihoaz era berean Bakartxo Aniz Aldasororentzat, bere obrari buruz gogoeta egiteko agertu duen borondateagatik.

Proiektu hau ezin bururatuko genukeen Terese Aizpurua eta Inmaculada Iraola, IVC/KREIko administrazio langileen laguntzarik gabe, Antonio Beristain Irakaslearen oroitzapena zaindus ordainik gabeko sostengua eskaini digutelako. Izan ere, aitzindaria izan zen Antonio Beristainek IVAC/KREItik arlo honetan eskaini zigan lana, eta ongi dakigu gainera gogo onez eta gustuz hartuko zukeela eztabaida-taldeetako hausnartze saioetan parte.

Biziki eskertzen diogu, halaber, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzari biktimekiko argazkiak bere sailetan, Carlos Santamaria Zentroko patioan, egiteko eta IVAC/KREIren egoitzako trantsituan biktimak agertzen diren argazkia paratzeko baimena eman izana.

Eskertzen dugu, orobat, hainbat erakunde ikerketa proiektu honen alde aurreko hipotesiak edo emaitzak eztabaidatzeko eginiko gonbitea: hona, bada, Oñatiko Soziologia Juridikorako Nazioarteko Institutuak 2014ko maiatzean *Transitional Justice and its Public Spheres. Engagement, Legitimacy and Contestation* izenburuz antolatu zuen *workshopean* parte hartzeko gonbita; Gernika Gogoratuz elkarteak 2014ean antolatu zituen Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko XXIV. Jardunaldietan parte hartzeko gonbita; *Baleola* zentroak 2014ko abenduan, besteak beste, terrorismoaren biktimek hainbat praktika esanguratsutan bideratu beharreko parte-hartzearen gainean eztabaidatzeko antolatu zuen eztabaida-taldeko kide izateko luzaturiko gonbita. Gainera, EHUGUNEren hainbat jardueratan hartu dugu parte 2014. urtean zehar. Foru hauetan bilduriko iradokizunak, galderak eta iritzi kontrasteek aberastu egin dute, zalantzarik gabe, ikerketa lan hau.

Azkenik, oso handia da terrorismoaren biktimekiko, protagonista nagusiekiko, dugun zorra. Azken urteotan guztietan gure proiektuetan parte hartzeko eskatu diegu, jakinik haietako askok mesfidantzaz hartzen gaituztela, nekaturik, zaharturik eta eri daudela, zeregin asko edota parte hartu nahi ez izateko beste arrazoi guztiz bidezkoak dituztela. Ikerketa lan honetan parte hartu zutenen kasuan, ongi dakigu zeinen kostata hartu zuten parte, eta zinez eskertu nahi diegu ikerketa lan honi egin dioten ekarri handia, izugarria. Egiaz eta oroitzapenez zaurituriko hitzak entzun ditugu, oinaze batzuetan itxaropentsuz eta beti itaunez beteriko hitzak. Injustiziak, gizadiaren begiratu eta bizi nahi etengabearen premia betiro orotaraziko digun injustiziak, betikoz jo dituzten herritarrekin partekatu ditugu gogoetak. Eta lan mugatu hau baizik ezin diezaiekegu itzul, beste hobe batzuen esperoan geratzen garelara.

ostean") du proiektuak izena. IVAC-KREIz gainera, honako Unibertsitate eta Zentro hauetako irakasle eta ikertzaileek hartzen dute parte proiektuan: Herbehereetako Tilburg-ko Unibertsitatearen koordinaziopean: International Victimology Institute (Tilburg, Herbehereak); Tilburg School of Humanities (Herbehereak); Institute for War, Holocaust and Genocide Studies (Herbehereak); Centre for Death and Society (CDAS), Bath University (Erresuma Batua); eta Leuven Institute of Criminology (LINC) (Lovaina, Belgika).

II. Memoria eta parte-hartzea eskubide eta betebeharrak gisa: arauaren esparrutik zer, zergatik, nor/nork, nola eta noiz galderei erantzunez

1. Memoria: kontzeptu elastiko bat. Haren agertzea eta globalizazioa

Andreas Huyssen (2003), Columbiako Unibertsitateko aleman eta literatura konparatu irakaslearen arabera, 1960. urteen hamarraldian agertu ziren memoriaren gaineko diskurtsoak, eta biziki indartu 1980. urteetan. Memoriaren egungo agertze indartsuaren arrazoiak argitzen duten faktoreen artean, biktimen aurreramendu historikoaren aurrean duten agerikotasun maila handia, Holokaustotik aurrera batez ere, aipatzen du, besteak beste, Matek (2003). Era berean, ondoko epigrafean ikusiko dugun bezala, bereziki bultzatu dute giza eskubideen aldeko ekintzaileek memoria eskubide gisa, nazioarteko eta barneko araudietan, bai eta memoriaren aldeko politikak diseinatzeko betebeharrak ere, kasu batzuetan botereak bere helburu jakin batzuei begira erabil lezakeena. Ikuspegi askoz praktikoa batetik, mundu guztira zabaldu dira, lekukotzak biltzeko eta ezagutarazteko bitarteko birtualen aukera teknikoak baliatuz, memoriaren aldeko praktikak.

Cabrera dioenez (2007,177): “esan dezagun memoriaren gaiak leku garrantzitsua irabazi duela autore desberdinen –horra Maurice Halbwachs eta Alban Michel– historia, soziologia eta kultura gogoeta eta hausnarketetan, memoriaren soziologiatik abiatutako fokatzeko baten bitartez. Presente egon da, era berean, Tzvetan Todorov, Paul Ricoeur eta Elizabeth Jelin-en lanetan, memoria-oroitza ikuspegitik”. Fokatzeko hauetatik eta bidera litezkeen beste zenbaitetatik, beste kontzeptu batzuekin, hala nola historia, egia, erreparazio eta justizia, lekukotza eta narrazioarekin, lotzen da memoria.

Komenigarria da berriro ere memoria Historia ez dela ohartaraztea. Biktimen lekukotzak iturri osagarria izan litezke Historiari begira, diziplina hori gertaeren kontestualizazio ahalik eta zehatzenaren bila diharduen aldetik (Varona 2014). Pierre Vilar historiagilearen arabera: “Gogora dezagun batzuek ahantzi nahi luketenaz eta beste batzuek ahantzi ezin dutenaz egina dela Historia. Historiagilearen egitekoa da gauza bataren eta bestearen zergatia ikertzea”². Bestalde, Francesc-Marc Álvaro-ren arabera (2012), trauma baten eta, erantsi ere egingo genuke, bizirik iraute edo erresilientzia baten alaba da memoria, “... eta ezin dugu emoziotik eta gainkarga emozionaletik bereizi... Memoria ez da oroitzapenaren sinonimoa, oroitzapenaren eta ahanzturaren arteko tentsioaren emaitza baizik”. Denboran eta alde edo moldez hunkiturik edo interpelaturik biziko diren belaunaldi batzuetan barrena luzatzen den tentsioa. Julià-k adierazi duen bezala (2010, 335): “Memoria ez da gordailu bat; zera da, areago, ibai bat, korrante bat, eta haren ibilgua eta emaria aldatzen ditu denboraren emanak... Oinordetza une baten gaineko eraikuntza unea...”.

Memoria indibiduala eta kolektiboa bereizi ohi dira, bestalde. Alabaina, hainbat ikerketatan ohartarazi den bezala, kontuan hartzekoak dira memoria indibidualaren gizarte dimentsioak bezala memoria kolektiboaren dimentsio subjektiboak edo indibidualak. Maurice Halbwachs-ek formulatu zuen memoria kolektiboaren teoria, Raguer-ek adierazi bezala: haren arabera, bizi garen komunitatean zentzua duena baizik ez dugu oroitzeko (2012).

Memoria selektiboa bada, egiaekin duen loturaz galde egin genezake. Noizkoak zehatzen du egia eta memoriaren arteko aldea: biktimizazioaren ezagutza (historikoa, judiziala, edo egiarako batzordeen nahiz konponbiderako topaketan bitartez) da egia, eta haren aitortza dakar memoriak.

Biktima batzuen aburuz, auzitegiekin loturiko justizia moldeak bezain garrantzitsua da memoria. 2010. urtean biktimen elkarte nagusiek onartu zuten Inpunitateari ez Dekalogoan adierazi bezala, inpunitate sozial edo historikotzat har litezke memoria eza edo sasimemoria, norberaren erantzukizun politiko eza, gertatu denaren ahanzturan eta bestearenganako gorrotan oinarrituriko hezkuntza, eta gizarteak orria lehenbailehen pasatu nahia (Varona 2014).

Aurrerago ikusiko dugun bezala, biktimizazioari eta, modu kolektiboan edo indibidualean, erreparazio premiari hitzez zentzua emango dien kontakizuna du memoriak xede. Halatan, interes berezia dute biktimen lekukotzek, haien ahotsak, besteek ezin bizi izan dutena edo ezkutuan gelditu dena kontatu ahal izateko, biktimizazio sail batzuk betikoz gordean geldituko diren arren.

2 Hilari de Raguer-ek Manuel de Irujori buruzko Jardunaldietan aipatua, 2001eko iraila.

Galde egin genezake zer dela-eta interesatzen zaien horrenbestean kontakizuna biktimei. Beren biktimizazioaren dimentsio soziopolitiko eta inpunitate historikoaren beldurra aintzat hartzeaz gainera, biktimen narrazioak zati garrantzitsua dira delitu bat jasan ondoko lehengoratzeko prozesuetan, “zergatik niri?” galdera gertatzen denean. Horrexegatik dira garrantzitsuak biktimen kontaketa pertsonalak, jasaniko biktimizazioa bizitzan integratzeko aukera ematen dutelako, biolentziaren justifikazioak onartu gabe. Aldaketa psikosozialerako giltzarria izan daitezke narrazio horiek, baina baita galderak zehaztea guztiz garrantzitsua duen memoria baterako ere, uste izanez zientzia diziplina batzuek, hala nola Historiak eta Psikologiak, erantzunak emateko gai izango direla beharbada.

2. Memoria: eskubidea-betebeharra

Nazio Batuen egia, justizia, erreparazio eta horrelakorik ez berritzeko bermeen sustapenerako Txostengile Bereziak 2014ko amaieran Batzar Nagusiaren aurrean aurkeztu zuen txostenaren konklusio eta gomendioen artean, honako hau jaso zen:

Nazioarteko araudian guztiz aitortua da giza eskubideen urratze larriak pairatu dituzten biktimen memoriarako eskubidea. Terrorismoaren biktimen gaineko arautegi espainiarrean eta euskaldunean, zehaztuak dira eskubidea eta dagokion betebeharra, eta horietatik justifikatzen dira memoriaren aldeko politikak, autore batzuen arabera, alderdien aldetik erabili eta manipulatu egin litezkeenak, eta beste batzuen iritziz, memoriaren aniztasuna eta subjektibotasuna direla-eta, kontsentsura iritsi ezinak gerta litezkeenak. Honetan guztian, arras garrantzitsua da etikak memoriaren aldeko politiketan joka dezakeen papera (Varona 2014)³.

Bestalde, memoria eskubide gisa kontzeptualizaturik politika publikoak sustatzen diren arren, memoriarako eskubidearekin loturiko arazo konplexuak ere sortzen dira aldi berean. Eztabaida interesgarri bat zabaltzen da, orduan, memoriaren dimentsio juridikoei buruz, eta hartan ezin baztertuko dira beste diziplina batzuetatik eginiko hausnarketak. Gizarte konfrontazioen beste esfera batzuetan gertatzen den bezala, boluntarismoetatik (“eskubideak ekarriko du memoria”) eta pragmatismoetatik (“sinbolikoa baino ez da araua”) urrundu beharra dago. Honetan gaudela, argiro esan dezagun arlo honetan eginiko gogoeta zabalagoa dela esparru sozio-juridiko latino-amerikarrean⁴ espainiarrean baino, azken honetako juristak ez baitira, orain arte, memoria eskubide gisa azaldu zaleegi agertu, haren egungo begien bistako positibizazioagatik ere, positibizazio horren alderdi etiko eta/edo teknikoetan asmatu den edo ez kontuan hartu gabe.

2.1. Memoria giza eskubide gisa: funtsezko eskubidea besteen ondoan?

Memoriarako eskubidearen agertze berantarekin zer ikusia duten arrazoiak direla medio, Bigarren Mundu Gerraren ondoan, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean hain zuzen ere, ez dugu eskubide hori jasoa ikusten. Nolanahi ere, honela ekiten dio testu horrek: “Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdinean eta ukazinetan oinarritzen direla”⁵.

Beraz, duintasunaren aitortza da eskubide honen funts nagusia eta hartan oinarrituta funtsezko eskubidetzat har liteke memoria, gure ordenamendu juridiko konstituzionalak, memoria eskubide gisa aipatzen ez duen arren, jasotzen duen babes indartuaz osatua.

Brasilgo kasua adibidetzat hartu eta gero, memoria eskubide gisa kontzeptualizatzeari adierak eransteak dakartzan zailtasunez eta arriskuez ohartarazten du Dos Santos-ek (2010). Memoriarako eskubideaz hitz egiten da “etika zibiko berri baten funtsezko osagai gisa”, baina aldi berean nabarmentzen da beti izango direla “gertaerak (alderdi moraletik) onartezintzat hartuko dituen gizarte justu edo gizarte jator baten ideien ondoan begirada arauemaile komuna adosteko prest izango ez diren” sektoreak (Salvat 2008: 264-265).

3 Gesto por la Paz delakoaren arabera (2011, 1): zuzeneko nahiz zeharkako biktimen memoriak “duintasunean, justizian eta askatasunean oinarrituriko etorkizuna sortzeko aukera emango digu ... Biktima guztiak, beren berezitasunekin eta beren nortasunarekin, jaso eta onartuko dituen memoria landu behar dugu. Baina inoiz ere ez dugu GUZTIAK epigrafepean errealitateari izena ematea, eta gertatua ezagutzea eta aitortzea, saihesteko aukera emango duen inolako parekatze distorsionagarririk onartuko, inoiz ez dugu guztiz kondenagarriak diren jardueren justifikazio moralgabeak bideratu nahi izaterik onartuko”.

4 Justizia trantsizionalaren esparrutik kasu gehienetan (Barbosa 2013), baina baita beste esfera eta diziplina batzuetatik ere (Sosa y Mazzucchi Ferreira 2012). Esparru espainiarrean guztiz aipagarria da Gómez Isa-ren liburu kolektiboa (2006). Izenburuan ageri du memoriarako eskubidea, baina ikuspegi desberdinak jasotzen ditu, juridikotik harago joanez.

5 Giza eskubideen, oro har, eta memoriaren arteko lotura estuari buruz, ikus Levy eta Natan (2010).

Dos Santos-en iritziz (2010), duintasuna izango litzateke eraikuntza juridikoaren oinarriko fundamentazio etikoa, memoria demokrazian, hau da, itotzen ez duen gizarte batekiko kidesun gisa, ulertzen bada. Agerian uzten du zeinen konplexua den xede gisa biktima guztien guztizko kontakizun progresiboa duen memoria –lurpeko memoria, bere hautemate desberdinekin, ere kontuan hartua–, bukaeran iluna ere gerta daitekeen aldetik. Zalantzan jartzen du, horrenbestez, egiazen eta memoriaren artean sekuentzia linealik egotea. Eskubide gisa ulerturiko memoriak ezin mespretxatu du berez datxekion izaera politikoa, hau da, demokrazia egiaz inklusiboarekin duen lotura. Zentzu horretan, memoriarako eskubidea ezin daiteke “inoren edo ezeren kontrako eskubidea”, baizik eta “inoren edo ezeren ondoko eskubidea”, giza eskubideen zatiezintasuna eta interdependentzia babesten dituen ideiazen ildotik betiere. Memoriarako eskubidea ezin gauzatuzkoa da giza eskubideek gizatiaruriko memoriaren azken gune gisa duten balioaren inguruan kontsentsurik ez duen gizarte oinarri batean (Dos Santos 129-130), alde batera utzirik herritarren multzoa begirada kosmopolita batetik kategoriatu atzerakoitzat hartzen dutenen eta senidetasunean oinarrituriko eskubidea proposatzen dutenen arteko eztabaida (Resta 1994).

Parisko Zuzenbide Teoriako irakasle Millard-en arabera (2014, 148), memoriarako eskubideak azaltzen duen nahia “justua da moralaren aldetik, bere bizitzan, bere haragian, bere osotasunean eta bere ondasunetan ezin justifika daitezkeen jokabideak pairatu dituen ahularen, biktimaren, alde kokatzen delako. Urraturiko eskubideek berek oinarritzen dute juridikoki, eta urratze horiek ezin dira inpunitatean utzi. Eta desiragarria da, era berean, politikaren aldetik, zera azpimarratu nahi delako horrenbestez, demokraziaren eta giza eskubideen balioak balio baino gehiago direla, ongia eta gaizkia neurtzeko irizpideak hain zuzen ere. Halarik ere, jarraitzen du autoreak, kasu bakoitzean ponderatu behar da haren positibizazioa: “memoriarako eskubidea ez zaigu inposatzen gure erabaki politikoen aurrekoa balitz bezala, baizik eta memoriak eskubide baten xedea behar duela izan –politikoki– erabakitzen dugulako (guk: agintari politikook, eta halakoak gara demokrazian, nahiz gure ordezkariak edo eragile publikoak –horra epaileak– izaten diren gure ordezkariak erabakitzen dutenak)”.

2.2. Oinarria nazioarteko eta barruko arautegietan

2.2.1. Nazioarteko arautegia

Giza eskubideen nazioarteko araudi eta jurisprudenzietan, eta kontuan harturik Espainiako Konstituzioaren 10.2 artikulua arabera⁶ horiek gure barne ordenamenduan aintzat hartzekoak direla, egia, justizia, erreparazio eta horrelakorik ez berritzeko bermeetarako eskubideen parte edo osagaitzat hartzen da memoria (Cabrera 2013), giza eskubideen urratze larrien biktimei begira.

Memoriarako betebeharrak nazioarteko araudietan jaso duen tratamenduari dagokionez, honela dio Farida Shaheed, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Ordezkariaren Bulegoko kultura eskubideetarako Txostengile Bereziak 2014ko urtarilaren 23an Memoria historikoa zaintzeko prozesuak izenburuz aurkeztu zuen txostenak:

“Louis Joinet, Diskriminazioen Prebentziorako eta Gutxiengoen Babeserako Azpibatzerako Txostengile Berezi oinarri multzo bat zerrendatu zuen giza eskubideak inpunitatearen aurkako borrokaren bidez babesteko eta sustatzeko, honako lau pilare hauetara bildurik: jakiteko eskubidea, justiziarako eskubidea, erreparazioa lortzeko eskubidea, eta horrelakorik ez berritzeko bermeak (E/CN.4/Sub.2/1997/20/Rev.1). Jakiteko eskubidea ez da soil-soilik biktima indibidualek edo haien hurbileko ahaideek gertatu zena jakiteko eskubidea (egiarako eskubidea), baizik eta, era berean, “erroak historian hondoratzen dituen eskubide kolektibo bat, etorkizunean ere urratzeak berriro gertatu ahal izateko aukera guztiak erabat ekiditeko” (ibid., 17. ahap.). Honela dio 2. printzipioak: “Herri baten ondarearen parte da pairatu duen zapalkuntzaren ezagutza eta horrexegatik kontserbatu behar da, Estatuari dagokion betebeharra oroitarazteko beharreko neurriak harraraziz. Neurri horien helburua da, besteak beste, memoria kolektiboa ahanzturatik babestea, tesi errebisionisten eta ukatzaileen sorrera eragozteko”. Memoria kolektiboaren babeserako neurriak hartu beharra azpimarratu zuen Joinet jaunak: “Maila kolektiboan, erreparazio moralari begira, oroitzeko betebeharra konplizitzen laguntzen dute izaera sinbolikoko neurriak, hala nola Estatuak izan duen erantzukizunaren aitortza publiko handikiro bideratuak, biktimen duintasunaren berrezartzerako aldarrikapen ofizialek, oroitzapen ekitaldiek, bide publikoen izendatzeak, eta monumentuen eraikuntzak” (ibid., 42. ahap.). Joinet jaunaren zerrenda zabaldu zuen Diane Orentlicher, inpunitatearen aurkako borrokarako oinarri multzoa eguneratzeko lanaz arduratu zen aditu independenteak, eta

6 Honela dio artikulua: “Konstituzioak aitortzen dituen oinarriko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta Espainiak gai berberen inguruan berretsi dituen nazioarteko itun eta hitzarmen arabera interpretatuko dira”.

honela deitu zion multzoari: Giza eskubideak inpunitatearen aurkako borrokaren bidez babesteko eta sustatzeko oinarrien multzo eguneratua, memoria babesteko betebeharrak antzeko elementuak aipatuz (E/CN.4/2005/102 eta Add.1). Theo van Boven, Azpibatzerdeko Txostengile Bereziak (E/CN.4/1997/104), eta Cherif Bassiouni, Giza Eskubideen Batzordeko Txostengile Bereziak (E/CN.4/2000/62) prestatu zituzten, aurreko txostenetan definituriko oinarriez mamiturik, giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urratzeak eta nazioarteko zuzenbide gizatiarraren urratze larriak pairatu dituzten biktimek helegiteak jartzeko eta erreparazioak lortzeko eskubidearen Funtsezko oinarriak eta arauak. Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartu zituen bere 60/147 ebazpenean. Ebazpen hartan, berriro azpimarratu zuen Batzar Nagusiak memoria historikoa babesteko prozesuak erreparazioen gaineko arazo orokorren parte direla eta bereziki adierazi zuen biktimen ordaina ase ahal izateko, besteak beste, honako hauek gauzatu behar zirela, hala jakatzea bidezkoa zenean: gertaerak egiaztatu eta egia osoa ezagutarazi; biktimaren eta hari hertsiki loturiko pertsonen duintasuna, izen ona eta eskubideak berrezarriko dituen aldarrikapen ofiziala edo epaia; eginen eta gertatuena aitortza eta erantzukizunaren onarpena zehatz-mehatz aipatzen dituen desenkusa publikoa; biktimen aldeko oroitza ekitaldiak eta omenaldiak; eta giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide gizatiarraren arauetan egin eta eraginiko urratzeen erakusketa zehatza hezkuntzan eta maila guztietako material didaktikoetan.

Hala eta guztiz ere, 2014ko txosten horretan adierazi zen bezala, "Nazio Batuen baliabideek oraindik ez dute memoria historikoaren babeserako praktikak oinarri horien argitara aztertuko dituen ikerketa globalik bideratu".

2.2.2. Barne arategia

Terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea espresuki jasoa da, eskubide autonomo gisa, legeria espainiarrean eta euskaldunean (ikus ondoko taula eta lege horien estraktuak 7. eranskinean).

LEGEA	KOKAPENA	TITULARRAK	EDUKIA	BABESA
29/2011 Legea	2. Art.	B i k t i m a k (3. art.)	<p>Memoriak, gizarte espainiarrak eta haren ordeko instituzioek fanatismoa terroristaren eraginez bizitza galdu, zauri fisikoak eta psikologikoak pairatu edota beren burua askatasuna galdurik ikusi zituztenak inoiz ahantziko ez dituztela ziurtatzeko duen azkeneko berme gisa duen balioa. Horrenbestez babesten du Estatuak terrorismoaren biktimak, haien esanahi politikoari arreta berezia eginez, honako honetan zehazten baita esanahi hori: terrorismoak bere proiektu totalitario baztertzailerik inposatzeko deuseztatu nahi duen guztiaren defentsa. Biktimen esanahi politikoak beraien aitortza soziala eskatzen du ezinbestez eta funtsezko tresna da hori terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoari begira. Horrenbestez, justizia ekintza eta aldi berean tresna zibilizatzailea, balioetan hezitzailea eta, deslegitimazio sozialaren bitartez, biolentzia ideia politikoak inposatzeko erabili nahi izatea betikoz erazteko bidea da oroitza (Zioen Azalpena).</p> <p>Memoria aitortza sozial eta politiko gisa (2. art.)</p>	Sustapen eta babeserako neurriak hartzeko obligazioa (56.-63. art.)

LEGEA	KOKAPENA	TITULARRAK	EDUKIA	BABESA
4 / 2 0 0 8 Legea	8. artikulua, , 7. artikulua- rekin lotua (egiarako eskubidea) eta 5. artikulua (erreparazio- rako eskubi- dea)	Biktimak (2. art.) eta gizartea (8. art.)	<p><i>adierazten dugu giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoaren ondorioz sortzen diren biktimen eskubideek hiru oinarritzko euskarri dituztela, hau da: egia ezagutzeko eskubidea, justiziarako eskubidea eta erreparaziorako eskubidea. Gure kasuan ere oinarritzotzat jotzen dugu memoriarako eskubidea gehitzea, biktimen esanahi politikoari berebiziko garrantzia ematearekin batera ... Memoriarako eskubidea, 8. artikuluan jasotakoa. Egiak gertakariak ezagutzea esan nahi badu; memoriak, berriz, gizarteak gertakari horiek aitortzea esan nahi du. Jendaurrean eta ofizialki aitortzea errugabe bati eragindako sufrimendua eta biktima izateagatik duen esanahi politikoa. Terrorismoaren biktimek pairatutako bidegabekeriaren eta sufrimenduen memoria, erailketena, bahiketena, estorsioena edo mehatxuena. Memoria, lehenik, absenteena, eraildakoena, baina baita bizirik irtendakoena, zaurituena, bahitutakoena, estorsionatutakoena, mehatxatutakoena eta haien guztien familiakoena eta lagunena. Memoria gizartearen eta terrorismoaren biktimen topaleku gisa. Elkarrekiko memoria, gizarte libre eta gehitzailea eraikitzeke, biolentziaren ezbeharra berriro egon dadin saihesteko, ezer gertatu izan ez balitz bezala bukatu dadin ez onartzeko. Eta memoria, azken batean, exijitzeko terroristek ez dezatela gizartearen etorkizuna baldintzatzea lortu, etorkizun horretako gizartearen bazterketak eta askatasun faltak ez baitu lekurik izan behar. Alde horretatik, memoria terrorismoaren deslegitimizazio etiko, sozial eta politikorako funtsezko elementua da. Eta memoriaren funtsezko alderdia da terrorismoaren biktimen esanahi politikoa, izan ere, ekintza terroristak egiten dituztenek motibazio politikoak bultzatuta jarduten dute. Esanahi politiko horren baitan ETak bere proiektu totalitarioa eta baztertzalea inposatze aldera suntsitu nahi zuen eta suntsitu nahi duena dago: askatasuna, gure eskubideen eta askatasunen bermatzaile den Zuzenbide Estatu demokratikoan eta elkarbizitza barneratzailearen arauetan gauzatzen dena.</i></p> <p><i>Zeren eta biktimen esanahi politikoak gainditu egiten baitu biktima izatea bera. Biktima izatea ez da bilatu den zerbait, biktimek ez zuten beren bizia eman, kendu egin zieten bizia. ETak berak, bere proiektu totalitario eta baztertzalea inposatu nahian, ematen die biktimei haien esanahi politikoa, desagerraraztean bizitzeko eskubidea ez ezik herritarrak izateko eskubidea ere ukatzen baitie (Zioen azalpena).</i></p>	<p>-“Gehienbat izaera programatikoa duten eskubide hauek jasotzailearen arabera antolatu dira legean, eta eskubide bakoitzarekin batera jarduera jakin batzuk adierazi dira kasuan kasuko eskubidea zehazten dutenak” (Zioen Azalpena).</p> <p>-Eusko Jaur-laritzaren aldetik ekintzak bultzatzeko obligazioa (27. art.) 27).</p> <p>-Ikus era berean Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua- ren jarduera arautzen duen azaroaren 27ko 4/2014 Legearen 3. eta 4. artikulua</p>

2.3. Eskubide mota, hartatik datozen obligazioen arabera

Nazio Batuen kultura eskubideetarako Txostengile Bereziak 2014ean aurkeztu zuen txosten dagoeneko aipatuan, “memoriaren babeserako printzipioan oinarrituriko gomendio batzuk formulatzen dira ... giza eskubideen urratzeen biktimek beren kontaketa artikulatu ahal izateko guneak eskaintzen dituen prozesu gisa ulertu beharra dago. Esparru horretako praktikek konpromiso zibikoa, pentsamolde kritikoa, eta iraganaren aurkezpenari eta bazterketak eta biolentziak egungo gizartearen planteatzen dituzten erronkei buruzko eztabaida akuilatu eta sustatu behar dituzte”. Honetan interesgarria da memoriarako eskubidea kultura eskubidetzat hartzen dela, horixe baita Txostengile Bereziaren eskuko arloa⁷.

Eskubideen teorian, araudietan jaso diren kronologia dela-eta, alde batetik eskubide zibilak eta politikoak, Estatuak eskua sartu ezin duen eskubide direlarik, eta bestetik eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak, Estatuaren prestazioetarako eskubide direlarik⁸, bereizten diren arren, guztiz lausotu egingo lirake bereizkuntza horren marrak, Estatuak eskubide ororen aurrean dituen betebeharren gaineko kontzepzio zabal baten arabera.

7 Txostenaren estraktu gehiago ikus bitez 7. eranskinean.

8 Alexy-k hiru multzotan banatu ditu prestazio eskubideak: 1) babeserako eskubideak; 2) antolamendu eta jardunerako eskubideak (edo jardunerako eskubideak, besterik gabe), eta 3) prestazioetarako eskubideak, zentzu zehatzean hartuta (Bernal Pulido 2007). Oinarritzko eskubiderako arau gisa, hobekuntzarako oinarria edo agindua izango litzateke memoria, araua baino areago, hark ez bezala, beharreko eragina baitu arauak errealitatean eta maila juridikoan gerta daitezkeen esparruetan jarduteko.

Nazio Batuen giza eskubideetarako Goi Ordezkararen Bulegoaren arabera: “Giza eskubideek eskubideak eta betebeharrak hartzen ditu aintzat. Estatuak beren gain hartzen dituzte, nazioarteko zuzenbidearen aginduz, giza eskubideak errespetatzeko, babesteko eta gauatzeko obligazioak eta betebeharrak. Errespetatzeko obligazioaren arabera, Estatuak kontu handiz begiratu behar dituzte giza eskubideak, haien gozatzea galarazi edo mugatu gabe. Babesteko obligazioaren arabera, norbanakoen eta taldeen giza eskubideen aurkako urratzeak eta abusuak eragotzi behar dituzte Estatuak. Gauatzeko obligazioaren arabera, beharreko neurri positiboak hartuko dituzte Estatuak oinarrizko giza eskubideen gozatzea errazteko. Norbanakoen planoan, gure giza eskubideak errespetarazi behar ditugun moduan, besteen giza eskubideak ere errespetatu behar ditugu geuk⁹.”

Gogoan hartzen badugu memoriarako eskubidea euskal testuinguruan, bere mugekin gainerako eskubideak bezala, memoria-praktika pribatuen aurrean Estatuaren abstentzioa eskatzen duen eskubide baten giza eta, era berean, beste norbanako edo talde batzuen eraso (terrorismoa goratzeagatik edo biktimak umiliatzeagatik eginiko delituak esate baterako) eragotziko duen babes publiko gisa, eta memoria gauzatu ahal izateko beharreko baldintzak erraztuko dituen ekimen gisa (memoriarako politika parte-hartzailea edo memoria hori onez hartuko duten testuingurua bultzatuz, adibidez) azaltzen zaigu haren adierazpena.

2.4. Edukia eta helmena

Memoriarako eskubidea ezin iraungizkoa dela adierazi dute autore batzuek (Cabrera 2013, 175). Memoriarako eskubidearen eskutik letorke lekukotzarako eskubidea, eta norberak aukeratu ahal izango litzuke, une bakoitzean, lekukotza hura zentzuz hornituko luketen moduak, baina entzuna izateko eskubidea ere ekarriko luke, eta entzuna izateko testuinguruak sortzeko betebeharra azalduko litzateke orduan (Whelan 2005, 11). Bestalde, babesa ere zaindu beharko litzateke beste pertsonen adierazteko eta agertzeko eskubideetan gertaturiko gehiegikerien aurrean, eta oso kontuzko arazoa izaten da hori tolerantzia maila handiek definitzen dituzten gizarte demokratikoetan.

Bere buruari galdetu dio Huyssen-ek (d. g.) “zer neurritaraino subjektibitateetan bideratzen den fokatzeko hori ez ote den, bidezkoa izan arren, oraineko eskubideen gaineko diskurtsoaren dimentsio politikoak eta etorkizunerako daukan inplikazioak bistatik galtzeko arriskuan gertatuko (Sarlo 2005). Tradizio postestrukturalistetan eta psikoanalitikoetan¹⁰ trauma handiagotzeko den joeraren aldean, objektzio honek halako indarra hartzen badu ere, argiro esango nuke nik eskubideen urratzeen memoria indibidualen indarrean ezartzen den enfasi hori bera dela giza eskubideen diskurtsoa abstrakzioerantz eta ahistorizitateerantz bizkorregi lerratzeko arriskutik libre utz lezakeen faktorea. Baldintza sistemikoen eta historia sakonen argitan irakurritako eskubide urratze kasu zehatzek babestu behar dute giza eta kultura eskubideen gaineko diskurtsoa, eta gure irudipena Susan Sontag-ek besteen mina (2003) deitu zuena, eta tragedia greziar klasikoak aurreneko aldiz artikulatu zuena (Antigona, ez hildakoekiko erantzukizunei buruzko antzezlan gisa, baizik eta bizirik iraun dutenen eskubideen gaineko antzezlan gisa) ezagutzeko gauza bilakatuko duten artelanen babesa ere jaso dezake”.

Huyssen-ek adierazi duenez (d. g.), ez du zentzu handirik memoriarako eskubide “juridikoki eskatzaile batek, adierazpen askatasunerako eskubidea ere badelako”, inoiz ere ez baitu Estatuak memoria pribatua saihestu ahal izango. Puntu honetan, ahantzi egiten du Huyssen-ek memoria espazio publikoan agertzea dela biktima askok nahi dutena.

Beste alde batetik, memoriarako eskubidea kultura eskubideen sailean sartzeko aukera aztertu du Huyssen-ek, eta zera ohartarazi du: “Eskubideen teoriarariei jarraiki, horra Seyle Benhabib (2004), aurren-aurren arbuia nahi nuke kultura eskubideak eskubide indibidualetatik bereiz litezkeelako ideia”. Eskubide indibidualak gizarte eta kultura eraikuntza dira berez, eta gizartean gauzatzen dira; bestalde, eskubide indibidualak aintzat hartzen ez dituen kultura aipamen oro dira homogeneizatzaileak eta baztertzatzaileak, aipaturiko autoreak erabiltzen dituen adjektiboak biak ere.

2.5. Eskubidearen titulartasuna eta izaera subjektiboa

Terrorismoaren biktimen arloko araudi espainiarrera eta euskaldunera joko dugu, gai hauetara hurbildu ahal izateko. Halatan, nagusiki hartuko ditugu aintzat Estatuko 29/2011 Legea, irailaren 22koa, Terrorismoaren Biktimen Aitorza eta Babesa arautzen dituen, eta Euskadiko 4/2008 Legea, ekainaren 19koa, terrorismoaren biktimen aitorpena eta erreparazioa arautzen dituen.

9 Ikus <http://www.ohchr.org/SP/Issues/Pages/WhatareHumanRights.aspx>.

10 Autore batzuek galdetu dute zein neurritan justizia konponarazleak ulertu eta aintzat hartu behar duen trauma kontzeptua, biktimaren patologia bat, biktima funtsean besteak ez bezalakoa balitz bezala, sortzera edo iraunaraztera iritsi gabe (Randall eta Haskell 2013).

Aurren-aurrenik eztabaida genezake memoriarako eskubidea indibiduala edo kolektiboa den. Euskal legearen arabera, eskubide indibiduala, biktima bakoitzarena, da memoriarako eskubidea, baina kolektiboa (gizartearena) aldi berean. Bigarren aspektuan barneratu gabe, izaeraz programatikoagoa den aldetik, zera da galdera: biktimak nor diren dugu egin beharreko galdera. Legea titularrak, jasotzaileak eta/edo onuradunak¹¹ aipatzen dituelarik erabiltzen ari den kontzeptura jo beharko dugu horretarako.

Araudi espainiarrean bereizi egiten dira jasotzaile orokorrak (29/2011 Legearen 3. art.)¹² eta legeak arautzen dituen eskubide eta prestazioen titularrak (art.4), eta mugatze batzuk bideratzen dira haren 14. artikuluan. 5. artikulua “arreta bereziko objektutzat” hartzen ditu mehatxaturiko pertsonak¹³.

Euskal 4/2008 legearen 2. artikuluan honela adierazten da hitzez hitz, beraren aplikazio eremuari buruz: “Lege honetan aitortutako eskubideak eta prestazioak ekintza terroristetako biktima zuzenentzat eta haien familiakoentzat edo hurbilekoentzat dira, kasu bakoitzerako adierazten den moduan”.

Azken batean, badirudi lege espainiarrak eta euskaldunak erreparazio materialari dagozkion eskubideetan, eta ez horrenbestean erreparazio sinbolikoaren arloan, xedatzen dituztela mugatze eta lehentasun horiek eta, beraz, ezerk ez du, zeharkako biktimizazioari dagokionez, biktimen memoriarako ekitaldi publikoen garapena galarazten, instituzioek familia desberdinekin harreman gehiago edo gutxiago edukiko duketen arren¹⁴.

Halatan, hasieran behinik behin, biktimaren definizio zabal bat hartu behar dugu aintzat, zeharkakoak modu malguagoan hartuz, familia beraren barruko iritzi desberdinak aintzat hartuz, eta memoriaren izaera subjektiboa eta aldakorra gogoan edukiz. Egoera honen konplexutasunak, esan gabe doa, biktimen praktika bezala baldintzatzen ditu haien itxaropenak, batez ere instituzioen eta, hauek aintzat hartzen ez badituzte, auzitegien edo kontrolerako beste bitartekoen aurrean eskubide horien galdea egitea erabakitzen badute.

2.6. Babesa

Auzitan dago, bestalde, terrorismoaren biktimen memoriarako eskubidea zein instituziok eta nola babestu behar duen zehaztea. Printzipioz behinik behin, beren jarduera esparru eta eskuduntzen arabera terrorismoaren biktimekin harremanetan diren instituzio publiko guztien betebeharra da memoriaren babesa eta haren gauzatzea erraztea eta bideratzea: gobernu erakundeena, erakunde legegileena –lurralde maila desberdinetan–, erakunde judizialena, eta abarrena.

Ondoko ahapaldietan mintzatuko gara auzitegien babesaz, alderatu den esparru latino-amerikarrean sorturiko kasuistikaz bereziki.

2.7. Bigarren biktimizazioa, Zuzenbide sinbolikoaren erabileraren poderioz sortua

Terrorismoaren biktimen egungo eskubideei dagokienez, bereziki azpimarratu da honako hau: “Eskubideen katalogoa oso zabala eta, terminologia oso generiko batez formulatua izaki, hein batean ambigua delarik,

11 Autore batzuek plano filosofikoan, soziologikoan edo antropologikoan horrela adierazi badute ere, zaila da dimentsio juridikoan “hildakoen eskubide” bat izatea, hau da, titularrak hildako pertsonak izatea.

12 Artikulu honetan definitzen da terrorismotzat hartzen dena. “3. Artikulua. Jasotzaileak (cfr. euskal 4/2008 legearen 2. art.). Lege hau terrorismoaren ekina pairatu edo pairatuko duten pertsonen aplikatuko zaie. Ekintza terrorista da xede edo helburutzat ordena konstituzionala gainazpikatzea edo bake publikoa larriki aldaraztea duten erakunde edo talde kriminaletako pertsona batek edo gehiagok bururaturiko jarduera.

Aplikatu ere egingo zaie aurreko ahapaldian aipaturiko helburuetara zuzenduriko ekintzen biktimei, ekintza horien erantzuleak erakunde edo talde kriminal horietako kideak ez badira ere.

3. bis Artikulua. Legeak aurreikusitako laguntza eta prestazioak aitortuak izateko baldintzak. (ekainaren 29ko 2/2012 Legeak erantsia eta abenduaren 27ko 17/2012 Legeak aldatua).

1. Lege honetan arauturiko laguntza eta prestazioen jasotzaileak izango dira honako bi baldintza hauetako bat betetzen duten pertsonak:

2. Lege honetan arauturiko laguntza eta prestazioen kontzesioa bortxazko delituen biktimen kalte-ordainen gaineko Hitzarmen Europa-rraen zehazturiko printzipioen arabera bideratu eta gauzatuko da.

Polemikagai bilakatu da azken klausula horren interpretazioa, hartan oinarriturik biktimatzat hartuak izateko aukerarik gabe utzi baitira erakunde terroristekin ustez harremanetan zeudekeen pertsona batzuk, harreman horien izatea salatuko lukeen kondena epairik ez dagoen arren.

13 Ikus halaber 671/2013 Errege Dekretua, laguntza, ordaintze, kalte-ordain eta kondekorazioen jasotzaileak aipatzen dituen (3. art. eta, mehatxatuei buruz, 5. art.), eta titularrak 6. eta ondoko artikuluetan gogoan hartzen dituen.

14 Gutxi badira ere, familia edo ahaide batzuek ez dute instituzioekin harremanik eduki nahi izan eta espresuki eskatu dute informazioarik ez bidaltzea edo euren datuak fitxategietatik ateratzea edo ezabatzea.

itxaropen faltsuak sorraraz litzake biktimengan. Zera lortu nahi da, eskubideak eraginkor bihurtu, haien edukia argiro azaldu eta kontzeptu horien helmena zehaztu, formulazioan erretoriko xamarrek gerta daitezkeelako” (adituen erantzuna “Praktika onen gida” ikerketa lanean, IVAC-KREI 2015).

Eskubide bat aitortzen duen unean berean, ondorio juridikoak sorrarazten hasten da legea, formalki bederen, eta ondorio horiek itxaropen bilakatzen dira haien titular edo onuradunengan, haien desirekin beti bat ez datozen arren, edo bati egingarriak ez diren arren.

Zuzenbide sustatzaile deituari dagokionez, honela adierazi du Villak (2013): “... positibismo sendatzaile batez beterik, gobernuek (eta gurea, partikulari, paradigmaticoa da zentzu horretan) uste dute arazoak zuzenean konpontzen direla Zuzenbidearen bitartez, beste osagai, baldintzatzaile edo bulkarik gabe. Egungo legegileak uste bide du bere egitekoa arazoak topatzea dela eta, topatuz gero, arazoa araudi juridikoaren hitzen ekinari eskerrak, bat-bateko modu miragarrian bezain burbuilatsuan, desagerraraziko duen araua prestatzea (hobe, haren hierarkiak gorago joko dukeen eta haren izen ofiziala arranditsuagoa datekeen heinean). Ezin konta ahala dira adibideak eta ez da askotan jakiten legea arazoa konpontzera edo sortzera etorria den”.

Gogoeta hauek ez dute memoriarako betebeharra ukatu nahi, memoriarako eskubidea positibizatzen den modua zalantzan jarri baizik. *Memoriarako* eskubidea, esan gabe doa (Taubira 2006), ezin uler daiteke *memoriaren* eskubidea edo memoriaren betebeharra gabe (De Greiff 2005; Ferenczy 2002)¹⁵. Horretan datza, nolabait, aurrenekoaren mugak. Biktimek ongi ulertu behar dute eskubide hori ez dutela berek bakarrik eraiki, eta ez dela haientzat bakarrik sortu. Protagonista nagusiak izan behar badute ere, beste gizarte eragile batzuekin hartzen dute parte eta, beraz, inoiz ez da berek kasu bakoitzean zehatz-mehatz nahi luketen bezala. Halatan, memoria eraikitzeko beste bitarteko informal batzuk, nagusi edo osagarri gisa jardungo dutenak, dira beharrezkoak. Zentzu horretan interesgarria da memoriari pluralismo arauemailearen gaineko ikerketen ikuspegitik heltzea, Antropologiaren eta, bereziki, errituei, identitateari eta espazioari buruz bideratu dituen azterketen ekarrietatik bereziki.

Aurrekari gisa aipa genezake Memoria Historikoaren Lege deituaren inguruko eztabaida juridikoa. 2007ko urriaren 31n onartu zen Lege horren bidez aitortu eta zabaldu ziren eskubideak eta hartu ziren neurriak Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpenera edo biolentzia pairatu zituztenen alde.

“Memoriarako eskubidearen” hitzezko erreferentzia bat baizik ez dago hartan, Zioen Azalpeneko azken aurreko ahapaldian hain zuzen ere: “... legegilearen betebeharra da, eta legearen egitekoa, biktimak erreparatzea, memoria pertsonal eta familiarerako eskubidea, herritartasun demokratiko osoaren adierazpen gisa, arauetatik ahalik eta indartsuen babestea eta prestigiatzea, konstituzioaren balioak sustatzea eta gure iraganari buruzko ezagutza eta haren gaineko gogoeta bultzatzea, orduan bizi izan ziren intolerantzia eta giza eskubideen urratze egoerak berriro gerta ez daitezen”. Legearen helburu nagusietako bat memoriaren berreskuratzea dela azpimarratzen da legearen beraren 1. artikuluan.

Era berean, modu tangenzialean, eskubidea dela zehazki adierazi gabe, bi aldiz aipatzen da memoria pertsonal eta familiarren berreskuratzea azaroaren 3ko 1791/2008 Errege Dekretuan. Gerra Zibilean eta Diktaduran jazarpenera edo biolentzia pairatu zutenen erreparazio eta aitortza pertsonalaren aldarrikapena egiten da dekretu horretan.

Besteak beste, biktimentzako eguzkiranzko topa egite bat baizik izan ez delako kritika egin zaio lege polemiko honi. Alabaina, legearen irizpideen arabera biktimak dira biktimak eta ez besterik, eta honako eskubide hauek jaso ditu haiei begira (eduki lausokoak edo mugatukoak, birtualitate praktikorik gabekoak ia-ia, dira gehienak): biktima eta ahaideen erreparazio moralak, memoria familiar eta pertsonalaren aitortza; biktimizazioa bidegabekeriak hartzen duen aldarrikapena; ondare eta kalte-ordainen arloko eskubideak; eta jakiteko eskubidea (Saucá 2008, 90).

Memoriarako eskubidea memoriaren eskubidearen aurka

Bi ikuspegi desberdinetatik –positibismoa eta etika– eta bi diziplina desberdinetatik –Zuzenbidearen Teoria eta Literatura– hurrenez hurrez abiatuak, antzeko konklusioetara iritsi ziren Millard eta Huyssen: zalantzan jarri zuten *memoriarako* eskubidea eta baietsi *memoriaren* eskubidea, bataren eta bestearen edukia ulertzeko bidean interpretazio desberdinak gerta litezkeen arren.

Millard-en aburuz, memoriarako eskubidearen kontrakoa da amnistiarako eskubidea, eta subjektibotzat ditu eskubide biak, biktima da aurrenekoaren titularra eta biktima-eragilea bigarrenarena. Halaz ere, hau modu bakarrean baizik ezin da ulertu, zeren, eskubidearen edukia buruzko gogoetari ekin orduko, ikerketa, auzitegiratze, eginen kondena eta erreparazio ekonomikora mugatzen baitu guztia Millard-ek. Hau da,

¹⁵ Zientzia literaturatik, gizartearen betebehara etiko gisa tratatu da gehien bat, eta ez horrenbestean instituzio publikoen betebehara juridiko gisa.

egia, erreparazio eta, bereziki, justiziarako (autore honen iritziz, ordaintzailea da beti justizia) eskubideekin nahasten du memoriarako eskubidea. Teorian eta praktikan, eskubide horiek guztiak elkar lotuak diren arren, guztiz bereizi egin behar dira zientzia eta gizarte eztabaidan, irtenbide koherenteak eskainiko dituzten arazoibide eta proposamenetara iritsiko bagara.

Bat gatz Millard-ekin Zuzenbideak (bere administrazio adarrean batez ere, kontuan harturik erakunde publikoen betebeharreri dagokien guztia) mekanismo bakarra ez duela izan behar dioenean, argi erakusten baitu errealitateak ez dela biktimek memoriarako duten bidezko nahikundea babesteko egokiena. Modu ideal batean, Zuzenbidetik kanpoko mekanismo eta eragileen bidez bultzatu eta gauzatu beharko litzateke nagusiki memoriaren eraikuntza. Bitarteko eta eragile horiek sozializazioaren edo gizarte kohesio demokratikoa ziurtatu behar duten kontrol sozial eraginkorren esparruan kokatzen dira usuenik. Hona hemen ondoko galdera: eta leku edo sektore batzuetan ez badago borondaterik edo ez badago bitartekorik ez eragilerik edo, badaude, aski ez badira?

Bestalde, ikuspegi pragmatiko batez agertzen da Millard justizia trantsizionalaren esparruaren barruan:

“Etorkizunerako pragmatismoak, horrelakorik ez berritzeko baldintzak, iraganeko gertaeren zigor juridikorako aldarrikapenak mendeen hartuko ditu beharbada orduan ... Garestia da prezioa, injustua ere; biktima bera deitua da zati bat ordaintzera, eta zati hori biktima-eragileak ordainduko duena baino garestiagoa da simbolikoki. Baina, demokraziaren balioen eta aldezen ari garen gizakiaren eskubideen begirunearen izenean, horrelakorik egiten ez badugu, ez gara gatazkatik modu iraunkorrean aterako ... Zera da kontua, baldintza batzuk bete direnean, urratze horiei modu iraunkorrean amaiera ematea beste kontsiderazio batzuk baino helburu garrantzitsuagoa delako ikuspegi pragmatikotik onartzea. Ez dira, horratik, baldintza guztiak onartu behar: horietako batzuk justifikaezinak izan daitezke demokraziaren eta giza eskubideen balioen ikuspegitik. Ene ustetan, negoziæezinak dira, bereziki, biktimei berreraikitzeo bidea eskainiko dien konpentsazioa, gizartearen gaitzespena eta etorkizunean berriro gerta litezkeen urratzen aurreko babesa” (2014, 154).

Autorearen arabera, egia historikoaren bilaketa zientifikoaz eta gertatuen berritzea zailduko duten heziketa, kultura eta sinbologia politiken bitartez osatu behar da hori guztia. Nolanahi ere, zabalik utzi beharko da betiere etorkizunean Zuzenbidetik memoriaren eraikuntzaren berrikusteetarako bidea.

Ikuspegi arauemaile batetik hurbildu da Uprimny gai honetara (2012), testuinguru kolonbiarra¹⁶ eta Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarraren jurisprudentzia (memiariako eskubideari eta beronek erreparazioarekin eta biolentzia ez berritzeko bermekin dituen harremani buruzkoa) gogoan eduki ondoren. Uprimny-k erakutsi bezala, asetze edo erreparazio integralaren barruko osagarri gisa, eta bere dimentsio indibidual eta kolektiboetan¹⁷, jasotzen du lege kolonbiarrak memoriarako eskubidea. Hala eta guztiz ere, ez da ondoren haren edukia garatu eta, beraz, ez da bermatzen, aurreneko dimentsioan batez ere. Giltzarria da dimentsio indibiduala, boterearen manipulazioak saihesteko eta memoriaren inguruko neurri osagarriaren premia azpimarratzeko. Legeak Estatuari memoriari begira agintzen dion betebeharra ere kritikatzan du Uprimny-k, biktimen ikuspegia¹⁸ aintzat behar bezala ez hartzeagatik, auzitegira jotzea beste erremediorik ez baitute¹⁹.

16 2011ko 1448. Legea, barne gatazka armatuaren biktimen arreta, laguntza eta erreparazio osorako neurriak eta beste xedapen batzuk zehazten dituena (Biktimen Legea gisa ezaguna). 2011ko ekainaren 10ean onartu zuen Kolonbiako Errepublikako Kongresuak.

17 Uprimny-k adierazi duen bezala (2012): “142. artikuluan zehaztu den bezala, urteroko apirilaren 9an ospatuko du Estatu kolonbiarrak Biktimen Memoriaren eta haiekiko Elkartasunaren Eguna, herritar kolonbiarrak biktimizatu dituzten gertaeren oroitzapen eta aitortzarako ekitaldien bitartez. Era berean, Errepublikako Kongresua osoko bilkuran batzartuko da egun horretan biktimei saio iraunkorrek jardunaldian entzuteko, erreparaziorako neurri gisa eta biktimek pairatu duten mina eta isilean seguruenik eman behar izango zituzketen urteak erreparatzen laguntzeko. Bestalde, barkamen, amnistia, inhibizio auto, ikerketaren iraungitze edo, 1991n, prozedura bertan behera uzteko neurrien onuradun gertatu direnak biktimen asetzera eta erreparazio sinbolikorako obligatuak diren neurriekin loturiko xedapenak zehazten ditu 196. artikulua. Obligatuak dira pertsona horiek beren biktimen memoria goratzera, Legeak biktimen asetzera eta erreparazio sinbolikorako aurrekusi dituzten neurrien bitartez”.

18 2011ko Lege kolonbiarrak memoriarako betebeharraren inguruan egiten dituen zehaztapenei dagokienez, zera adierazi du Uprimny-k, Biktimen Legeak memoriarako betebeharraren funtsa dela “beharreko bermeak eta baldintzak eskaintzea gizarteak bere adierazpenen bitartez, hau da, biktimen, akademiaren, pentsamendu zentroen, gizarte erakundeen, biktimen eta giza eskubideetarako elkarteen, eta gaitasuna, autonomia eta baliabideak dituzten Estatu erakundeen bitartez, memoriaren berreraikuntzarako egitekoetan aurrera egin dezan, biktimak eta, oro har, gizarte titularak diren egjarako eskubidea gauza ahal izan dadin”. Honela zehaztu da artikulua bereko paragrafoan: “Estatuko instituzioek inoiz ez dituzte aniztasun, parte-hartze eta elkartasunerako oinarri konstituzionalak eta adierazpen eta pentsamendu askerako eskubideak ukatu, kolpatu edo murriztuko dituen historia edo egia ofizial baten eraikuntzarako orientaturiko ariketak bultzatuko edo sustatuko”.

19 Zentzu horretan, ikus bitez Alexy-ren oinarritzko eskubideen teoriari, printzipio moralek askotariko gizarte baten esanahi objektiborik ezin eduki lezaketela eta, horren ondorioz, epaileak haien edukia objektiboki ezin ezagutu duela argudiatuz, eginiko kritikak (Bernal Pulido 2007). Beraz, ondorio negatiboak ekar litzake memoriaren judizializazioak.

Zentzu horretan, honako ohar hau egin du, herri latino-amerikarren egoera gogoan duela: “Argi asko zehaztu zuen Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarrak alde hori Anzualdo Castro Peruren aurka²⁰ kasuan. Aintzat hartu zuen iritziaren arabera, Memoriaren Museoaren eraikuntza memoria historikoaren eraikuntzari begira eta horrelakorik ez berritzeko neurri gisa esanguratsua zen arren, ez zen aski asetze neurri indibidual gisa eta memoria indibidualerako neurriak agindu zituen horrenbestez” (Uprimny 2012).

Bideragarria izan liteke, halaber, interpretazio hau Kolonbiako kasuan (Uprimny 2012, 139-141):

Ezin dugu ulertu Kolonbiako gatazkaren halako Memoria Zentroa badelako biktima bat sinbolikoki erreparatua izatea. Botere judizialera jo beharko dute orduan biktimek, auzitegiek eta epaileek, kasuz kasu, memoriarako eskubidea bermatuko duen erreparazio sinbolikorako neurriak xeda ditzaten. Bestalde, Biktimen Legean ez da beste bigarren betekizun bat konplitzen, memoriarako eskubidea erreparaziorako eskubide indibidualtzat hartzen ez den heinean, hau da, ez dira biktimak erreparaziorako eskubidearen lehen titular pribilegiatutzat hartzen... Zera esan nahi du horrek, Legean zehazturiko neurriak memoriarako eskubidearen dimentsio kolektiboaz mintzo direla (memoria historikoa), herritar guztien eskubidea dela aitortuz, baina ahanzi egiten dutela biktimen memoria indibidualaren premia²¹.

Auzitegi Interamerikarraren jurisprudentziaren balioari buruz, honela dio Cabrerak (2013, 178-179):

“berariaz zehaztu eta kotsakratu ez delarik, kasuistikaren arabera garatu behar izan du hein handian memoriarako eskubidea Giza Eskubideen babeserako lurralde eta unibertso mailako sistemak osatzen dituzten organo eta erakundeen jurisprudentziak. Esparru latino-amerikarrean, Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarraren jurisprudentziari eta Giza Eskubideen babeserako sistema unibertsalaren arauak eskerrak garatu ahal izan da. Bere jurisprudentziaren bitartez, neurri guztiz garrantzitsu gisa garatu du Auzitegi Interamerikarrak memoriarako eskubidea, biktimen erreparazio egoki baterako bidea zabalduz. Biktimen eskubideak urratu direla-eta Estatuak haien erreparaziorako betebeharrak dutela xedatu zuen, adibidez, Velásquez Rodríguez²² kasuan, eta horrenbestez hasi zen erreparaziorako beste neurri batzuk aitortzen, Aloeboetoe eta beste Surinamen aurka²³ kasuan esate baterako, nazioarteko auzitegiek ordura arte garatu zuten diruzko kontzepzio ekonomikoa gaindituz.

Benavides Ceballos Ekuadorren aurka kasuan²⁴, Estatuak eta ahaideek iritsi zuten akordioa onartu zuelarik, une hartatik aurrera ekin zion Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarrak Estatuaren memorien begirunera behartzen zuten erreparazio neurriak xedatzeari. Aipaturiko akordio hartan, besteak beste, bere gain hartu zuen Estatuak Consuelo Benavides Cevallos andereñoaren izena kale, plaza eta eskoletan betiereko bihurtzeko konpromisoa, gurasoek eginiko eskaria onartu ondoan. Era berean, beste funtsezko aurrerapen bat egin zuen Auzitegiak Villagrán Morales eta beste Guatemalaren aurka kasuan, honako burubide hau onartzerakoan: “ikastetxe bati biktimen izena emateko eginiko eskaerari dagokionez, Estatuari agintzen dio Auzitegiak ikastetxe bat kasu honetako biktima gazteen izenez deitzea (...) Lagunduko du neurri horrek kontzientziak pizten, kasu honetan gertaturiko ekintza kaltegarriak betikoz saihesteko eta biktimen memoria bizirik iraunarazteko”. Horrenbestez zehaztu ziren, epaileen bitartez, memoriarako politikak bete litzakeen funtzioak: gertaeren berritzea eragozteak (horrelakorik ez berritzeko bermeak), kontzientzia kolektiboa iratzarritik, neurriak espazio publikoan eragina izango duen aldetik, eta biktimen memoria babestea.

Erabaki hauetatik aurrera memoriarako eskubidearen arloan perfiatuz joango zen garapenak antza zuen urte batzuk lehenago, Joinet-en printzipioen arabera, aintzat hartu zenarena, dimentsio kolektiboan planteatu baitzen memoriarako betebeharrak, Estatuak berezko duen eginkizun bat betetzeko, eta horien artekoa dugu hezkuntza, dituen jabari publikoko ondasunen erabilera xedatu zen aldetik. Eskubideak jurisprudentzia bitartez egin zuen aurrera, beste kasu hauek ere argiro erakusten diguten bezala: horra, bada, Myrna Mack Chang, Molina Thiessen, Hermanos Gómez Paquiyauri, Plan de Sánchez-ko Sarraskia eta hemeretzi merkatarien kasuak²⁵.

Bestalde, honako hau adierazten da, Peruko testuingurua ahotan harturik, Nazio Batuen kultura eskubideetarako Txostengile Bereziak 2014ean memorializazioari buruz aurkeztu zuen txosteneko 51. atalean:

“Paradigmatikoa da honi guztiari dagokionez, Limako “El Ojo que llora” monumentuaren inguruan sortu zen eztabaida (barne gatazka armatuaren biktimen izenak jaso ziren monumentu hartan). Kartzelako

20 Anzualdo Castro Peruren aurka kasua. Excepción Preliminar, Fondo, Reparaciones y Costas. 2009ko irailaren 22ko epaia. Serie C No. 202.

21 1985etik aurreko biktimen oso definizio lausoa egiten duenean batez ere.

22 Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarra, Velásquez Rodríguez kasua Hondurasen aurka, 1988ko uztailaren 29ko epaia.

23 Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarra, Aloeboetoe eta beste Surinamen aurka, 1991ko abenduaren 4ko epaia.

24 Giza Eskubideetarako Auzitegi Interamerikarra, Benavides Cevallos Ekuadorren aurka, 1998ko ekainaren 19ko epaia.

25 Hemeretzi merkatarien kasua, Kolonbiaren aurka, 2004ko uztailaren 5eko epaia, 273 ahap.

matxinada saio baten ondoko errepresioan hil zituzten Sendero Luminoso-ko 41 presoak, biztanle gehienek terroristatzat zituztenak, biktimatzat hartu behar ote ziren planteatu zen. Oso bizia izan zen polemika. Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarrak, giza eskubideen nazioarteko legerian oinarriturik, epaiketarako betarik gabe hildako pertsona guztiak, gaizkileak barne, biktimatzat hartu beharrak zirela argudiatu eta erabaki zuen. Ironien ironia, aintzat hartuak ziren ordurako izen haiek guztiak monumentuan, baina inork ez zekien horren berri Auzitegiak bere erabakia jakinarazi baino lehen. Monumentuaren bukatzea gerarazi zuen izen haiek hartan irarri ez irarri sortu zen eztabaidaren polarizazio maila handiak²⁶.

Belaunaldiarteko ikuspegi bat ere aipa genezake, azkenik, memoriaren eskubidea-betebeharra eztabaidaren barruan. Garbi dago, hala esan dezakegu, bizirik dauden pertsonak hil direnek babestu beharreko duintasuna dutela uste dutela. Hildako pertsonak, dio De Baets-ek (2004), bizirik iraun duenaren gizatiartasunaren oroitzenak dira eta ez soil-soilik desagertzeaz dauden gorpu inerteak. Horrenbestez gorpuzten da besteak hil ondoko duintasun eta errespetuaren inguruko ideia, bizirik iraun dutenek hildakoengana dituzten erantzukizunak, izatez unibertsalak direnak eta euren artean memoria ere aintzat hartzen dutenak, sorrarazten dituenak. Halarik ere, guztiz kritikatzeko du memoria betebehar orokorraren izatea bideraezina (historia unibertsal osoan gertatu diren biktima guztiak aintzat hartzeagatik) edo bidegabea (haietako batzuk baizik aintzat hartzeagatik) denean. Autore horren arabera, historiagileen kolektiboari eta, era berean, gobernuei baizik ez legokieke betebehar hori, giza eskubideen urratzeak argitu behar dituzten aldetik.

3. Memoriarako eta parte hartzeko eskubideen artikulazioa, haiek bermatu beharra gorpuzten duen edukiaren barruan

3.1. Terrorismoaren biktimen parte hartzeko eskubidearen edukia

3.1.1. Nazioarteko erakundeen gomendioak

Ikerketa honen beraren diseinuak ez dio parte hartzeko betekizunari muzin egin. Ahozko historiaren ikuspegitik, interesgarria da Rueda-k (2003) "arrazoituriko memoria historiko" bati buruz eginiko proposamen teoriko-metodologikoa: "ideia da kontaketak biktimek eta ikertzaileek batera azter ditzaten, eta memoria bazterketa, ukazio, isiltze eta ahanzteei eusteko modua eraiki dezaten".

Bi ikerketa urteren buruko emaitza gisa, eta azterketa enpiriko sakonagoen premia oraindik ere handia dela ondorioztatuz, aipa dezagun Impunity Watch erakunde independenteak biktimek giza eskubideen urratze larrien gaineko ikerketetan parte hartzeko bitartekoei buruz eginiko txostena (Taylor 2014). Justizia konponarazleari buruzko gogoeta batetik abiatuz eta Edwards-ek sistema penalen alderdi orokorreari buruz eginiko azterketen ildotik joz (2004), sailkapen bikoitza zehaztu zen txosten hartan biktimen parte-hartze molde posibleen artean, memoriarako politika eta praktiketara ekar eta zabal genezakeena:

- 1) Zuzeneko parte-hartzea: prozesu osoan zehar erabakiak hartuz; zuzeneko lankidetzaren faseren baitan; lankidetzaren informazioa edo lekukotzak eskainiz; eta euren interesen adierazpen intzidentala.
- 2) Zeharkako parte-hartzea: prozesuaren bitartean zeharkako lankidetzaren eskainiz; eta akordioaren edo emaitzen berri jasorik.

Hona hemen memorializazio, justizia eta erreparazioaren eta nazioarteko, estatuko eta tokian tokiko eragileen jardueren arteko harremanei buruzko gomendioen zirriborroa, azterketa honi begira egokitu duguna²⁷, herri desberdinetako adituen arteko esperientzia trukearen fruitua dena (Impunity Watch 2012, 52-4). Bereziki indartzen da hartan osagarritasunaren ideia, jokoan dauden interes desberdinak errespetatuz.

26 Miguel Castro Castro kartzelako kasua, Peruren aurka. 2006ko azaroaren 25eko epaia, 463. ahap.

27 Egokitu behar izan dugu, kontuan edukirik taula batez ere justizia trantsizionaleko testuinguruei begira pentsatua zela.

Memorializazio, justizia eta erreparazioaren arteko harremanak

	Nazioarteko eragileak	Estatuko eragileak	Toki/Gizarte/Talde eragileak
Osagarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> ·Tokiko gaitasun iraunkorra sortzea, kanpoko adituak ekarri ordez ·Bakearen eraikuntzaren fokatzearen mugez ongi jabetu beharra, unean uneko testuingurua kontuan hartuz ·Kanpoan giza eskubideen alde eskatzen den konpromisoa barruan koherentziaz betetzea ·Memoriarako ekimenak justizia bitartekoekin lotzea, hala nola egiarako eta baketzeko batzordeak ·Memorializazio prozesuak prozesu baten ondorioak dira eta beste justizia bitarteko batzuk dagoeneko abiatu direnean ekin behar zaie ·Ongi jabetu beharra dago memorializazioaren eta premia sozioekonomikoen arteko tentsioez, bigarrenak lehenak ito ez ditzaten ·Ikerketa handiagoak behar dira memorializazioaren eta justiziaren arteko loturari buruz, biolentziaren jatorriaren gaineko ikerketaren arloan ·Memorializazioaren arriskuez eta balizkoen ongi jabetzea, biktimen arloan bereziki 	<ul style="list-style-type: none"> ·Memorializaziorako ekimenak erreparazio eta heziketa prozesuetan ere har daitezke aintzat ·Egia, erreparazio eta justiziarako bitartekoak ez dira aski memoriaren premiei begira ·Biktimak beren lekukotzekin lotu, Historiako iturrien parte diren aldetik ·Memoria prozesu bat ez da eraikin edo eraikuntza batekin bukatzen, prozesu mugagabea da ·Justizia penalak bere ekarria egin dezake egia eta iraganaren ulerpen historikoaren alde Estatuak bere herri-tarren eskubideak babestu behar ditu, jarduera horren aldeko bermeak ezarriz ·Giza eskubideen nazioarteko araudiaren betetzeari arreta handiagoa ematea ·Gizarte zibilari terrorismoa sortu eta garatu den testuinguru soziopolitiko ulertzen laguntzea 	<ul style="list-style-type: none"> ·Tokiko agintariak parte bihurtzeko aukerak bilatzea ·Hedabideen erabilera arduratsuaren onurak azpimarratzea ·Memoriaren eta tokiko premien arteko lotura artikulatu behar da, biktimei ez bazaie entzuten eta haien eskariei ez bazaie erantzuten beren horretan iraungo dutelako arazo estrukturalak ·Memoriarako ekimenek iraganeko eta egungo injustizien arteko loturak identifikatu behar ditzate, pertsonak beren eskariak egin ahal izan ditzaten ·Historiak, bere iturrien artean, herritarren ikuspegiak ere har ditzake aintzat ·Gobernuek biktimen premiak eta gomendioak ezagutu behar ditzate ·Tokian tokiko aktoreak eta erakundeak ezinbestekoak dira eta beste justizia ekimen batzuetan ere lagun dezakete ·Justizia bitartekoek bidea zabaldu behar diete beste ekimen batzuei, eta ikuspegia eta epe luzeko plangintza eskatzen ditu horrek ·Tokian tokiko ekimenak hobekiago egokituak dira garapen on bati begira ·Gizarte zibileko eta biktimen elkarrekin memoriarako bultzaturiko ekimenek terrorismoaren kausen eta gizartea aldatu behar diren kontzientzia sustatu behar dute

<p>Ekitaldi publikoak ekitaldi informaleen aurrean</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Lekukotzen bilketa bultzatu behar lukete eragile parte-hartzaile guztiek ·Gobernuz kanpoko erakundeek lotura bidera lezakete nazioarteko aktoreen eta tokian tokiko ekimen eta guneen artean ·Esperientzien nazioarteko trukearen sostengua 	<ul style="list-style-type: none"> ·Ekimen formalek informaleak bultzatzea dezakete eta alderantziz ·Gorrotora edo justifikaziora garamatzen diskurtso oro ekiditea ·Memorialek iraganari buruzko gogoeta indibidualerako gonbita egin behar dute, baina memorializazioaren espazio guztia hartu gabe ·Tokiko agintariak aliatu gisa hartzea, harreman estrategikoak garatuz 	<ul style="list-style-type: none"> ·Hasieratik beretik, oroitzapenetik harago joan beharko lukete gobernu erakundeek ·Memoriarako ekimenetan, testuinguru geopolitiko zabalaren ulerpen hobea erraztea, horrelakorik ez berritzeko helburuaz
<p>Biktimen ekimenak gizarte ekimenen aurrean</p>	<ul style="list-style-type: none"> ·Leku edo egokiera segurua eskaintzea, biktimek narrazio ofizialak zalantzan jarri ahal izan dezaten 	<ul style="list-style-type: none"> ·Biktimen identifikazioari buruzko ikerketen garapena ahal bezain laster sustatzea ·Narrazio askotarikoak eta kritikoak bultzatuko dituzten taldeak sustatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ·Hasierako uneetan inor ez estutzea, memoria bateratu edo inklusibo baterako ekimenak lortzeko; jokabide horren orde, hobea da interes komunen aldeko lanean hastea ·Memoriarako ekimenekin itxuraz horren loturik ez dauden gizarte taldeak ere hurbilaztea, polarizazioa baztertzeko eta konpromisoa areagotzeko ·Gizarte zabalari begira: tokiko historiaren gaineko ikerketa dokumentala eta zientifikoa bultzatzea

3.1.2. Terrorismoaren biktimen parte-hartzearen gaineko barne araudia

Nazioarteko esparruan eskubide honen aipamenak lausoak badira ere, argi eta garbi mintzo da, estatuko esparruan, Terrorismoaren Biktimen Aitorza eta Babesa arautzen dituen irailaren 22ko 29/2011 Legearen Zazpigarren Titulua elkarretaratze mugimenduaren sustapenaz, parte hartzeko modu gisa, eta elkarteek ikerketa eta txostenen prestakuntzan eta gauzatze prozesuan eduki dezaketen parte-hartzeaz.

Biktimen parte hartzeko eskubidea aitortzen du, halaber, Euskadiko legeak, baina, aurreko kasuan aztertu den bezala, eskubide indibiduala baino kolektiboa da areago itxuraz eta, beraz, egoera zailagoan uzten ditu elkarteetara bildu ez diren biktimak, eskubide hori gauzatzeko orduan.

Terrorismoaren biktimen aitorpena eta erreparazioa arautzen dituen ekainaren 19ko Euskadiko 4/2008 Legearen 6. artikulua espresuki arautzen du parte hartzeko eskubidea, Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren bidez²⁸:

28 Ikus halaber 27. artikulua, Eusko Jaurlaritzak ekintzak sustatu beharri buruz. Bereziki aipa dezagun, bestalde, araudian aurreikusitako ez bada ere baina izaera sinbolikoa duen zerbait den aldetik, Lehendakariak Estatu osoko biktimen elkarteekin 2015eko maiatzeko udal hauteskundearen ondoren aurreikusirikoa bilera (El Correo 1915.01.22, 28. or.). Giza Eskubideen urratze testuinguruetan sorturiko biktimen parte-hartzeari buruz, ikus oro har Goodale (2007), McEvoy, Kieran eta Lorna McGregor (2008) eta Viane (2013). Euskal Herriko biktimen

6. Artikulua. Parte-hartzea

1. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseilua sortzen da.
2. Kontseilu honen xedea izango da terrorismoaren biktimen partaidetza bideratzea haiei eragiten dieten gai guztietan, bai eta administrazio publikoei arlo honetako politika zehatzak abiaraz ditzatela proposatzea ere.
3. Kontseilu honetako kide izango dira, modu paritarioan, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak, alde batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza edo ordezkariak duten terrorismoaren biktimen elkarteak, terrorismoaren biktimaren bat dela-eta sortutako euskal fundazioak eta euskal elkarte bakezaleak, bestetik. Nolanahi ere, gizarte zibilaren gehiengoaren ordezkariak biktimen elkarteek izango dute.
4. Kontseiluko burua prestigio aitortuko pertsona bat izango da eta administrazioek eta gizarte zibilak adostasunez izendatuko dute.
5. Kontseiluaren osaera eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluaren otsailaren 23ko 55/2010 Dekretuaren arabera, honako hauek izango dira Kontseiluaren eginkizunak, osaera eta biltzeko maiztasuna:

4. Artikulua. Eginkizunak

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek izaera orokorraz ematen dituen xedapen proiektuen berri izan, betiere terrorismoaren biktimak sorosteari eragiten badiote.
- b) Terrorismoaren biktimen elkarten eta euskal administrazio publikoen arteko harremanak bideratu terrorismoaren biktimen kolektiboari eragiten dion arlo orotan.
- c) Terrorismoaren biktimen arloan jardun ohi duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak eta diru-laguntzak banatzeko irizpideak proposatu.
- d) Bidezkotzat jotako ekimen eta proposamenak aurkeztu EAEko administrazio publikoei, terrorismoaren biktimentzako politika publikoetan aurrera egin eta hobetze aldera.
- e) Indarreko legeek egotzitako gainerakoak.

5. Artikulua. Osaera

1. Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Euskal Kontseiluko kide izango dira, lehendakari izango denaz gain, honako hauek:
 - a) Administrazio Publikoetatik:
 - Terrorismoaren biktimak sorosteko eskumena duen organoa txertatzen den Saileko sailburua.
 - Terrorismoaren biktimak sorosteko eskumena duen organoko titularra.
 - Organo horren ordezkaria den kide bat, Kontseiluko idazkaria ere izango dena.
 - Bi kide, EUDEL EAEko Udalen Elkartearen edo udalen ordezkariarik nagusia duen elkartearen ordezkariak.
 - b) Gizarte Zibilaren aldetik:
 - Hiru kide, EAEn egoitza edo ordezkariak duten terrorismoaren biktimen elkarten ordezkariak.
 - Kide bat, terrorismoaren biktima bati lotuta sortutako EAEko fundazioen ordezkaria.
 - Kide bat, EAEko bake elkarten ordezkaria.

7. Artikulua. Bileren maiztasuna

Kontseilua gutxienez urtean behin bilduko da ohiko bilkuran eta behar den guztietan bilkura berezian, bere eginkizunen betetzeari begira, lehendakariak hala deituta edo osatzen duten kideen gutxienez haren batek hala egiteko eskatzen badute.

Kritika batzuk egin izan dira jendaurrean Kontseilua edukiz hutsa eta guztiz "sinbolikoa" dela esanez (EP 1915.01.22)²⁹. Parte-hartzea, esan gabe doa, ezin bukatu eta ahituko da aipaturiko legeetan aurreikusi diren erakunde edo bitartekoetan.

memoriarekin loturiko parte-hartzearen gaineko ikuspegi desberdinei buruz, ikus Canarias eta Altamira (2014, 178-191).

29 Oharra: On-line bertsioan erreferentziatu direla ulertu behar da orrialde zehatzaren berri ez dakarten hemeroteca-erreferentzia guztiak.

Memoriaren inguruko gai zehatzetan, adibidetzat har daiteke Barne Ministerioak biktima indibidualen edo Memorialera bilduriko biktimen ekarriak posta elektronikoko helbide batez biltzeko erabakia³⁰. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, gune orokor bat zabaldu du herritarrek bakearekin loturiko gaietan egin litzaketan gaiei begira³¹.

3.2. Parte-hartzea eta bigarren biktimizazioa

Azterketa batzuek azaldu duten bezala, bigarren biktimizazioa dakar parte-hartzerik ezak edo behar bezala prestatu ez den edo manipulatu den parte-hartzeak. Aitzitik, biktimen borondatezko izaera, gaitasuna eta ikuspegia ziurtatuko dituen parte-hartzeak lagundu egingo du gizartean eta biktimengan memoria esanguratsua gorpuzten³². Parte-hartzeak justizia trantsizionaleko errituetan dituen ondorio psikosozialen gaineko azterketa batean, honako konklusio honetara iritsi ziren Martin Beristain et al. (2010): Hego Afrikako Egia eta Baketzerako Batzordean, Ruandako Gacaca edo herri-epaiketetan eta demokraziarako trantsizio prozesuetako errituetan bizi izaniko esperientzien azterketatik argi eta garbi ondoriozta daiteke, konklusio gisa, batzorde eta epaiketetan parte hartzeak kostu emozional gehigarria (emozionaltasun negatiboa eta sintomak areagotuz) dakarkielako parte-hartzaileei, eta gizartean klima emozional negatiboa biziagotu egiten dela baina, aldi berean, areagotu egiten da parte-hartzaileen kontrol eta eraginkortasun sententzioa, bizirik iraun dutenen emozio negatibo batzuk, lotsa esate baterako, murriztuz, eta estereotipo positiboak eta exotaldearen ikuspegi anitzago bat sendotuz. Prozesu eta egiarako batzorde eraginkorrak bideratu diren estatu latino-amerikarretan, hobekuntza egiaztatu zen giza eskubideekiko errespetuaren arloan”.

Bestalde, biktimen eta memoria prozesuen honako onura eta arrisku posible hauek adierazten ditu *Impunity Watch* erakundeak (Taylor 2014):

a) Biktimentzat onura posibleak

Ahalduntzearekin identifikatzen da, oro har, parte-hartzea. Parte-hartzeak biktimei halako kontrol zentzuaz jabetzeko, abandonu edo isolamendutik ateratzeko, gizartearen aldetik aitortuak sentitzeko eta konfiantza berreskuratzeko aukera ematen diela aurreikusten da.

b) Instituzioarentzat edo prozesuarentzat onura posibleak

Memoria prozesuak jaso litzakeen onuren artean adierazten da herritarrenganako eta, bereziki, biktimenganako sargarritasun, gardentasun eta hurbilgarritasun handiagoa, jardueraren legezkotasuna horrenbestez indartuz. Gainera, memoriaren aldeko ekitaldi askotan horixe izaten da helburuak egiaz lortzeko eta gizartean eragina izateko modu bakarra.

c) Biktimentzat arrisku posibleak

Parte-hartzea tresna erretoriko hutsa bihurtu daiteke, eta itxaropen faltsuak sor ditzake eta bigarren biktimizazioa eragin, bideraturiko ekintzek ez badituzte, azkenean, aintzat harturiko ikuspegiak islatzen edo, islatuz gero, manipulatzeko badituzte. Gainera, diskriminazioak gerta daitezke parte-hartzerako bidean, eta aniztasuna islatu gabe gelditu.

d) Instituzioarentzat edo prozesuarentzat arrisku posibleak

Parte-hartzearen aldeko apustua eginik, are eta konplexuagoa izango da erabakiak hartzea eta epeak neurtzea, baita subjektibotasuna eta aniztasuna gobernatzea ere. Nazio Batuen kultura eskubideetarako Txostengile Bereziak 2014ko urtarrilean memorializazio eta memoriaren aldeko prozesuei buruz aurkeztu zuen txostenak dioen bezala: “Memoria historikoaren aldeko prozesuek biktimen aitortpena eta giza eskubideen urratze masiboen edo larrien erreparazioa lortzeko eta egite horiek ez berritzeko borondatea zehazten duten arren, memoriaren tirania ere sorraz eta ekar dezakete. Horixe gertatzen da, oroitzapenerako ekitaldiak etenik gabe biderkatuz, besteren iritziak kontuan hartzen edota kritikak onartzen ez direnean, pertsonak beren iraganean ixten direnean eta pertsona taldeen arteko beste gertaera eta harremanen oroitzapenerako lekurik ia uzten ez denean”. Honela dio, bestalde: “Arazotsuak dira bereziki munduko gertakariak traumak ikuspegitik aurkezten eta lantzen dituzten museoek kasuak; pertsonalizazioa, alderdi ideologikoak eta emozioa baliatzen dira horrelakoetan. Norberaren historiak iragazten dituen giro emozionalak zaildu egiten du testuinguru politiko orokorraren ulerpena”.

30 Hona hemen helbidea: centromemorial@interior.es (El Correo 2014.09.19).

31 ADI! Bakea deitua: <http://www.bakea.legebiltzarra.eus/es/>.

32 Italiako eta Espainiako terrorismoaren biktimen memorializazio kasu alderatuetan sumaturiko ondorio terapeutikoei dagokienez, ikus Tota (2005), memoria zatitu, eten edo isilduaren arriskuak ere ohar egiten duen arren.

III. Memoriaren agerikotasuna euskal espazio publikoan

“Errealitatearen zati ikusezin bat agerian utz dezaketen objektu eta fenomenoek konbinazioa da metafora museografikoa”

“Xedetzat hiru gauzen, ezagutzaren, hura erdiesteko metodoaren eta hartatik datorren iritziaren, aldeko pizgarriak sustatzen duen topagunea da museoa”

“Museo baten garrantzia ez da bisitari kopuruaz neurtzen, baizik eta bisita aurretik, bitartean eta ondoan sorrarazten dituen solasaldi kiloek bitartez”

“Bizirik dago museo bat bisitariak atera ondoren sartu aurretik baino galdera gehiago dituenen”.

(Wagensberg 2014, 2).

“Kontaketez eta funtsean denboran mamituriko memoriak eraikitzen du gizakiak bere identitatea. Gorputza ere bada eta, beraz, espazioa: pertsona gorputza, gizarte gorputza eta lurralde gorputza”

(Mate, d. g.)

1. Memoria moldeak denboran eta espazioan

Nazio Batuen kultura eskubideetarako Txostengile Bereziak 2014ko urtarrilean memorializazio eta memoriaren aldeko prozesuei buruz aurkeztu zuen txostenaren arabera³³, honako hauek hartzen ditu gogoan memoriak bere erreferentziei begira:

espazio publikoan ageri diren oroitzapen fenomenoak, aurkezpen materializat edo ekintza nahiz ekitaldi gogorarazletzat hartzen direnak eta gertakari zehatzen oroitzapenari begira bideratzen direnak, alde bat utzirik noiz gertatu ziren (gerrak eta gatazkak, giza eskubideen urratze masiboak edo larriak) edo haietan parte hartu zuten pertsonak (soldaduak, borrokalariak, biktimak, agintari edo ekintzaile politikoak, eta beste).

Oso bestelakoak izan daitezke oroitzapenerako agerkundeak. Haien molde nagusien artean daukagu jatorrizko lekuak (kontzentrazio-esparruak, tortura eta atxilotze zentro ohiak, sarraskiak bideratu ziren lekuak eta hobi komunak, eta uanean uneko erregimen zapaltzaileen monumentu enblematikoak); leku sinbolikoak (hala nola biktimen izenak iraririk eduki dituzten edo dauzkaten monumentu iraunkorrak eta aldi batekoak; berrizendaturiko kaleak, eraikinak edota azpiegiturak; oroitzapen fenomeno birtualak Interneten eta historia eta oroitzapenerako museoak); eta ekintzak (hala nola desenkusen aurkezpen publikoa, hilobiratze zeremonialak, ibilaldiak, desfileak eta epe jakin baterako erakustaldiak). Gainera, txosten honen esparrutik harago jotzen duten arren, badira beste kultura adierazpen mota batzuk ere (artelanak, filmak, dokumentalak, literatura-lanak, argi eta soinu ikuskizunak...”).

Memoriaren nontasunari eta nolokotasunari ekin nahi diegu epigrafe honetan. Memoria hor dagoela ohartarazi du Díaz Viana-k, ez ikusiagatik edo ez ageriagatik ere. Autore horren aburuz, etengabe alda daiteke, bizirik dagoelako eta, oroitzapenaren eguneratze gisa, presente bihurtzen du iragana eta trahistorikoa ere bada, zentzu horretan. Horregatik: “Denboraren eguneratzeak denbora ukatzen du. Ahanztura eragozten du” (2013, 45). Denbora oraingotasun eta berehalakotasuneranzko bulkan gorputzuriko testuinguru batean nolabait esekitzen duen errituzko espazio bat sorrarazten dute memoriaren aldeko jarduerak. Erritu gisa, komunikaziorako forma sinboliko gisa, aztertu ditu Faro-k memoria praktikak. Herbehereetako monumentu batzuen gaineko ikerketaren bidez aztertu du haien esanahia, beren inguruko forma, sinbolismo, testu eta errituen bitartez adierazia (Faro 2015).

33 Txostenaren estraktu gehiago ikus bitez 7. eranskinean.

Denbora eta espazio kontzeptuek bakearen gaineko ikerketetan dituzten ezaugarriez mintzatu da Lederach (2007, 130-2). Espazio gisa berrirudikatu eta gero, geografia sozialaren ulerpenean, intersekzioen aintzatespenean eta sormenaren malgutasunean oinarrituriko aldaketa sozial eraikitzailearen aldeko jardunarekin lotu du memoria.

Ralph-en obra klasikoan (1976), Giza Geografiaren barruan, sortu ziren “insideness” (espazio batekiko lotura eta konpromiso maila) eta “outsideness” (arbuio, mesfidantza, beldur eta alienazio maila) kontzeptuak. Beste alde batetik, ezlekutasun kualitatea ere aipatu zuen Ralph-ek (“placelessness”) (Seamon and Sowers 2008), Marc Augé-k geroago “ezlekutat” hartu zituenen ildotik nolabait. Gure honetan, horrelakotzat har litezke biktimenzako interesik edo esangurarik gabekotzat jo litezkeen memoria guneak, eztabaidarako senik ageri ez duten eta itxurakeria hutsean jardun nahia erakusten duten masa-kulturatzat hartuak.

Artearekin loturik, aipagarria da Genevako Arte eta Diseinu Unibertsitateak *Politics of memory and art practices: the role of art in peace and reconciliation processes* izenaz garaturiko ikerketa proiektua. Master programa baten barruan gauzatu da 2012. eta 2014. urteen bitartean, Pierre Hazan-ek eta Catherine Queloz-ek batera zuzendua. Haren helburua da espazio publikoan giza eskubideen urratze larriak ikuspegi interdisciplinario batetik (Arte eta Zientzia Politikoak) aurkeztea eta irudikatzea, sorraraziriko arte agerkundeez eta gizartean eduki duten eraginaz gogoeta egin eta hausnartu ahal izateko (iraganari, identitate kolektiboari eta balizko baketze bati buruzko eztabaida). Honek guztiak bereziki eskatzen ditu tresna kontzeptualen berrikuste kritikoa eta artearen kontzepzio zabalago bat. Helburua da memoriarako ekimenek aitorten eta/edo baketze prozesuetan bideratu dituzten dinamikak eta eduki duten eragina hobekiago ulertzea.

2. Eragile publikoek eta pribatuek partekaturiko espazioa

Honela galdetu dio Ptacek-ek bere buruari (2009, 282): “Justizia, besteak beste, esperientzia bat bada, non gertatzen da, orduan, zehazki?” Galdera horri erantsi ahal izango diogu non, noiz, nola eta norekin partekatzen den esperientzia hori. Bada espazio aski, eta ongi berezia, eragile pribatuen memoria proiektu eta praktikei begira, eta lehenengoa da haietan norberarena eta zuzenean eraginiko biktimen parte-hartzea, eta bada beste espazio bat, memoriarako politika publikoei begira, beste kezka batzuk dituen (Varona, 2014).

Memoriaren hiru eraikuntza eredu posible azaldu ditu Uprimny-k (2012, 142), Michael Rothberg aipatuz:

“Liberala izango litzateke memoriaren aurreneko eraikuntza eredu. Memoriaren eraikuntza gizarte zibilaren zeregina delako premisa da eredu horren abiapuntua, eta norberaren askatasunaren funtsezko oinarriaren aurkako atentatua da Estatuak jarduera horretan sartu nahi izatea. Eredu honen ondorio nagusia da memoria eszenatoki lehiakor bultzatzen duela eta, horrenbestez, hartara biltzen direla gizarteko adierazpide desberdinak ... bortxazko gertakari esanguratsuenengatik edo oroigarrienengatik borrokarako prest, oroitu nahi dituzten gertaeren oroitzapenak sendo iraunarazteko. Eztabaida giro hori, begien bistakoa izanik, ez da orekatua eta betiere nagusituko dira gizartean baliabide material eta sinboliko gehien dutenak.

Memoriaren aldeko eztabaidan parte hartzen duten eragileek baliabide berberak ez dituztelako irizpidea da, bestalde, norabide anitzeko ereduaren abiapuntua; halatan, Estatuaren aitorten aldeko ekintzarik gabe edo haren aldetik gertaerak onartu gabe, baliabide gutxien duten eragileen memoriarako eskabideak hutsean bukatzeko arriskuan daude.

Norabide bakarreko eredu dago, azkenik. Haren arabera, oroitu behar denaren aurreko jarrera aktiboa hartzen dute Estatuak instituzioek. Horixe izan da, tradizionalki, logika ukatzaileen eredu.

Azken batean, konfrontazio publikoaren, botereen arteko borrokaren eta nolabaiteko kontsentsuan oinarrituriko diskurtso politikoaren ispilu gisa jardungo du beti espazio publikoak (Shafir 2004).

Biktimizazio terroristaren memorializazio prozesuen gaineko nazioarteko literatura akademikoa aztertu du Egbo-k, biktimen lehengoratzeko prozesuan duten garrantzirik eta kontzeptuen alorrean eta praktikan planteatzen dituen eronketatik abiatuz (2008)³⁴. Azterketa haien bukaeran, memoriarako eraikuntzak terrorismoaren biktimen memoria azaltzeko era komunena zela ondorioztatu zuen, haren izaera publikoa eta garrantzi politikoa bereziki nabarmenduz. Ondotik azpimarratzen ziren jendaurreko adierazpenak –biktimei aitortpena eskaintzen dietenak–, ikerketa batzordeak –egiarako konpromiso publikoa indartzen dutenak–, eta memoria egunen instituzionalizazioa –arrakasta hein batean edukia baitan, hau da, egun horretan biktimak gogoratze moduan, daramatenak.

Eragile pribatuak ere funtsezko faktorea dira terrorismoaren biktimen memoriaren sustapenari begira (Egbo 2008), batez ere memorialen egoitza aukeratzeko, haien garapen eta mantentzerako finantzazioa

34 Gai hauei buruz, ikus Adituen Batzordeak 2015eko urtarrilaren 28an Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentroaren definizioari begira argitaratu zuen txostena.

segurtatuz, eta, gakoa da hau, biktimek memoriarekin loturik dituzten beste premia batzuk adierazterakoan. Gatazkak sor litezke arlo honetan talde asko ari badira, amaierako xedeak bat ez badituzte. Azkenean, ustekabeko memoria ekintzak aipatzen ditu Egbo-k, zenbaitetan gobernuei kritika bat zuzentzeko balio dutenak: inprobisaturiko santutegiak, lore eskaintzak, muralak, eta abar. Hemen sortzen da udal erreakzioaren gaia, espazio publikoan molde horretako interbentzioek baimenik ez dutelako³⁵.

Beraz, Egbo-ren ikerketaren arabera (2008, v-vi), honako hiru aspektu hauek hartu behar dira aintzat:

1. Memoriarako jardueren mezu inplizituak eta esplizituak. Haien betiko ezaugarria izango da narrazioen presentzia, eta zuzen interpretatu beharko dira bigarren biktimizazioarako arriskua saihestuko bada.
2. Logistika arazoak: kokalekua, kostua, mantentzea eta epe labur, ertain eta luzeko kudeaketa.
3. Memoria prozesuan ahots askoren presentzia onartu eta kudeatu beharra. Biktimenak izango dira aurrenekoak, baina entzun beharrak dira orobat beste eragile batzuk, hala aurka daudenak nola memoriaren azken helburuarekin egiaz bat datozen bestelako jarduera batzuk eskaini litzaketen beste herritar batzuk.

3. Eragile publiko eta pribatuaren ekimenez orain berri bultzatu diren memoria praktiken adibideak euskal testuinguruan³⁶


Sakon eta zabal aritzeko borondaterik gabe, ondoko grafikoan azaldu dira, aurrenik, terrorismoaren biktimen memoria prozesuetan parte hartu duten eragile publikoak eta, ondoren, eragile pribatuak. Geroago emango dira orain berri bideratu diren jarduera batzuen adibideak. Grafikoan ez da eragileen garrantziaren arabera inolako hierarkiarik azaldu nahi izan –entitate aktiboena, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzaren arren–, baizik eta haietako bakoitza –eta, beharbada, azaldu ez diren beste batzuk– memoriaren puzzlean ezinbesteko osagaia delako ideia nabarmendu nahi izan da.

35 Nazio Batuen giza eskubideetarako Txostengile Bereziak 2014an memorializazioari buruzko txostenean adierazi zuenez: “Kasu batzuetan, onez eramaten dituzte agintariak eta gizarteak monumentu ez baimenduak, bai ekimena urrats positibotzat hartu direlako, bai ezabatuta komunitateen arteko tentsioa areagotu egin litekeelako. Arriskua da oroitzapenerako monumentu horiek kultura eta politika sinbolo bilakatzea eta, baketzea lagundu ordez, bertako biztanleei beraien auzoetan zenbaitetan inposatzen zaizkien zatiketak biziagotzea, baita eskolen barruan edo aurrean ere. Gainera, prozesu horietan bada komunitateak entitate monolitikoak balira bezala aurkezten edo izendatzen dituzten sinboloak eta oroitzapenak bideratzeko joera”.

36 Ez gara hemen euskal testuinguruan eragina eduki lezaketen nazioarteko edo nazioen gaineko eragileei buruz ari. Ikus bitez, adibidez, Nazio Batuen egia, justizia, erreparazio eta horrelakorik ez berritzeko bermeen sustapenerako Txostengile Bereziak eginiko ekintzak, haren web orrian: (<http://www.ohchr.org/EN/Issues/TruthJusticeReparation/Pages/Index.aspx>). Orri hartan kontsultatu ahal izango da 2014. urtearen bukaeran, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren aurrean, aurkezturiko tostena. Lan honetan tratatu diren memoria individual eta memoria kolektibo kontzeptuekin identifikatzen diren erreparazio sinbolikoen garrantzia azpimarratzen da hartan.

EBko memoriarako politikaren premiarik eta legezketasunari dagokionez, ikus Costa (2010). Kontuan har bitez, era berean, EBren politika bereziak terrorismoaren biktimen eskubideen eta arretaren arloetan. Zentzu horretan, biktimen eskubideei buruzko 29/2012/UE Zuzentarauak kolektibo zaurigarrien artekotzat hartzen ditu terrorismoaren biktimak eta, memoriarako eskubidearen aipamen zehatzik egiten ez bada ere, behin eta berriro aipatzen du haien duintasunaren begirunea, bai eta bigarren biktimizazioa eta balizko beste birbiktimizazioak saihestu beharra ere.

Gobernuz kanpoko eragileen artean, *Impunity Watch* eta *Sites of Conscience International Coalition* (<http://www.sitesofconscience.org/es/sobre-la-coalicion/>) direlakoek gainera, bereziki aipa genezake Justizia Trantsizionalerako Nazioarteko Zentroa, New Yorken egoitza duen erakunde irabazi asmorik gabea. Haren web orriak dioenaren arabera (<https://www.ictj.org/es/our-work/transitional-justice-issues/verdad-y-memoria>), “oroitzapenerako ekimenekin [egiten dute lan], hezkuntza eta aldaketari begira ahalik eta etekin handiena ateratzearren. Proiektuen kontzeptzioa, mandatuen gauzatzea eta biktimekiko kontsulta dira haren aholku-zerbitzuen xede nagusia. Haren ikerketak eta jarduerak eta kasu konkretuetan oinarrituriko heziketa-materialak ikasketak praktikako hoberenez elikatzen dira etengabe, etorkizunaren egiaren eta memoriaren alde bideratuko diren ekimenei iraganeko esperientzietatik onurak jaso ahal izan ditzaten”.



Beste hau ere badio: *“Memoria ez da betebeharrak, herritarren eskubidea baizik. Gure historia hurbileko bortxazko gertakarien gaineko hausnarketa kritikoa partekatze borondateari erantzuten dio, gertakari haiek giza eskubideen urraketa iraunkorra eta gizartean traumatikoki izan ziren aldetik”*, balio demokratikoak proiektatzeko.

Politika publikoaren oinarriak dira: *“Alde batetik, memoria demokratiko bat gogoan hartzeko, oroitzeko, partekatze eta ezagutarazteko erantzukizun etikoa eta politikoa, memoria hori ezaguna, erabilia eta esanahiz beti bete izan dadin. Beste aldetik, haren egituraketan parte hartzea eta aniztasuna bideratzeko borondatea, kontaketa bakarra edo monolitikoa inposatu nahi gabe”*. Prozesu edo helburu gisa, ezin onartuko du biolentzia beste ezeren pare jartzea edo justifikatzea.

Biktimen jokatu beharreko paperari dagokionez:

Biktimen lekukotzak oso balio handia du memoriaren eraikuntzan. Hala eta guztiz ere, memoriarako politika publiko baten helburua ez dira biktimak, baizik eta herritar guztiak, horrenbestez erantzukizunera deituak direnak. Hala ez izatera, bakarrik geldituko dira biktimak beren oroitzapenean, eta memoria kolektibotik kanpo geldituko dira biktima izan ez direnak. Memoriarako Politika Publiko batek guztiz ezabatu beharra dauka biktimen eta herritarren arteko bereizkuntza. Biktima bere izate horretan betikoz itxiko duen eta herritarra ikusle soil –begirunetsu edo solidario, baina zuzeneko inplikaziorik gabe– bilakatuko duen bereizkuntza. Memoriarako Politika Publiko batek herritarrek parte hartuko duten ibilbide etikoa iradoki beharra dauka ezinbestez”.

Azkenik, honela dio memoria moldeei buruz: *“Oroitzapenerako jarduerak oroigarri bat, plaka bat, instalazio bat, mural bat edo data bat ezarri edo zehaztu baino zerbait gehiago izan behar du. Ezer ez dago ikusezinagorik monumentu bat baizik. Egunerokotasunak eta ofizialtasunak eraginik eta berezitasunik ez duen objektu soil bilakatzen dute. Ageriko zedarrak beharko ditu oroitzapenerako jarduerak, baina ezinbestekoa izango da, gainera, haren sorkuntza, mantentze eta indarraldiaren gaineko dinamismoari buruzko hausnarketa eranstea”*.

3.1.2. Proiektuak³⁹

1. Memoriaren eta Bizikidetzaren Institutua

Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2013 Legearen Zioen Azalpenaren arabera, lehendik adierazitako memoriaren politikaren oinarriak jasota:

“Memoria demokratiko bat gestionatzeak lotura zuzena du askatasuna, berdintasuna eta giza duintasuna bezalako balioak lehengoratzearekin eta bultzatzearekin... Sufrimendua esperientzia bat da eta haren lekukotasuna memoria demokratikoaren parte da. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren eginkizun nagusiak erreskatatu, nabarmendu, oroitu eta transmititu behar ditu indarkeriazko gertakari larrien erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna... defendatzeko borrokatu ziren balio eta ahalegin demokratikoak.

Haren lehen helburua da herritarren arteko elkarrizketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta adieraztea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoetan elkarrekin bizi diren memoriaren arteko elkarrizketa bat. Haren azken helburua da laguntzea agora bat eraikitzen, dinamikoa eta emankorra, plaza publiko bat, balioen topagune sozial bat, berdintasun maila handiagoak lortzeko. Askatasuna eta demokrazia.

Memoriaren eskubidea gizarte osoari dagokio, herritarrek dira-eta historiaren, oroipenaren eta memoriaren gordetzailerik eta oinordeko naturalak. Ahazteak ezinezko egiten du errekonozimendua, iraganaren bertsio bat inposatzen du eta hutsune etiko bat sortzen du. Haren aurrean, herritarrek memoria demokratikoaren ezagutza historiko ez-neutral bat izateak bidea ematen du irizpide propioak lortzeko eta, gainera, libreago egiten ditu herritarrek... Memoriaren gestioa ezin da mugatu, bestalde, oroigarri, plaka, eskultura edo mural bat ipintzera edo data bat ezartzera. Oroitzeak ikusgaiak beharko ditu, bai, baina gogoeta bat gehitu beharko da memoriaren sorreraren, iraunkortasunaren eta indarraldiaren dinamismoaz... Ereku kontzeptual horretan, institutuaren eginkizun nagusia da gestionatzea egia eta justiziari buruzko memoriaren balio demokratiko eta etikoak gordetzeko, ikertzeko, ezagutzera emateko eta haietan hezteko lana, baita bultzatzea eta bermatzea herritarrek ondare horren mantentze-lanetan parte har dezaten ere”.

³⁹ http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.eus/r48-pazconte/es/contenidos/informacion/memoria_introduccion/es_def/memoria_introduccion.html helbidetik jasoa. Zerrenda hori, epigrafe honetan beste agente batzuk biltzen dituzten besteak bezala, ez da zehatza, izaera adierazgarria du.

2. Memoriaren mapa

On-lineko bertsio orokorraz gain, 2014ko abenduan Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak (2014a; 2014b; 2014c), 1960tik 2010era bitarteko epea harturik, hiru dokumentu argitaratu, eman eta eskaini dizkie Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalei *Bizitza eskubidearen aurkako urraketen udal Erretratuak Euskal Herrian* izenburupean “biktimen errekonozimendua eta memoria bizirik mantentzeko ekitaldien sustapena ahalbidetzeko. Biktima eta gertaera bakoitzaren datuak jasotzen dituzten fitxa batzuk dira, talde terroristen arabera bereiziak eta Segurtasun Indarrek, egile argitu gabeek eta beste batzuek eragindako bizitza eskubidearen aurkako urraketak” biltzen dituzte. Aurreikuspenen arabera, 2015eko uztaileko EAEko alkate guztiek izango dute dagozkien udalerriei buruzko dokumentua. 2015eko irail eta azaro bitartean, memoria bizirik edukitzeko ekintzak egitea sustatuko da 10.000tik gorako biztanleria duten udalerrri guztietan eta eskualdeetako hiri nagusietan. “Udalerrri horietako bakoitzean, memoriari eusteko ekintzak egitea eta memoriaren gunea bat sortzea bultzatuko da, 2015eko memoriaren egunaren harira.

Eusko Jaurlaritzan, 2014ko abenduaren 17an, Giza Eskubideen Batzordearen baitan egindako agerraldian aurkeztutako dokumentuaren arabera, “Memoriaren Mapa Osatzen. Udal esparruan jarduerak garatzeko iradokizunak terrorismoaren eta indarkeriaren biktimei errekonozimendua emateko eta memoria bizirik edukitzeko” dokumentua egin zen aipatu urteko maiatzean, eta Eudeli eta udal guztiei helarazi zitzaion. 2014an gutun bat igorri zitzaion udal guztiei Memoriaren Eguna ospatzeko gonbita eginez, eta egiaztatu egin zen 22 udalerrri izan zirela biktimak omentzeko ekitaldiren bat (lore eskaintza, adierazpenak, minutuetako isiluneak, aipamenak kartel argitsueta, plakak jartzeak, elkarretaratzeak, olerki baten argitalpena udal web orrian eta omentzeko beste ekitaldi batzuk) egin zutenak. EAEko biztanleriaren % 57,5 ordezkatzeko dute udalerrri horiek.

3. Gertu programa

2014. urteko bigarren erdialdean abiarazia, biktimei arreta hurbilagoa eta pertsonalizatua ematea du helburu. Gainera zuzeneko harremana bideratzen du bideoan jaso ahal izateko, hala nahi izanez gero eta berme guztiekin, memoriaren Instituturako lekukotasunak.

4. Adi-Adian programa; biktima hezitzaileak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiaren arabera, 2014. urtean zehar beren lekukotasuna emateko 50 saio eskaini dituzte biktimek ikastetxeetan, horietatik 47 zuzenean. 21 ikastetxetako 2.265 ikaslek parte hartu dute horietan.

Eusko Jaurlaritzak biktima hezitzaileen programetan parte hartutako berrogeita bat biktimari eman zien 2014. urtean René Cassin giza eskubideen saria.

5. Erakunde adierazpenak

Adibide gisa, aipa daiteke Gobernu Kontseiluaren 2015eko otsailaren 20ko erakunde adierazpena, 2000. urtean ETaren biktima izandako “Eusko Jaurlaritzako lehendakari eta sailburu Fernando Buesaren eta Eusko Jaurlaritzako sailburu José Ramón Recalderen oroitzapena, errekonozimendua, omenaldia eta haienganako esker ona bizirik mantentzeko”.

6. Hitzeman programa⁴⁰

Prestatzeko fasean dago, terrorismoagatik kondenatutako pertsonak gizarteratzeko helburua du. Justizia konponarazleari buruzko bi aipamen jasotzen ditu, garatu gabe, pertsona horiek bideratutako gertaeren aurreko erantzukizuna aitortzeko sustapen lanaren baitan, eta aipatutako pertsonak egindako kalteen aurreko erantzukizuna beren egitea eta kalteak konpontzeko borondatea agertzea bila da.

7. Beste batzuk

Jaurlaritzak beste hitzarmen batzuk sinatu ditu Euskal Unibertsitateekin eta EITB bezalako erakundeekin dokumentalak egiteko (El Correo, 2014-11-01). Era berean Ipar Irlandarekin elkarlanean ari da EUko *Peace* programaren baitan biktimekin eta biktima-eragileekin jarduerak antolatzeko.

Halaber, beste azterlan batzuk finantzatzen ditu, esate baterako, lan hau bera eta Valentin de Foronda Institutuari eta beste erakunde nahiz adituei eskatutakoak, eta finantzatzen ere ditu beste mota bateko jarduerak ere, esate baterako, 2014. urtean herritarren foroekin loturik Mondragon Unibertsitatean eta Etxebarri, Irun eta Balmasedako udalerrietan garatutakoak, Bartzelonako

40 Ikus <http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/5220/Hitzeman.cas.pdf?1412156823>.

Unibertsitate Autonomoak ebalatuak. Eta badu akordio bat Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin azken horrek Bakeahots web orria abian jartzeko, “Euskadin bakeari eta bizikidetzari buruzko arte-diziplinen aurrean gazteek eta taldeek dauzkaten ikuspuntuak, esperientziak eta lekukotasunak elkarbanatzeko espazio birtuala” (Deia, 2014-10-01) ⁴¹.

3.2. Eusko Legebiltzarra

Aipagarria da aipatutako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzeko azaroaren 27ko 4/2004 Legea onartu izana eta, lehendik, 4/2008 Legea onartu izana. Oro har aintzat hartu behar da haren Giza Eskubideen Batzordearen jardura.

Bestalde, 2014an, omenaldi bateratua egin zitzaion GALEk eraildako Santi Brouardi (El Correo, 2014-11-21). Hala eta guztiz ere, ez zen kontsentsurik lortu, 2010. urtean sortu zenetik ohikoa denez, 2014ko azaroaren 10eko memoriaren egunaren ospakizun-ekitaldian (La Vanguardia, 2014-11-09).

3.3. Foru Aldundiak

Aipagarriak dira Foru Aldundiek bakearen eta bizikidetzaren alde eta memoria bizirik edukitzeko egindako planak, baita burura eramandako era askotako jarduerak ere, adierazpenekin, ekitaldiekin eta erakusketekin zerikusia dutenak. Bestalde, Arabako Foru Aldundiak sustatu eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioak idatzitako “ETAren hilketak Araban” bezalako txostenak bultzatu dira⁴². Era berean, 2014. urte amaieran, “Umore grafikoa ETAren aurka” erakusketa antolatu zuen Foru Aldundi honek, Bilbon egon zen ikusgai.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostia 2016 eta Deustuko Unibertsitatearekin batean, “Egia eta memoria adiskidetzeko prozesuetan: nazioarteko esperientziak eta euskal kasuaren erronkak” jardunaldia antolatu zuen 2014ko urriaren 13an Donostiako Bakearen Etxean.

Bestalde, 2013an, ‘Bizkaitar Argiak’ saria eman zien Bizkaiko Foru Aldundiak “Biktima guztioi - A todas las víctimas”⁴³, eta urte hartako uztailean lehendakariari eman zioten saria etorkizuneko Memoriaren Institutuan uzteko. Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gernikako Udalarekin batean, Bakearen Museoaren Patronatuko kidea da Foru Aldundia. Gaur egun aretoak birmoldatzen ari da besteak beste terrorismoaren biktimei buruzko funtsei leku egiteko.

3.4. Udalerriak

Ez gara hemen udalen ekimenetan geldituko, baina gogoan eduki behar dira lehendik Eusko Jaurlaritzak sustatutako “udalerrien erretratuen” eta memoriaren mapa digitalaren arteko aldeak, Arartekok 2009an idatziriko txosten berezian jada agerian utzi zuen bezala.

Adierazgarri gisa, adostasun handia lortu zuelako, Erreterian egindako “Eraikiz”⁴⁴ Zine eta Antzerki Zikloaren ekimena aipatu behar da. Beste udalerrri batzuetan ez da adostasunik lortu proiektu eztabaidagarriekin, esate baterako, ez da adostasunik lortu Donostiako alkateak sustatutako memoriaren maparen inguruan ez eta 2014ko abenduaren 10ean, Memoriaren Egunaren harira, argitaratutako bando eztabaidagarriaren inguruan ere.

Era berean, biktimek udaletako memorien politketan izan beharreko parte-hartzeari dagokionez, egokia

41 *Bake Ibilbideak* ekimena “hiru hiriburuetak bazterrak, iraganari, orainari eta etorkizunari erreferentzia egiten dioten lekuak”, nahiz ez den zehazten jardura honek zerikusia izan dezakeen terrorismoaren biktimen memoriarekin.

42 Hemen bistaratzeko <https://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CCIQFJAA&url=http%3A%2F%2Fwww.alava.net%2Fcs%2FSatellite%3Fblobcol%3Durldata%26blobheader%3Dapplication%252Fpdf%26blobheadername%3DContent-disposition%26blobheadername%2%3Dpragma%26blobheadervalue%3Dattachment%253B%2Bfilename%253DXTOSTENA-INFORME%2BAsesinatos%2Bde%2BETA%2Ben%2B%25C3%2581lava-Fundaci%25C3%25B3n%2BV%25C3%25ADctimas%2Bdel%2BTerrorismo.pdf%26blobheadervalue%3Dpublic%26blobkey%3Ddid%26blobtable%3DMungoBlobs%26blobwhere%3D1224089420103%26ssbinary%3Dtrue&ei=RZvrVJmaHlUuPcgLgC&usg=AFQjCNGcTY8AUeLK8udEqLlyLgFosY8Ag>

43 “A todas las víctimas - Biktima guztioi. Indarkeria erabili duten talde guztien biktimei; ETAren, GALEn eta Batallón Vasco Españolen biktimei zein frankismoak Gerra Zibilaren ondoren ezarritako errepresioaren biktimei, bereziki Bizkaiko Foru Aldundiarekin zerikusia zuten, errugabeok aintzatetsi eta omentzeko –denak izan baitira giza eskubideen urraketen biktima–, egia ezagutzeko, memoria eta justizia egiteko eta biktimei dagokien ordaina emateko; azken batean, helburu bakarra da halako urraketarik berriro ere ez gertatzea gure Herrian.–

44 Ikus <http://herribizia.erretereria.eus/es/2013/01/11/eraikiz-una-ventana-a-la-reflexion-para-la-construccion-de-un-futuro-pacifico/>.

da oso esparru honetan berariaz aplikatzea EUDELen *Gardentasunerazko bide-orria. Udal gardenago bat eraikitzeko estrategia eta tresnak.*

3.5. Arartekoa/euskadiko herriaren defendatzailea

2009ko txosten bereziaz eta terrorismoaren biktimen egoeraren berariazko jarraipen lanak biltzen dituen urteko txostenez gain, aipagarriak dira hainbat ekitalditan izandako parte-hartzea, esate baterako V. kapituluaren zehaztutakoa.

3.6. Epaitegiak

Oro har gobernu ordezkariaren eta Estatuko Abokatzaren esku-hartzearekin, estatuko legearen agindua aintzat harturik eta erakunde publikoaren neutraltasun printzipioaren eta terrorismoaren biktimen duintasun eskubidearen urraketa argudiatuz, epaitegiek erabaki bat hartu behar izan dute Udaletxe batzuek presoak aipatzen dituzten afixak kentzeko eskaeraren inguruan. Kasu horietan administrazioarekiko auzietakoa da jurisdikzio eskuduna, eta Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiari aurkezten zaizkio errekurtsioak. Bestalde, bide penala dugu eskuarki hedabide publikoen aurreko adierazpen jakin batzuetan terrorismoari goraipamena egiten diotenak edo/eta biktimak umiliatzen dituztenak salatzen dituzten kasuetan, adierazpen askatasunaren mugak neurtu egin behar baitira gizarte demokratiko batean.

3.7- Segurtasun indarrak eta taldeak

Era berean, aipagarria da "Askatasunaren memoria" Polizia Nazionalaren herriz herriko erakusketa, terrorismoak eragindako polizia biktimak gogorarazten dituen eta Euskal Herrian ere ikusgai egon zena (El Mundo, 2014-11-22. 6. or.).

Era berean, 2014ko ekainean, plaka bat jarri zuten eraildako ertzain baten izena duen plaza batean, Bilboko Guggenheim Museoaren ondoko plazan. Ertzainaren lankideek berek antolatu zuten ekitaldia Deustuko Ertzain Etxearen laguntzarekin eta babesarekin, bertan egiten baitzuen lan aipatu ertzainak (elpais.com, 2014-06-04).

3.8. Unibertsitateak

Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak akordio batzuk ditu Euskal Unibertsitate Publikoekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin. UPV/EHUren baitan, aipagarria da, besteak beste, Historia sailean, Valentín de Foronda Institutuaren eginkizuna, eta esparru juridiko eta sozial zabalagoan, EHUGUNE⁴⁵ taldeak bere "Agora. Bizikidetzaren esparruan" jarduera esparruan bideratzen duena, berariaz lantzen baitu memoriaren gaia.

Deustuko Unibertsitatean aipagarriak dira, beste jarduera batzuen artean, ETak enpresa munduaren aurka bideratutako estortsioari eta indarkeriari buruzko Memoria, etika eta justiziaren alorrean garatutako ikerlana, Etika Aplikaturako Zentroak koordinatutako ikerlana, eta unibertsitateko irakaslea izandako baten izena bertako ikasgela bati ematea terrorismoaren biktima izateagatik.

3.9. Eliza eta erlijio taldeak

Aipagarria da Gernikan ETaren biktimekin eta presoan familiartekoekin egindako Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Jardunaldia (El Correo, 2015-02-22). Era berean, aipagarria da Euskadiko eta Nafarroako gotzainek 2015eko Garizumarako prestatutako pastoral bateratua, biktimei "laguntza" ematera eta errekonozimendua aitortzera animatzen baititu herritarrak (El Mundo, 2015-02-18)

3.10. Terrorismoaren biktimekin lan egin duten biktimen eta bakearen aldeko elkarteak


Nazio Batuetako kultur eskubideen txostengileak 2014an idatziriko memorializazioari buruz honela dio hitzez hitz: "Monumentuak bezain garrantzitsuak dira erabakitzekeo prozesuak... Funtsezkoa da biktimak

45 Ikus <http://www.ehu.eus/es/web/ehugune/agora-bakea-eta-bizikidetzaren>.

ahalduntzea. Horretarako biktima direla aitortzeaz gain, beren burua birgaitzeko eragile erabatekoak ere badirela aitortu behar zaie, parte-hartzaile garrantzitsuak baitira oro har iraganeko tragediak gainditzeko gizarte ekintzetan. Behar baino gehiagotan, behin beren testigantzak bildu eta gero, ez zaie biktimei hartutako erabakiei buruzko informaziorik ematen, besterik gabe beren biktima-egoera horretan uzten dira, biktimak omentzeko monumentu baten sorreran beren parte-hartzearen bidez ahaldundu beharrean.

Euskal Herriaren testuinguruan, biktimen testigantzak eta lekukotasunak audio artxiboetan edo ikus-entzunezkoetan jasotzeko ekimena eta burura eramandako lana aitortu behar dira. Bestalde, Miguel Ángel Blanco Fundazioaren web orrian daude, “memoriarako espazioen” sailean, esku-hartze motaren arabera eskulturak, estatuak, monumentuak, plakak, monolitoak, iturriak eta beste batzuk, herrien arabera sailkatuz eta bakoitzaren kokalekua adierazirik.

COVITEk, bere aldetik, izuaren mapa digitala egin du, argazki eta iturri hemerografikoez horniturik. Era berean, 2014. urtean zehar, terrorismoaren biktimak hil ziren lekuetan plakak jartzeko kanpaina bat eraman du burura. Plakak, euskaraz eta gaztelaniaz, honela dio: “Hemen (ETA, GAL...) talde terroristak –izena eta abizena) erail zuen” (ikus argazkia)⁴⁶.



Ekimen horri jarraiki, atentatuak egindako lekuetan plakak jartzeko mozioa aurkeztu zuten Udaletxe batzuetan, baina adostasun politikoa lortu ez eta udal gehienetan ez zen mozioa aurrera atera. Aitzitik, plakak jartzeko konpromisoa hartu dute, besteak beste, Bilboko eta Barakaldoko Udalek. Udalerrri batzuetan, esate baterako Donostiakoan, hainbat aldiz kendu dituzte ez zutelako jartzeko udal baimenik.

Bestalde, 2013an, COVITEk, beste elkarte batzuekin bat, manifestu bat sinatu zuen. Horren arabera “ez zeuden, ETAREN kaltetuak ziren aldetik, gaur, 2013ko ekainaren 27an, Diputatuen Kongresuan izango den omenaldian egoteko baldintza etiko eta moralak. Elkarte sinatzaileek, ordezkatzen dituzten terrorismoaren biktimen izenean, gaurkoa bezalako omenaldiek zentzurik ez dutela diote, itxura guztien arabera botere politikoaren eta ETAK kaltetuen artean egon ez dagoen bat etortze bat agerian uztea baitute horrelakoek helburu”.

Azkenik, web orri bat sortu du COVITEk (www.manifestodignidad.com) egungo memoria-politikek biktimen duintasuna errespetatzen ote duten zalantzan jartzen duen manifestu bati atxikitzeko aukera ematen duena.

Biktimen memoria bizirik edukitzeko fundazioen artean aipagarria da Fernando Buesa Fundazioak mintegiak antolatzeke, bakean oinarritutako kultura sustatzeko eta bere dokumentazio zentroan dokumentuak eta artxiboak biltzeko egiten duen lan handia.

Euskal Herriko Bakearen Aldeko Koordinakundea, Lokarri, Bakeaz, Baketik, BAKEOLA, Gernika Gogoratu eta beste elkarte batzuk dira heziketa edo/eta kultur ekitaldien bidez terrorismoaren biktimen memoria bizirik edukitzeko zereginetan lagundu duten beste erakunde batzuen adibide.

46 Iturria: El Correo (25.09.14; 29.10.14; 05.10.14; 29.11.14; 15.12.14; 22.12.14).

3.11. Hedabideak

Eztabaida-taldeetan ikusiko denez, biktima batzuentzat ez da batere atsegina googlen hildako familiartekoaren inguruan ageri den aurreneko albistea atentatuaren eguneko argazki morbosoa izatea; beste batzuen aburuz, berriz, zeregin bat betetzen dute argazki mota horiek. Bestalde, biktimen eragileen edo beren familiartekoen aldetik presioak izan litezke ahazteko duten eskubidea aldarrikatzeko⁴⁷.

2014. urtean zehar, oro har, hainbat hedabidetan jaso da memoriaren garrantzia (Santarén 2015; Marín 2014; Guenaga 2014).

Hedabide publikoetan terrorismoa gaitzesten ez duten biktimen eragileen kontakizuna eskaintzeko zailtasunaren erakusgarri, esan dezagun 2014an eta 2015. urte hasieran, eztabaida latza sortu zela EITBn solaskideetako batek, ETako buruzagi ohi batek, ETako kondenatu baten aurreko estimua azaldu zuelako, eta ETako beste kide bati lehendik eta beste hedabide batean egindako elkarrizketa batean adierazi zuelako “Espainiako Indar Armatuaren aurkako erresistentzian boluntario gisa parte hartu zuela”, “erakunde bidegabe” batzuen aurka egiteko” (El Mundo, 2015-02.01, 13.or.).

Beste hedabide batzuen ekimenen erakusgarri dira, esate baterako, “Bidasoan Elkarbizitzan” Jardunaldiak, Antxeta Irratiak eta Lokarri Elkarrekin antolatutako, “iraganeko gertaerak etorkizunean ez errepikatzen” helburuarekin eta biktimen esperientziak aintzat hartuta (El Mundo, 2015-01-05, 5. or.).

3.12. Ekimen literarioak eta artistikoak

Nazio Batuen kultura eskubideetarako txostengilearen 2014ko txostenean adierazten denaren arabera, artistek gaitasuna dute:

“iraganari buruzko argi gehiago emateko eta besteak “irudikatzen” pertsonen gaitasuna sustatzeko eta prozesu horietan berebiziko zeregina burutu ahal izateko. “Beste zehatz” batzuk aintzat harturik, arte adierazpenek agerikotasuna eman diezaiokete biktimei beren eskubideen urraketen sakontasuna, zabaltasuna eta ondorioak ezagutaraziz beste komunikatzeko forma batzuek nekez lor dezaketen moduan, datu estatistiko hutsen eta egia azalertzeko batzordeen txosten ofizialen berri emanez...

Badira esperientzia interesgarriak, esate baterako, gertaera zehatz batzuk eta horiek berekin batean dakartzaten ideologiak ospatzeko monumentuak eraikitzen lehiaketa publikoak zalantzan jartzen dituzten artistak, horiei esker jendaurreko eztabaidak egiteko espazioak antolatzen direlako eta biktimak ahalduz direlako. Esate baterako, Grupa Spomenik (Monumentu taldea) ekimenak, Milica Tomić artistak abian jarritakoak Belgradeko hiriak 2002. urtean 1990-1999 bitartean Jugoslavia ohiko lurraldean izandako gerretan izandako hildakoen eta biktimen aldeko monumentu baten eraikuntza lehiaketara ateratu zuten, eztabaida bizi sortu zuen gizartean, eta bertan behera geratu zen lehiaketa. Eztabaidari segida eman zion Taldeak adierazi zuen iraganeko gertaeren inguruan egiten ziren jendaurreko ekitaldi eta eztabaida guztiak beren horretan zirela monumentu. Eztabaidek, horietan artistek, aditu profesionalak eta ikasleek, biktimek eta elkarrekin parte hartu baitzuten, bideak ireki zituzten biktimek berek esan beharrekoak esan zituzten eta beren ospakizunak eta ekitaldiak antola zituzten, esate baterako Omarskan. Gisa horretan, biktimak bihurtu ziren beren omenaldi-monumentuaren eraikuntzaren protagonista... Monumentuen eraikuntzak politikoen eta artisten arteko elkarrizketa eskatzen badu, garrantzitsua da eztabaida horretan komunitate interesatuei eta oro har gizarteari parte hartzeko aukera ematea, baita monumentu eta oroitzapen-obren ondoan bizi diren pertsonen ere. Artistak helarazten duen mezua azaldu eta aurkeztu egin behar zaie herritarrei... Komisario batzuen aburuz, erakusketen antolara parte hartzen duten interesatuen beren historiak antolatzen datza euren lana. Historiaren ikerkuntzan eta idazkuntzan ezinbestekoa da eta bultzatu beharra dago interesatuen parte-hartzea. Bakearen museoek historia berriek argia ikusteak erraztu dezakete, esate baterako, egia azalertzeko eta adiskidetzeko batzordeen aurrean beren testigantza ematen ezeroso sentitzen diren pertsonen lekukotasunak eta objektuak bilduz”.

Euskal literaturaren esparruan (Vazquez 2011), esate baterako, Idoia Estornesen “Cómo pudo pasarnos esto. Crónica de una chica de los sesenta” izenburuko liburuak Euskadi Literatura Saria jaso zuen 2014an; bertan memoriari buruzko gogoeta bat egiten du, eta “kontakizunaren sabaia goratzeko” beharra aipatzen du.

47 Zentzu horretan, irakurri Kolonbiako Lozano, Villamizar eta Antequeraren kasua (2014, 9); izan ere, aintzat hartu zuten “Kolonbian “ahantzeko” Eskubidea arautzeko” proposamena nola jazarritako pertsonentzat hala gizarteratutako pertsonentzat ere. Ez dago etorkizunean ere “bizkar-zorro” hori eramaten jarraitzeko arrazoirik. Munduko herrialde asko aurrerapausoak egiten ari dira eskubide unibertsal hori babesteko bidean. Ildo horretatik, ikus 2014ko azaroaren 11ko Deia egunkariako albistea, ETaren terrorismoagatik zigortutako pertsonen buruzkoa.

2014. urtean ez dira gutxi izan sortutako dokumentalak (Cabeza y Montero 2012; Barrenetxea 2015) eta filmak, esate baterako, “1980”, “Lasa eta Zabala” eta “De Echevarria hasta Etxeberria”.

Espazio birtualean egokitutako era askotako blogei dagokienez, aipagarri dira, adibide gisa, Gaizka Fernández historialariarena (<https://gaizkafernandez.wordpress.com/2014/07/28/como-se-recordara-el-terrorismo-en-el-pais-vasco-eta-y-la-desmemoria/>) eta, guztiz bestelako esparru bati dagozkion beste bi, bata terrorismoaren biktimak gogoan izateko artelanak biltzen dituena (<http://vetustideces.blogspot.com.es/2013/11/como-recordamos-las-victimas-del.html>) eta ertzainen aurkako atentatuei buruzko informazioa jasotzen duen beste blog bat (<http://ertzaione-1.blogspot.com.es/2009/06/atentados-de-eta-contra-la-ertzaintza.html>).

Bukatzeko, bi argazkigintza proiektu ditugu aipagarri. Zentzu horretan, bizitza bere espazioren eta denboraren dimentsioetan ikusteko artea da argazkigintza, eta horregatik indar handia izan dezakete argazkiek memoriaren tratamenduan.

Bi proiektu independentek biktimizazio terroristaren lekuei urte batzuk geroago argazkiak egiteko ideia garatu dute gertaera jazo zen egunean eta orduan (Uribe 2011; Nave 2013).



Iturria: Uribe (2011) ⁴⁸



Iturria: Nave (2013) ⁴⁹

48 Iturria on-line dago irakurgai: allidonde.files.wordpress.com/2010/03/13-03-1976-manuel-albizu-idiaguez-getaria-guipuzcoa.jpg.

49 Ikus <http://www.makma.net/eduardo-nave-a-la-hora-en-el-lugar/>. Era berean, ikus <http://alahoraenellugar.com/>.

Gesto por la paz elkartearen proiektua ere ekar dezakegu gogora. 2010. urtean, pertsona talde bat Bilboko kaleetan barrena ibili zen biktimizazioaren lekuko zoruan biktimen izenak eta data idatziz eta betiere bizirik dagoen lore bat margotuz.



Iturria: Gesto por la Paz

Bada “Hutsuneak/Vacios” izenburuko beste argazki proiektu bat. Hamalau familiak ETAk erail aurreko beren familiartekorekin osatutako argazki bat aukeratu zuten, eta gero beste argazki bat egin zuten leku berean hildakoaren presentziarik gabe baina (Gipuzkoako Batzarrak, 2010)⁵⁰.

Bere aldetik, Joseba Zabalza argazkilariak, bere “Nombres para recordar/Gogoan hartzeko izenak”⁵¹ blogean, ETA ez beste talde terroristen eta polizia gehiegikerien biktimen familiartekoei biktimizazioaren lekuetan egindako argazkiak aurkezten ditu.

Bost argazki proiektu hauetan, arte eta testigantza izaera agerikoa duten proiektuetan, ez dira biktimak ageri, eta haietako batzuetan zeharkako biktimen begirada jasotzen da.

3.13. Familien ekimenak

Elkarretaratzeak⁵², mintegiak, jardunaldiak, lore eskaintzak (hilerrietan eta beste leku batzuetan), instalazioak, ekitaldi erlijiosoak eta beste ekimen batzuk egiten jarraitzen dute terrorismoaren biktimen familiek.

Alde batetik, memoria bizirik edukitzeko ekitaldi batean eta bitartekari bat lagun, alargunaren ondoan izan zen konponbiderako topaketan izandako presoa (El Correo, 2014-07-31).



Beste aldetik, postontzi fisiko eta birtual bat instalatu zuten herritarrek beren babesa, oroitzapena eta autokritika adierazteko modua izan zezaten (El Correo, 2015-02.19). Kasu horretan, baimena eskatu ez zuelako, familiak “arren” eskatu zion Udalari ez zezala kendu. Familiaren arabera, gutun asko jaso ziren egun gutxiren buruan.



50 Ikus Hutsuneak/Vacios izenburuko erakusketaren bideoa hemen: http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/micro_victimtas2010.jsp?idioma=es. Cfr. Martín (2013).

51 Ikus gogoanhartzekoizenak.blogspot.com.es/.

52 Pertsona batzuek utzi egin diote elkarretaratzeetan parte hartzeari, “betiere saihesten saiatu diren hedabideen arreta eta protagonismotik urrutira eta biktimak beren intimitatean” gogoratzeko eta, kasu batzuetan, elizkizun bat egiteko (El Correo 29.11.14).

IV. Memoria konponarazlearen eredua: oinarria eta printzipioak

*“Mundua lerro batean elkartzen da,
Mundua lerro batez zatitzen da,
ederra eta ikaragarria da marraztea”*

(Eduardo Chillida)

1. Oinarria: memoria justiziatzat hartua

Hainbat memoria mota dagoela kontuan izanik, konponbiderako memoria edo memoria “konponarazle” izenondoa emateko proposamena egingo dugu epigrafe honetan. Memoriaren, espazioaren eta justiziaren arteko harreman batzuk azaltzeko bidea emango digu eredu horrek. Egungo justiziaren ondorio praktikoak eta mugak aintzat hartzen badira ere, giza eskubideen elkarmendekotasuna eta zatiezintasunak gogoan planteatzen da ikuspuntu hau.

Badira ekimen batzuk biktimologiaren alorrean, haietako batzuk lan honetan adieraziak, gizakien justizia premia epai penal batera murriztea egokia ez dela azpimarratzen duten ikerlan batzuen emaitzak ezagutarazteko. Epaitegiez haratagoko justizia mota batzuk badaudela azpimarratzen da, eta horiek betiere izango direla ezinbestekoak abiapuntu gisa.

Reyes Matek justiziatzat du memoria batez ere eragindako kale pertsonalak, sozialak eta politikoak konponezinak direnean. Justizia anamnetiko horretan, funtsean biktimen testigantzen bidez, erreferente etiko, sozial eta politiko bihurtzen da memoria.

Beste egile batzuek ordaindutako memoria baten arriskuez ohartarazten digute (Nora, 2002). Candauk (1998), ikuspuntu antropologiko batetik, mnemotropismo edo memoriaren konpulsio esaten dio horri.

Honenbestez jar daitezke harremanetan bi ideia horiek: memoria justizia baldin bada, memoria konponarazlearen (*restorative memory*) eredu batez mintzo gaitzke ordaindutako memoriaren ereduari kontrajarrita. Bigarren eredu hori betiere bultzatuko lukete estatuko botereek edo erakundeek, ukitutako aldean partaidetzarik gabe eta haien interesekoak ez diren helburu ideologikoei jarraiki, kasu batzuetan mendekatzeko edo zigortzeko helburuarekin, eta/edo herritarren segmentu baten aurreko gorrotoa edo halako estigma sustatzen duten ondorioak, berriaz ala ez, sorrarazteko xedearekin.

Memoria konponarazlearen ideiak justizia berrezartzeari buruzko azterketa eremu gero eta zabalagoan du oinarri (Wachtel 2013; Olalde 2015), nazioarteko araudiak⁵³ sustatuta dago hein handi batean, batik bat biktimengan duen eragin onuragarriari buruzko ebaluazioen emaitzen argitara (Braithwaite 2014; Sherman eta Strang 2007)

Euskal Herrian izandako terrorismoaren esparruan egindako azterlan batzuetan (de la Cuesta, 2014a) agerian geratu da biktimek interesa dutela horrelakoak egiteko, eta ugari direla konponbiderako programetan parte hartzeko gertu dauden pertsonak.

Delitua eta gizarte-kontrola pentsatzeko modu ezberdin bat dakarten balioen sorta gisa definitu daiteke justizia konponarazlea. Iragan mendeko hirurogeita hamargarren urteetan sortu zen, ohiko justiziaren eguneroko praktikak koherentzia eza ugari izateaz gain, biktima-eragileentzat, biktimantzat, profesionalentzat eta oro har gizartearentzat eragin kaltegarriak sorrarazten zituela ikusirik. Delituaren aurreko bestelako begirada eskatzen du biktimen ikuspuntuak aintzat hartzeko, eragindako kaltea materialki eta sinbolikoki konpontzeko, borondatezko topaketa berme emaile gisa konpontzeko, kontzeptu konplexuagoan. Lan luze baten ondorengo azken fase gisa ulertzen da topaketa, erdian geratzen den espazioan tartea bera bereizten duen aldean egokitzeko aukera gisa (Pali, 2014). Topaketa horretan parte hartuko lukete biktimek, biktima-eragileek, lagun dituztenek, elkarrekin kideek eta bitartekariak, denek erreparazioa eta erantzukizun aktiboa izango dituztela helburu. Erreparazio hori burura eramateko, ikaskuntzan eta denen arteko erabaki hartzeetan oinarritutako prozesua behar du izan.

53 Konponbiderako justiziari buruzko nazioarteko estandarren inguruan gehiago jakiteko, ikus, besteak beste, Varona (2012).

Memoria konponarazlearen alorreko jarduerak ez dira zehazki 2011n eta 2012an egindako konponbiderako topaketan modukoak izan, baina esperientzia haietatik abiatuz, praktika askoz ere zabalagoak eta irekiagoak proposatzeko aukera ematen dute memoriari begira, konponbideari dagokionez.

Memoriaren esparruan eta kudeatzaile publiko edo profesionalentzako gidalerroak ez daudela egiaztatu eta gero, jarraian adierazten ditugun zortzi printzipioak jaso ziren *Memoria berreskuratzeko Ekimenak trukatzeko Nazioarteko Foroaren* konklusioetan, azken hamarraldian hainbat lurraldetan memoria bizirik edukitzeko xedean bideratutako praktikak aintzat harturik (Impunity Watch 2012, 67-68) :

- **Testuingurua:** Aintzat hartu behar dira indarkeriaren arrazoiak, izaera, garapena, egungo egoera soziopolitikoak eta indarkeriaren ondorio iraunkorra.
- Memoria bizirik edukitzeko ekimenetan eragile bakoitzak burututako zereginari buruzko **auto-hausnarke-ta** kritikoa dauden balio eta aurreiritzi ezberdinen argitara, jakinik eragile ezberdinen presentzia bera oso eragingarria dela memoriari eusteko prozesuetan, eta memoria ez dela helburu anbiziotsuegiekin zamatu behar. Beste testuinguru batzuk aintzat hartu litezkeen arren, kontuan eduki behar dira esperientziak leku batetik bestera eramateak dakartzan arriskuak.
- **Parte-hartzea:** Herritarren parte-hartzeak bermatu egin ditzake herri bakoitzaren beharrezkoak, kultura, giza eskubideak, sentiberatasun soziala eta kulturala, konpromiso esanguratsua eta testuinguruan egokiro kokatzea.
- **Osagarritasuna:** Egia, justizia eta erreparazioa bermatzeko eta gertaerak ez errepikatzen bermeak emateko mekanismo osagarriak bilduko dituen justizia eraldatzailearen zatitza ulertu behar dira memoriari eusteko ekimenak. Giza eskubideen ikuspuntutik, arreta berezia eman behar zaie memoriak etikari eta politikari ekarpenak egiteko moduei.
- **Prozesua:** Prozesu luzea da memorializazioa, parte-hartzailea da, eta aktore guztien esku-hartze iraunkorra eskatzen du, eta bereziki, gazteen interesa belaunaldien arteko elkarriketak sustaturik. Funtsezko alderdiak dira noiz eta nola.
- **Askotariko kontakizunak:** Era guztietako hitzaldiak eta ulertzeko moduak onartu behar dira, elkarriketak duen balioa onartu behar da, nahiz horrek ez dakarren ezinbestean berehalako adiskidetzeta ez eta biktimek duten justiziaren premiari uko egin behar izatea.
- **Gazteria:** Memoria bizirik edukitzeko jarduerak lehenetsi eta sustatu egin behar dute belaunaldi gazteenen parte-hartze aktiboa, indarkeriari aurrea hartzeko eta biktimen memoriaren duintasuna bermatzeko hurrengo eragileak direlako⁵⁴. Ikerlan honen egileen arabera, horrek ez du esan nahi terrorismoaren ondorio larrienak jasandako belaunaldia ahaztu egiten denik, eta ez dakar biktimek adintsuenen bazterketa, oso bestela baizik, pertsona horiek gazteekin harremanetan jartzea baita helburua.
- **Esanahi politikoa:** Politikari atxikita dago memoriari eusteko prozesua, eta urratutako eskubideak aldarrikatzeko erabili daitezke edo inpunitatea areagotzen dituzten eta funtsezko eskubideak iraultzen dituzten interesak babesteko. Terrorismoa arbuatu behar du memoriak.

Braithwaite eta Mugford adituek (1994), beren aldetik, aplikatu litezkeen estigmatizazio ekintzak ez baizik eta, egin beharreko egokitzapenak eginda, memoriari eusteko ekitaldietarako⁵⁵ baldintzak izan dituzte aztergai –nahiz eta egileok funtsean adin txikikoen justizia penalaz ari diren–. Testu hori bereziki interesgarria da, ekitaldiak eta errituak baititu aztergai, eta memoria bizirik edukitzekoak ere halakoak baitira. Erritu horiek estigmatizagarriak izan daitezke edo konponarazleak. Braithwaite eta Mugford ez dira memoriari ari, baina sakon aztertzen dute zer justizia motak bihurtzen duten memoria bat molde bateko edo beste, Braithwaitearen zentsura barneratzailearen teorian oinarriturik eta Harold Garfinkelen lan aitzindaria (1956) erreferentziatzen harturik. Memoria bizirik edukitzeko ekitaldiak egiteko hamalau baldintza identifikatzen dituzte, baina guk zortzitan bildu ditugu lan honi begira:

54 Etorkizuneko belaunaldien eta heziketaren, gizarteratzearen eta memoriaren arteko loturaren arteko garrantziaren ideia hori, terrorismoa justifikatu ez dezaten eta gorrotorik sentitu ez dezaten, behin eta berriz islatu da IVAC/KREI institutuak biktimekin garatutako eztabaida-taldeetatik eta elkarriketetatik ondorioztatutako analisisetan, eta horietan ere agerian geratu da ikasleen parte-hartzeari ematen zaion garrantzia (de la Cuesta, 2014). Aztarna edo arrastoaren modura dabil memoria. Bizi edo ezagutu ez duten zerbait gogoratzea eskatzen diegu belaunaldi berriei, gutxienez biktimiek edo gazte horien gaitardura hurbil dauden pertsonen egin duten bezala, eta hori guzti hori etorkizunari begira izateko, sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko.

55 Honela dio Braithwaitek zentsura birbarneratzaileari buruzko lan ospetsuari egindako aitzin-solasean (1989): "...delinkuentziaren kontrolean esku-hartze komunitarioa indargabetezko politika kriminal tradizional eta nagusi horien bakoitzaren joerak sustatu baizik ez du egiten delinkuentzia. Delinkuentzia hobe kontrolatzen da lehenengo kontrolatzaileak komunitateko kideak badira, arau hausleak lotsarazteko urratsak egiten badituzte eta, behin haiek lotsarazi eta gero, beren esku-hartzea sustatzen badute arau hausleak legeak betetzen dituzten herritarren komunitatean gizarteratzeko moduak adosteko. Delinkuentzia tasa apala duten gizarteetan pertsonen ez diote soilik bereari eusten, muga batzuk ditu beste joeren aurreko tolerantziak, eta komunitateek zuzenean esku hartzen dute dagozkien arazoetan".

-
- 1) Ezin onartuzkotzat da, ez hainbeste egilearen pertsonarengan, baina aitortu egiten da haren duintasun kaltetua.
 - 2) Aintzat hartzen dira, hasteko, biktimen beharrianak eta interesak, baina baita egileenak, beren familienak eta oro har gizartearenak ere, eurek berek adierazitakoak, beren erantzukizun aktiboa aitortu ondoren izandako parte-hartzearen bidez.
 - 3) Memoriak berekin batera dakar, biktimak eta Zuzenbide Estatu demokratiko batek berezko dituen balioak kontuan izanik, indarkeria terrorista gaitzesteko mezua.
 - 4) Memoriak parte-hartzaileen arteko hurbiltzea dakar, enpatia sortzeko eta eskuzabal izateko aukera eskaintzen du, inolako presiorik eragin gabe.
 - 5) Burura eramandako ekintzen aurreko erantzukizun aktiboaren garapenean eta aitortzan oinarritu behar du, zigorra merezi duen arren biktimaren eragilea gizarteko kide ere badelako mezua zabalduz.
 - 6) Orekatu egin behar dira partaidetzari dagozkion botere aldeak.
 - 7) Ekitaldietan malgu jokatu behar da, biktimen beharrianak eta egoera espezifikoak kontuan izanik.
 - 8) Zeremonia horiek koherenteak behar dute izan, beste elkarte edo erakundeen praktikekin koordinaturik behar dute, eta behar-beharrezkoa da adostasun politikoa.

2. Memoria konponarazle baten printzipioak euskal herriaren testuinguruko biktimizazio terroristetan

Lehendik egindako ikerlanak eta Justizia eta memoria konponarazlearen prozesuei buruzko giza eskubideen Nazioarteko estandarrak oinarri hartuta, memoria konponarazle orok dauzkan hogeita hiru printzipio hauek bereiz ditzakegu.

1. Memoria konponarazlea ez da soilik trauman oinarritutako edo hartara mugatutako memoria pribatua, izan ere, lehenik eta behin biktimei (adierarik zabalenean ulertuta, zeharkako biktimizazio modu guztiak barne) eta ondoren gizarte osoari eragindako terrorismoaren aurreko berariazko gaitzespena lortu nahi da.
2. Memoria konponarazleak aitortu egiten du eragindako biktimizazioa, haren erantzukizuna, baita erreparatzeko, lehenagoratzeko eta gizarteratzeko beharrianak ere.
3. Borondatezkoa behar du izan. Memoria konponarazlea ezin da goitik ezarri eta garatu. Horretarako, behar bezala informatu behar zaie ukitutako pertsonen prozesu osoaren inguruan, dauzkaten mugak adierazirik eta prozesuan zehar edozein unetan uzteko aukera dutela jakinaraziz. Betikoa ez bezalako agintaritza-eredu baten arabera garatuko da, konfiantzan eta adostasunean oinarritua egon behar baitu.
4. Dauden baliabideen arabera, parte hartzeko berdintasuna bermatuko da.
5. Hasieratik amaierara arte, egiazki behar du izan parte-hartzailea.
6. Biktimizazio ororen dimentsio objektiboak eta subjektiboak jaso behar ditu, parte-hartzaileei aukera emanez, bereziki biktimei, biktima-eragileei, lagunei eta herritarrei –zehazki gazteei– beren kabuz hitz egin dezaten eta horretarako kasuan kasurako egokitutako espazio eta prozesu sortzaile eta malguak sustatuz. Memoria konponarazleak hitza lehenesten du eta kontatzeko moduko memoria lortzeko, ezkutuan dagoena eta ezkutaturik egon dena ageriko egiteko gai den memoria adierazgarria lortzeko, aditu egiten ditu hitz horiek.
7. Memoria lasaia eta orekatua behar du izan memoria konponarazleak, subjektibotasunak ez ditu gizarte eta politika alorreko iritziak zapuztu behar, eta objektibotasunak ez du biktimaren ikuspuntu bakar eta aldakorra desagerrarazi behar.
8. Memoria mugatua da, beste memoria-praktika batzuen eta egia, justizia, erreparazio eta gertaerak ez erreplikatzeko eskubideen erabilerearen osagarria da.
9. Nola ekimen pribatuek hala publikoek garatu dezakete, baina eragileen arteko koordinazioak, helburu nagusia zein den kontuan izanik, onurak baizik ez dizkie ekarriko parte-hartzaileei eta gizarteari.
10. Emaizak garrantzitsuak diren arren, prozesuan oinarritzen dira memoria konponarazlearen onurak, haren konplexutasunari eta denboran duen irismenari balioa kendu gabe.
11. Parte-hartzaile guztien eskubideak bermatu behar dira, bereziki justiziari eta konfidentzialtasunari dagokienez.

12. Gaitasuna duten pertsonak lagunduko dute, beren laguntza eskainiko dute zereginetan⁵⁶.
13. Forma eta adierazpide –artistikoak barne– ezberdinen topagunea izan behar du helburu.
14. Topaketa horrek biktimaren eragilearen erantzukizun aktiboa eskatzen du ahal den neurrian biktima – adiera zabalean hartuta, zeharkako biktimak barne, alegia– erreparatzeko, bereziki memoriari eusteko praktiken bidez.
15. Biktima-egoeraren aitopenen eta erreparazioak izan behar dute prozesu guztien ardatz, eta ahal den neurrian prozesu osoan zehar ez da epaitua sentituko, ez da zalantzan jarriko edo berriro ere biktima sentituko.
16. Prozesu osoan zehar parte hartzeko beharrezkoak diren laguntza psikosozialak eskaini behar dira, al-deek duten ahalduzko autonomia sustatuz eta balizko botere-asimetriak orekatuz.
17. Zentsura barneratzailearen, gizarteratzearen eta erantzukizun aktiboaren ikuspuntutik, saihestu egin behar da biktima-eragileenganako estigmatizazio laidogarria.
18. Prozesuen konfidentzialtasuna errespetatuta ere, azken emaitzen berri zabaldu behar da gizartean.
19. Biktimizazioaren aurreko memoria erreaktiboa da, baina baita prebentiboa ere. Zentzu horretan justizia eta jardunbide konponarazle gisa mintzo gara memoria hizpide dugunean, biak ala biak ari baitira etorkizuneko jarrera kaltegarrii aurrea nola hartu aztertzen.
20. Ezinbestekoa da gizarte hurbilenaren inplikazio engaiatua, baina inplikazio hori kideen arteko harremanak konfiantzazkoak direnean baizik ez da ahalbidetuko, elkar ulertzen direnean eta balioak partekatzen dituztenean, nahiz eta, adiskidetzeko ekimen hauek ere beren alea jartzen duten zentzu horretan.
21. Memoria konponarazlea osatzeko jarduera guztiak memoriari eusteko garatzen diren politika eta jardura guztien osagarri behar dute izan, koherenteak behar dute izan haiekin eta egokitzen diren testuinguru orokorrek.
22. Hala behar badu, koordinazio bat ezarriko da justizia penalarrekin eta presondegi erakundeekin, memoria konponarazlearen jardunen funtsa, xedea eta txertaketa azaltzeko. Gizarte osora zabaldu beharra dago azalpen-lan hori, mugen eta kritiken inguruko hausnarketa egin behar da, eta jaso egin behar dira iradokizunak.
23. Memoria konponarazlearen proiektu guztiak barruan eta kanpoan ebaluatu behar dira, esparru honetako giza eskubideen estandarrak betetzen direla ziurtatzeko.

Aurreko printzipio horiek guztiak laburtu behar bagenitu, memoria konponarazlea pertsona kaltetuenekin egiten dela esango genuke, ez oro har pertsona “kaltetuari” edo “kaltetuentzat”, hori bai une oro gogoan izanik terrorismoa gaitzestea dela helburua. Kaltetutako pertsona horien artean daude, ezinbestean eta lehen lekuan, biktimak berak, baina baita biktima horiek eragin dituztenak eta gizarte hurbilena ere. Ekintza terroristak kalte pertsonal bidegabeak eragin ditu, kalte materialak eta/edo moralak biktimengan, baina eragina izan du baita biktima horien eragileen gizatasunean ere, kalte sozialak eta politikoak eraginez guztiz bazterrera utzia baitzuten biktimenganako gizatasuna (Bandura, 1987).

3. Ereduaren bideragarritasuna konponbiderako topaketan erraztai-leekin eta biktima-eragileekin egindako galdeketa eta elkarrizketen emaitzen argitara

“...izan direnak badirela da nire abiapuntua; eta lehen balioa izan duena orain ere badela. Agerian ez egon arren, areago, egiazki dagoen bakarra da, erlatiboak dira gainerako kontuak. Eta gauzatzeko prozesu horrek, lehengoratzeko horrek, ordain horrek, badu osagai positibo bat: bat-batean ohartzen zara lehendik ez zenuen zerbait baduzula, hor dagoela eta ustekabearen harrapatu zaituela. Iraganean paregabeak, izugarriak, izan direnak eta bat-batean, zergatik jakin gabe, ahaztu egin direnak, jendea egunero gertalekuetatik igaro dela zer jazo zen jakin gabe” (Garaizabal 2013, 10-11).

3.1. Hausnarketa orokorrak

Bestelako testuinguruak diren arren, biktimei dagozkien kontu batzuk aintzat harturik ari dira ikertzen Ipar Irlandako tokiko gatazkak konpontzeko ikuspuntuak (Chapman, Wilson eta Campbell 2012). Ikerlan hori

⁵⁶ Sentipenak azaleratzeko eta mina arintzeko aukerak eskaintzen dituen ekintza gisa ulertzen da ikuskaritza, zereginaren aurreko asetasun maila handitzea bila du, lanaren eraginkortasuna ardatz harturik. Gogoetak norberak egiteko da, eta ikaskuntza du helburu.

“Gizarte demokratikoetan kulturen arteko testuinguruetan justizia konponarazlearen ikuspuntuen bidez segurtasuna eta justizia ulertzeko beste modu bat garatzen”(2012-2016) (<http://www.alternativeproject.eu>) proiektuaren baitan ari dira garatzen, EUko Zazpigarren Programa Markoaren baitan. Ikuspuntu horren ezaugarrien artean, bi dira kontu azpimarragarriak:

- a) Arazo edo kontu zehazteratara mugatu beharra.
- b) Kaltetutako pertsonen eta komunitateen parte-hartzea eta konpromisoa.

Era berean, interesgarria da memoriari eusteko ekintza batzuk zirkulu konponarazleen gisara antolatzea, helburuen eta testuinguruaren arabera bertsioekin, zirkulu horiek diseinatzeke eta garatzeko teknika batzuk aplikatuz (Fellegi eta Szegó, 2013).

Sufrimenduaren gainean berreraikitzen saiatzen den memoria da memoria konponarazlea, une oro gogoan izanik erantzukizun batzuk daudela eta mundu guztiak ez duela modu berean jardun, eta kontuan izanik arbuigarriak direla legez kanpoko indarkeria mota guztiak. Garrantzitsua da memorian eremu geografiko jakin batera ez mugatzea, intereseko komunitateek hautematen dutena ere aintzat hartu beharra baitago. Zentzu horretan, interesgarria da komunitate zaindariaren kontzeptua berreskuratzea familiaritateko eta lagunek osatzen dutenetatik haratago egiteko. Memoria konponarazlearen eredu batean funtsezkoa da komunitatea, behar-beharrezkoa baita biktimgenganako errekonozimendua agerian uztea eta biktimga-eragileen erantzukizun aktiboa eta gizarteratzea sustatzea, komunitatearen beraren bitartekoak baliaturik eta gertaeren errepikapena zailduko duen gizarte solidarioago bat osatzen lagunduko duten horien parte-hartze enpatikoa sustaturik. Zentzu horretan, inklusiboagoak dira justizia berrezartzeko taldeak (zirkuluak, hitzaldiak, panelak), baina konplexuagoak dira. Nolabait ere, IVAC/KREI institutuak garatutako eztabaida-taldeek panel konponarazleen molde bat osa dezakete, biktimga-eragileen presentziarik gabe. Memoria konponarazlea osatzeko eredu horiek ez bairik gabe iristen dira hurbilen dagoen komunitatera edo herrira, ez ordea gizarte osora, baina ernamuin eraldatzailea daramate aldean, egingarriak baitira maila apalean eta eragin biderkatzailea izan baitezakete.

Jakina da konplexua dela Memoria konponarazlearen eredu baten proposamena, batez ere parte-hartzea bideratzeko moduei, biktimga-eragileen erantzukizun maila baloratzeko erari⁵⁷ –bigarren biktimgazioak eta estigmatizatzeak saihestearren– eta kontakizunaren beraren planeamenduari dagokienez.

Josu Zabartek, 17 lagun hiltzeagatik presondegiatan 30 urte eman dituen ETako kideak, honela zioen hedabide batzuetan aspaldi ez dela egin zioten elkarrizketan: “Nik ez dut inor erail, nik egin egin dut... Estatuak bultzatu nau horretara. Nire ustez Estatuak da terrorista, ETA erabaki batzuk hartzera behartu zuena”. Beste hedabide batzuek ere jaso dute GALeko kide izateagatik kondenatutako pertsonen adierazitako justifikazio pragmatikoak. Memoria konponarazlearen eredu baten proposamenak ez du inozoa izan nahi, ez ditu inpresio faltsuak sustatu nahi, errealtateak agerian uzten baitigu ETako preso gehien-gehienek eta biktimgak eragin dituzten beste talde terroristetako preso ia guztiak ez dutela horren zaila gertatzen den erantzukizun aktiboaren bide hori egin.

Gainera, gogoan eduki behar dugu biktimgen sektore batzuk, terrorismoagatik kondenatutako pertsona gutxi batzuek egindako urratsari on baderitzote ere –Nanklares bidea deitu prozesuarekin bat egindako presoek kasua erakusgarri–, ez direla gustura sentitzen jendartearen gertatzen direnean (El Correo, 2014-07-19).

Gure testuinguruko memoria konponarazlearen bideragarritasunean sakonago hausnartu ahal izateko, ondoko epigrafeetan biltzen dira 2011n eta 2012an⁵⁸ konponbiderako topaketetan erraztaileekin egindako galdetegi emaitzak. Galdetegi horiek Sarreran adierazitako metodologiaren arabera egin ziren, eta ondoren terrorismoagatik kondenatutako pertsonekin –hemen ere bigarren mailako iturriak kontuan harturik–. Emaitza horiek V. kapituluko biktimgekin egiten diren eztabaida-taldeen bildutako emaitzekin osatuko dira. Dauden zailtasunak asko eta handiak direla eta prestatzeko eta garatzeko lanetan kontu handiz jardun behar dugula jakinik, ekimen horien guztien konklusio orokorrekin eramanen gaituzte memoria konponarazlearen proiektuak onuragarriak direla esatera⁵⁹.

57 Eragindako kalteagatik oinazearen ebaluazio zientifikoari dagokionez Bandesek (2013) dio kontu hori zaila dela afera horretan harremanetan daudelako kultur kontuak eta ezagutzaren alorreko zientzia batzuen gaitasuna. Konfidentzialtasunaren printzipioari dagokionez, testuinguruak bestelakoak izan arren, aintzat hartzekoak dira Ed Moloney eta Anthony McIntyre ikerlariek Ipar Irlandako gatazkaren inguruan egindako elkarrizketak (Havemann 2012).

58 Horiei buru gehiago jakiteko, ikus Pascual (2013).

59 Gutxi badira ere, dagoeneko badira adibide batzuk, biktimgak baloratuak eta biktimga-eragileen parte-hartzearekin, konponbiderako memoriaren azken fase jarraitu gisa, biktimgei eta beren familiei omentzeko ekitaldietan parte hartuz, biktimgei eta gizaritari zuzendutako gutunak irakurriz,...

3.2. Konponbiderako topaketetako erraztaileei egindako galdetegien emaitza

2014ko bigarren seihilekoan zehar posta elektronikoaren bidez eskatutako sei galdetegietatik bostek jaso dute erantzuna⁶⁰. Honako hau da erantzun duten pertsonen profila. Lau gizon eta emakume bat, denak 38 eta 49 urte bitartekoak. Horien jatorrizko lanbide esparruari dagokionez, hainbat Autonomia Erkidegokoak daude: bi unibertsitatearen mundukoak dira, beste bi abokatutza/bitartekaritza esparrukoak eta beste bat psikologia/bitartekaritza esparrukoa.

1. Aintzat harturik justizia konponarazlearen gaian eta/edo biktimen eta terrorismo delituak eragindako biktimen gaian duzun eskarmentua, eta justizia berrezartzailearen nazioarteko estandarrei dagokienez, zure aburuz zein lirateke memoria konponarazlea osatzeko balizko proiektuen (tokiko proiektuak eta proiektu parte-hartzaileak) funtsezko ezaugarriak?

1.1

Bitartekaritzan eskarmentua duten pertsonak esku hartu behar dute proiektuetan, ez dute zertan profesionalak izan, baina burura eraman beharreko lanari egokitzeko gaitasun pertsonalak eduki behar dituzte.

Ez dira proiektu guztiak talde, erakunde edo elkarte bakar baten esku utzi behar. Antolakuntza mailan administrazioari ahalegin handiagoa eskatzen dion arren, hobe da ekintzak talde txikitan garatzea, gehienez ere sei lagunez osatutako taldeetan, ahal dela beren lana egin behar duten inguruneetan sortutakoetan; antolatze gaitasuna izan behar dute, ekonomikoki independenteak izan behar dute kopuru jakin bat esleitu zaiela bermaturik, betiere ekintza plan bat aurkezteko eta baliatutako diru publikoaren kontu emateko betebeharrarekin.

Lan egingo duten pertsonen pribatutasuna une oro errespetatuz, ekintza koordinatu eta zehatzen bidez beren lana hemen eta han ezagutarazteko konpromisoa egin behar dute bere. Gerora egin beharreko hausnarketarako eta proiektua ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak eta informazioak emateko konpromisoa hartu behar dute. Beren zereginetik eratorritako ekintza orotan esku hartuko dute, beste erakundeekin koordinatuko dira, memoriari eusteko proposamenak egingo dituzte, bideratzen diren proiektuetan bereziki gizartearen parte-hartzea sustatuz.

Epe luzerako proiektuak izan behar dute, modu jarraituan finantzatuak behar dute izan, urte askotako gastuari aurre egiteko eta, helburu zehatzak ebaluatzeko finkatzen diren adierazleen arabera, aurrera jarraitzeko konpromisoarekin.

Botere politikoak ez du esku hartu behar proiektuen garapenean. Sekretu profesionalak babestuta behar dute bitartekariak, eta anonimotasunean egin ahal izango dute lan. Botere publikoak talde hauen lanaren aurreko babes instituzionala bermatuko du, taldeen zereginaren edukiaz landa egin litezkeen kritika edo erasoaren aurrean.

1.2

Indarkeriaren aurreko beren gogo-bizipenak modu seguruan eta beren burua errespetatuta sentituz adierazi ahal izateko espazioak antolatu behar dira, indarkeria ekintzetan izandako rola edozein izanda ere.

1.3

Nire aburuz, honako hauek behar lukete izan ezaugarri nagusiak:

- borondatezkotasuna, inor ere ez da nahi eta sentitzen ez duen zerbaitetan parte hartzera behartu behar;
- begirunea guztiei, baina batik bat biktimei, marra gorria bigarren biktimizazioa eragitea dela;
- ez soilik biktimaren eta biktima-eragilearen zuzeneko parte-hartzea, gizarte osoarena ere bai, biktimak eta biktima-eragileak aldez aurretik adosturiko dinamika eta prozesuen bidez; era berean, ekimenak biktimaren eta biktima-eragilearen arteko elkarketa pribatuaren mugak gainditzen dituzte, handia behar du izan gizartearen babes mailak.
- gizartearen parte-hartzea bere esparru pribatu-zibilarri zabaldu behar zaio, esparru publiko-instituzionala hor dagoela aiantzi gabe, baina ez dute batzuk besteek baldintzatuta egon behar.

⁶⁰ Guztira zazpi izan ziren 2011ko eta 2012ko konponbiderako topaketetan bitartekariak. Bi lagunek galdera orokor bakar bati erantzun zioten. Ikus erabilitako galdetegia 5. eranskinean.

2. Aintzat harturik justizia konponarazlearen gaian eta/edo biktimen eta terrorismo delituak eragindako biktimen gaian duzun eskarmentua, zure ustez onuragarria izan liteke bientzat eta gizartearentzat memoriari eusteko herri mailako proiektuetan zuzenean parte hartzea? Bide ezberdinak eta haietan inplikaturako agenteak bereizirik (biktimak, biktima-eragileak, gizartea, presondegi erakundeak, tokiko agintariak...), zer aukera eta zailtasun ikusten dituzu horretan?

2.1.

Beharrezkoa ez ezik, ezinbestekoa ere bada. Konponbiderako prozesuetan esku-hartzearen ondorioz, biktimak eta batez ere biktima-eragileak beren ekintzen biktima zehatzak erreparatzeko ekintza sinbolikoak egin ahal izateko esparru bat ari dira eskatzen, baina oraingoz zirkunstantzia batzuk ari dira hori galarazten, jardun terroristak eten berriak direla, biktimak eragin izateagatik presondegietan direnen aurkako gobernuaren presio ezin justifikatuzkoak direla, erakundeen mendekuaren aldekoen presio mediatikoa dela, eragindako oinazeak sorrarazten duen ahalkea dela. Eragozpen mota horiek gainditzeko urratsak egin behar ditugu, solastatu ahal izan diren pertsonak gisa honetako ekintzak prestatzeko topaguneak aurkitu baitituzte, gutunak irakurriz, jendaurreko hitzaldiak eginez, biktimak gogoan edukitzeko omenaldietan edo otorduetan parte hartuz. Eragileekin lan egiteko bideei dagokienez, honako hauek aurreratu genitzake:

- *Biktimei dagokienez. Gizarteak haien prozesua eta dolua errespetatuko dituen jendaurreko hitzaldi orekatua berreskuratu behar du, oinazea arintzeko irtenbide bakarra mendekua ez dela garbi edukirik. Biktima-eragileekin elkartzeko aukera eman behar zaie horretarako egokierarik baldin bada-go, eta errespetu osoz onartuko da hartzen duten erabakia.*
- *Biktima-eragileei dagokienez. Aurrera egiteko premia ezker abertzaleak ETArekin ekintzen bidegabekeria eta izugarrikeria aitortzeko eskakizun etikoan eta presoak aske uzteko, nahi duten haiek justizia berrezartzeko ekintzetan parte hartu ahal izan dezaten. Biktima-eragileei jarduera horiek aurrera eramateko esparru juridiko eta politiko segurua eskaini behar zaie, salatzeko eskakizun judizial aurkakoa baztertuz eta jazotakoaren kontara egiazkoa eskaintzeko beren parte-hartzea sustatuz. Estatu politikak sustatu behar dira, bereziki kartzela politikaren bidez, espetxeratutako pertsonak gizarteratzeko eta presoek sakabanaketari amaiera emateko.*
- *Gizarteari dagokienez. Eragindako kaltea aitorturik, presoak gizarteratzeko bide bat itxuratuko duen hitzaldi politiko baten sustapena, terrorismoagatik kondenatuen kaleratzearen kontakizuna ulergarria egingo duena.*
- *Udal eta erkidego mailan, parte hartutako pertsonen memoria bizirik edukitzeko, justizia egiteko eta erreparatzeko eskatutako jarduerak ahalbidetzeko esku hartu behar dute tokiko agintariak, parte hartutako pertsona horien borondatea desitxuratu dezaketen mezuak igorri gabe eta beren esku-meneko erakundeetan, batez ere ikastetxeetan, indarkeriaren aurreko gaitzespen etikoa sustatuz.*
- *Giza eskubideak errespetatu ditzala eskatuko nioke presondegietako erakundeari...*

Zailtasunei dagokienez:

- *Hitzaldi politiko batzuen oinarrian irabaztea edo galtzea dago.*
- *Badira gatazka betikotzeko interesa duten biktimen elkarteak.*
- *Ezker abertzalearen diskurtsoak, hauteskunderi begira, bozka gehien biltzea du xede, iragana "lehenbailehen" utzi nahi du atzean (hari erreparatu gabe), gertatutakoaren gainean gutxieneko hausnarketa etikoa egin gabe.*
- *Hedabideetan halako zentsura dago zubi-gintza izaerako lan ororen aurrean. Kazeten diskurtsoak men egiten dio botere politikoari.*
- *Desegin gabe dago ETA. Indarkeriaren aurreko gaitzespen eza.*
- *Presondegietako Erakundeen immobilismoa, baita atzerapausoa ere.*
- *Koldarkeria fiskala eta judiziala, azalekoak edo ezin justifikatuzkoak izan arren kritikak dakartzaten zuzenbide alorreko interpretazioak egiteko garaian.*

2.2.

Bai, positiboa da nire ustez. Aintzat harturik memoriari eusteko herri mailako proiektuetan zuzenean parte hartzea, zure ustez onuragarria izan liteke bientzat eta gizartearentzat memoriari eusteko herri mailako proiektuetan zuzenean parte hartzea? Bide ezberdinak eta haietan inplikaturako agenteak bereizirik (biktimak, biktima-eragileak, gizartea, presondegi erakundeak, tokiko agintariak...), zer aukera eta zailtasun ikusten dituzu horretan?

Aukera ezberdinak (heziketa eta artea) tartekatzearen aldeko naiz ni, eta dagokion lekuan eraildako pertsonen irudiekin osatutako omenaldi-plaka bat jarriko nuke, familiartekoei hala nahi izatera.

Gizarte-ehun hurbilenaren esku-hartzea ziurtatzeko, kilometro pare baten inguruan dauden ikastetxe guztien txandakako eta ondoz ondoko parte-hartzea sustatuko nuke.

Memoriari eusteko Tokiko Batzordeak (elkarteetako pertsonak edo beste batzuek osatuak) osatu litezkeela uste dut nik, urtero eta atentatua izan zen eguna gogoratu baino hilabete lehenago omenaldi-ekitaldia antolatu ahal izan dezaten.

Zailtasunak maila psikologikoan daudela ematen du (jendeak kontu hori bazterrera utzita ahanzi nahi duela ematen du); bestalde, baliteke gizartearen zati batek beste hainbeste eskatzea bere biktimentzat, Estatuaren terrorismoaz ari naiz, GAL bezalako talde terroristez... edo polizien gehiegikeriez, eta hori aitortu ezean urrats guztiak blokeatzea.

Nik uste dut garrantzitsua dela eraildako pertsonen familiarteko kopuru handiak parte hartzea, eta beraz, ezinbestekoa iruditzen zait biktima horiei entzutea.

Nik uste dut ziberespazioak eskaini dezakeela osatzeko, sendatzeko edo doluminak emateko mezua eskaini nahi duten pertsonen testigantza izendunak edo ez uzteko espazioa, eta hori omenaldi-ekitaldiaren osagarria izan daiteke inolaz ere.

2.3.

Ez soilik onuragarria, beharrezkoa ere badela esango nuke nik: zauriak sakonak dira oraindik, baina hitzaren bidez bada norberaren eta taldearen historian jasotzea.

Zaitasun handienetako bat da pertsonak eta erakundeek erritmo ezberdinen arabera egiten dutela aurrera, eta ez gaude beti prest esperientzia jakin batzuei aurre egiteko, nahiz eta horietan esku-hartzeko ahaleginak egin. Eta gerta liteke mingarria ez ezik (galeraren memorian oinarrituriko esperientziak berez dira esperientzia mingarriak, baina baita sendagarriak ere) benetako helburua ez izatea "konponaraztea" edo erreparatzea.

Erakundeek BENETAKO apustua egin behar dute, memoria konponarazlea osatzeko proiektuaren atal gisa antolatutako ekimen guztiak sustatzeko edo, gutxienez, ahalbidetzeko.

Egiazki erreparatuta sentitu ahal izan diren biktimak dolu luze bezain bizi batean zehar gorroto- eta mendeku-egoerak gainditu eta, galera beren bizitzaren zati bat bezala harturik, aurrera egin dutenak izan direla ikusi dugu.

Biktima-eragileek soilik aipatu rola onartuz gero eta konponbiderako esperientziara hurbilduz gero parte har dezakete edo parte hartu behar dute, terrorismotik eta haren manutik egiazki eta benetan aldentzeko prozesua gainditu ostean eta beren ekintzen eta eragindako kaltearen aurreko erantzukizuna beren egin ondoren.

2.4.

Oso positiboa da. Topaketako barkamen eta desenkusa keinua luzatu eta gizarte mailara, herri mailara, zabaltzeak, pertsonen arteko espazioaren luzapen bihurtu dezake konponbiderako topaketa. Ekitaldi laburra izan liteke, biktima-eragilea eta biktima (adiera zabalean hartuta familiartekoak txandaka egon litezke) atentatua izandako lekuan elkartu litezke eta biktima-eragileak eraildako pertsonaren aldeko hitz batzuk esan litzake aurrean Batxilergoko eta Unibertsitateko ikasleak gonbidatuta daudela (esate baterako, biktima hezitzaileen programa landu duten ikasleak).

Interesgarria izan liteke atentatua izan zen leku berean eskultura bat jartzea. Tokiko artistak gonbidatuko nituzke artelana egiteko. Biktimaren familiartekoen gustu eta beharrietatik abiaturik egin liteke eskultura. Familiartekoei behar duten irudiaren eskulturan islatu beharko luke artistak haien asmoa.

Sendagarria izan daiteke oroitzapena. Beraz, beste modu bat izan liteke ikasleek egindako hausnarketetatik ondorioztatutako mezuekin osatzea atentatua izan zen lekuan egiten den omenaldi-ekitaldia.

2.5.

Nik uste dut oso onuragarria izan litekeela inplikaturako guztientzat, betiere goian adierazitako printzipio guztiak errespetatzen baldin badira (borondatezkotasuna, begirunea, parte-hartze sortzailea eta herritarra).

Nire ustez positiboena litzateke konponbiderako topaketetan agertutako balioen eta sentimenduen adierazpena agerian uztea espazio eta proiektu publiko eta sozialetan: halakoetan agerian geratzen

dira giza balioak, eta jendaurreko adierazpen horiek beste urrats bat dira eragindako kaltea konpontzeko ahalegin horretan, gizarte aipatu balioez ongi jabetzeko garrantzi handiko materiala izateaz gain.

Nik uste dut talde bakoitzaren interes politikoak alhora uztea dela zailena. Egiaztatuta dago banderak bildu egiten direnean pertsonak eta giza balioek hartzen dutela haien tokia.

3.3. Terrorismoagatik kondenatutako pertsonekin egindako galdeketen eta elkarrizketen emaitzak

Emaitza zehatzak ez baizik eta emaitza adierazgarriak eskaintzea da epigrafe honen xedea; horietan bestelako diskurtso bat hautematen da konponbiderako topaketetan parte hartutako pertsonetikiko.

3.3.1. Galdetegia

2014ko bigarren erdialdean 55 eta 60 urteko gizon langabe bati helarazi genion galdetegia; espetxetik kanpo zegoen, ez zuen konponbiderako topaketetan parte hartu baina preso eskubideen alde lan egiten zuen. Unibertsitatea lehenengo aldiz jarri zen harremanetan pertsona horrekin gai honen inguruko azterlan bat egiteko, eta preso ohia prest agertu zen etorkizuneko eztabaida-taldeetan parte hartzeko eta ikerlan horren emaitzen jakitun egoteko.

Memoriari dagokionez, biktimen eta gizartearen eskubidea delako, zein izan liteke terrorismo delitu **larriengatik eta giza eskubideen beste urraketa larriengatik kondenatutako pertsonen zeregin nagusia?**

Giza eskubideak babestu behar dira⁶¹.

Zeure esperientzia aintzat harturik, zure ustez onuragarria izan liteke biktimentzat eta terrorismo delituagatik kondenatutako pertsonentzat eta gizartearentzat toki mailan memoriari eusteko proiektuetan modu parte-hartzaile batean lan egitea? Inplikaturako agenteak bereizirik (biktimak, kondenatutako pertsonak, elkarteak, gizarteak, tokiko, erkidegoko, estatuko agintariak...), zer aukera eta zailtasun ikusten dituzu horretan?

Nire ustez indarkeriarik gabeko etorkizun baketsuaren aldeko erronkatik abiatu baizik ezin da urteetan zehar era askotako indarkeria motak eragindakoen inguruan alde askoren arteko elkarrizketa eta/edo harremana izan.

Nire ustez "terrorismo" hitzak ez du batere laguntzen talde armatuetan ari izan diren pertsonak gisa honetako ekimenetan parte hartzeko.

Balizko zailtasun horiek alde batera utzirik, zer proiektu mota (inplikaturako gizarte eragileen lekukotasunak jasotzen dituzten dokumentalak, testigantzak biltzen dituzten ahozko artxiboak, arte edo/eta kultur moldeko proiektuak...) gostatuko litzaizuke aurrera eramatea?

Dauden egien jendaurreko erakusketa; indarkeria ezberdinen ondorioak jasan dituztenenak eta edozein indarkeria mota bideratu dutenenak.

Jarraian askatasun osoz adierazteko aukera duzu zuk. Galdetegiko erantzunen batean sakondu dezakezu, edo aztergai izan ez den baina bereziki kezkatzen zaituen edo interesatzen zaizuen beste edozein alderdiri buruzko iruzkina egin dezakezu.

"Alde" baten inguruko azterlana abiarazten den bakoitzean, urriak dira gizarte mailako emaitza positibo bat lortzeko aukerak.

Erabat gaitzitzen nau sufrimendua, nornahirena, "bestea" gaitzesteko tresna politiko gisa erabiltzeak.

Memoriaren eta jazotako guztiaren inguruko azterlanek gardenak izan behar dute, dauden aukera guztiei zabalik egon behar dute.

61 Honakoak ziren aukerak:

- 1.- Indarkeriaren gaitzespena.
- 2.- Giza eskubideen babesa.
- 3.- Nekez konpon litezkeen kalteen erreparazioa.
- 4.- Beste bat (zehaztu, arren).

3.3.2. Elkarrizketa

2015. urte hasieran ordu eta erdiz luzatu zen konponbiderako topaketetan parte hartutako gizon batekin egindako elkarrizketa hau. Elkarrizketa interaktiboaren teknika baliatu zen, hau da, elkarrizketagileak beste diskurtso mota bat sorrarazten du eztabaida-talde baten garapena zaila gertatzen denean, batez ere elkarrizketatutako pertsonaren anonimotasuna eta konfidentzialtasuna zaintzeko arrazoioak tarteko (Mitropolitski, 2015).

Desagertzen ez denez, idatzitakoa oker interpretatua izateko aukerak kezkatzen zuen elkarrizketatua. Bere buruari ezartzen dion zentsuraz jabetzen da, baita balizko interpretazio oker hori gogoan, besteek ezartzen dioten zentsuraz ere. Idaztea hitz egitea baino gehiago kostatzen zaiola azaldu zuen, baina hartutako oharren transkripzioa helaraziko geniola azaldu genion esandakoak berrikusi zitzaizkion eta, hala behar izanez, gero, egin beharreko zuzenketak egin zitzaizkion, nahiz eta azkenean ez zen horrelakorik gertatu. Ez genuen elkarrizketa grabatu eta anonimotasuna bermatzeko datuak aldatu ditugu, edo ez ditugu aipatu.

Zer iradokitzen dizu “memoria” hitzak? Zein da haren esanahia zuretzat?

Norberaren aldetik, iraganaren eguneratzea da memoria. Memoria egitea, hasteko, norberak egin beharreko lana da, bakoitzari egokitu zaion alorrean, oinazea bizi izan duelako, eragin duelako edo bizi eta eragin duelako. Norberaren barrurako bidaia da hasieran, bigarren une batean (une analitiko eta ez kronologikoa) inoiz ere amaituko ez den enpatia lanarekin, funtsean biktimenganako enpatia lanarekin, jarraitu ahal izateko.

Taldearen aldetik, eta ez dute zertan erakundeak izan, norberaren borondateak biltzea dakar, aldeak aitorturik ere.

Amildegiranzko bidaia emozionala, kognitiboa, soziala eta existentziala da memoria. Bidaia horretan ari den pertsona naizen aldetik ari naiz hori esaten. Arrazoi psikologikoak, familiarak, taldearenak, gizartearenak eta beste batzuk dira galdegai. Ezin irudikatu ditzakezun ustekabekoak eskainiko dizkizu bidaia horrek. Batek ez daki zer egiteko gai izan zen, sufrimendu mugagabea eta atzerabiderik gabea eraginez, baina ez daki orain ere zer egiteko gai den.

Ustekabeko horiek jabetze bat dakarte, gero eta jabetze gordinagoa eta gardenagoa, nire historia pertsonalean sostengatu dudana, eta aldi berean, biktimek niganako egin ditzaketan hurbiltze eta barkamen saioez arduratzen naiz, saio horiek agerikoak ez izan arren.

Hortaz, bidaia amaigabea da, itogarria batzuetan, igoerak eta jaitsierak tartean, nortasun krisiak noiznahi. Une batzuetan berriro ere bizi duzu larrimina, ez dakizu norberaren dolu antzeko horretan zer den berezko, zer patologiko. Hori guzti hori gizarte testuinguru jakin batean gertatzen da, gertaerak jazo eta bizi dituzun lekuan, sorrarazi eta bultzatu duzun sufrimenduaren oihartzuna aditzen duzun lekuan bertan.

Hortaz, barnerako bidaia da, biktimarekiko enpatiaranzko bidaia, damutasun barneko bidaia... Sekula ere ez da amaitzen bidaia, agian errazagoa da beste delitu batzuen kasuan ez dagoelako gizarte-testuinguru hori.

Esparru ezberdinetatik, eta ez soilik alderdi politikoetatik, ez da, gehiegikeriagatik edo gabeziagatik, bidaia hori ahalbidetzen: dinamika bat berrelikatzen da era esponontzialean. Eta hori eragozpen da benetako biktimek beren dolua egin dezaten eta lehengoratzeko bide ez patogenoan jar daitezten, eska daitekeen denbora errespetatuz.

Eragotzi egiten da biktimei zor zaien lana eta aldi berean galarazi egiten da biktima-eragileen artean, damutasuna agertu ez dutenen edo pragmatikotasun kontuagatik damua agertu dutenen aldaketa sustatzea, zentzurik pedagogiko eta sakonenean. Sekta den aldetik, ETAk bere buruaren zentsura sustatzen du.

Noizbait gazteekin mintzatu naizenean, azpimarratu egin dut justifikatu eta azaldu edo ulertu aditzen arteko aldea. Nire biografian badira gertaera batzuk, ongi dokumentatuak eta edozeinek egiaztatu ditzakeenak, nire erabakiak ulergarri egin ditzaketanak. Nik neuk galdetzen diot neure buruari, hezkuntza eta erlijioa interesatzen zitzaizkidan ikasle zintzoa nintzelarik, zerk eraman ninduen horrela amaizera eta zer eraman nauen orain bidaia hau egiter. Galdera horiei erantzuteko bi arrazoi ikusten ditut nik, eta harreman estua dute biek:

a) Nire historia psikodinamiko pertsonala.

b) Nire ingurune psikosoziala, bederatzi urte nituenetik gogoan iltzatuta baitauzkak familiarreko oroitza penak eta nire lagunekin gertatutako beste jazoera batzuk.

Honenbestez, azaltzeko eta ulertzeko zati bat du memoriak, ez justifikatzeko, bai ordea elkar ulertzeko.

Zer transmitituko zenieke belaunaldi berriei?

Hau guztia modu ulergarri batean helarazi nahi nieke, bizitakoak eta kontzeptuak tresnatzat harturik. Kontua da hitzetan jartzea, kontakizun bat osatzea, ikasgelan gogoeta egiteko. Era askotako narrazioak izango dira, justifikatu ez baizik eta azaldu nahiko dutenak, eta agian, hemendik urte askotara, inork sistematizatu ahal izango ditu horiek.

Metodoei dagokienez, ongi iruditzen zaizkit ikus-entzunezko materialak.

Maila pertsonalagoan, niretzat oso garrantzitsua da semea nitaz ez lotsatzea.

3.3.3. Bigarren mailako iturrietatik jasotako testigantzak

Orain labur-labur ekarriko ditugu orriotara terrorismoagatik kondenatutako bi pertsonen testigantzak, konponbiderako topaketetan parte hartu baitute biek ala biek.

Hasteko, 2014ko uztailen⁶² irratian egindako elkarrizketa baten zati bat ekarriko dugu. Hona hitzez hitz zioena:

“Bagenekien biktimak eragiten genituela, baina orduan uste genuen hala behar zuela eta ez genuen zehazki biktimengan pentsatzen... Une batean zalantzan jarri nuen zertan ari ginen, denbora neraman pentsatzen amaiera jarri behar zitzaiola horri guztiari, baina ez nekien nola aurre egin egoerari... Hainbat kiderekin hitz egin nuen eta biktimekin mintzatu behar genuela erabaki genuen, kontu garrantzitsua zela hura. Une hura berezia izan zen oso, guk garbi ikusten genuen, baina mesfidantza zen nagusi gure ingurunean, eta batzuk egin genuenaren aurka agertu ziren. Gai sentibera da, baina egin beharra genuen, hitz egin behar genuen bizikidetzaren gaiari heltzeko modua delako... memoria kritikoa osatzeko modua delako...”⁶³.

Bigarrenik, terrorismoagatik kondenatutako baina dagoeneko espetxetik kanpora dagoen beste pertsona batekin izandako elkarrizketa baten zati bat dakargu. Pertsona hori konponbiderako topaketetan parte hartua da biktimak ere izandako jardunaldi batean (Rekarte, 10^o4, 164-7).

“...Pertsona baten prozesuak, pertsona bat heldu bihurtzeko prozesuak, ez du etenik, baina oso motela da, batez ere horrelako egoeratan. Eta nik, tira ba, horrela bizi izan dut. Espetxean sartu nintzenean, ez dakit ba, justifikatzeko hamarraldi bat dut gogoan. Ikasten duzu zergatik dagoen ETA, liburuak irakurtzen dituzu, izan ere, ezer gutxi dakizu zerorrek. Ideologia bat da, euskaldun sentitzen zara, baina ez dituzu sustriak ezagutzen, ez dakizu nola hasi den dena... Erakunde batean sartzen zara... beste asko bezala. Ni nirea ari naiz azaltzen, baina badakit askori gertatu zaiela horrela. Gero ukitu politikoa ematen diozu zure bizitzari. Ezeztatzen duzu. Esaten nuenean... nola pertsona bat bihur daitekeen hiltzeko tresna, nola justifikatu daiteke hori? Bada, besterik gabe, besteek zu gobernatzeko utzirik. Munduko armada guztiek hiltzen dituzte pertsonak, batzuen izenean zenbaitek, besteenean bestetzuek, eta zehazki hiltzen duen pertsonari zer dabilkio gero buruan, bada hori, nik uste dut berdintsua dela dena, bizitzaren prozesua beste kontu bat delako. Eta denborak aurrera egin ahala niri asko kostatu zitzaidan ETAtik ateratzea, buruko blokeo horretatik askatzea, baina, tira, abian zen prozesua... nik esan ohi dut korridorean zoazela beste batekin estropezu egin eta barkamena eskatzen diozula, eta gero beste bat akabatzen duzula eta kosta egiten zaizula barkamena eskatzea... ni nire kabuz irten nintzen handik, laguntzarik gabe, ez nengoen gustura. Eta zenbat kostatzen da? Ohartzen ez zaren arren gorrotoan eta justifikazioan oinarrituta duzun buruaren mekanismoa aldatzen hasten denean gertatzen da, piezak bereizten dituzunean eta urratsak egiten hasten zarenean. Eta beldurra ere ematen dizu, izan ere, horrelakoa izan da beti zure bizimodua. Behin, Elexpuru zela uste dut, oso artikulua idatzi zuen “hotz handia egiten baitu tributik kanpora!” izenburupean, eta hori da kontua, tributik kanpora hotz handia behar duela uste duzu, ezerezetik hasi beharra, egin duzun guztiari aurre egin beharra, batere atsegin ez duzun iraganari aurre egin beharra... Gorrotoa amatatzen zaizu, horixe dateke, agian, balantzerik positiboena. Eta zeure buruari barkazioa ematen diozu, ez da erraza kontua”.

62 Ikus http://www.cadenaser.com/espana/articulo/joseba-urrusolo-sistiaga-siento-responsable-todas-victimas-solo-he-causado/csrsrpor/20140713csrsmac_3/Tes. Era berean, ikus Deia egunkarian egin zioten beste elkarrizketa bat (2014-06-29).

63 2014ko urrian Auzitegi Nagusiko Zigor Salako Lehenengo Sekzioak indarrak gabe utzi zuen Espetxeratuen Zaintzako Auzitegi Zentralak 2014ko uztailaren 17an emandako epaia. Epaia horren arabera bertan bera geratuko ziren programan izandako elkarrizketagatik elkarrizketatuari emandako sei eguneko baimena eta beste baimen batzuk, nahiz eta elkarrizketan zehar ez zuen terrorismoa justifikatu, guztiz bestela baizik, denen aurrean agertu baitzuen ETAREN posizioen aurkako zela, eta denen aurrean arbuatu baitzuen indarkeria, erabat damuturik zuen indarkeria.

V. Biktimekin izandako eztabaida-taldeen emaitzak

“Zer edo zer egin behar da horrekin guztiarekin suntsitu ez gaitzan, etsipenezko burrunba horrekin, ezin amaituzko galerarekin, bizitzeko nahigabe suminarekin bizitza ankerra denean. Edertasunaren zentzuarekin apainduz babesten gara gizakiak oinaze zentzugabeaz”

(Montero 2013, 119).

Eztabaida-taldeak teknika berezia dira informazioa biltzeko eta, mugak muga, eztabaidaren dinamika aztertzeko emaitza egokiak lortzeko (Mitropolitski 2015).

1. Aurrekariak: IVAC/KREI Institutuak 2013an egindako ikerketaren emaitzei helduz

Kontuan izanik IVAC/KREI Institutuak 2013an burututako ikerketa-proiektuaren garrantzia –lehendik sekula ere ez zen gisa horretako inkestarik egin– eta ikerkuntza honen berariazko ikerketa xedearekin duen harremana, labur-labur azalduko ditugu ikerketa hartan lortutako emaitzak –zehazki memoriaren kontuei lotuko gaitzaizkiegure azken konklusioetan 2014ko eztabaida-taldeekin lortutako emaitzekin alderatu ahal izateko.

IVAC/KREI Institutuak, 2013ko hondarrean, talde terroristek eraildako pertsonen 154 familiartekori –denak EAEko egoiliarak– egindako inkesten arabera (de la Cuesta, 2014a), % 64,9k uste dute euskal gizarteak “nahiago duela orrialdea berehala pasa”, eta horrek agerian uzten du inpunitatea eta utzikeria direla pertsona horiengan nagusitzen diren sentimenduak. Inkestari erantzun zioten % 53,3ren iritziz biktimak ezerosoak dira euskal gizartearentzat, eta % 42k uste dute gizarteari ez zaizkiola terrorismoaren biktimak ardura.

% 54,3k uste dute hurbilekoei (lagunak/adiskideak/bizilagunak/ezagunak) ardura zaizkiela terrorismoaren biktimak, baina % 53,9k uste dute nahiago dutela orrialdea berehala pasa, berriro ere agerian utzirik pertsona horiek bizi duten utzikeria eta memoria ezaren sentipena.

Terrorismoaren balizko amaiera batean biktimek egin dezaketen ekarpen onenari dagokionez, inkestatuek azpimarratu egiten dituzte memorialetan eta artxibo digitaletan jasotako testigantzak, eta ondotik datoz, hurrenkera honetan, beste ekimen hauek: euren presentzia ikasgeletan, parte-hartzea jendaurreko eztabaidetan eta memoriari eusteko ekitaldietan. Hemen ongi asko islatzen da biktimek egian eta memorian jartzen duten interesa. Badira beste mota bateko erantzunak ere, eszeptizismoaren eta axolagabekeriaren eta parte hartzeko nahiaren eta testigantzei eta memoriari garrantzi handia ematearen artean dabilzanak.

Galdetegiararen azken atalean, bestelako gogoetak askatasun osoz agertzeko atalean, honako hau adierazi zuten bi biktimek, talde terrorista ezberdinek eragindako biktimen memoriaren testuinguruan.

Haietako baten iritziz: “Eskubideei dagokienez giza eskubideen urraketen biktima izandako beste guztiak bezalakoak diren arren, ETArekin biktimek badute aparteko bihurtzen dituen berezitasun bat. Izan ere, Euskal Herriaren izenean erail zituzten, euskal gizartearen sektore baten sostenguarekin, beste sektore handi bat isilik zegoen artean... datu objektibo horrek euskal gizartearen kontzientzia morala interpelatu du. Euskal gizarteak interpelazio horri ematen dion erantzunaren arabera izango da, hein handi batean, memoriari, kontakizunari... buruzko politika osoa. Beste biktimetako batek Estatuaren terrorismoak eragindako biktimen larria du hizpide: “Basakeriaren inplikazioan ezin beste aldera begiratu daiteke, ezin pentsa daiteke zuri ez zaizula horrelakorik gertatuko, ezin ezer egin gabe gera zaitezke horrelako jazoera dramatikoak berriro ere gertatzerik nahi ez baduzu. Politikarien zeregina ez da erailteza, bahitzea, bestelako ideologia, sinesmen eta beste dauzkaten pertsonak desagerraraztea; izan ere, politikak, eta zehazki politikariek, eskura dauzkaten bitarteko guztiak baliatu behar dituzte herritarrok dauzkagun arazoak konpontzeko”.

Azken atal horretan ugari dira egitari eta memoriari garrantzi handia eman dieten biktimak, bereziki beren biktimizazioa ezkutatu behar izan dutenean. Era berean, balio handia ematen diete hedabideetan, ikasgeletan eta biktimak omentzeko ekitaldietan emandako testigantzei. Era berean, terrorismoa gaitzestea eskatzen da.

Erreparazioarako, justiziarako eta egitarako eskubideez at, azken galdera horri emandako erantzun batzuetan egiaztatu egiten da armak entregatzeko eta desagiteko premia, atentaturik gabe bizitzearen lasaitasuna, beranduegi iritsi delako atsekabearekin baina, erailketaren gaiztakeria, halako indarkeriaren jarraipena,

beren buruak “galtzaile handitzat” hartzea eta adostasun politikoaren gabeziak eragiten dien goibeltasuna. Bi lagunek baizik ez zituzten kalte-ordainekin zerikusia duten kontu zehatzak azaldu.

2013ko eztabaida-taldean emaitzei dagokionez, terrorismoaren biktimek gizarteari egin diezazkioketen ekarpenei buruzko proposamenak une honetan gizarteak eta biktimek egia jakiteko duten eskubidean eta, horri loturik, memorian oinarritzen direla ematen du. Egia jakiteko eskubidearen artikulazioa, biktimek gizarteari egiten dioten ekarpen gisa ulerturik, batik bat eragindako kaltearen aitopenean eta memoriari eusteko eta biktimak omentzeko oroitzapen-ekitaldietan oinarritzen da, ahanztura baztertuz (% 59). Ondotik datoz gertatutakoari buruzko heziketa, balio etikoetan oinarritua (% 32) eta, urrutirago, jardun duten talde terrorista guztiei buruzko egia, bakoitzaren testuinguruan (% 9). Parte hartzeko duten eskubideari dagokionez, beren testigantza eman nahi dutela azpimarratzen dute, eta beste biktimei eta gizarte eragileei entzun nahi dietela. Biktimen esanahi politikoaren inguruan ulertzen dutenari dagokionez, halaxe ezagutzen baita barne legerian, Zuzenbideko Estatu batean terrorismoa (indarkeria hitza baino askoz ere erabiliagoa) eta erailketak daudela diote, aniztasunaren aurreko errespetua nagusitu behar duenean eta izuaren erabilera ezin justifikatu daitekeenean.

Erabilera alderdikoietatik kanpora, protagonismo handiagoa eskatzen dute biktimek. Egia jakiteko eta memoriari eusteko duten eskubidearekin eta beren testigantzen balioarekin lotzen da eskaera hori. Kontu hori jada landu da galdetegien bidez, biktimek gizarteari egin diezaioketen ekarpen onena, memoriari eusteko jendaurreko ekitaldietan izatea, jendaurreko eztabaidetan parte hartzea, ikasgeletan izatea, memorialetan eta artxibo digitaletan euren testigantzak jasotzea eta beste batzuen artean hautua egiteko aukera eman zitzaienean.

Egia jakiteko eskubidearen izaera parte-hartzailea biktimek terrorismoaren gaitzespenaren esanahi politikotzat ulertzen dutenaren arabera izango da, agertoki horretan beste lehentasun batzuk izan baititzaizakete beste eragile politiko eta sozial batzuek.

Biktimen aldeko politiken lehentasunei dagokionez, hitz edo adierazpide jakin batzuk erabiliz saio guztietan adierazitako eskaerak kodifikaturik, esan dezagun gure eztabaida-taldeetan garrantzi berezia ematen zaiela, hurrenkera honen arabera, egitari eta memoriari (% 41), justiziari (% 37) eta erreparazioari (% 22), nahiz eta kontzeptu horiek sarri askotan dauden elkarri loturik.

Eskubide horien erabilerrari dagokionez, gizarteak hautematen duenari bagagozkio, parte-hartzaileek uste dute beldurra izan dela eta oraindik ere badela eta, urrunago, koldarkeria, axolagabekeria eta erosotasuna. Batzuek esan dute aldaketak etorkizuneko belaunaldiek ikusiko dituztela. Bizilagunei dagokionez, askotarikoak dira iritziak; batzuek alban izan zituzten, beste batzuek ez.

2. 2014ko eztabaida-taldean diseinua eta emaitzak aztertzeke teknika

Lehendik egindako ikerketetan ez bezala (de la Cuesta, 2014a), bi arrazoiengatik ez dugu aplikazio informatikorik erabili eztabaida-taldeetako edukia aztertzeke:

a) oso tresna mugatua zaigu dokumentu idatzien (taldeen transkripzioa) eta modu etenagoan garatutako jardueren, era batean edo bestean (hizki larriak eta xeheak bereiziz, eten-puntuak, zuzenketak, idazten den tokiaren hautua, etab.)⁶⁴ idatzitako hitzetan eta esaldietan islatuko jardueren analisia batera egiteko, tresna mugatua zaigu parte hartzeko borondatea sustatzeko eta, hala behar duenean, biktimen begiei eta eskuei argazkiak egiteko aukeratutako modua aurrera ateratzeko⁶⁵.

b) aurrekoaren ildotik, guk uste dugu taldeetan islatutako ideien kategorizazio zurrunka gehiegi sinplifikatzen eta estutzen duela memoriarena bezalako prozesu konplexua aztertzeke esparrua, itxura batean biktimek oso garbi baitituzte kontu batzuk baina zalantzak agertzen baitituzte beste kontu batzuen aurrean. Horrengatik ez geunden interesatuta adostasunaren eta gehiengoaren irudi faltsua eman zezaketen kategorien maiztasunen kuantifikazioan edo analisisan.

64 Hemen batik bat agendako jarduerak ditugu hizpide, txartelak, ebaluazioa eta argazkia; aurrerago azaldu eta aztertuko ditugu horiek.

65 Lan honen azalean eta kontrazalean islatutako jarduerak.

Perspektibaren eta begiradaren garrantzia azpimarratzen dute azaleko begiek, eta bestearen lekuan jartzeko beharrez, bereziki biktimizazio terroristak eragindako oinazearen aurrean.

Kontrazaleko eskuek ikerkuntzaren xedea ikerketa-ekintza dela islatu nahi dute, hau da, ez dute lortutako emaitzak eta haien analisi teorikoa aurkeztera mugatu nahi. ERA berean, puzzlearen edo oztopoz beteriko bidearen metaforarekin islatu nahi dituzte honako hauek:

a) memoriaren konplexutasuna, orokortasunak saihesten dituzten xehetasunak behin eta berriz txertatuz.

b) osagarritasunaren beharra kontu hauei heltzean, pertsona, plano eta diziplina ezberdinak kontuan izanik.

c) kontraesanak jasotzeko aukera.

Eztabaida-taldeetan islatutako narrazioen azterketan oso baliagarria gertatu zaigu Bent Flyvbjerg irakasle daniarraren proposamena. Oxforden bizi den irakasle daniar horrek, natur zientzien metodoaren transposizioaren eredu nagusiaz beste, “gizarte-ikerketaren fronetikoaren” eredu bat garatu du. Haren definizioaren arabera⁶⁶, gizarte mailako fenomenoak aztertzeko ikuspuntua osatzen du gizarte zientzia fronetikoak, eta *phronesis* edo pentsamendu etikoaren bertutearen kontzeptu klasikoaren interpretazio garaikidean du oinarri. Balioak eta interesak aintzat hartzea dakar fronesiak, eta ezagutza analitiko zientifikotik (*episteme*) eta ezagutza teknikitik edo egiten jakitetik (*techne*) haratago egiten du. Honenbestez, arrazionaltasun analitikoa eta instrumentala balioen arrazionaltasunarekin orekatzen da, haiak argitzea bila baita praktikaren oinarri izateko. Balioen arrazionaltasunarekin lotutako lau galdera egitea dakartza berekin batean ikuspuntu fronetikoak:

1. Zertan ari gara?
2. Zer ondorio positibo edo negatibo sortzen ari da? Norengan? Zein gizarte- edo botere-kontrol mekanismoren bidez gertatzen dira ondorio horiek?
3. Desiragarria al da hori horrela izatea?
4. Zer egin behar dugu?

Gizarte-ekintzak garatzeko berariazko espazioetan planteatutako aukeren, arazoaren eta arriskuen mapa izango da ikerketa fronetiko baten emaitza (Flyvbjerg 2001), memoria kasu honetan. Haietara iritsiko da konklusioetan, ahotsen polifonia baten narrazioen azterketatik, etnometodologia oinarrituta.

Galdera horietako batzuei modu osagarrian erantzuteko, geure beharrianetara egokitu dugu, Sarreran planteatutako helburuei eta hipotesiei jarraiki, Gil Dekel doktorearen ikerketa metodoa, ezagutza-fluxuan oinarritua (*Streaming knowledge research method SKM*)⁶⁷. Haren eredu aldatu dugu eztabaida-taldean analisia diseinatu eta egin ahal izateko eta emaitza sorta batera iritsi ahal izateko. Hemen ere kategorizazioarekin lan egiten den arren (Mayring 2014, 37), malguago jarduteko aukera ematen du zorrotasuna galdu gabe. Nolanahi ere, aipatu eredu konklusioekin osatu baino lehen, taldeen edukien transkripzio osoa eskaintzen zaio irakurleari bere konklusioak atera ahal izan ditzan.

Eztabaida-taldeekin garatu beharreko jarduerak zorrotzak izango dira eta ez azalekoak, baina biziak ere bai. Xedeagatik, taldeek badute memoriaren ekintzatik zerbait, testigantza mailakoa, parte-hartzailea eta artistikoa, baina aldi berean, gogoeta egitea lortu nahi da gizarte zientziak berezko duten metodologia kualitatibo bati jarraiki.

3. Prestakuntza ikasleekin

Terroristen biktimizazioari buruzko eraginari, erreparazioari eta araudiari buruzko eskola-ordu teorikoez gain, ikasleek lan bat prestatu eta egin behar izan zuten ikasgelan ariketa gisa⁶⁸.

Ariketa egiteko argibideek iturri batzuk adierazten bazituzten ere –gehienak on-line eskuratzeko modukoak–, beren iturriak bilatu zituzten ikasle askok. Iturri horietara iristeko batik bat Internet baliatu zutela esan behar dugu⁶⁹. Beste ikasle talde batek, lan horren baitan, 2014. urte amaieran, ETaren azken atentatuetakoa batean hildako baten alargunari elkarrizketa bat egiteko aukera izan zuen, emakumea ondoko herri batean bizi zela aprobetxaturik⁷⁰. Elkarrizketa hori egiteko bikain prestatu ziren ikasleak, bigarren biktimizazioa saihestearren.

66 Ikus haren web orria: <http://flyvbjerg.plan.aau.dk>.

67 Ikus <http://www.poeticmind.co.uk/research/ideas-into-practice-words-into-objects-research-method-art/>.

68 UPV/EHUko Kriminologia Gradukoak, Biktimologia irakasgaian, 2014-15 ikasturtean.

69 Ariketa egiteko argibideetan adierazitakoez gain, honako hauek izan ziren ikasleek gehien erabilitako iturriak: biktimen testigantza eta elkarrizketak jasotzen dituzten orriak youtuben, Fernando Buesa Fundazioaren eta Irene Villa Fundazioaren web orriak, hemerroteka digitalak, COVITEn web orria, Gipuzkoako Batzar Nagusien web orria, *Voces sin libertad* dokumentala, “Corazones de hielo” dokumentala, “60 minutos” saioaren ETaren biktimei buruzko dokumentala eta 2014ko Lasa eta Zabala filmari buruzko informazioa.

70 Elkarrizketatik honako zati hauek nabarmenduko ditugu: “Mespretxatzen ninduten nire semearen ikastetxeko seme-alaba askoren gurasoek, diosala ukatzen zidaten, eta ni dena normala izaten saiatzen nintzen... Gorrotoa sentitzen duen, herra, amorrua, ezintasuna, gizarte honek ez zituelako gauzak ulertzen, eta nik ere ez. Nire haurrengan bilatu nuen babesa, haur txiki bat nuen, eta aurrera atera behar nituen urte luzeetan zehar gizartean sustraitutako gorrotoa ez zedin haietaz jabetu. Ez nuen nire seme-alabek gorrotoa edukitzerik nahi... ETaren su-etenaren ondorioz, batzuek berriro ere agurtu zidaten, baina nik ez ditut agurtu berriro. Nire alabak ere oso gaizki pasa zuen, mehatxuak jasotzen zituen institutuan, gaur egun ez du itzuli nahi... gehiago laguntzen dizu egoera bertsua ezagutu duen batek, besteek ez baitute ulertzen. Babes handia sentitzen nuen, ulertua sentitzen nintzen, beste biktimekin hitz egiten nuenean”. Etorrizunari eta memoriari buruz: “Biktimak ahaztuxe daudela sentitzen dut, dagoeneko ez gara interesgarriak... Gustatuko litzaidake zerbait jarriko balute (herrian) (...)ren omenez, merezi duela uste baitit; zer gutxiago kale bati bere izena ematea edo horrelako zerbait. Baina badakit inoiz ere ez dela

Lan guztiak ikasgelan eta denen aurrean azalduta, honako lau puntu hauek dira azpimarragarriak:

1. Biktimei laguntzen dieten faktoreen artean, ikasleek haien duintasuna azpimarratu dute, seme-alabengan babesa hartzea eta seme-alabak gorrotoan ez hezteko motibazioa, denboraren joana, barkamena, konponbiderako topaketak, babes instituzionala, soziala eta/edo politikoa, ikasgeletara joatea beren testigantza ematera, oreka emozionala, senitartekoen sostengua, epaiketa bat izana, elkarte bateko kide izatea, beste biktimei laguntzea...
2. Biktimizazioa areagotzen duten faktoreen artean, diskriminazioaren pertzepzioa, ahanztura, bizitokia, atentatuaren urtea, biktimizazioaren forma eta garapena, ahaidetasun maila eta adina, berbiktimizazioa, laneko ingurunea, zigorgabetasuna, isiltasuna, erabilera alderdikoia eta hedabideena, ETAre kasuan armak entregatu ez izana, GAlen kasuan baimenak eta indultuak eman izana, eragindako kaltea aitortu ez izana eta beste batzuk azpimarratzen dituzte.
3. Azpimarratu egiten da biktimizazioaren zabalkunde pertsonala eta familiarra denboraren joanean eta hainbat esparrutan, baita bigarren biktimizazioaren kaltea, hori guzti hori orokortu gabe eta aintzat harturik biktimen esperientzia askotarikoak.
4. Bizikidetzaren zailtasunaz kontzientzia hartzen da, biktimen testigantzen balioaz, gehienek ez baitzuten horrelakorik ezagutzen, eta ikasle batzuek azpimarratu egiten dute barkamenaren garrantzia eta zailtasuna.

Terrorismoaren zeharkako biktima gisa bizi izandakoak azaldu zituen ikasle batek.

Beste ikasle batzuek,aldi berean, berriki kaleratutako komiki batzuek terrorismoaren biktimizazioa nola islatzen duten aztertu zuten, ikuspuntu eta testuinguru ezberdinak azpimarratuz, biktimizazioaren ondorio agerikoak eta ikus ezinak nabarmenduz eta biktimizazio eta debiktimizazio prozesuak ezkutatu. Ikasleei egokiagoak iruditu zitzaizkien kontu hau ikuspuntu ezberdinetatik aztertzen dituztenak eta erredentzioaren konplexutasuna planteatzen dituztenak.

Aurrerago zehaztuko dugun bezala, ikasgelan ikasgai hau eta lan horiek azaldu eta gero, bost ikasle bereizi ziren, hiru neska eta bi mutil, eztabaida-taldeetan parte hartzeko. Horretarako ordu beteko bilera egin zen, prestatzeko. Lehendik, posta elektronikoz, gogoeta labur bat egiteko eskatu zitzaizen eta biktimei galdera bana egitea memoriarekin loturik⁷¹. Esan beharra dago askoz ere gehiago izan zirela eztabaida-taldeetan parte hartzeko interesa agertu zuten ikasleak, eta oso positiboa izan dela haien parte-hartzeari buruz egindako balorazioa.

4. Gonbita eta harremana biktimekin

Sarreran adierazi dugun bezala, 2014ko urriaren 1etik aurrera hasi ginen taldeetan parte hartzeko egin genuen gonbitari emandako erantzunak jasotzen. ICAV/KREI Institutuak idatzi zuen gonbita eta BGEZek 2014ko irailean igorri zien fitxategian jasota dauden guztiei, hirurehunik gora laguni. Hortaz, gonbita orokorra izan zela esan dezakegu⁷².

Posta elektronikoz jasotako hiru erantzun izan ezik, telefono deien bidez iritsi ziren gainerako guztiak. 2014ko azaroaren erdialdera berriro ere jarri ginen harremanetan halako interesa agertu zutenekin data gogorarazteko eta informazio osagarria helarazteko (ikus 2. eranskina).

Gonbita onartzen zutela adierazteko deitu ziguten pertsona batzuek adierazi zizkiguten hitz batzuk jasoko ditugu jarraian. Egiaztatu zen biktimek ahalegin berezia egin behar izaten dutela parte hartzeko, eta sendotu egin behar dela ikerketak kalte gehiago ez sorrarazteko konpromiso etikoa. Harritzekoa da parte-hartzaile batzuek nahiago izatea informazio osagarria ohiko postaz ez bidaltzea, horiek nahiago baitute informazio hori inor ohartu gabe jaso.

-“barrenak nahasten zaizkizu... nire anai-arrebek ez dute parte hartu nahi... argazkiari dagoeneko negar egin gabe erreparatu diezaioketela diote, eta horrek garbi adierazten du orainsu arte ezin ziotela negar egiteari utzi... gaizki zaude baina ez duzu aitortu nahi... ni orain terapia bat jasotzen ari naiz”.

horrelakorik gertatuko... Udala oso gaizki portatu zen, alkatea oporretan kanpora joan zen dena gertatu zenean, eta gero ez zuen inolako damurik ez enpatiarik agertu... Oso garesti ari gara ordaintzen biktimak, izan ere, hortxe daude arrastoak...”.

71 Ikus osorik 3. eranskinean.

72 Ikus sarreran egindako gogoetak. Igorritako gutunean eta telefono bidezko harremanetan gonbita beste familiartekoei luzatu ziezaioketela azaltzen zitzaizen, eta egoki irizten zuten edozein lagunekin hurbil zitezkeela.

- “Niri ez zait politika gustatzen, baina hemen politikaren izenean hil da... Aurrera egin behar dela diote, bizitzak ez duela etenik... Amorrua ematen dit nire kasuaren berri ematen dudanean eta GAL zer? galdetzen didatenean”.
- “Ez gorrotorik ez herrarik, gorrotorik ez izaten irakatsi zidaten... Lehen aldia da jarduera hauetan parte hartzen dudala”.
- “Nik bestela ikusten dut, eman diezagutela bakea, baina biktima kaltetuenak lagunduta etorri nahi du. Sekula ere ez du deus egin eta orain zerbait egiteko aukera duela dio”.
- “Ez dut deus ezkututzen, baina ez zait biktima naizela esatea gustatzen: 1. dagoeneko iragana delako; 2. inork ez dizulako konponduko; 3. sailkatu zaitzaketa, zertarako eraiki mugak? ... Gorroto dut nahigabea edo errukia sorraraztea... Talde hauetan parte hartu nahi izan ez zuten poliziekin jarri nintzen harremanetan, batek esan zidan beldur zela haren auzoan nor zen jakin zezaketelako, gezur batean bizi dela eta inork ere ez dakiela, eta nahiago duela horrela”.
- “Honek ez du zerikusirik hedabideekin eta bitarteko politikoekin, ezta?”
- “Zeuek antolatzen baduzue eta giro abegikorra bada, joanen naiz”.
- “Urte askoan eraman dut ezkutuan... baina orain, ez dakit bada, beharrezkoa dut... Larriak hartzen nau berehala, negar egiteko gogoak... ez dut eragozpen izan nahi taldeetan... Orain atera dut, Zuzendaritzak eta neure psikologoak parte hartzera animatzen naute... baina horretan pentsatzen jartzen naizen bakoitzean hunkitu egiten naiz eta, aldi berean, eskerrak ematen ditut bizirik nagoelako... badakit kanpora atera behar dudala gertatzen zaidana, botikak hartzeari utzi egin nahi diot ... ez dakit parte hartuko dudana ala ez, ez dakit”.
- Ezin parte har zezaketelako desenkusa agertzeko deitu zuten beste pertsonen hitz batzuk jasoko ditugu jarraian. Arrazoen artean, adina, gaixotasunen bat edo eriren bat zaindu beharra, laneko kontuak, konfiantzarik eza eta lagundu behar zien pertsona azken unean ezin hurbildu izana⁷³.
- “Gehiago erakartzen nau proposatzen duzun alde artistiko horrek ... Seme betekin bizi naiz, baina ez, hark ez luke parte hartu nahi ez eta pentsatu ere, ez da nire seme-alaben kontua, ez dakit”.
- “Zer esango dut bada, dagoeneko dena esana dut... Biktimen Zuzendaritzari era hainbat aldiz azaldu diogu... taldean ez zait iruditzen, agian bakarka hartuta... Bilera horrek mina baizik ez luke eragingo... Aitari sekula ere ez diote ezer egin, eta beste batzuei urtero egiten diete zerbait... Ea ni hil baino lehen herrian plaka bat jartzea lortzen duzuen... Horrenbeste alkate, beste hainbeste urte eta inork ez du ezertxo ere egin... Lortu dugun bakarra da anai-arreben artean gorroto izatea haiek urrundik bizi izan dutelako... baina nik gogoan dut (hunkiturik)... Hiru tiro egin zizkieten, eta senarrak arrastaka eraman behar izan zuen bere gorputza, soilik bizilagun bat sorosten, beste inork ez zuen lagundu nahi izan... ni haurdun nintzen orduan, hirugarren haurraren esperoan... Ahal bezala eraman genuen senarrak eta biok... Inork ere ez digu inoiz lagundu, eta enpresan ere izugarri zaildu ziguten bizimodua... gure seme-alabei ere zail egiten zaie ulertzea”.
- “Gertatu zen eta min egin zidaten. Alaba bakean bizi dadila, ez dut besterik nahi. Orain dela hogeitau urte baino gehiago ez genuen inoren babesa izan, lagun eta familiarteko batzuk ez ziren azaldu ere egin. Ongi egongo ote da nire ama talde horietan?”
- “Badira pasarte haiek berritu nahi ez dituztenak... nahiz eta aspaldi gertatu, beti izaten duzu gogoan... ez da deus ere egin”.

73 Biktima parte-hartzaile guztiei eskaini zitzaizkien aukera hori, baina bakarrik etorri ziren gehien-gehienak.

5. Eztabaida-taldeetan parte hartutakoen kopurua eta profila

5.1. Kopurua

Hogeita bi lagunek parte hartu zuten bi taldetan banaturik, hamahiru lagun batean⁷⁴, bederatzi bestean. Parte-hartzaile gehien-gehienak bertan izan ziren egun osoz. Hala eta guztiz ere, bestelako konpromiso batzuk zituztenez, saio bat edo batzuk galdu zituzten parte-hartzaile batzuek.

5.2. Profil soziodemografikoa

1) GENEROA:

GIZONAK: 8

EMAKUMEAK: 14

2) GERTAERA JAZO ZEN URTEA:

Hirurogeita hamargarren hamarraldian: 2

Laurogeigarren hamarraldian: 16

Laurogeita hamargarren hamarraldian: 3

Bi milagarren hamarraldian: 1

3) ZUZENKO BIKTIMIZAZIOA EDO ERAILDAKO PERTSONAREKIKO HARREMANA:

ZUZENKO BIKTIMIZAZIOA (hilketa saioa): 2

ZEHARKAKO BIKTIMIZAZIOA⁷⁵:

BIKOTEKIDEA: 1

SEME-ALABA: 8

AITA-AMA

ANAIA-AHIZPA: 8

BESTE BAT (arren, zehaztu:.....): 3: koinatua (lagun gisa etorria); biloba (lagun gisa etorria); erraina (lagun gisa etorria).

4) EZTABAIDA-TALDEETAN PARTE HARTUTAKO PERTSONAREN ADIN TARTEA ATENTATU TERRORISTA JASAN ZUTENEAN:

0-10 urte bitarte: 1

10-20 urte bitarte: 6

20-30 urte bitarte: 10

30-40 urte bitarte: 4

40-50 urte bitarte: 1

5) FAMILIAREN EGOERA ATENTATUA IZAN ZENEAN: BA AL ZENUEN SEME-ALABARIK?

5 lagunek seme-alabak zeuzkaten, eta haurdun zegoen bat.

6) TALDE TERRORISTA ARDURADUNA:

ETAm/ETApM/KAA: 15

GAL: 6

BVE

AAA: 1

Beste batzuk (arren, zehaztu:.....)

74 Talde hau handiagoa izan zen bertaratzeko interesa zuten familia bereko beste kide batzuk ere etorri zirelako.

75 Eraildako pertsonen senitartekoak ziren guztiak bat izan ezik, hiltzen saiatu ziren baten familiartekoa bera.

7) LURRALDE HISTORIKOA ETA UNE HARTAKO BIZILEKU MOTA:

-L.H.: Araba: 1

Bizkaia: 6

Gipuzkoa: 9

Frantzia: 6

-HERRI TXIKIA (50.000 BIZTANLE BAINO GUTXIAGO): 13

HERRI HANDIA (50.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGO)

HIRIA: 9

6. Arartekoak terrorismoaren biktimen memoriari buruz egindako sarrera txostena⁷⁶

Jendaurrean aurkeztu zen txostena, baina biktimak agerian ez uztearren ez zitzaien hedabideei dei egin. Bereziki egin zitzaien gonbita Kriminologiako Graduako Biktimologia arloko ikasleei.

Iñigo Lamarca Arartekok, beste kontu batzuen artean, memoria justu eta etiko baten premia eta biktimen sentiberatasunaren aurreko kontzientzia hartzearen beharra izan zituen hizpide, hitzekin zuhur ibili behar dela esan zuen. Gainera, haren erakundeak memoriarekin lotuta bideratutako jarduerak aipatu zituen.

Ondorengo eztabaida saioan, ETA ez beste talde terroristen biktima batzuek adierazi zuten baztertuta sentitzen zirela, baina Arartekok argitu zuen ez zela hori bere asmoa, are gutxiago bere agintaldian eta lehendik ere erakutsitako jarrera, eta nolahi ere, aitortu egiten zuela hizpide izandako sentiberatasun horren premia.

Giza eskubideetan eta, bereziki, bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren, biktima guztien aitortza exijitzen duten pertsonen duintasunean oinarritutako printzipio etiko batzuen inguruko akordioa izan zuen hizpide.

Eztabaidan parte hartutako pertsona biktima batek esan zuen berehala zartatu litekeela biktimen arteko irainen ispilua (nor da biktimago? nor tratatu zuten okerrago?), baina garrantzitsuena dela biktimen beren arteko aitortza hori eta erakundeena nahiz gizartearena.

Eztabaidan hitz hartutako ikasle batek esan zuen gizarteak baduela eginkizun bat, eta gogoratu zuen nola bere ikaskide baten aita mehatxatu zutenean berehala pentsatu zuela "ea nor igotzen den orain haren autora".

Eztabaidan aipatu zen latza izan arren ez zaiola beldur izan behar egiari. Egia asko daudela, ezagunak batzuk, ezkutaturik bestetzuk. Zentzu horretan, egia guztiak aintzat hartzekoak direla esan zuen Arartekok: hilketa bat hilketa dela, estortsio bat estortsio, bahiketa bat bahiketa...

7. Eztabaida-taldeen garapena⁷⁷**7.1. 1. taldea**

"Gazteek oso gutxi duzue lehendik, eta asko gerora begira"

(1. taldetik aterea).

I. SAIOA: AURKEZPENA IKASLEEKIN

PERTSONA GUZTIAK NAHASITA ESERI ZIREN (HIRU GAL-EN BIKTIMAK ZIREN, ETA GAINERAKOAK, ETA-REN BIKTIMAK).

DINAMIZATZAILEEN AURKEZPENA.

HIRU IKASLEEN AURKEZPENA.

-Biktimologiako ikaslea naiz. Talde hauetan parte hartzeko aukera eman ziguten, eta eskatu ziguten hausnartzeko terrorismoaren biktimen oroitzapenetan zer egitea gustatuko litzaigukeen, zer motatako ekintzak egin zitezkeen eta nola. Eta gogoeta bat idatzi dut.

⁷⁶ Ez da gure asmoa hemen laburpen bat egitea, baizik eta, lan honen xedearekin loturik, ikerlarien arabera txostenaren eta eztabaidaren puntu garrantzizkoenak labur-labur azaltzea.

⁷⁷ Saioaren audio-grabaketa egin zen, alde zuzenetik baimena eskatuta partaideei. Transkripzioan ez dira aipatu partaideak identifikatzeko balio dezaketen datuak, eta aldaketa formal txiki batzuk gauzatu dira, irakurleak hobeto ulertzeko edo identifikazioa saihesteko.

-Ni ere Biktimologiako ikaslea naiz, eta aukera eman zidaten gaur hemen egoteko eta zuekin elkartzeko, hizketaldi atsegin bat egiteko.

-Ni ere Biktimologia ikasten ari naiz, bigarren mailan, eta oso pozik nago hemen egoteaz, gure gogoeta zuekin partekatu ahalko baitugu, eta zuen iritzia ezagutu.

HIRU GALDERA PROIEKTATU DIRA, BAKOITZAK BERE BURUA AURKEZTEKO.

BIKTIMEN AURKEZPENEA.

... dut izena. Lehen entzunaretoan entzun dugunak hunkitu egin nau. Haurra nintzela, atentatu baten biktima izan nintzen, eta ondorio larriak izan nituen. Asko hitz egin dezagula eta elkar uler dezagula lortu nahi dut, eta ondorio positiboren bat atera dezagula, nahiz eta egiteko dagoen lanaren zati txiki bat besterik ez izan. Aurrerapauso bat izan dadila. Entzutea eta uler nazatela. Ni ez ninduten gorrotoan hezi, baina, beste biktima batzuen kasuan ez bezala, orain, duela bost bat urtetik hona, gero eta hobekiago konturatzen naiz zer gertatu zitzaidan, zer muga ditudan atentatuaren ondorioz, zer bizitu izan dugun herrian... Talde honetan parte hartzeak barrenak nahasiko dizkit, baina tira.

Gizartearen beldurra eta isiltasuna; hemen inork ez zuen ezer esaten... Ez dut nahi gertatutakoa ahaztea... eta ez da politikarien errua bakarrik, baita gizartearena ere, oso eroso egon baita.

... naiz. Anaia bahitu, torturatu eta hil zidaten. Itxaropentsu nago. Urte asko igaro dira hura gertatu zenetik, eta luzaroan ezin izan dut horri buruz hitz egin: ez nuen bitartekorik sentitzen nuena adierazteko, pentsatzen nuena esateko, hunkitzen ninduen ezagutzera emateko... Lanean aritu naiz, zerbait egin nahi izan dut egoera aldatzeko, gure herrian bakean bizitzea lortzeko eta batez ere ikasten saiatzeko. Talde hauetan ikastea espero dut, beste pertsona batzuekin ikastea. Indibidualismoari helduta, ezin dugu dena ulertu; ikuspegi zabala eta malgutasuna behar ditugu ulertu ahal izateko. Entzutea eta sufritu duenaren tokian jartzea abiapuntutzat hartuta, nik uste dut guztiok garela ulertzeko gai... Espero dut zerbait ikastea eta ekarpen positiboren bat egitea, ahal dudan neurrian. Halaber, nire ustez garrantzitsua da ez transmititzea ez gorrotorik ez tristurarik, eta gutxieneko balio batzuk irakastea. Haiek zuri egokitu zaizunetik urruntzea, suntsitzaila baita. Iragana ezin dugu ezabatu: bere pisua dauka, bere garrantzia. Eta oroimena hor dago... Baina uste dut ikasle hauek gizarte hobea eraikiko dutela. Zu entzunda, niri buruz ari zarela iruditzen zait. Bat nator zure adierazpenekin.

Gutxieneko kontzientzia lortu behar dugu. Oroimen arduratsua nahi dugu, eta, ..., gertatutakoa gertatu arren, erakundeek utzikeria eta errukirik eza erakutsi diguten arren, justizian sinesten jarraitzen dut (beste pertsona batek hartu du hitza: Eta zeri helduko diogu bestela?). Atsekabe handia ikusi dut; isilune konplize mingarri ugariaren lekuko izan naiz... Norbaitek horrelako trauma bat jasan badu, gizatasun zuhur eta arduratsuz tratatzea merezi du. Iragana ez dugu inoiz ahaztuko: baldintzatu egin gaitu, aldatu, eta triste sentiarazten gaitu; baina, hala eta guztiz ere, egunero egiten diogu gogor geure buruari, seme-alabak aurrera atera ahal izateko...

Oroimen horretan, sufritu dugun guztiok egon behar dugu identifikatuta eta aitortuta, eta erreparaziorako balio behar du. Eta zuzenbidezko estatu demokratikoak horretarako bitartekorik ez duelako nazioarteko erakundeetara jo behar badugu, jo dezagun, haiek emango baitigute eskatzen duguna: egia, justizia, aitortza eta biktima guztientzako erreparazioa.

Pertsona ona izateko, oso garrantzitsua izan da jakintza, ikastea... osasuna... Niretzat, oso garrantzitsua zen zerbait egin ahal izatea giza sufrimendua arintzeko; kultura, kirola, gurasoen baldintzarik gabeko maitasuna eta pertsona askok erakutsi didaten ontasun mugagabea. Nik ez daukat ideologia politikorik, nahiz eta beti saiatu diren politizatzen. Baina nik nahiago dut giza alderdiari erreparatu eta kutsu politikoa ezabatu.

-76 urte dauzkat. Senarra hil zidaten duela urte asko. Haren behar handia daukat. Hiru seme-alabarekin gelditu nintzen. (Zailtasunak ditu hitz egiteko, adierazteko; badirudi hunkituta dagoela) (entzunezina). Semearekin etorri da. Hark izena bakarrik esan du. Errainak bai, errainak hitz egin du:

-Ikusten duzunez, oso koldarrak gara. Ez gaude hitz egiten ohituta. Etxean ez dugu honi buruz hitz egiten; gai hau ez da existitzen. Bakoitzak ahal duen moduan egiten dio aurre. Esan nahi nuke ni ez naizela "hain biktima", nahiz eta herri jakin batean bizi... Atentatutik sei urte igaro ostean ezagutu nituen. Amaginarrebak hiru seme-alaba zeuzkan, baten bat osasun-arazo larriekin, eta diru-iturri bakartzat taberna bat zuen, bezerorik gabeko taberna bat... Atentzioa ematen dit horrelako kolpe handia jasota... oso bereziak dira, txapela kentzeko moduko pertsonak. Gertaera gogorra izan zen... horrelako zerbait jasan ostean... Bakoitzak ahal duen moduan egin behar du aurrera, inork lagundu gabe, bakarrik... Ikaragarriak dira. Antzeko egoera bat izan duten guztiak beraiek bezalakoak dira. Eta, nire ustez, haiei esker lortu dugu gaur egungo egoerara iristea. Gertatu zenean, nire senarrak 13 urte zeuzkan, eta bat dator hitz egin duen lehenengo pertsonak adierazitakoarekin.

Taldeetan diskrezio osoz arituko garela esaten digute, baina ez gara tuntunak. Beti dago hauen berri duen inor...

Nork eman zuten biktimen mugimendu guztiei buruzko informazioa? Bada, bizirik gaudenekin, gauza bera.

Konfiantza galtzen duzu gauza askotan, balio-sistema osoan...

Guk politikariek baino hobeto ulertzen dugu elkar...

Kalte-ordainekin sortzen den egoera... Horrelakoak badirela jakin behar duzu, eta inprimakiak bete, eta gero... zer sentsazioekin gelditzen zara? Gure aitak diru hori balio du?

-Semeak hitz egin du: Guretzat berria da hau; ez dugu inoiz parte hartu horrelako zerbaitetan. Ez dut harremanik inorekin. Erabat berria da (entzunezina).

-Ni terrorismoaren biktima naiz duela hogeita hamar urte aita hil zidatenetik. Terrorismoaren biktimek enpatia diogu elkarri; badakigu zer den atsekabea, eguneroko sufrimendua, eta zenbaterainoko indarra behar den aurrera egiteko, laguntzen zaituzten ala ez kontuan hartu gabe. Gure kasuan, nire familiarenean, ez dugu inolako laguntzarik jaso. Nola nagoen? Urteak igarotzen dira, eta nik triste jarraitzen dut. Lehen aipatu duten moduan, ahaleginak egiten ditut bizitzeko eta aurrera ateratzeko. Gainera, semea eta senarra dauzkat, eta lanbide bat, eta lagunak; eta bizitzan barrena gauza zoragarriak gertatu zaizkit; baina beti esaten dut gertatutakoa hor barnean dagoela, eta noizbehinka agertu egiten da, eta lur jota uzten nau. Horrelakoetan, aurrera egin behar dudala esaten diot neure buruari, baina ikaragarritzko ahalegina egin behar dut... Sufrimendua jasanezina da; ez diot inori opa... Ez daude bi talde; sufrimendua berdina da guztiontzat. Inoiz ez dut arazorik izan beste terrorismo batzuen biktimekin hitz egiteko. Triste nago. Terrorismorik ez izatea pozteko moduko albistea da, zentzua dudanez geroztik gorrotoz betetako gizarte batean hazi eta bizi izan bainaiz, eta uste dut aurrera atera naizela. Baina triste nago. Zuzenbidezko estatuak huts egin dit, baita erakundeek ere, eta politikariek eta justizia-administrazioak: gelditasuna, borondaterik eza... Antonio Beristainek esaten zuen beti aplikatzen dela justizia, baina ez dakit hori egia den. Pozik nago beste inork ez duelako horrelakorik pairatuko, baina triste, guri gertatutakoagatik. Ez diot tristura hau transmititu nahi semeari, eta badakit horrela sentituko naizela hil artean, ziur bainago tristura ez dela desagertuko ez dagoelako hori sendatzeko moduko antidepressiborik... Ahalegina egin behar dut neure buruari aurrera egin dezala esateko... Eta aurrera egiten duzu zure bizitzan, baina konturatzen zara dagoeneko urte mordoa dituzula eta bizitza osoan egon zarela saminez, hilketez eta lehergailuz inguratuta.

Ikastea espero dut..., eta txostenean argi jasota gera dadila zer nahi duten biktimek; izan ere, hedabideek diotenera mugatzen bagara... Lekuotasuna eman dezakegu, gutako bakoitzak nahi izanez gero eta nahi duen moduan, baina erakundeek alde batera utzi dute giza eskubideen babes, eta hori eskatu nahi diet nik. Non demontre sartu zarete? Eta gizartea, lehengoa eta oraingoa... Gogoan dut duela bost bat urte emakume batek esan zidala hileta-elizkizunen irudiak ikusi zituela eta oso itxura txarra neukala... Hori izan zen niri esateko bururatu zitzaion gauza bakarra. Oroimena funtsezkoa da; oroimenik gabe, zertarako heziko dituzu seme-alabak balioetan oinarrituta, gero horrelako gizarte batean bizi beharko badute?

Biktimei ezin digute ezer eskatu. Nik ez dut ezeren ardatz izan nahi. Memoria, egia eta justizia nahi ditut, nahiz eta zalantzak ditudan horri buruz... Esaten digutenean, modu lausoan, guztiok izan garela errudun... Ez, biktimak ez. Jasan duguna jasan ondoren, hori bakarrik behar genuen!

-Ez nago ohituta hainbeste jenderen aurrean hitz egiten. Bat nator orain arte esandakoarekin. Gure anaia GALek hil zuen oso gaztetan. Bizitza-proiektu bat zuen... Zuen adierazpenak entzutera eta ikastera etorri naiz, eta nireak partekatzen.

-77 urte dauzkat. Duela urte asko nire arreba, haren senarra eta haien seme bat hil zituzten. Arreba bakarra nuen. Lau hildako eta hamahiru zauritu izan ziren... Izapideak egin nituen laugarren hildakoaren kalte-ordainekin, eta duela oso gutxi jaso ahal izan dituzte. Gezurra badirudi ere, urte asko igaro diren arren, hunkitu egiten naiz gertatutakoa oroitzean. Gudu askotan aritua naiz... Honek Glen Cree ekimena gogorarazten dit, senide batek parte hartu du bertan, eta oso ondo iruditzen zait. Egia da biktima gutxi garelara eta hedadura txikia duela, baina harea-pikor bat ere eraikin baten parte da. Urte asko igaro diren arren, hunkituta nago, eta urtero elkartzeko gara seme-alabekin; haiei egokitu zitzaion alde txarrena. Denborak asko arintzen du mina. Hemendik gauza onak besterik ez ditugu aterako.

Nire emaztea ere biktimatzen daukat.

-Duela hogeita hamar urte hil zuten GALen biktima baten arreba naiz. Orain hobeto nago, baina niri ere asko kostatu zait. Inflexio-puntua izan zen familia osoarentzat. Saio hauetan urratsak ematen joatea espero dut. Biktima guztiak gara biktima, berdin dio norenak. Gure aita sindikalista zen, eta frankismoan hil zuten. Lehenengo aldiz, etortzeko indarra izan dut; orain arte oso triste egon naiz. Arreba gazteena naiz, baina gainerakoek ez dute ezer jakin nahi; antza denez, ni naiz adoretuena. Bakoitzak modu batean bizi eta sentitzen du.

-ETAren biktima batek aipatu du ezjakintasun handia dagoela GALen biktimen inguruan, nahiz eta horrelako erakunde guztiak duela asko aitortu zituzten talde terroristatzat.-

-Gazteek oso gutxi duzue lehendik, eta asko gerora begira.

-Erakundeei buruzko edozer gauza sinets dezaket; adibidez, biktimenzako arretea-bulegora deitu eta honela esatea: "Neska, gu ere biktimak gara, gelditu gabe ari gara". Edo biktimen zerrendan ez agertzea zure aitaren izena, duela hogeita hamar urte hil bazuten ere... Edo, duela urte batzuk gertatu zitzaidan moduan, kalera irten, eta bizilagun batek mehatxu egitea... Bizilaguna dut oraindik.

Zuk esaten zenuen ikusezina izan nahi duzula herrian, bakean bizi eta bakean bizitzen utz zaitzateela nahi duzula, baina nik ez dut ikusezina izan nahi. Ez dut nahi bizkarrean zapladatxoak ematea. Ikusezin izatea hemen gertatutakoa ahaztea da, eta terrorismoaren biktimak luzaroan izan gara ikusezinak. Nik ez dut ikusezintasun hori nahi, erasotzaileari ematen baitio arrazoia. Erabat errespetagarria da norberak aukeratzea.

-Nik 28 urte igaro ditut ikusezin izaten, hitz egin gabe, baina ikustera eman nahi nuen neure burua, gizarteko sektore guztietara iritsiko den mezu bat helarazteko, guztion artean adostutako mezua.

-Politikariek biktimei buruz esaten dituzten zenbait gauza ez datoz bat errealitatearekin... Agian, interesatzen zaienak bakarrik hartu nahi dute kontuan.

IKASLEEK HARTU DUTE HITZA (urduri samar).⁷⁸

-Espero dut amaierako txostenean jasotzeko ondorio batzuk ateratzea hemendik. Ni zeharkako biktima izan naiz... Atsekabea eta frustrazioa eragiten dizkit indarkeria erabili dutenei dominak jartzeak. Dominak biktimei eman behar zaizkie. Nire ustez, ez dira behar bezainbeste oroitzapenezko ekintza gauzatu. Egitasmo bat sortu behar lukete, etorkizunean museo bat sortzeko argazkiekin, biktimen lekukotzekin... Eta museora eraman behar lituzkete Lehen Hezkuntza eta Unibertsitate bitarteko ikasleak. Udalek, edozein alderditakoak izanda ere, terrorismoaren biktimak ohoratzeko ekintzak gauzatu behar lituzkete (plakak ipintzea, kaleei haien izenak jartzea, ekitaldiak egitea...). Eta etorkizuneko belaunaldiak gertatutakoa eta kultura demokratikoa oinarritzat hartuta hezi behar lirateke... Herri txiki batean bizi naiz... Aita ertzaina da, eta haren amesgaiztoa nik sei urte nituenean hasi zen, garajeko atean mehatxu-pintadak egin zizkigutenean... Oraindik gogoan dauzkat pintadak, eta kristal hautsiak, eta horiek konpontzeak gastua zekarren, noski. Gogoan ditut jendearen begiradak, isekak eta, batez ere, baztertuta bizitzea... (hunkitu egin da). Nire esperientzia eta zuenak ez dira alderagarriak, baina terrorismoak, lesiorik eta hildakorik izan gabe ere, pertsona askoren bizitzetan izan du eragina beste modu batean. Hona hemen nire galdera: zer iruditzen zaizkizue biktimen eta biktima-eragileen arteko konponbiderako topaketak?

-Ezin dut sentitu zuetako bakoitzak sentitzen duzuen... Baina ikusten dut bizipen horiek zuen bizitza apuritu zutela. Garrantzitsua da halako atsekabeen murgilduta bizi diren familiak ez ahaztea. Memorialak erabiltzea ona dena gogoratzeko, eta zuen bizitzako egun ilunak alde batera uzten saiatzea. Nire ustez, horretarako ez dira ekitaldi handiak eta sentsazionalistak antolatu behar, politikariek edo hedabideek nahi bezala erabil edo interpreta ditzaketanak. Baliagarriagoak iruditzen zaizkit ekitaldi xumeak, gizakien berotasuna jasotzeko eginak, sinpleagoak (eskulturak, oroitzapenak, gaurkoaren antzeko laguntza-bilerak...). Oroimena garrantzitsua da; izan ere, gaizkiari dagokionean, ezin dugu onartu hura jasan dutenak baztertuta sentitzea... Hona hemen nire galdera: zer edo nor izan duzue euskarri nagusia unerik latzenetan?

-Oso interesgarria iruditzen zait zuen lekukotzak entzutea. Gurasoek gertatzen ari zenaren berri ematen bazidaten ere, guk ez dugu horrelakorik jasan. Etorkizuna gazteon esku dago, eta, ahalegintzen bagara, ekarpen handiak egin ditzakegu. Zorionez, badirudi hau guztia amaitzen ari dela, eta orain gazteen kezka nagusia oraina eta etorkizuna dira. Baina uste dut garrantzitsua dela orain arte izan ez duzuen babesa jasotzea eta gertatutakoa ez ahaztea... Ez diezazuela inork esan nola eta zer modutan oroitu behar duzuen... Oroimenerako eskubidea garrantzitsua da zuentzat, eta aurrerapauso handia gizartearentzat. Samina eta absentiak saihestu beharreko bidea erakusten diguten argiak dira. Gazteok iraunarazi egin dezakegu bidegabeki sufritu duten gizon-emakumeen oroitzapena. Gazteoi berezkoak zaizkigun inkonformismoa, errebeldia eta aldatzeko nahia ez ditugu nahasi behar indarkeriarekin; aitzitik, elkarrizketa sustatu behar dugu... Gizarteak eman behar die argia irudi halabeharrez mutu horiei, entzuteko modukoak izan daitezten. Jorge Manriqueren bertso batzuk irakurri ditu. Galdera hau egin du: ba al da oroitzapenak ekartzen dizkizuelako zuentzat oso gogorra den eguneroko ekintzarik?

BIKTIMEK ERANTZUN DUTE

Euskarri nagusiari buruz

-Ni ezkondu egin nintzen, eta nire bi seme-alabek lagundu didate sufrimendua gainditzen. Beti esaten diet gauza bera.

78 Lehen aipatu denez, 3. eranskinean daude galdera eta gogoeta osoak.

-Haurra nintzenez, ama izan nuen euskarri nagusi, familia barruan. Garrantzitsuena da ez nauela gorrotora bultzatu. Bigarren euskarria ni neu izan naiz. Beti saiatu naiz eragozpenak gainditzeko. Pentsatzen nuen ezingo nintzela inoiz gehiago ibili bizikletan...

-Gorrotok gaixoarazi egin zaitzake.

-Ez du ezertarako balio. Gu elkartzeko gai bagara, hitz egiteko gai, baita muturreko kasuetan pentsatuta ere, agian, GALen biktimaren bat izatea lehergailua jarri zuena, eta hitz egin badezaket... Eta politikariek, gizarte hobe eraikitzeke arduratu duten horiek, egoera okertzen dute.

-Euskarri nagusia familia izan zen, baina, baita ere, oso argi edukitzea indarkeria ez dela bidea... Gure kasuan, inork ez zituen bere gain hartu gertaerak, baina erlazionatuta zeuden ondoko ondoko gertaera batzuk izan ziren... gorpuk agertu ziren arte... Alde batetik hori genuen, eta bestetik, ETaren hilketak. Hori ez zen bide egokia. Eta hori argi edukitzeak salbatu ninduen. Hain handia zen kalte morala, hain handia gure familiaren samina, ezen konturatu nitzen nik ezin nuela min gehiago eragin, samin horretan irribarre bat eragiten saiatu behar nuela...

-Gure ama oso zaharra zen, baina burua oso argi zeukan, eta "basapiztia horiek suntsitu behar dira" entzuten zuenean, ez dut inoiz ahaztuko, honela esaten zuen: "lasai zaitez..., mendekua ez da eta kristauen ezaugarri". Berak aholku hori bete zuen, eta guk ere betetzen jarraitu dugu.

Eguneroko bizitzari buruz

-Nik oso gogoko dut Pasai Donibane, toki aparta da, baina ez naiz hara joaten, handik igarotzean nahitaez ikusten direlako pintadak, pankartak, ETaren anagrama, sugea... Eta horrek, esaterako, min ematen dit, eta ekidin egiten dut.

Eta taberna batzuetan ere gertatzen da hori, sartu eta ETaren sinbologia ikustea. Orduan, "ni banoa hemendik" esaten duzu. Horrelako egoerak saihesten ditut.

-Galdera bat egin nahi dizuet. Ez bazara ez polizia, ez militarra, ez ertzaina, ez politikaria, ez nik zer dakidan zeren militantea, eta hil egiten bazaituzte, zer zara? Hildako nire senidearen kasuan, salatari zela diote, zuk nahi duzu salatari bat zela esatea? (hunkitu egin da). Nire aita, 13 urteko mutikoak gehien maite zuena.

-Hiltzea gizagabea da, ez dauka inolako justifikaziorik, biktima dena delakoa izanda ere.

-Kontua da ezin dela inor hil.

-Gizaki bat, beste guztiak bezalakoa.

-Nik negozio bat daukat, eta atsegin dut barruan egotea, baina ez jendaurrean; ez dakit zergatik, baina saihestu egiten dut jendearekin egotea. Hala ere, gaur hona etorri naiz. Uste dut hitz egin nahi dudalako etorri naizela.

-Pertsona batzuek komunikatzeko beharra dute, eta beste batzuek ez.

-Errazagoa da hemen hitz egitea oro har jendearekin hitz egitea baino: guk elkar ulertzen dugu.

-Bata bestearen atzetik izandako ekintza terroristak pilatzen joan dira, eta biktima izan direnengan eragin handiagoa izaten dute ekintza horiek.

-Ni ez naiz Frantziara joaten. Gonbidatzen naute, baina ez naiz joaten. Hogeita hamar urtean lehen aldiz, gustatuko litzaidake hilketaren tokira joatea, baina une egokia aurkitu nahi dut. Tokia ikusi nahi dut... Uste dut hobeto nagoela eta iritsi dela tokia ikusteko eta nola sentitzen naizen jakiteko unea. Inoiz ez dut ezagutu nahi izan ez puntu ez toki zehatza, baina orain bai, zehazki noiz joango naizen ez dakidan arren. Irtsiko da une aproposa, eta joango naiz. Nik barkatu egin nahi diet, neure burua askatzeko eta aurrera jarraitzeko; baliteke egoista izatea, baina barkatzeak zama kenduko dit gainera, eta arinago egingo dut aurrera.

-Ni joan nintzen hilketaren tokira, eta gogorra da, badakizulako zure pertsona maitea hor hil dela edo hor hil dutela bizkarretik. Niri gertatu zait lanak izan ditudala etxean eragindako sufrimendua barkatzeko anaiari. Neure buruarekin lan egin behar izan dut urte askoan, eta orain ari naiz anaiari barkatzea lortzen. Pentsa. Gogorra da hori esatea. Erabat aldatzen dizu bizitza, familiarterako harremanak. Hain da handia samina. Zergatik egin diguzu hau? Terapiak eginez, barkatzea lortzen duzu. Gogorra da, oso gogorra.

-Niri ere gertatu zitzaidan, eta ez dut inoiz kontatu, niretzat oso gogorra izan baitzen ETako kidea zela jakitea. Eta, gainera, esaten dizute: "merezitakoa izan du". Baina inork ez du hori merezi. Ez da biktima aztertu behar, bizia urratu duena baizik. Nik ez dut anaia epaitu behar, bizi-urratzaileak baizik.

-Nire senide bat ETako kidea da, eta gatazka hori daukat, berak luzaroan justifikatu duena... (saiatu da GALen beste biktima bati galdetzen, baina pertsona horrek ez du hitz egin nahi bere senideak ETan izandako militantzia posibleari buruz).

-Guztiak gara oso sentiberak, eta bereziki biktimak, batez ere badirelako barrenak iraultzen dizkizuten data batzuk...

-Batuetan ez gara norabait joaten egoera deserosoa eragingo dugulako, ez guk nahi ez dugulako. ... jaia, ikaragarri gustatzen zaigu, baina kostatu zaigu joatea. laz joan ginen, eta aurten ere izan gara. Estutasunean jartzen duzu jendea. Batzuk zalantzan egoten dira, "gerturatuko naiz ala ez". Guri ez zaigu gertatzen, baina pertsona batzuk zure alde ala kontra daude.

-Nik ez dut inoiz bidez aldatzen manifestazioren bat-edo badago..., baina gero izaten dut halako sentsazio bat...

GEHIENEK ERANTZUN DUTE EZ DUELA ASKO BALDINTZATZEN BEREN EGUNEROKO BIZITZA, BEREZIKI BIKTIMIZAZIOAREN TOKIAK

-Hasieran, zaila da toki horretatik igarotzea herri berean bizi bazara, baina orain ez, hainbeste urteren ondoren ez. Bost bat urte behar izan nituen, eta seme-alabak ere ez ziren etortzen hasieran, baina orain bai.–Galdetu diote ea gustatuko litzaiokeen toki horretan zerbait egotea, oroigarriren bat: zalantza egin du, baina ez.

-Niri ere ez litzaidake gustatuko.

Konponbiderako topaketei buruz

-Nire kasuan, ez dakigu nor izan ziren.

-Nirean ere ez.

-Nork bildu nahiko du gurekin?

-Biktimek nahi izan behar dugu.

AZALDU ZAIE EZINBESTEKO BALDINTZA DELA GUZTIEK PARTE HARTU NAHI IZATEA

-Gu lau hilabetez egon ginen biktima-eragileekin Audientzia Nazionallean; egunero ikusten genituen beren senideekin, maite dituzten pertsonekin. Pertsona horietakoren batek damua agertuko balu eta ezagutzen duen guztia egia jakiteko eta justiziari laguntzeko erabiliko balu, kasu horretan ni prest egongo nintzateke egia argitzen eta justizia egiten lagundu nahi duen edozeinekin hitz egitera. Ez badu bere jokabidea hausnartzen eta ez bada konturatzen egindakoa gaizki dagoela, ez du nahiko... Norbere burua aztertzeke ibilbide bat egin izan behar dute lehenago, eta argi eduki ez dutela lehengo pertsona hura izan nahi eta justiziari lagundu nahi diotela.

-Ez badago damututa, ez da eraikitzailea inorentzat.

-Niri ez zaizkit gustatu konponbiderako topaketak. Hedabideetan azaldu dituzten moduan eta planteatu dituzten moduan ez zaizkit ondo iruditzen. Justizia konponarazlea aplikatzeko, beharrezkoa da aurretik soilik justizia aplikatzea: hiltzaileak nor diren jakitea, horiek epaitu eta zigortzea, eta behin zigorra beteta... Baliteke topaketak onuragarriak izatea biktimarentzat, baina uste dut oso onuragarriak direla erasotzailearentzat. Nik ez dut behar inork barkamena eskatzea, nik neuk lan egin baitut neure buruarekin. Erasotzaileak behar balu eta ibilbide hori egin balu, agian egingo nuke, giza elkartasunagatik, beste gizaki bat laguntza eskatzen ari zaizulako, barkamena eskatu nahi dizulako. Baina aurretik beharrezkoa da justizia, noski, eta justiziari laguntza eskaintzea. Eta hori ez dute egin konponbiderako topaketetan. Etxea teilatutik eraikitzen hastea bezala da.

ARGITU DA JUSTIZIA KONPONARAZLEA JUSTIZIA-MODU BAT DELA, MUGAK MUGA, ETA EZ DU EGIA UKATZEN EDO ARDURA EZABATZEN, BAINA BESTE ERANTZUN BATZUK AZTERTU NAHI DITU, GIZARTE KONPLEXU BATEAN BALIAGARRIAK IZAN DAITEZKEENAK ALA EZ. BALIAGARRIA IZATEN DA OHIKO JUSTIZIAK FUNTZIONATUKO EZ DUELA GAUZA JAKINA DEN KASUETARAKO (ADIBIDEZ, DELITUAK PRESKRIBATU EGIN DIRELAKO). GLENCREE EGITASMOAK EREDU PARTZIALKI KONPONARAZLEA DU.

IKASLEEK ESKERTU EGIN DIETE BIKTIMEI BEREN ADIERAZPENAK ENTZUTEKO AUKERA⁷⁹

II. SAIOA: ZER DA OROIMENA ETA ZERTARAKO BALIO DU?

ZER EGIN DAITEKE? ZER IRITZI DUTE BIKTIMEN ZUZENDARITZAK OROIMENAREN GAIAN EGUN DUEN JOKABIDEARI BURUZ?

PARTE-HARTZAILE BATEK INFORMAZIOA ESKATU DU OROIMENAREN INSTITUTUARI BURUZ. NOLAKOA IZANGO DA? BERLINGOA DU EREDU? DINAMIZATZAILEEK ARGITU DUTE INSTITUTUA ETA MEMORIALAEZ DIRELA GAUZA BERA. AZKEN HORI, ESTATUAK BULTZATUA, SOILIK TERRORISMOAREN

79 Bazkalostean ikasleek eskolak dituzte, eta ez dira saioetan egongo.

BIKTIMEI BURUZKOA IZANGO DA, ETA ZATI BAT MUSEOA IZANGO DA, ETA BESTE BATEAN ARGAZKIAK ETA LEKUKOTZAK IZANGO DITU. GASTEIZEN EGONGO DA. OROIMENAREN INSTITUTUA, EUSKO JAURLARITZARENA, ZABALAGOA IZANGO DA, BARNE HARTUKO BAITITU FRANKISMOAREN ETA POLIZIA-GEHIEGIKERIEN BIKTIMAK ERE, ETA HORIEK HERTSIKI EZ DIRA TERRORISMOAREN BIKTIMAK.

OROIMENAREN EGUNARI BURUZ GALDETU DIETE, EUREKIN BAITU ZERIKUSIA.

-Nik ez dakit ezer, noiz da?

-Azaroan.

AZALDU ZAIE OROITZAPENEZKO EKITALDI BAT EGIN DUTELA EUSKO LEGEBILTZARREAN.

-Batzuk ez dira ados jarri.

-Beti bada zer bait.

-Ekitaldi politiko bat da.

-Horrelako ekitaldi politikoak, orokorrak, urrutikoak eta hotzak dira niretzat, baina ulertzen dut zer edo zer egin behar dutela. Nik nahi nuke oroitzapenezko ekitaldiak gertukoagoak izatea, biktimetan oinarrituak... pertsonalatuagoak. Niri ongi iruditzen zait hilketaren tokian hildakoaren izena oroitzeko plaka bat jartzea... Oroimenak biktimen nortasun zehatzean oinarrituta egon behar du, bestela ez da lortzen gizarteari transmititzea...

-Niri ere gustatzen zait plakena.

-Baina zenbat jarri behar lirateke? Mordo bat.

-Ez pentsa, ez hainbeste.

-Dena kontuan hartuta... eta beti ahaztuko litzaiguke norbait.

-Arazo nagusia hori izango litzateke, nori jarri adostea.

EKINTZA JAKIN BATZUK AZTERTU AURRETIK, OROIMENAREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK ZEIN DIREN IDATZI BEHAR DUTE FITXA BATZUETAN, ETA METODOLOGIA AZALDU ZAIE. EZ DA BEHARREZKOA ESALDI OSO BAT IDAZTEA. ELKARREKIN EDO BAKOITZAK BERE ALDETIK LAN EGIN DEZAKETE (BAKOITZAK BERE ALDETIK EGIN DU).

ZUENTZAT, ZER DA OROIMENA? IDATZI *OROIMEN* HITZAREKIN LOTZEN DITUZUEN BOST IDEIA. GERO FITXA HORIEKIN LAN EGINGO DUGU. BATZUEN USTEZ, OROIMENAK ZILEGITASUNA KENTZEA IZAN BEHAR DU HELBURUTZAT... BESTE BATZUEK ASKATASUNAREKIN IDENTIFIKATZEN DUTE. ZER DA GARRANTZITSUENA OROIMENAZ HITZ EGITEAN?

BAKOITZAK IDATZITAKO BOST FITXAK JASO, NAHASI ETA BERRIZ BANATU DITUZTE. EGOKITU ZAIZKIENETIK BI AUKERATU BEHAR DITUZTE, HAIEN USTEZ IDEIA GARRANTZITSUENAK ADIERAZTEN DITUZTENAK, ETA AZALDU BEHAR DUTE ZERGATIK IRUDITZEN ZAIEN HORI EDO, HALA BADAGOKIO, TXARTELEAN IDATZITAKO IDEIA ZEHAZTU.

-Oroitzapena.

-Oroimena (nortasun pertsonala, gizakia berreskuratzea).

-Etikari lotutako oroimena (giza eskubideak).

-Gizartearen aitortza (lasaibide soziala, bizikidetzaren onarpena), oroimen iraunkorra eta etengabea. Hirurak iruditzen zaizkit bikainak. Honela labur dezakegu: oroimen iraunkorra eta etengabea, denboran barrena iraungo duena. Iragana hor dago, ezin da aldatu, baina balio dezala ondorengo belaunaldientzat, gure seme-alabentzat, bilobentzat, birbilobentzat, herenilobentzat. Guztien aitortza guztientzat. Norbait ahaztuz gero, hanka sartuko dugu; hor egin beharko da lan ona. Gero, hortik abiatuta, nola gauzatu aitortza hori? Hori gustuen eta sentikortasunen arabera izango da.

-Giza eskubideak ezagutzea. Antza denez, helburu zaila da hori, etengabe urratzen baititugu giza eskubideak, baina uste dut beharrezkoa dela alderdi hori lantzea.

Era berean, funtsezkoa iruditzen zait biktimek ikastetxeetan hitzaldiak ematea, gazteek zuzenean ezagutu ditzaten haien bizipenak... Hori da gizartearen oinarria... Nire ustez, horrela zailagoa izango da berriz gertatzea (giza eskubideen nazioartekotzea).

Gero eskulturak eta ikus-entzunezkoak geratzen zitzaizkidan. Horiek ere bitartekoak izango lirateke, baina hitzaldiak hezkuntzarekin eta nazioartekotzearekin lotzen ditut, eta horiek ez ditu ez ezetzatzen ez suntsitzen denboraren joanak (eskulturak eta ikus-entzunezkoak ez bezala).

-Ni ez naiz batere ekitaldizalea... Gizartearen aitortza eta egia aukeratu ditut. Aitortza guztien artean egin behar dugu, egia gal ez dadin. Politikaren egungo egoera ikusirik, agian gizartearen aitortza herritarrena da, ez erakundeena.

-Hurbileko oroimena eta argazkiak aukeratu ditut. Oroimena biktimaren nortasunarekin lotzen dut, hurbiltasun horrekin, bestela oso lausoa baita. Jakin dadila nor zen, zer bizimodu zuen, zer proiektu zeuzkan eta zapuztu egin zizkiotela... Zenbat eta gehiago jakin, orduan eta gehiago azpimarratzen da haren gizatasuna, baztertuta egon dena, eta modu horretan agian errazagoa da enpatiako mekanismoak aktibatzea. Argazkia irudi bisual gisa.

“Apolitiko” baztertu dut, guztiok daukagulako ideologia bat... Dena da politika, eta politika horrek giza eskubideen babes amorratua izan behar du oinarritzat, baina zaila da... Agian, hori idatzi duen pertsonak manipulazio alderdikoiari egin nahi zion erreferentzia. Hitza idatzi duen pertsonak azaldu du oroimena ez dela alderdi baten kontua. Ildo horretan, bat dator oroimen ez-alderdikoiaren garrantziarekin.

-Lekukotzak eta pertsonak identifikatzea. “Familiakoa” eta “berdintasuna” baztertu ditut.

-Pertsona maitearen “oroimen zaindua” aukeratu dut, uste baitut zerbait egin behar dugula haien hor jarrai dezaten. Baliteke oroimen egoista samarra izatea. Halaber, garrantzitsua da inflexio-puntu bat izatea, ez berriz gertatzea, eta justizia nahi dugu, ez inpunitatea.

-Gure eginkizuna da oroimena zaintzea, haien alde zerbait egitea, eta geure alde. Gure esku zegoena egin dugu ez ahazteko, bizirik mantentzeko... Nuen gauzarik baliotsuena kendu didazue, baina ezin izan duzue suntsitu.

-Lekukotzak. Biktimen lekukotzek ordezkatzen gaituzte. Holokaustoaren kasuan, bizirik atera zirenek beren lekukotzak ematen dituzten aretoak daude... Zure lekukotza manipulaziorik gabe eskainiko duen oroimenaren zentro bat, non bisitariak hura entzuteko eta ondorioak ateratzeko aukera izango duten. Hedabideek manipulatu egin ohi dute.

Gauza bat da nork jasotzen duen eta nola (hedabideak, ikertzaileak), eta beste bat nola gorde eta erabiltzen den, eta nola hedatzen den.

Lekukotzek hunkitu egiten naute. Haien tokian jartzen naiz, eta haien samina ulertzen saiatzen naiz. Modu horretan, joandako pertsona “berreskuratzen” duzu.

-Ikastetxeetako hitzaldiak oso egokiak iruditzen zaizkit. Hain justu, parte-hartzaileetako batek berak izandako esperientzia positiboa aipatu du... Gehiago jakin nahi nuke proiektu horiei buruz.

-Zerbait gauzatan parte hartzeko aukera gutxi izan dugu... Ez dakit zergatik. Zerrenda osatuak daude, bereziki zaurituenak. Gainera, ni ez naiz inongo elkartetako kidea; elkarte batzuk politizatuta daude.

-Ikastetxeetara joateko prestakuntza jaso behar da, baina ez dakit zer irizpide erabiltzen dituzten biktimak aukeratzeko. Zer irizpide dituzte? Eta nork aukeratzeko irizpideak? Zertan oinarrituta? Badakigu egiten ari direla, baina ez dakigu ezer gehiago.

AZALDU ZAIE GAI HORREN GAINEKO EZKUTUKERIAREN ARRAZOIA HEDABIDEETAN BIKTIMEN ANONIMOTASUNA MANTENTZEA IZATEN ZELA BATZUETAN.

-Baina, kanpotik begiratuta, ezkutukeria horri alderdikari-susmoa hartzen diot.

-Ikastetxe guztietan egin behar lirateke. Uste dut Hezkuntzak eskaini egiten dituela eta ikastetxeek eskatu behar dituztela.

UNIBERTSITATEAN ERE EZ DIRA EGITEN. ETA ESKATUKO BAGENIZUE -NAHIZ ETA EZ DAGOEN PROGRAMARIK ESKOLETAN BEZALA-?

-Ondo iruditzen zait, baina prestatuta egon behar da, entzuleak ez daitezen atera mezu oker edo ez-erakitzaile batekin.

-Baina, unibertsitateko esparruan giza eskubideei buruz hitz egiten ari bagara, erraza da, nahiz eta biktimei barrenak nahasi.

-Egia.

ARARTEKOAK ZIOEN OROIMENAK HIRU LERRO DITUELA: SUFRIMENDU BIDE GABEAREN OROITZAPENA, INDARKERIARI ZILEGITASUNA KENTZEA XEDE POLITIKOAK LORTZEKO BIDE GISA ETA BAI EZTAPEN ETIKOA.

NOLA GAUZA DAITEZKE TXARTELETAN HAUTATU DITUZUEN IDEIA NAGUSIAK?

-Parte hartzeko aukera gutxi eman digute. Ekarpinak egin ditzakegu.

-Ez gara zenbakiak.

-Aldizka-aldizka errepikatzea biktima gisa sufritu duten gizon-emakumeen izenak.

-Gogoan dut izan zela ideia bat minutu batzuetan egun hartan eraildakoen izenak irakurtzeko.

-11-Sko gertaeren kasuan, urtero irakurtzen dituzte izenak, eta han grabatuta daude, eta zenbait aldizkaritan ere agertu dira.

-Norbait identifikatzen baduzu, gizaki gisa irudikatzen duzu. Hildakoak ez ezik, zaurituak ere jasoko nituzke, eta mehatxuak jaso dituztenak...

-Zaila da.

-Ez da hain zaila. Ez da ahaleginik egin. Neurri batean, bakan batzuk gara...

PREST EGONGO ZINATEKETE ZUEN LEKUKOTZA EMATERA, EZ TELEBISTARAKO, MODU HISTORIKOAN GORDETZEKO BAIZIK?

-Bai, bai... (inork ez du ezezkoa esan).

-Ni hemen nago, eta ez nago hitz egiten ohituta, baina orain, pentsatzen jarrita, hunkitu egiten naiz, zergatik esango nuen goizean diruarena?

-Tira, oso ongi egin duzu, eta guztiok ulertu dugu zer esan nahi zenuen (gainerakoak babesa ematen saiatu dira).

DINAMIZATZAILEEK ERE BEREN BABESA ERAKUTSI DIOTE.

-Bai, baina, horregatik, ez nintzateke ausartuko nire lekukotza ematera, gero damutu egingo bainintzateke gauza batzuez edo ez bainituzke behar bezala azalduko...

-Baina zeure burua prestatzen duzu, eta gero berrikusi egin dezakezu.

-Gainera, oinarritzat hartzen da parte hartzen dutenek gaitasuna dutela, seriotasunez jarduten dutela, borondate ona dutela.

LEKUKOTZAK BANAKAKOAK ETA TALDEKOAK IZAN DAITEZKE, PARTE-HARTZAILEAK HOBETO SENTITUKO BADIRA BATERA EDO BESTERA.

NORBERAK BERE EGIA KONTATZEKO EGINDAKO ADIERAZPENEK, ARARTEKOAREN HITZALDIAREN OSTEAN GERTATU DEN MODUAN, HUNKITU EGIN GAITUZTE GUZTIOK, ETA BEREZIKI IKASLEAK.

-Baina, hitz berberak entzunda, batzuk minduta sentitu dira eta beste batzuk ez.

-Baina hori bizitzaren beste alderdi batzuetan ere gertatzen da.

-Gainera, gogoeta eginez eta lasaitasunez mintzatzean, hobeto hitz egin dezakezu.

-Lekukotzari dagokionez, nork emango du? Seme-alabek, alargunak, anai-arrebek... Nire ustez, lehen hitzak seme-alabena behar luke.

-Ez dut uste bateraezinak direnik...

-Dena da baliagarria; osagarriak dira; historia bera da hainbat ikuspegititik.

-Hitzaldiak ikastetxeetan. Guztiok parte hartu behar genuke modu indibidualagoan.

-Gizartea oso eroso da, ez da mugitzen... Biktimak hiltzen joango gara, eta hau guztia ahaztu egingo da.

BAINA FRANKISMOARI ERREPARATZEN BADIOGU, BILOBEK EZ DUTE AHAZTU NAHI IZAN.

-Gizarteak eskatu behar die oroimena politikariei.

-Argazkiak oroimenaren zentro batean erabiliko nituzke. Biktimaren argazkiak senideekin, lanean... Eta atentatuaren unekoak, alderdi morbosoa alde batera utzita.

-Oroimenaren zentroek lotura eduki behar dute giza eskubideen etikarekin.

-Adibide bat da 2014an Nafarroako terrorismoari buruz argitaratutako argazkidun liburu bat.

-Argazkia transmititzeko bitarteko ona da.

-Memoria iraunkorra, erreferentziazko zentro iraunkor baten bidez; baina zaharkituta gera daiteke...

-Solosalldiak antola daitezke, eta hitzaldiak, eta erakusketa ibiltariak...

-Nahigabe handia eragiten dit esku-hartze artistikoak hondatzen ikusteak, esaterako Forondako atekoa, Ibarrolarena⁸⁰.

-Hurbileko oroimena, pertsonalizatua, plaken edo beste bitarteko batzuen bidez. Bitarteko bakoitzak bere formatua dauka, eta hedadura jakin bat onartzen du. Plaka batean, adibidez, laburtasuna behar da.

HORTAZ, ZENTRO BAT GASTEIZEN?

-Hori egin aurretik, agian gurekin harremanetan jarri behar lukete. Hurbiltasunak berekin dakar partaidetza ere, nahiz eta Gasteizen egin.

-Pertsonak identifikatzea eta, batez ere, egia kontatzea. Luzaroan inork ez zuen ezer esaten, denak isil-isilik.

NORK KONTA DEZAKE EGIA?

-Biktimak, nahiz eta egiak muturrekoak baina errealak diren kasuak azaleratu; adibidez, biktimak beste baldintza batzuetan biktima-eragile ere izandako kasuak.

ETA EZ BADA KIGU HILTZAILEA NOR DEN? ERASOTZAILEEK EGIA ARGITZEN LAGUNTZEKO BIDEAK BILATU BEHAR DIRA?

-Espetxe-erakundeetatik... Ezin zaie behartu, baina birgizarteratzeko prozesuaren barruan landu daiteke.

DATOZEN URTEETAN EPAITEGIETAN ARGITUKO EZ DIREN DELITU ASKO PRESKRIBATU EGINGO DIRELA AIPATU DUTE.

-Dagoeneko ez dago zer eginik. Behin preskribatuta, ez dago zer eginik judizialki.

-Agian horrexegatik, preskribatu ostean ezin diotelako ezer egin, esan egiten du.

-Legea aldatu behar lukete.

LEGEA ALDATU DUTE, PRESKRIBAEZINAK IZAN DAITEZEN, BAINA EZ DA ATZERAERAGINEZKO LEGEA.

-Legelari batzuek proposatzen dute preskribatuta egonda ere epaiketa egitea eta zigorra ezartzea, nahiz eta ez bete behar izan.

-Hori gertatu da frankismoko krimenekin.

ZER IRUDITZEN ZAIZUE POLIZIAREN TORTUREN ETA GEHIEGKERIEN BIKTIMAK ERE OROIMENEAN TXERTATZEA, NAHIZ ETA ESPAINIAR LEGEDIAREN ARABERA HORI ZEHAZKI EZ DEN ESTATU-TERRORISMOA? BEREIZKETA HORI EGIN BEHAR DA, EDO POLIZIAREN GEHIEGKERIAK ERE SARTU BEHAR DIRA, NAHASKETARIK GABE, KONTUAN HARTUTA OROIMENAREN HELBURUETAKO BAT LEGEZ KONTRAKO INDARKERIAREN ERABILERARI ZILEGITASUNA KENTZEA DELA?

-Nire ustez horrek zentzua dauka.

-Nire ustez, kasu bakanen bat bada, polizia batzuen...

SALAKETEI BURUZ ARI BADIRA ERE, ETA EZ ZIGORREI BURUZ, ZENBAIT ITURRIK ESATEN DUTE 5.000 KASUTIK GORA DAUDELA, ETA HORIEK EZ DIRA KASU BAKAN BATZUK.

-Nik ez nuke dena batera sartuko, dena nahastea iruditzen baitzait. Hala eginez gero, zergatik ez ditugu sartuko genero-indarkeriaren biktimak, sexu-gehiegikerienak...? Horiek ere indarkeriaren biktimak dira. Berariazotasun bat dago, eta garrantzitsua iruditzen zait horri eustea, nire ustez kasu zehatzetatik (Antonio Beristainek aipatutako Euskal Herriko makrobiktimizazioa) egoera orokorrera joatea baita. Torturak ikertu egin behar dira, eta erreparazioa merezi dute, eta abar, baina nik ez nuke dena nahasiko. Biktimizazio terroristak berekin dakartza zenbait alderdi, alde batera utzita samina eta sufrimendu pertsonala alderagarriak izan daitezkeela eta legez kontrako indarkeria oro gaitzesgarria dela. Gauzak nahasi besterik ez dira egingo.

-Ez ditut nahasi nahi, inolaz ere, baina, agian, Euskal Herrian izan diren polizia-gehiegikeria batzuek terrorismoaren baitan kokatu behar ditugu. Hortaz, agian zentzuzkoa da horiek ere sartzea, ez mundu guztia batera jartzea, baina bai aipatzea terrorismoaren biktimek sufrimendu hau jasan dutela eta beste alde batetik beste sufrimendu mota bat ere izan dela, beste era batekoa...

-Nik ez dut izan polizia-gehiegikeriak jasan dituen inorekin hitz egiteko aukerarik, baina aldea izan da gehiegikeria horien biktimek terrorismoaren biktimok orokorrean jaso ez dugun aitortza edo babes sozial edo ideologikoa jaso dutela (ez instituzionala).

80 Ikusi 8. eranskina.

-Inork ez du egin torturaren aldeko manifestaziorik...

INSTITUZIONALKI DEKRETU BAKARRA DAGO, 1960TIK 1978RA BITARTEKOA, ETA ESTATUAK ERREKURTSOA AURKEZTUA DIO.

-Niri ongi iruditzen zait ezagutzera ematea..., baina ez terrorismoaren biktimekin nahastea.

-Terrorismoak hedatze-uhin bat sortzen du, eta pertsona askorengan eta eremu askotan izan du eragina.

-Behin eta berriz eskatzen da ez parekatzeko.

-Era berean, bereizi egin behar genuke zer-nolako torturez edo tratu txarrez ari garen, zer neurritaraino uzten dituzten epe labur, ertain eta luzerako ondorioak.

-Nire ustez, gai honen inguruan gauzak modu interesatuan nahasten dituen jarrera alderdikoia dago, gatazkaren teoria deritzonaren baitan.

-Munduko herrialde guztietan torturatzen dute; ez da soilik terrorismoaren kontua.

NAHIZ ETA GAUZA DESBERDINAK IZAN, PUNTUREN BATEAN ERLAZIONATU EGITEN DIRA. OROIMENAREN INSTITUTUAN GAI HORRI BURUZ EZTABAIDATZEN DA, NAHIZ ETA ARGU EDUKI EZ DELA ERABILI BEHAR INDARKERIA BIKOITZAREN ARRAZOIBIDEA ETA HORIEK EZ DIRELA TERRORISMOAREN BIKTIMAK.

Parte-hartzaileek aukeratu ez zituzten txarteletan, honako hauek zeuden idatzita: prebentziozko oroimena (izugarrikeria ez berriz gertatzea); justizia, ez inpunitatea; gogoetarako unea; lekukotzak eta kultura-zentroak; berdintasuna; senidea; apolitikoa; Ibarrolaren Gasteizko monumentua⁸¹; argazkiak; izena daramaten plakak atentatuaren tokian; justizia; ahanzturarik ez; ikus-entzunezkoak; eskulturak, eta aitorpena.

III. SAIOA: PROPOSAMENAK BILTzea

-Tristura.

-Niri ez zait gustatzen ekitaldietan parte hartzea, eta are gutxiago ekitaldi handietan. Oso argi daukat, baina ez dut nire burua hor ikusten, nahiz eta ulertzen dudan zerbait egin beharra dagoela.

-Deitzen badidate, joan egiten naiz, nahiz eta gero ikusi egin behar dudan nola antola naitekeen lanarekin...

-Prest egon behar duzu, ez baita atsegina. Nagusiki beregatik egiten dut, beretzat.

-Nik ikusi ditudan oroitzapenezko ekitaldiak inpersonalak iruditu zaizkit, eta, aldi berean, milikak... Egia esan, ez zaizkit gustatu, nahiz eta borondate onez eginak izan. Badakizu zergatik gertatzen den hori nire ustez? Ez dietelako biktimei galdetu nolako ekitaldiak nahi dituzten. Hortaz, erakundeen ikuspegitik antolatzen dituzte, eta batetik bestera eramaten zaituzte, erakunde-ekitaldi baten eskema eta ordutegi aurreikusi baten mende, eta amaieran lore bat ematen dizute.

-Eta gero argazkia ateratzen dizute lorearekin.

-Argazkia politikariei ateratzen diete nagusiki.

-Ez dakit zer gehiago erantsi. Plakak, lekukotzak jasotzea... horiek iruditzen zaizkit ekintza egokienak.

-Agian garrantzi handiagoa eman behar litzaioke heziketaren alderdiari oroitzapenezkoari baino. Ikasgeletakoa oso garrantzitsua da, inbertsio handia, hurrei printzipio batzuk irakasten laguntzen baitu, eta itxaropena dago. Artxiboak biltzea lagungarria izango litzateke material osagarri gisa.

-Lekukotzak jasotzea lagungarria da gertatutakoa ulertzeko. Zer, nola eta nork kontatu, asko aldatzen da kontakizuna. Ez da norberaren egia, baizik eta egiazko kontakizuna osatzeko aukera... Gerra bat izan dela esanez gero... Uste dut guztiek kontakizun bakar bat ados dezakegula, baina ez bagara horretarako gai? Gertatutako gauza batzuk beste batzuk baino larriagoak izan direla bereizita.

-Pertsona bat ikastetxe batera joaten bada eta gorrotoa transmititzen badu, ez zait ondo iruditzen, nahiz eta hori ere egiaren zati bat den eta hark eskubide osoa duen hori sentitzeko.

-Beti hor egongo den erresumina...

-Lekukotzetan, pentsamenduak ere adierazten dira, ez gertaerak bakarrik.

-Beristainek eskulturak ere aipatzen zituen, zer motatakoak izan behar duten nolabait adosteko biktimei galdetuta.

81 Ikusi 8. eranskina.

ZUEN USTEZ, NORKANTOLATU BEHAR DITU OROITZAPENEZKO EKITALDIAK? UDALEK, ALDUNDIEK, GOBERNUEK, BESTE BATZUEK...

- Erakundeek dituzte horrelakoak egituratzeko bitartekoak, baina biktimei galdetu behar diete.
- Baina ea zer den galdetzen dutena. Kasuren batean lauzaren kolorea galdetu izan dute, eta ez eraikina non jarri edo zer erabilera edo eduki izan dezakeen.
- Udalek hurbilagoko zerbaitek egitea ere ondo legoke, udal bakoitzak zerbaitek prestatzea... Hori gustatuko litzaidake, eta hurbileko ekintzak dira.
- Ea zer egiten duen udal bakoitzak.
- Lan egiteko behar da gaia. Oroitzapenezko ekitaldi horiek gauzatzeko, oraindik lan asko dago egiteko.
- Eta txipa aldatu behar da.
- Ni Hernanikoa naiz.
- Errazagoa da txikitik handira.
- Ideia ona da terrorismoaren biktimei deialdi orokor bat egitea erakundeen babespean ekitaldia diseina dezaten.
- Lan handia izango litzateke, baina benetako ekitaldi bat izango litzateke.
- Edo gutxienez biktimen iritzia aintzat hartzea.
- Ez dut uste aukera emango digutenik; ez dakit ideia gustatuko zaien.

NOLAKOA IZANGO LITZATEKE OROITZAPENEZKO EKITALDI PERFEKTUA?

- Aipatu dugun hori bezalakoa.

NOLA ANTOLATUKO ZENUKETE ZEUEK KABUZ? LEHENDAKARIAK HITZ EGINGO LUKE? EDUKI KULTURAL EDO HEZIGARRI GEHIAGO IZANGO LUKE OROITZAPENEZKOA BAINO?

- Denbora gehiago behar genuke ongi pentsatzeko.
- Nik biktimen lekukotzak jasoko nituzke, ikus-entzunezkoek lagunduta, eta zenbait testu irakurri...
- Eta musika.
- Kursaalen...
- Eta Bizkaian eta Araban?
- Txikitik handira, udalekin hasi, eta gero beste ekitaldi handiago bat egin.
- Agian sariak banatu biktimen alde lan handia egin duten gizon-emakumei edo taldeei.
- Edo, agian, biktimak urteko oroitu, lehenengo urte batekoak, hurrengoan hurrengo urtekoak...
- Beste proposamen bat izango litzateke egitarau ibiltari bat antolatzea urte osorako, erakusketekin...
- Nire ustez, gizartearen zatirik handienak ez ditu ezagutzen biktimen hurbileko lekukotzak.

ZENBAIT BIKTIMAK LEKUKOTASUNAK EMAN DITUZTE EKITALDI BATZUETAN.

- Bai, baina behartu gabe eta jendaurrean jarri behar izan gabe. Lekukotzak emateko aukerarik izan ez duten biktimen adierazpenak bilatu behar lirateke... Inork ez die deitu, inork ez da haiekin gogoratu... Eta norbaitek ez badu hitz egin nahi, agian beste norbaitek eman dezake lekukotasuna haren partez.
- Biktima batzuek kontatu didate aita hil zutenean anaia etxean sartu zela eta ez zela irtetzen... Xamurkeriatan erori gabe, azaldu daiteke horrelako gertaerek osasunean ere eragina izaten dutela. Kanpotik ikusita, dena da atentatua, hileta-elizkizuna... baina luzaroan iraungo duten ondorioak ere hor daude.
- Hemen elkar ulertzen dugu. Gatazka ez da biktimen artekoa, beste batzuek sortzen dute.
- Elkarteek ere bai. Biktima guztien ordezkari badira, iritzi guztiak jaso behar dituzte, baita orokorrean entzuten ez direnak ere, gustatu ala ez; baina batzuetan ideologia nagusitzen da.

BAINA, GUZTIEN IRITZIAK EZAGUTZERA EMANGO DITUEN ETA ERABAKITZEKO SISTEMA ONA IZANGO DUEN ELKARTE OSO ERAGINKOR BAT IZAN EZEAN, NAGUSITU EGITEN DA GEHIENEN IRITZIA EDO ELKARTEKO BURUENA, EURENA ONENA DELA USTE BAITUTE. HORI BIZITZAKO EREMU GUZTIETAN

GERTATZEN DA, ETA NORMALTASUNEZ ONARTU BEHAR DA. TERRORISMOAREN BIKTIMEN ELKARTEAK ETA TERRORISMOAREN BIKTIMAK EZ DIRA PERFEKTUAK, EZTA BESTE INOR ERE.

ZERI ESATEN DIOZUE ZUEK EKITALDI XUMEA?

-Bada, herriz herri ibiliko den erakusketa ibiltari hori. Udalak esku hartu behar luke herritarrek erakusketa ikustera animatzeko, eta egunero ekitaldi sinple bat egin behar luke (musika, poesia...). Erakusketa dela-eta, herria inplikatzeko saiatzea.

-Ez dakit udal batzuk prest egongo lirakeen.

-Gogor lan egin behar da hori lortzeko.

IMAJINATZEN DITUZUE OROITZAPENEZKO EKITALDIAK HEDABIDEETAN?

-Bai, biktimen bizitza kontatuz, dagoeneko egiten den moduan. Eta erraza litzateke, hemerotekara joz gero.

EDO KARTEL BATERATU BAT IPINTZEA EDO EGUNKARIAN ORRI BAT AGERTZEA BIKTIMA GUZTIEN IZENEKIN, EDO BESTE ZERBAIT EGITEA OROIMENAREN EGUNEAN?

FITXA BANA BANATU ZAIE, ZERBAIT GEHIAGO AIPATU NAHI BADUTE BETE DEZATEN. ETXERA ERAMAN ETA GERO BIDALTZEKO AUKERA EMAN ZAIE⁸².

-Frantzia, frantsesak nolakoak diren kontuan hartuta, tokian bertan ez dut bideragarri ikusten... nire kasuan...

-Niri ongi iruditzen zait atentatu bat gertatu den toki bakoitzean plaka bat ipintzea. Oroimen-ariketa bat da handik igarotzen den jendearentzat, ideiarik ez duen jende gaztearentzat...

-Toki horretarako plaka indibidual bat, ez biktima guztien zerrenda.

-Familiari edo biktimari berari galdetu behar zaio plaka ipintzea gustatuko litzaike. Lan handiagoa dakar, zailagoa da, baina horrela egin behar da.

-Eta plakak hondatu egiten badira edo hondatu egiten badituzte...

-Beste aukera bat da Udalean biktima guztien omenezko plaka bat jartzea. Agian plaka indibidualena baino aukera praktikoagoa da.

-Ziberespazioan ere oroitzapena sustatzea ongi iruditzen zait, egungo mundua erabat globala dela kontuan hartuta.

-Plaken eta ziberespazioaren kasuan tokiari buruz egin behar da gogoeta, baina gero pentsatu behar da beste ekitaldi batzuk noiz egin (oroitzapenezkoak).

-Pertsonalizatu egin behar lirakeke, eta biktima guztiei zabaldu. Zoritxarrez, lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako biktimak daude, eta hori mingarria da; nazka, etsipena eta desconfiantza eragiten dizkizu. Oraindik indarrean dauden desberdintasun horiek iraingarriak iruditzen zaizkit, gaizki egiten diren gauzen adibide argiak... "Terrorismoaren gainerako biktimak" leloak ez du balio.

-Ikusten ez dena ez dago.

-Especialisten laguntza beharrezkoa da gizartearengana iristeko, oroitzapenezko ekitaldi horiek gauzatzeko... Helarazi eta partekatu nahi dugun mezuarekin koherentzia duten metodoak eta hizkuntzak bilatu behar dira.

ZER ESANGO ZENIEKETE EKITALDI HORREN ARDURADUN IZENDATUTAKO ESPEZIALISTEI? ZER MEZU HELARAZI BEHARKO LUKETE? ZER ERRESPETATU BEHARKO LUKETE?

-Biktima guztiekin hitz egin behar lukete, banan-banan, eta bi urte horretan eman, bi urte badira beharrezkoak... Gai izan behar dute ekitaldia guk emandako ideiak aintzat hartuta antolatzeke, nahiz eta askotarikoak eta osatu gabeak izan...

NORK PARTE HARTU BEHAR LUKE? BIKTIMEN AITORPENERAKO EKITALDIAK IZAN BEHAR LUKETE GIZARTEARI BIDERATUTA EGON ARREN? INDIBIDUALAK IZAN BEHAR LUKETE, EDO GIZARTEA, POLITIKARIAK ETA ALDERDI GUZTIAK ELKARTZEKO EKITALDIAK?

-Gizarteak parte hartzeko moduko zerbaitez izan behar du. Jendeak zer gertatu zaigun jakitea eta sentitzea lortu nahi dugu, eta geure artean eginez gero ez dauka zentzurik... Senideak, lagunak, bizilagunak, herritar guztiak... Ordezkaritza politikoena ez dakit.

82 Saioan bertan egindako adierazpenen bidez dagoeneko erantzun diete fitxa horretako galderari. Ez dugu jaso gerora betetako fitxarik.

ARLO AKADEMIKOAN, OROIMENARI BURUZKO NAZIOARTEKO BILTZAR BAT ANTOLA DAITEKE, PUBLIKO OROKORRARENTZAT.

Inork ez du ezer esan.

OROIMENAREN EGUNARI BURUZ

-Nik ez dakit zer egiten duten egun horretan. Bai, interesa izan behar nuke... Ez diet jaramon handirik egiten hedabideei.

-Nik soilik dakit horretan ere ez dutela adostasunik lortu, beste gauza guztietan bezalaxe: Institutua, Memoriala... Horiei buruzko albistea adostasunik eza izaten da beti. Desadostasunaren oroimena esan behar genioke... Alderdi batzuk bat etortzen dira, baina ez guztiak.

POLITIKARIEK ADOS JARRI BEHAR DUTE OROIMENAREN EGUNEAN?

-Bai, horretan besterik ez bada ere.

-Nik hedabideen bidez bakarrik izan dut Oroimenaren Egunaren berri. Inor ez da nirekin harremanetan jarri ekitaldian parte hartzera gonbidatzeko. Oso ikuspegi mugatutik egiten dute.

-Biktimek izan behar dute protagonista, ez politikariek.

-Ez du zertan inork hitz egin. Musika-pieza bat izan daiteke, isiltasunean gauzatutako ekitaldi bat; isiltasuna ez datorkigu gaizki.

-Hobe asteburuan egitea...

-Tira, urtean behin, aurkituko genuke joateko modua, talde hauetan parte hartzeko egin dugun moduan.

-Ongi iruditzen zaie Oroimenaren Egunean lore-eskaintza bat egitea Legebiltzarrean, protagonismoa biktimei emanda.

-Oroimenaren Eguneko ekitaldian musika-pieza bat jo eta biktimek zenbait testu irakur ditzakete, oroimena, justizia eta giza eskubideak nabarmenduta, biktimak direla protagonista. Ekitaldi sinplea...

-Isiltasunean.

-Nik biktima guztiak gonbidatuko nituzke, nahiz eta beharrezkoa izan zenbait ekitaldi egitea edo egun osoko ekitaldi bat; nahiz eta politikariak beldur izan zer esango den, edo ekitaldiak zer norabide hartuko duen...

MEMORIALARI ETA OROIMENAREN INSTITUTUARI BURUZ

-Oso zaila da.

-Ez dira ados jarriko.

TALDEARI BURUZKO OHAR OROKORRAK

Parte hartu duten biktimak arduratsuak izan dira hizkuntzaren erabileran, eta gainerakoei begirako errespetu handia adierazi dute une oro. Oso giro ona zegoen. Saioa luzatuko zuketuen.

ZENBAIT UDALERRITAN OROIMENENKO JARDUERAK GAUZATU EDO HOBETU BEHARRA AIPATU ZUTEN. HAUEK AIPATU ZITUZTEN BEREZIKI:

ARRASATE

OIARTZUN

PASAI DONIBANE

7.2. 2. taldea

“Begirunea, jasandako sufrimendua aitortzea, guztiek batera egin ahal izateko Oroimenaren Eguneko ekitaldiak”. “Erabat eszeptikoa naiz gai horretan. Ez dakit zenbat urtez biziko naizen, baina ziur nago ez dudala hori ikusiko. Nahiago nuke oker egongo banintz” (2. eztabaida taldetik aterea).

I SAIOA

DINAMIZATZAILEEN ETA LANERAKO METODOAREN AURKEZPENA. BIKTIMEN AURKEZPENA GALDEREN BITARTEZ.

-(izen-abizenak) naiz (GALen biktima). Hildako biktimen senideentzako deialdia zelako etorri naiz, eta hildako baten senide gisa etorri naiz, ez jasan ditudan beste ekintza batzuen biktima gisa.

Jakin-minez nago. Ikusi nahi dut ea nola moldatzen garen esperientzia hau garatzeko. Norgehiagokarik ez izatea gustatuko litzaidake. Ez egotea ez siglarik ez talderik. Errespetu osoz nator, nahiz eta batzuetan piztu egin gaitezkeen eztabaidan.

Espero dut nire ekarpena baliagarria izatea egiazko kontakizuna eraikitzeko, biktimen eta haien inguruko oroimena, duintasuna eta ohorea sustatzeko eta biktimen erabilera politiko edo alderdikoak saihesteko. Eta gogo handia daukat ikasleek parte hartzeko, esperientzia hau aberasgarria izan dakien, akademikoki ez ezik, baita pertsonalki ere.

-Ni ... naiz (GALen biktima). Lasai nago, eta pozik hemen egoteagatik, era askotako jendearekin, beste modu batean pentsatzen duen jendearekin. Urduri samar nago.

Nik espero dut... beno, gizatiartu egiten nau, hobeto sentiarazten nau. Beste pentsaera batzuk dituzten pertsonak entzutea oso aberasgarria iruditzen zait, nahiz eta hasiera batean badirudien aldeak daudela. Pentsatu nahi dut horrelako taldeak lagungarriak izan daitezkeela gure arteko hesiak apurtzeko. Gainerako guztientzat bezalaxe, niretzat ere zaila da etortzea, samina oso handia baita, baina badakit aberastu egiten nauela.

-Ni ... naiz (GALen biktima). Oso urduri nago, aste osoa daramat urduri. Hainbeste urte igaro ostean gertatutakoa azaleratzea... hari buruz hitz egitea, ez elkarrekin sesiotan ibiltzeko, baizik eta bizitzen jarraitu ahal izateko, etorkizun bat sortzeko, non ez den iraganekoa berriz gertatuko. Esperientzia oso gogorra izan arren, gizatiartu egiten gaitu, lehen aipatu duzuen moduan; merezi du parte hartzea, nahiz eta barnealdea irauli... Elkarrizketak, batzuen zein besteen bizipenak entzuteak elkarrekin aurrera egiten jarraitzea ahalbidetuko digu, ahalik eta begirune handienez. Ez dut uste eredu erraza denik gizartearentzat, baina gizarteak ere ahalegina egiten badu gaizki egin duguna aztertzeko eta autokritika egiteko, orduan bizikidetzaren nagusituko da. Ez gara elkarrekin afaltzera joango ostiraletan, baina guztiok elkarrekin biziko gara Euskal Herrian. Hori nahi dugu...

-Ezingo naiz amaierara arte geratu, beste konpromiso batzuk ditudalako, eta sentitzen dut, benetan (huts egindako atentatu baten biktima baten arreba). Gutako bakoitzak oskol bat daramagu, baina horien azpian pertsonak daude, nork bere esperientziak dauzkagu. Norbere historiaz eta familiaren historiaz gainera: frankismoa, erbestea... Baina gure etxean beti uste izan dugu aukerak aprobetxatu egin behar direla eta giza eskubideen alde borroka egiten jarraitu behar dugula, baita une latzenetan ere; aurrera egin behar da, gertatutakoa gorabehera. Gizakiok gai izan behar dugu aurrera egiteko, elkarrizketak eta elkar errespetatzeko. Gero anaiaren atentatua gertatu zen... Gainera, herri bereziki interesgarri eta gogor batean bizi naiz. Indarkeriazko hainbat delituren biktimekin lan egitea egokitu zait, eta paziente bakoitzaren kasua lagungarria izan da hurrengoari nire laguntza emateko. Haiek irakatsi didate niri. Eta beti saiatzen naiz ikuspuntu horretatik gogoeta egiten, samina entzunda, eta uste dut lan eginez gero eta foro hauek zabalduz gero, horrelakoak antolatzekeko gai izanez gero, aurrerapen handiak lortuko genituzkeela, lan handia baitago egiteko.

Biktimen sufrimenduak arduratzen nau, baina, halaber, kezka handia daukat seme-alabei eta bilobei utziko diegun gizartearen gainean –agian duela gutxi izan dudalako biloba—. Eta kezkatuta nago ez ote garen gai izango berriz transmititzeko niri transmititu zizkidaten balioak: bizitzeko eskubidea, desberdintasunerako eskubidea, giza eskubideenganako errespetua, proiektu politikoak hitzez bakarrik babes daitezkeela, heriotza-zigorren aurkako jarrera... Eta hori gustatuko litzaidake, ahalegina eginda gu geu gai izatea gizarte hau sendatzeko, asko sufritu baitu eta haur eta gazteen buruak kaltetu baititu. Eta ildo horretan erantzukizun handia daukagu guztiok.

-(soilik izena) dut izena. Terrorismoaren biktima naiz. Oso gustura nago, oso urduri. Hogeitaz bakoitzaren oroimena daramatzen; erabat bakartuta bizi izan naiz, eta orain, duela hilabete batzuetatik hona, pertsona batekin harremanetan jarri ostean, neure burua irekitzen hasi naiz, pixkanaka. Orain dela hilabete batzuk pentsaezina zen niretzat hemen egotea, gertaera haien ondotik erabat bakartu bainintzen...

-(soilik izena) naiz. Ez hartu eraso bat izango balitz bezala, baina ni ez nago gustura. Sarrerako hitzaldiaren osteko eztabaida oso desatsegina izan da niretzat. Ulertzen dut erreakzioa, sentimendu asko baitaude jokoan. Pentsatzen dut egun osoan gutako bakoitzak gure historiari buruz hitz egingo dugula, eta gure historiari buruz hitz egitea gure saminari buruz hitz egitea da. Une honetantxe argitu nahi dut zerbait: sufrimenduan oinarrituta hitz egiten badut, inork ez dezala har erasotzat edo ez dezala pentsa beste samin batekin alderatu nahi dudarik. Nire ustez, zauri bat dago, eta, hura sendatzeko, kontakizun bat eraiki behar da, eta, kontakizun hori eraikitzeke, minari buruz, egoerari buruz, amorruari buruz, beldurrari buruz eta zalantzei buruz hitz egin behar da, baita norbere buruarekiko eta gainerakoekiko traizio-sentimenduari buruz eta toki guztietatik kanpo egotearen sentipenari buruz ere; hau da, ziurtzat jotzen diren alderdi askori buruz.

Ez daukat oso argi zergatik nagoen hemen eta zer lortu nahi dudan. Baina egia da gure aita orain dela hamarkada batzuk hil zutela eta lehen aldiz parte hartuko dudala honelako topaketa batean. Berriz nabarmendu nahi dut egoera zehatzei buruz hitz egin behar dela; erantzukizunak onartu behar ditugu, norik bereak... Izan ere, zauriak ezin dira behar bezalako oinarririk gabe itxi. Egia da badagoela hertsiki lotzen gaituen zerbait, baina desberdintasun handiak daude, eta guk geuk ere argi ezin ditzakegun alderdi ugari; baina hitz egitea eta eztabaidatzea ezinbestekoa da, ezin baitugu berriro hutsetik hasi, ez delako bidezkoa, kaltegarria delako. Oroimena egia da... Gure betebeharra da egia hori bilatzea.

Eta gutako bakoitzak gure saminari buruz hitz egingo badugu... Horiek horrela, nola neurtu samina? Norbaitek argituko dit nola neur daitekeen atsekabea? Neurgarria da? Bakoitzak bereari buruz hitz egiten badu, inork ez dezala erasotzat har edo ez dezala kokatu bat toki batean eta beste bat beste batean... Sentitzen dut, baina nire ustez batzuek erantzukizun handiagoa dute beste batzuek baino... Tira, ikusiko dugu zer gertatzen den.

-(soilik izena) naiz. Nire anaia ere duela zenbait hamarkada hil zuten. Anaia bakarra nuen, eta ez zuen seme-alabarik izan. Hemen nago biktimen legeek kalte handia egin digutelako gurasoei eta niri, egia, oroimena eta erreparazioa aginduta. -Gertatutakoa kontatu du-. Gobernuek, Euskadikoak eta Estatukoak, oso gaizki tratatu gintuzten. Ez gaituzte biktimatzat aitortu; alarguna bakarrik dago biktimatzat aitortua... Euskalduna naiz, hemen bizi naiz... eta asko sufriarazi eta sufriarazten didate. Legea ez da egokia. Nire anaiaren bizitza ez zen mugatzen bikotekidearekin ezkondu eta egondako urte gutxietara... Bidegabekeria handiak izan dira.

-Aurreko partaidearen senarrak bere burua aurkeztu du. Nire ustez, honek terapia orokor gisa balio dezake; hitz egiteko aukera daukagu, gutxienez, eta hori oso garrantzitsua da. Jendeak aurpegira begira diezaioke elkarri.

-Gonbidatu ninduzuelako etorri naiz, eskutitza jaso nuelako. Iaz ezin izan nintzen etorri, laneko kontuengatik, baina aurtun bai, eta egiaz esaten dizuet zuek ni etorri izana eskertu beharrean nik ematen dizkizuedala eskerrak etortzeko aukera eman didazuelako. Zergatik etorri naizen? ETako biktimak bakarrik egon izan bagina, ez nintzen etorriko; bakarrikzeta bat izango litzateke, eta aurretik jakingo nuke zer entzungo nuen. Antolatzaileek beste talde terrorista batzuen biktimek ere parte hartuko zutela esan zidatenean, pentsatu nuen esperientzia aberasgarria izango zela, irizpide desberdinak egongo zirela.

Zoritxarrez, gutako inork ez du hemen egon nahi. Hemen gaude guztiok badugulako halako lotura bat... eraildako senide bat, atentatu bat lehen pertsonan jasan izana... Sufrimenduak batzen gaitu. Eroso nago; segurtasuna dut neure buruagan; badakit zer esan nahi dudan, eta batik bat entzutera nator, eta, era berean, espero dut nire hitzak ere arreata eta begirune berberaz entzutea, elkarrekotasun-printzipioari jarraikiz. Nik guztiak entzungo ditut.

Bere aitaren atentatua azaldu du, eta adierazi du garai hartan erakundeek baztertuta zeuzkatela. Espainiako gobernu guztiek erabili egin gaituzte, eta Eusko Jaurilaritzarekin oso-oso minduta nago. Ez naiz inoiz izan alderdi politiko bateko kidea.

Azaldu nahi dut ez dudala inongo mesederik jaso biktima gisa. Pertsona batzuek uste dute senidea ETaren biktima izan bada abantaila handiak izan ditugula. Gure kasuan, hori gezurra da. Ez telefono-dei bat amari, ez txartel bat... Ezer ez. Gero ni hasi nintzen zertxobait mugitzen. Baina urte oso gogorak izan ziren: bakardadea, onespentik eza, axolagabetasuna, baita etsaitasuna ere. Eta horrek guztiak eragina du izaeran eta senideengan. Ez naiz inoiz joan psikologoarengana, ez dut inoiz sendagairik hartu; agian egin behar nuen, ez dakit, baina ez dut aukerarik izan, eta orduan ez zitzaidan burutik pasatu. Egia da zenbait une edo gertaera gairitu nituela, Jainkoari eskerrak, emazteari eskerrak edo amari eskerrak, batek daki.

Adierazpen guztiak entzutera nator, edozein direla ere hiltzaileen siglak. Guztiok sufritu dugu; indargabe sentitu gara, eta negar egin dugu. Samin horrek batzen gaitu, baina banandu ere egiten gaitu, nolabait. Adibidez, duela gutxi nire herrian *Lasa y Zabala* filma eman zuten, eta gustatuko litzaidake mundu guztiak, edozein herritan, aukera izatea nahi duen filma askatasun osoz ikusteko... Iñaki Artetaren 1980 filma ikusi nahi badut, Bizkaiko zinema-areto batean edo bitan bakarrik daukat aukera, eta Gipuzkoan, uste dut, ez dagoela horretarako aukerarik...

-Nik (soilik izena) dut izena. Lehen aldiz hitz egingo dut honi buruz, eta bat nator pertsonaren batek dagoeneko esan duenarekin. Ez dakit zergatik etorri naizen; pentsatzen dut zerbait ikasiko dudala, onerako ala txarrerako. Barnean gorde dut dena. Osasun arloan lan egin dut, eta bertan saiatzen gara gaixoei

bizirauten laguntzen, hil ez daitezen laguntzen, eta, aldi berean, gure gizartean jende pila bat hil dute... Ez dut ulertzen, eta ez dut onartzen. Biziak salbatu nahi ditugu; hori da geure lana, eta, aldi berean, beste batzuek biziak kentzea dute helburu, gizarte berean.

Aldez aurretik barkamena eskatu nahi dut, unerren batean ez badut ongi azaltzen adierazi nahi dudana. Hitz egingo dudan lehen aldia da. Eta ez dut lehenago hitz egin tabua izan delako, eta oraindik ere hala da. Xren alaba naizela esaten badut, "txakurra" zela esan didate; ez dudanez euskara ulertzen, azaldu didate gaztelaniaz "perro" esan nahi duela; tira...

Ondorioaren bat ateratzen badut, ongi etorria izango da. Ikastera nator... Horretan ari naiz.

Ni saiatu naiz seme-alabak ez sartzan gai honetan, kanpoan mantentzen. Lehen beste norbaitek aipatu duen moduan, guk daukagun nahigabea belaunaldi berriei ez transmititzea lortu nahi dut; izan ere, nik ez dut ahaztuko, eta ez dakit barka dezakedan... Pentsa senarrak jipoitzen zaituela: ez duzu barkatuko, ezin duzulako, nahiz eta saiatu. Edo bortxatzaile bat barkatzea... Saiatzen gara denborak aurrera egin ahala gaintzen, baina barnean daramagu, eta, gaiari buruz hitz egitean, dena nahasten da, eta bada zerbait... Ezin da ahaztu, barkatu... Oso gogorra da. Bizitzen ikasten duzu, baina gabeziekin.

-Aurreko biktimaren alabak bere burua aurkeztu du, eta esan du amari laguntzera etorri dela-. Nik ez nuen etorri nahi, ez zaidalako interesatzen euskal gatazkaren gaia edo politika. Eta paso egiten dut, saiatzen naizelako neutrala izaten, uste dudalako nagusiki samina dagoela eta baita errepresio soziala ere; bakoitzak bere iritzia du, eta iritzi hori inposatu nahi du, lehenengo hitzez eta gero ekintzez, eta hortxe hasten da indarkeria... Nire ustez guztiok gara biktimak, ideia batzuk inposatzen dizkigutelako, talde batek edo beste batek... Nik etxean ikusi dut hori, amak ideologia politiko bat izan baitu eta aitak beste bat, eta, azkenean, ez duzu ezertan sartu nahi, ikuspegi orokorra eduki ahal izateko. Ikuspegi orokor horri esker, dena uler dezakezu, dena errespetatu... Ez nuen ez hitz egin ez parte hartu nahi, ez naizelako biktima lehen pertsonan... Zerbait esan dezaket... Pertsona guztiak errespetatu nahi ditut; mina ezin da neurtu, baina guztiok sentitzen dugu, gizaki bakarrak baikara... Biktima hildako pertsona da, baina, neurri batean, baita hiltzailea ere, eta haren familia... Ez ditut ez batzuk ez besteak zuritu nahi. *El niño del pijama de rayas* filmean bi haur agertzen dira: haurzarotik ez dute inolako ideologia politikorik, ez dute ulertzen —eta nik ere ez dut ulertzen, ez dudalako ulertu nahi—, eta azkenean hil egiten dira biak. Azkenean biek galtzen dute, alemanak eta juduak... Baliteke beste nonbait gertatutakoarekin hobeto ulertzea hemengo.

-(izena) dut izena. Lehen beste norbaitek adierazi duen moduan, nik ere etsipena sentitu dut hitzaldiaren osteko eztabaidan, jarrerengatik, hitz egiteko moduagatik... Gure aita ere duela hamarkada batzuk hil zuten.

Ez dut uste hona etortzeko arrazoia bizikidetzat sustatzea edo elkarrekin bizitzen ikastea denik; ni herri txiki batean bizitu izan naiz, eta era askotako jendearekin bizitzen ikasi dut. Iritzi-askatasuna transmititu diet seme-alabei... Lan handiak izango ditut zenbait gauza onartzeko, uste baitut alde handiak daudela.

Uste dut kalean era guztietako jendearekin bizitzen ikasi dudala, eta begirunea lortu nahi izan dut: nik errespetatu eta errespetatu nazatela. Batzuetan lortu dut, eta, beste batzuetan, lasterka atera behar izan dut, batez ere zenbait hamarkadatan.

Lasai nator, jakin-minez; eroso nago. Ea zer gertatzen den. Beste garai batzuetan ere parte hartu izan dut beste biktima talde batzuetan, denbora laburrez. Oso onuragarria izan zen, eta asko ikasi nuen. Han ni bezalako jendea ezagutu nuen, desberdin pentsatuta ere ohituta zegoena elkarbizitzen. Duela urte asko utzi nuen talde hura, baina oraindik hilean behin biltzen naiz pertsona haietako batzuekin... Eta oso ondo datorkigu, terapia gisa. Nik ez nuen terapia horren beharrik elkarbizitzen ikasteko... Aitaren atentatuak errealtate horri aurre egitera behartu ninduen, amorrutik biziz aurre egitera, eta guztiari egin nion aurre, eta guztiarekin jarri nintzen harremanetan...

-(soilik izena) naiz. Ongi nago, baina urduri samar. GALek hildako pertsona baten anaia naiz. Neure burua ez dut biktimatzat, biktima hitza... Ez dakit, ez naiz biktima.

Nire ustez, talde hauetan partaide bakoitzak barrua hustu behar du... Eta uste dut oroimenari buruz hitz egitean ezinezkoa izango dela oroimen bakarra osatzea; norberak berea egin beharko du. Ez gara ados jarriko. Errespetu osoz diot: nire ustez, norberak bere oroimena osatu behar du.

IKASLEEN AURKEZPENA (URDURITASUNA).

-(soilik izena) naiz. Kriminologiako ikaslea naiz. Hemen daukat nire gogoeta, eta irakurri egingo dizuet. Barkatu. Ez daukat esperientzia handirik honetan. Ea nik ikasten dudana eta ekarpenen bat egin dezakedan.

Oroimenari eta oroipenari buruz hitz egin dezakegu. Mendebaldeko filosofian, oroimena oroitzapenak hautemandakotik abiatuta gordetzea da. Oroipena, berriz, oroitzapen horiek orainera ekartzeko iraganean pizten den argia da... Eta horrela iristen gara helburu komun batera... Egoera horren protagonistek beren esperientzia partekatzen dute gurekin..., eta belaunaldi berriek aztertu egin dezakete, eta berriz gertatzea saihestu. Hori izango litzateke oroipenaren zeregina. Honen bidez, aitortu egin nahi dugu terrorismoak basakeria izugarriak

gauzatu dituela, sufrimendu indibidual nahiz kolektiboa eragin duela, eta argudio faltsuak erabili direla indarkeriari zilegitasuna emateko eta hura gauzatu dutenen kontzientzia baretzeko. Mezu hori ekitaldietan gauzatu behar da; izan ere, esperientziak erakutsi digunez, hitzak haizeak eramaten ditu... Pertsona bakoitza desberdina da. Nik ez dakit irtenbidea zein den, baina zenbait ideia orokor proposatuko ditut, hala nola: dokumentalak, filmak, mintegiak eta horrelakoak egitea ikastoletan eta ikastetxeetan; epaiketetan barkamena eskatzea kaltetuei; egun bat ezartzea elkartzeko; hitzaldiak ematea; plakak jartzea... Horrek guztiak helburu batzuk izango ditu: inpunitatea desagerraraztea eta indarkeriari zilegitasuna eman diezaioten ekiditea; giza eskubideak babestea, justizia eraginkorra bermatuta; indarkeriak hura jasan duenarengan eta hura gauzatu duenarengan eragiten duen feedbacka saihestea, askatasuna eta elkarrizketa mugatzen dituelako... Ez ahaztea da garrantzitsua, gizarteak une historiko jakin batean gertatutakoa aitortu eta hausnar dezan. Hartara, terrorismoa berriz agertzea ekidingo duen oinarri etikoa sortuko da. Eta belaunaldi berriek hori dute zeregin nagusia. Bi arazo handi izango dituzte: gizarteak hainbat taldetatik eratorritako iritzi indibidualen aniztasuna, zaildu egingo duena oroimen-kontzeptu bateratua eraikitzea; eta oroimenari lotuta hartutako neurriek dagokienean denbora batez jasango duten hutsaltzea, gainditu egin beharko dutena. Belaunaldi berriek iraurarazi egin behar dituzte indarkeriaren aurkako ikurrak, oinarritzat hartuta etika, giza eskubideen balioak, tolerantzia, errespetua, duintasuna... Horretarako, beharrezkoa da gizarte osoaren konpromisoa lortzea, eta bereziki kaltetuena, indarkeria gauzatu dutenena, aginte publikoena eta kriminologoa. Badugu gizatiartzeko lagungarria den tresna bat: biktimologia. Guk gauzatu behar dugu munduan hain beharrezkoa iruditzen zaigun aldaketa. Hitz berak euskaraz esanez amaitu du.

-Ni (soilik izena) naiz. Bere gogoeta irakurri du: Carlos Fuentes kazetari eta idazleak dioten moduan, suntsitu egiten dugu bestea, hura irudikatzen gaiten ez bagara. Daten bidez oroitzen dugu, argazkien bidez... Terrorismoari dagokionean, gogoan eduki behar ditugu beren burua zentzurik gabeko borroka batean murgilduta ikusi zuten pertsona errugabeak. Baina gogoratzeak berekin dakar betiko desagerrarazi nahi ditugun adierazpenak burura ekartzea, iraganetik ikastea. Gogoan izatea une jakin batean pertsona talde batek indarkeria erabili nahi izan zuela herritarrek beldurtzeko... Nola egin hori? Ikastetxeetan irakatsi behar dute terrorismoa historiaren zati bat izan dela, eta ekintza horiek gaitzetsi egin behar direla; ikasleek gogoeta egin behar dute terrorismoari eta haren ondorioei buruz, biktima zuten eta zeharkakoei buruz eta biktimak babesteko beharri buruz, izan ere, biktima askok babesgabatasuna salatu dute. Era berean, beharrezkoa iruditzen zait honelako taldeekin lan egitea, baita Estatuan ere, oso aberasgarriak iruditzen baitzaizkit. Azkenik, Jean Paul Sartre filosofo frantsesaren hitz batzuk aipatu nahi ditut: indarkeria porrota da, edozein modutan agertzen dela ere.

IKASLEEK HIRU GALDERA EGIN DITUZTE.

-Zer edo nor izan duzue euskarri nagusia unerik latzenetan?

-Pentsatzen dugu urteak igarota ere biktimizazioak oraindik eragina duela zuen eguneroko bizitzan. Bada gertatutakoaren ondorioz zuentzat oso zaila den eguneroko ekintzarik?

-Zer iruditzen zaizkizue konponbiderako topaketak?

BIKTIMEK ERANTZUN DUTE.

-Nire kasuan, euskarri nagusiak emaztea eta ama izan ziren, eta ni neu, bereziki lanean aurrera egiteko gogoia. Hirukote sendoa osatu genuen. Psikologikoki oso gaizki egon ginen, noski... Pentsatzen dut gainerakoek ere pasatuko zenuela hori; burua traidore hutsa da, eta ezin diozu hari jarraitu...

Nire eguneroko bizitzan gauza bitxiak daude. Bost urtez, ez nintzen gai izan aitari oparitutako LP bat entzuteko... Alai eta triste zena aldi berean, eta aita hunkitu egiten zen; tira, luzaroan ezin izan nuen ipini. Ez nuen entzuten, banekielako negar egingo nuela. Azkenean, egun batean jarri egin nuen. Oso gaizki pasatu nuen, baina... Ez nuen LP hura entzun nahi, aita oroitzen bainuen lasai-lasai sofan eserita hura entzuten.

Gaur egun oraindik badira zenbait data eta ospakizun (santuen egunak, urtebetetzeak, atentatuaren eguna...) burura etortzen zaizkizunak... hori bizi artean gertatuko zait, alzheimerra eduki arte; baina, esan ohi denez, denborak dena sendatzen du, eta gaur egun terrorismoari ez izateak erraztu egiten du prozesua... Sufritu dutenek ulertuko naute. Eskerrak ematen dizkiot Jainkoari, eta espero dut terrorismoari berriz ez ikustea... Guk jasandakoaren antzeko zerbait gertatzen zen bakoitzean, zauria zornatu egiten zitzaidan. Itxita zegoela uste nuen, baina ez... Albistegietan ikusi, eta banekien pertsona haiek zer-nolako barne-sufrimendua zeukaten, eta politikaria ikusten nuen, ordu pare bat igarota etxean egongo zena bere sendeekin... Albistegiak oso gogorak ziren, gertatutakoa gogora ekartzen baitzaidaten...

Konponbiderako topaketak egokiak iruditzen zaizkit aniztasuna baldin badago (Glencree egitasmoarekin nahasi ditu). Oso eroso, gustura nago.

-Gure aita nazionalisten jarraitzailea zen frankismoaren garaian. ETAk atentatua egin zuen haren aurka; salataria zela esan zuten, eta gero Triple A izeneko taldeak bahitu, eta hil egin zuen. Aitaren familiak guri leporatu zigun hilketaren errua, ezker abertzalearen jarraitzaileak ginelako... Anaiatako batek ezin izan zuen

hori jasan. Eta guk ez dugu inoiz jaso inoren laguntza, inorena. Gutako bakoitzak ahal zuen moduan egin dio aurre egoerari. Batzuek ezin izan diete inoiz kontatu seme-alabei gertatutakoa. Nik txikitari azaldu nion alabari, batez ere ez nuelako nahi handitan norbaitek modu txarrean esatea aitona ez dakit zergatik hil zutela... Inork ez du ezer egin inoiz, eta duela bi urte ezker abertzaleak omenaldi bat egin zion, eta oso eskertuta nago. Ordura arte egin gabeko aitortzea izan zen, biktimatzat aitortzea. Plaka txiki bat ipini zuten. Hori oso garrantzitsua izan zen niretzat, ez niregatik, gure seme-alabengatik baizik.

Eguneroko bizitzan, gai horrek nigan eraginik ez izateko koraza bat ipini nion neure buruari, baina biktimak direla-eta egiten duten erabilerak min handia ematen dit; jasandako sufrimendua ekartzen dit gogora, eta nazka ematen dit, jarrera gaiztoa iruditzen baitzait gure biktima-izaera etekin politikoa ateratzen saiatzeko erabiltzea. Eta hori errealitatea izan da.

Konponbiderako topaketei dagokienez, hilketa bat ezin da konpondu... Ez dut inoiz parte hartu. Fundazio baten proiektu batean parte hartu dut, eta, egia esan, oso lagungarria izan da niretzat.

-Gure kasuan, une latzenetan isiltasun-itun bat egin genuen, eta uste dut biktima askok egin dutela hori. Ez diozunez samina familiari helarazi nahi, barruan gordetzen duzu dena. Eta ez duzu ezer txarrik eramaten etxera, etxean nahikoa sufrimendu baitago bestela ere. Beraz, familia euskarria da, baina trantze latzak bakarrik gainditu behar dituzu. Lagunekin, hamarkada batzuk oso gogorrak izan ziren kalean. ETaren biktimek sufrimendu bikoitza zuten garai haietan: senidea galdu izana eta eguneroko bizitzaren laztasuna. Eguneroko bizitzan zerikusirik handia du bizitokiak; ni herri txiki batean bizi naiz, eta horrek esan nahi du hatz bat daramazula beti bizkarrean, zu seinatuz: eskolan, institutuan. Egoera hori nik gainditu nuen.

Zenbait datak, unek, eszenak eta tokik gauza asko ekartzen dizkirate gogora. Falta zaidan pertsonaren alboan bizitutakoak gogoratzen ditut. Lehen beste norbaitek esan duen moduan, neure buruari koraza bat ipini nion munduan bizitzeko, eta hortxe ibiltzen nintzen, hala moduz.

Hau da konponbiderako topaketetan parte hartu dudana lehen aldia (KONTZEPTUAK NAHASI DITU). Ez dut fede handirik hauengan, bi arrazoiengatik: batetik, herri txiki batean bizita topaketa horiek halabeharrez gauzatu behar izan baitituz, alde egingo ez banuen; erosoagoa zitzaidan. Ez daukat beste modu batean pentsatzen dutenekin elkartzeko beharrik, dagoeneko egin baitut hori, eta ez du esan nahi haiekin ados nagoenik eta haiekin ardo batzuk hartzera joango naizenik. Partekatzen ikasi dut, besterik ez, eta asko sufritu dut horretarako; orain gutxiago. Ezin da alderatu duela hamarkada batzuk genuen egoerarekin. Nik asko sufritu dut, kolpe ugari eman dizkidelako. Nerabe nintzela hil zidaten aita. Institutu-garaian, estigma hori gainean edukitzeak hondoratu egiten zaitu edo indartu. Nik uste ni indartu egin ninduela, hori izan dut nire alde. Baina hondoratu eta aurrera ezin eginik geratu den jende asko ezagutu dut.

KONPONBIDERAKO TOPAKETEN ESNAHIA ARGITU DUGU.

-(persona bera) Orduan, erabat kontra nago. Bai, bai... nahastu egin naiz. Ni ez nago prest, eta ez dut neure burua gai ikusten. Ez dut parte hartuko, ez baitut gogorik.

-Entzuten ari naizenaren harira, gauza batez ohartu naiz: era honetako ekintza batek ageriko ondorioak dituela, baina denboran eta pertsonengan ezin neurtuzkoak diren ondorioak.

Nire kasuan, inork ez dit babesik eman, arestian esandakoagatik. Nork bere modura egin dugu aurrera, bizi-senak bultzatuta. Bakoitzari era batera eragin digu, adinaren, sentiberatasunaren eta beste hamaika faktorearen arabera. Ni mutikoa nintzen aita hil zutenean, neu bezalaxe oso euskalduna den herri txiki batean. Ez daukat galera-sentipenik, artean oso txikia nintzelako, baina gerora, ohartu naiz horrek ondorio psikologikoak izan dituela nigan. Zorionez, ez dira oso larriak, baina sumatzen ditut inpunitatea, buruestimu txikia, gauzak egiteko eragozpenak... Eta nire ustez, ondorio horiek guztiak hain gertaera traumatikoa bizi izanak ekarri dizkit.

Nire eguneroko bizitzan bada eskizofrenia moduko bat, aita ez zelako Euskal Herrikoa, baina oso emakume euskaldun batekin ezkondu zen, eta aitak berak erakutsi zidan euskaraz, nire ohiko hizkuntza. Pertsona azkarra zen, nahiz eta ez izan prestakuntza handirik; eta hemen oso ondo gizarteratu zen. Bakoitzak senti dezakeen minaz gainera, zeure buruari galdetzen diozu: baina, zergatik? Eurek defendatzen dutela dioten hizkuntza hori, kultura hori, aitak erakutsi zidan... Nire anaia zaharragoarengan horrek eragin logikoak bezain penagarriak izan ditu. Ez du euskalduna den ezeri buruzko ezertxo ere jakin nahi, kanpora joan da lanera... Nik, berriz, hausnarketa bat egin dut. Euskara da nire hizkuntza, euskal kultura gainerakoena bezainbeste da nirea... Baina batzuetan traidore gisa ikusten dut neure burua. Gainera, gauza ugari jotzen dira ziurtzat: ETaren biktima banaiz, badirudi ezin dudala euskaraz hitz egin; eta euskaraz hitz egiten badut, auskalo... Agian, oso oinarrizko gauzak irudituko zaizkizue, baina hor daude oraindik ere, eta iruditzen zait azterketa bat egin behar dela.

Konponbiderako topaketei dagokienez, eta nire errespetu guztiarekin, akademiko samarrak direla esango nuke, eta ziur asko ezingo zen bestela izan. Euskaldunok, izatez, ez gara gure sentimenduak asko azaltzekoak, eta horregatik, litekeena da topaketak artifizial samarrak izatea, gatzgabeak, baina uste dut beharrezkoak

direla, eta geroz eta naturaltasun handiagoz egingo ditugula, geroz eta sentimendu gehiago azaleratuta, benekotasun handiagoarekin, eta ziur asko, geroz eta premia handiagoa ere izango dugu horrelakoak egiteko.

-Bada hitz bat, manipulaturata dagoela esango nukeena: "gizarteratua". Ez dakit 'parekatua' edo 'abduzitia' esan nahi ote duen. Jendeak beti erabili izan du hitz hori eranskin gisa: "Aizu, erabat gizarteratuta zegoen, eta akabatu egin dute! Parrokian parte hartzen zuen, herrian ibiltzen zen, euskaraz hitz egiten zuen...". Beraz, jendeak "gizarteratu" hitza aringarri bezala darabil. Aitak euskara pixka bat hitz egiten zuen, abesbatzan kantatzen zuen, eta beste jarduera batzuetan ere parte hartzen zuen; baina, kasualitatez, hala izan ez balitz, eta etxetik lanera eta lanetik etxera joan-etorrian ibiliko balitz, esan al liteke ez zegoela gizarteratuta?

-Gizarteratuta esaten dudanean, esan nahi dut ez zela gainerakoengandik nabarmentzen; beste bat gehiago zela.

-Eta gizarteratuta egon izan ez balitz, zer?... Hitz horri ezinikusia diot.

-Ez, ez, jakina. Hitz hori zuhurtiaz erabili behar da. Nire esperientzia pertsonala deskribatzen ari naiz, besterik ez. Haur batek zer-nola arrazoitzen duen kontatzen ari naiz, zer dabilen haren burutik.

-Biktimak, eta gu guztiok, behin erail gaituzte; baina baita beste aldi askotan ere, zer esango dutenagatik...

-Nire seme-alabei neure aitaren erailketari buruz hitz egiten diedanean, googlen sartzen dira, eta egunkarietan nola argitaratu zuten begiraten dute. Han ikusten dituzte argazkiak, aita lurrean etzanda, odolez inguratuta –hementxe daukat egunkaria–, eta nire seme-alabek ikusten dutenean, galdetzen dute ea nola den posible hori argitaratzea. Argazki horrek egiazko itomena eragiten du. Talde honetara nentorrela jakinik ekarri dut neurekin. Ikasleek ere ikustea gustatuko litzaidake. Begira. Imajina ezazue zuen aita odoletan blai... eta sare sozialetan jasota.

-Eta gaizki kontatuta dago, gainera.

-Egia esan, ez dakit zergatik gordetzen dudan ere. Horituta dago honezkero.

-Iruditzen zait zuzena dela. Gogorra da, baina gaur egun irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazten duten sasoian bizi gara. Niri zirrara handiena eragin zidan argazkia da, hain zuzen, atentatu baten ondorioz pertsona baten gorputza txikituta ageri zeneko bat.

-Iruditzen zait haur baten bizitzan igarotakoa, mekanismo hori alegia, jende askori gertatu zaiola. Esate baterako, ETAko kide bat erailtzen badute, badirudi haren bizitzak gutxiago balio duela. Edo militar bat bada, edo segurtasun indarretako kideren bat... lan-istripua balitz bezala.

-Nire ustez, ez da gauza bera militarra edo guardia zibila izatea edo terrorista izatea; hori ez da lanpostu bat. Ez da gauza bera, ez.

-Ni ez nabil lanpostuez hizketan. Baina ezin dut talde armatu batean diharduen pertsona baten erailketaren gaineko apologiarik egin.

-Ez nabil apologia egiten. Erailketa bat erailketa da beti, baina oinarria ez zait egokia iruditzen.

-Nik esan nahi dudana da biktimak sailkatu egiten ditugula: hau honelakoa zen, halako berriz beste era hartakoa... Eta modu batean zein bestean, biktima bakoitzari kategoria jakin bat ematen zaiola.

-Iruditzen zait deskribatzen ari zinela, besterik gabe.

-Bai, deskribatzen ari nintzen. Dena den, indarrean dagoen legediaren arabera norbaitek arauak urratzen baditu, pertsona hori atxilotu egin beharko dute, eta epaitu eta zigortu.

-Erabat ados nago zurekin. Pertsona guztiak epaitu beharko liriateke.

-Galdera bat (bota du parte hartzen ari den biktima batek): Zuen aburuz, biktima al da pertsona bat edo familia bat hiltzeko asmoz lehergailuak manipulatzeko ari den pertsona, baldin eta horretan ari dela hiltzen bada?

-Nik uste dut gizakiok badugula barne-indar handi bat, bizitza honetan ia dena onartzen laguntzen diguna. Nahiz eta barruan amorrua izan, badago barneko zerbait, indar handia ematen diguna. Inoiz ez duzu ulertuko zergatik hil zuten zure anaia; nik, behintzat, inoiz ez dut ulertuko.

-Nire kasuan, gainerakoenean bezalatsu, neu izan nintzen neure babes bakarra. Etxean ezin nuen babesik eskatu, min handia baikenuen denok. Profesional baten laguntza eskatu nuen, eta oso baliagarria izan zait. Oso pozik nago horregatik.

Eguneroko bizimodua onartzea... tortura ere jasan behar izan dut... Biktimek eurek bilatutako zerbait izan ote zen galdetzen dutenean, ez dut erantzuteko gogorik ere izaten... Pertsona batek delitu bat egin badu, horretarako dago legea...

Min handia egiten dit, esaterako, hainbat arrazoi direla tarteko desagertu diren pertsonen buruzko albisteak entzuteak. Hilketaren batek eragiten duen mina izugarria da, baina senitartekoa non dagoen ez jakiteak edo gorputza ez aurkitzeak eragiten duen mina... Urteetan eta urteetan ezjakin egoteak eragindako mina benetan itzela da. Niri asko lagundu dit ETaren biktimei entzuteak.

Niri min handia eman dit Guardia Zibilak, eta beldur handia pasatakoa naiz. Horrekin ez dut justifikatu nahi ETak eragindako mina, handia izan baita. Neuk ere gogoeta egin dut, eta dagoeneko publikoki barkamena eskatu dut ETaren biktimei batzuek eragin ahal izan dudana minagatik, ekintza batzuetan edo kale-agerraldietan azaltzeagatik.

Gustatuko litzaidake gertatutako guztia, egia osoa, argitara ematea, esan gabe holako min halako baino handiagoa da, etab. Nola neurtzen da, bada, mina?

Konponbiderako topaketek geure artean entzuten lagun diezagukete.

-Argi geratzen ari dena da ez garela hain desberdinak. Esan diren gauza askorekin identifikatzen dut neure burua. Azkenerako, babesgarria ere jantzen duzu... Arrebari begiratzen diot, eta hainbeste denbora igaro ostean, maldan behera doala jabetzen naiz. Eta nik ez dakit zenbat iraungo ote dudan; ez dakit izugarriko depresioa etorriko ote zaidan ala ez. Zorte handia izan dut, eta urte hauetan guztietan ez dut laguntzarik behar izan, baina, orain, hau guztia argitara ateratzen ari garenez, gaiari buruz hizketan hasten zara, eta gero dena eramaten duzu etxera, eta ohartzen naiz ez dudala segurtasun handirik ere... Hizketan ari garenean, sentiberago egoten gara, erne egoteari uzten diogu, eta malkoa ere etortzen zaizu begietara... Orain, hain justu, pixka bat erlaxatzen garenean, egoten gara zaurgarrien. Nik horrela ikusten dut, behintzat.

Amarekin eztabaida mordoxka bat izandakoa naiz. Esaten nion aurrera egin behar genuela, istripuetan hiltzen diren pertsonen senitartekoen moduan. Onartu egin behar genuela. Eta aurrera atera behar izan dut, beste erremediorik ez neukalako. Dena den, ez dut eskua sutan jarriko. Baliteke hemendik hilabete batzuetara ezin izatea talde hauetara etorri, indarrak ez daukadalako.... Babesgarri hori pixkanaka eta kontu handiz kentzen ari garela esango nuke.

Glencree proiektua, hasiera batean, trenen arteko talka bat izan zen. Ezin genuen handik ihes egin, Irlandan baikeuden. Lehenik eta behin esan genuena da, hain zuzen, ezin dugula justifikatu aita honako edo halako izatea.

Eta konponbiderako topaketei dagokienez, esan behar dut ez ditudala behar, ez dut uste nahi dudarik ere. Iruditzen zait ez didatela ezer konponduko. Ez dakit zer den barkamena, eta egia esan, ez dut uste barkatuko diedanik; nire barnean geratuko da hori. Baina gertatutakoaren aitortza publiko bat egitearen aldekoa naiz. Gauza batek beste bat ekarriko du gerora. Ez bainaz sartuko gorroto- eta mendeku-dinamika batean. Ez. Iruditzen zait aurrera egiteko, ezinbestekoa dela karta guztiak mahai gainean jartzea. Eta iruditzen zait denok egin dugula gauzaren bat oker. Denok joan gara beste batzuei min egingo zieten manifestazio edo kale-agerraldietara.

-Guztiok ez gara joan manifestazioetara.

-Konponbiderako topaketak, beharbada, baliagarriagoak izango zaizkie delitu-egileei biktimei baino. Alabaina, gure gizartearen osatu nahi badugu, nahi duenak eta ahal duenak, borondate hori duenak, aurrera egin beharko du.

Hitz egiten ari gara, eta hori niri sana iruditzen zait. Izan ere, alboratzen diren pertsonak, ezkututzen direnak, trauma izan dezakete, eta hori mingarria izan liteke, eta gero, hamaika jantziarekin azaldu: gaixotasun fisikoa, gaixotasun psikikoa... Jakin badakigu pertsonen buruko osasunarentzat zein osasun fisikoarentzat beharrezkoa dela hitz egitea, partekatzea eta onartua izatea. Norbait zara zeuk zeure burua ezagutu eta gainerakoek ere ezagutzen zaituztenean; betiere, ahal den neurrian, eta beharrezkoa den denboran.

Nire eguneroko bizimoduan oraindik eragina daukate bilatzen ez ditudan begiradek edo etsakeria sumatzen diedan begiradek, "egingo zuen zerbait" esango balute bezala. Hori oraindik ere sumatzen da herri batzuetan; toki batean modu batera, eta beste batean, bestera, talde terrorista erantzulearen arabera. Bakoitzak, tokatu zaion egoeran egonda, gaitzespenezko begiradak jasan behar izan ditu, begirada erasokorrak, eramaten zailak, eta oraindik ere, irauten dutenak. Biktimei eta euren senitartekoei egindako minaz gainera, gizarte osoari egindako kalte moralak dago, egoera horrekin bizi behar izan duten belaunaldi guztiei eragindako kalte moralak. Justifikatu nahi izan dute "ETAKoa zelako" esanda. Esaterako, nire seme-alaben ikastolan, greba egiten zuten ETAKo kideren bat hiltzen zutenean, eta ez ETaren biktimei bat hildakoa.

Esan nahi dudana da gehien kezkatzen nautela egindako kalte moralak batetik, eta haurrek, bestetik.

Mina, gaixotasuna eta heriotza tartean direnean, helduoi inguruko pertsonak laguntzen digute, baina, egia esan, azkenean, bakardadean igaro behar izaten dugu guztia. Haurrek, berriz, babesa eta heziketa behar dute; eta iruditzen zait herrialde honetan hezkuntza-gabezia izugarria daukagula. Kontakizunak aldatzeko eta burua irekitzeko premia handia dago, atzetik datozenei hezkuntza begirunetsuago bat eskaintzeko premia, eta justifikazioak zuzentzekoa... Eta iruditzen zait bi belaunaldi daudela desitxuratuak, errespetu-gabezia

izugarria dutenak; izan ere, besteari ere entzun egin behar zaio, ez da mendean hartu behar eta ez da boterea gehiegikeriaz erabili behar; besteak ere badu hitz egiteko eskubidea. Guztiok hartu behar dugu kontzientzia; izan ere, hori zuzendu ezean, gaixo egongo gara.

Nire babesik handiena familia eta lagunak izan dira.

-Nire babesik handiena ni neu eta nire bakardadea izan dira. Denbora askoan herri bateko denda batean egin dut lan. Gau batean, etxean tirokatu egin ninduten, eta zorionez, ez ninduten zauritu. Beste pertsona batekin nahastu omen ninduten. Nahiz eta denbora asko igaro den, oraindik ere, egunero-egunero, eragina dute nigan gauak, ametsak, sortzen zaidan ezintasunak, amorruek, antidotoak... Horrexegatik nago hemen. Ea zuoi entzunda pixka bat aska naitekeen. Baina ikaragarria da.

Nire lanean hartu nuen babes: hasi goiz-goizetik eta iluntzera arte. Igandetan, mendira joaten nintzen, ez bainuen inori buruzko ezertxo ere jakin nahi. Ez nuen ulertzen zergatik. Orain, urte asko igaro diren honetan, psikologo baten laguntza jasotzen dut. Urteak daramatzat depresioaren aurkakoak eta lo egiteko pastillak hartzen... Ez dakit zergatik izan nuen horrelako zortea.

Etortzen naizen aurreneko aldia da, eta talde hauek asko lagunduko didatela uste dut, pixka bat irekitzea lortu dudalako.

-Geurekoi hutsak bihurtzen gara, geure zilborrari begira beti. Lehenengo urteetan, ez nion inori jaramonik egiten, hainbestekoa zen neukan mina... Haur txiki bat neukan, baina hain nengoen jota... Pertsona batek, ordea, honela esan zidan: "Zeu osatzen ez bazara, zure gurasoak ere ez dira osatuko". Horrek "klik" egin zuen nire barnean, eta esan nion neure buruari: "Alaba bat duzu (urteek aurrera egin ahala, hark ere gaizki pasa du); baina bizitza bat ere". Niri gehien lagundu didana bizitza bera da. Nik ez nuen bizi nahi, baina bizitzak berak bultzatzen ninduen bizitzera. Adiskideek ere bai, astuntxo jarri ziren-eta, deika eta deika etengabe. Adiskideak izan ziren, niretzat, garrantzizkoena.

Izugarri izorratzen nau komunikabideetan entzuten dudanean: "ETAren biktimek diote"... nor dira biktimak? Duela urte batzuk Hizkuntza Eskolan eman nuen izena, eta alabak esan zidan ez nindutela hartu "gezurrezko lekukotasunengatik", terrorismoaren biktima nintzela aipatu bainuen. Ondoren, bi abizenak sartu zituztenean, han azaldu ginen. Joan nintzen, eta barkamena eskatu zidaten, baina oso gaizki iruditu zitzaidan ez egotea biktima gisa jasota pertsona bati nire izena ematea ahaztu zitzaiolako.

Uste dut talde hauek aberasgarriak direla, zeuri gertatzen zaizkizunak beste pertsona batzuei ere gertatzen zaizkiela ikusten baituzu.

Egun batean jakin nuen nire alaba nire anaiaren atentatua antolatu zuen pertsonaren alabarekin ari zela jolasean. Nire ingurukoek ez zidaten esaten, minik ez egitearren. Jakin nuenean, amorrua eman zidan, eta gurasoengana jo nuen. Aita biziki gaitzitu zen, eta esan zuen ea nola zen posible hori. Amak eta biok, berriz, ikusi genuen ezin genuela haienaren pareko jokabidea izan. Zer erru zeukan, bada, neskatilak? Nahikoa zorigaitz zeukan ama kartzelan eta aita ihesean izanda. Gaur egun, nire alabak harremana dauka jende horrekin. Niretzat ez da atsegina, baina zer egingo diot? Neuk esan behar ote diot "horrekin bai; horrekin ez"? Azken batean, hori da berak aukeratutakoa. Aukeratu ditueneko, izango dute ezaugarri onik, nahiz eta niri ez atsegin. Baina horixe da tokatu zaidana, euskalduna naizelako eta hemen bizi naizelako. Eta hemen bizitzen jarraitu nahi dut; beraz, ez daukat egonezin hori irenstea besterik.

-Niri, berriz, nire anaiaren kontra jo zuen pertsonaren arreba zuzenean lagundu beharra tokatu zitzaidan, eta bera izan zen, gainera, nire seme-alaben begiralea. Hauxe da, azken batean, daukagun herria, guztion artean eraikitakoa, eta guztion artean sendatu beharrekoa. Jakina zaila dela! Niri izugarri kostatzen zait haren argazkia ikustea... Horregatik da hain garrantzitsua gure seme-alabei uko ez egiten eta gauzak jakiten lagunduko dien kontakizuna osatzea. Guztiak da onargarria axolagabetasuna izan ezik. Urte askoan, gizartearen gehiengoak axolagabea izan da.

-Jende asko dago, dena den, historia hori, min hori, itxi ezin den dolua, aipatzerik nahi ez duena.

-Gehiengoak.

-Ez dakit gehiengoak den, baina asko bai, behintzat.

-Eta oraindik agertu gabeko pertsona ugari daude.

-Baita argitu gabeko hilketak mordoxka ere.

IKASLEEI GALDETU DIEGU EA GUSTATU ZAIEN.

Baietz diote. Gauza bat dela teoria, eta beste bat biktimekin hitz egin ahal izatea.

Galdetu diete ea zergatik aukeratu duten gradua.

Ikasle batek erantzun du polizia izan nahi duela; beste batek, berriz, oso argi eduki ez arren, bitartekari-profila omen du gustuko.

II. SAIOA: ZER HELBURU DU ETA ZERTARAKO BALIO DU MEMORIAK?

AZALDU DUGU 2015eko AGENDA BAT DAGOELA, MEMORIAREKIN LOTUTAKO ZER EKINTZA EGITEA GUSTATUKO LITZAIEKEEN IDAZTEKO. 1. TALDEAN ERE BANATU DUGU.

IVAC/KREI INSTITUTUAN LANTZEN ARI DIREN JUSTIZIA KONPONARAZLEAREN EREDUA AZALDU DUGU.

HAI EK MEMORIARI BURUZ ZER USTE DUTEN JAKIN AHAL IZATEKO, ETA HAIEN IDEIAK MEMORIA KONPONARAZLEAREN GURE EREDUAREKIN BAT DATOZEN ALA EZ IKUSTEKO, DINAMIKA HAU EGIN DUGU. TXARTELAK BANATU DITUGU, IDATZ DEZATEN. NAHIKOA DA HITZ BAT ZEIN ESALDI BAT IDAZTEA EDO IRUDI BAT MARRAZTEA, NAHI IZANEZ GERO.

NAHI DUGUN MEMORIAREN KONTZEPTUA OSATZEKO, ZER BOST IDEIA AIPATU BEHARKO GENITUZKE, DERRIGORREZ? HELBURUA DA OSATU NAHI DUGUN MEMORIAREN HARIA IZANGO DIREN IDEIAK JARIATZEA.

BAKEOLAK EGIA, JUSTIZIA ETA MEMORIA HITZEKIN MEMORIAREN EGUNERAKO EGIN ZUEN IRUDIA ERAKUTSI DUGU, HAINBAT ARGIZTAPENEKIN. IAZKO TALDEEN HASIERAKO HITZALDIEN ARGITALPENA ERE, ZUZENDARITZAK ARGITARATUTAKOA, HARTU DUGU HIZPIDE, ETA TALDE-LANAREN AMAIERAN BANATUKO DUGU.

MUSIKA JARRI DUGU, ETA ORDU-LAUDENEAN, ISILEAN LAN EGIN DUTE. ONDOREN, GUTUNEN DINAMIKA AZALDU DIEGU: NAHASKETA, BANAKETA ETA AZALPENA.

-Ez dakit ulertuko dudan pertsona jakin batek zer esan nahi izan duen hitz horrekin; edo, agian, beste modu batera interpretatuko dut.

-Pertsona batzuek gauza bera esan nahi dute, hitz desberdinak erabilita.

BAZTERKETARAKO LEHENENGO TXANDA.

-Hau da baztertuko nukeen lehenengoa: "Jakin dezaten nondik gatozen, nora goazen eta nora iritsi nahi dugun". Ez dut oso ondo ulertzen.

-Neuk idatzi dut. Esan nahi nuen etikaren eta balioen bizitokian etorkizuna eraiki ahal izateko, nondik gatozen jakin behar dugula.

-"Herriaren historia ikastea" baztertuko dut. Historialaria naiz, eta garrantzitsua iruditzen zait, baina ez dut hainbeste lotzen memoriaren kontzeptuarekin.

-Hau baztertuko dut: "Hainbat martxa edo abiadura daudela aintzat hartuta... biktimak ez behartzea prestatuta ez dauden egoeretan jartzera". Hau baztertuko dut, gainerakoak barrurago sartu zaizkidalako.

-"Egia kontatzea" baztertuko dut, badaukadalako gauza bera esan nahi duen beste bat.

-"Bakean hil ahal izateko" baztertuko dut. Ez dut oso ondo ulertzen. Bakean hiltzen zara, baldin eta kontzientzia lasai baduzu, eta zure bizitzan ahal duzuna egin baduzu. Ni, behintzat, bakean hilko naiz. Eta hau ere baztertuko dut: "Gorrotorik gabe, amorrurik gabe eta haserrekeriarik gabe bizi ahal izateko". Sinetsiez adazue, ez dut gorrotorik sentitzen. Norberekoi jokatura, gorrotoa barnetik jaten zaituen termita bezalakoa da, aluminosia daukan eraikin bat bazina bezala. Gorrotoak norbanakoari eragiten dizkio kalteak. Hirugarren txartela gustatzen zait: "Beste biktima parekotzat hartzeko".

-"Bakean egotea" baztertuko dut, iruditzen baitzait ez dudala memoriaren beharrik bakean egoteko. Nik badut neure memoria, baina ez dut memoria orokorraren beharrik bakean egoteko.

-Hau baztertuko dut: "Eta dena sinetsiez adazaten behar dut". Neu ere ez bainago prest dena sinesteko.

-Oso zaila da bat baztertea. Iruditzen zait zaila egingo zitzaiola jende guztiari. "Boteretsuaren zapalkuntza salatzea" da baztertuko dudana.

-Hau baztertuko dut: "Belaunaldi berriek ikus dezatela gure artean ez dagoela ezinikusirik". Hori baztertuko dut iruditzen zaidalako garrantzitsuena dela nahi duguna azpimarratzea, eta ez hainbeste, nahi ez duguna.

-"Emozioz negar egiten dut, eta biktima guztiak besarkatu nahi nituzke" da baztertuko dudana. Ez dut oso gogoko besarkadak ematea. Gertatutako guztiak gogorragoa egin nau.

BAZTERKETARAKO BIGARREN TXANDA.

-Hau baztertuko dut: "Sentiberatasun guztiak edo gehienak bildu behar ditu". Ez dut oso ondo ulertzen.

-Nik hau baztertuko dut: "Beharrezko memoria". Begien bistakoa delako baztertuko dut.

-Nik hau: "Egia, ez nire egia".

-"Jasandakoaren errealtatea ispiatuko duena" da nik baztertuko dudana.

-Nik, berriz, hau baztertuko dut: "Nire familia besarkatzea. Haren hutsune fisikoagatik negar egiteko, baina bizitza berreskuratzeko. Lortuko dugu". Iruditzen zait sentimendu handiarekin idatzita dagoela, baina hain da intimoa... ezin dudala ondo ulertu.

-"Adierazteko aukera edukitzea, nire sufrimendu OSOA jasota gera dadin" da nik baztertutakoa. "Nire" jartzen duen tokian "guztion" jarriko nuke.

-Nik, berriz, hau: "Egia helburu nagusi gisa". Pentsatzen dut bidezko memoria bat egiten bada, egia hori jasoko dela, ezta?

-Nik hau baztertuko dut: "Sufritu duten herri honetako kide guztiak ez daitezela urruneko sentitu".

-"Erantzukizun kolektiboa eta banakakoa, izugarrikeria berriz errepika ez dadin" da nik baztertu dudana.

-Bi baztertuko ditut batera, berdinak baitira: "Objektibotasuna" eta "objektibotasuna, okertasunei ez". Uste dut memoriak subjektiboa izan behar duela, nahiz eta ez daukadan oso argi. Ondoren, historia modu objektiboan idatziko da.

BAZTERKETARAKO HIRUGARREN TXANDA (oraindik ere hiru txartelak dituzten pertsonekin).

-Hau baztertuko dut: "Ene! Inguruko denek baietz diote, entzun egin zaiela, eta pozik daude. Nik, aldiz, sinets diezadaten behar dut".

-Hau baztertuko dut: "Errealtatea ez manipulatzeko".

-Nik hau: "Justizian sinetsi". Izan ere, justizian ez badugu sinesten...

-Hau baztertuko dut: "Duintasuna eta sufrimenduari begirako errespetua"; izan ere, badaude gehiago gustatzen zaizkidan beste ideia batzuk.

-Nik, berriz, hau: "Egia; izan ere, egiak askatu egin gaitzake, nahiz eta mingarria izan".

-Nik hau baztertuko dut: "Gertaerak ezagutzeko eskubidea".

BI IDEIAREKIN (BI TXARTEL) ZERGATIK GERATU DIREN AZALTZEKO TXANDA, ETA EA ZERBAIT GEHIAGO GEHITUKO OTE LUKETEN, HASIERAN IDATZITAKOA GOGOAN IZANDA.

Hauek dira parte-hartzaile bakoitzak aukeratutako ideiak/hitzak/esaldiak:

-"Aurrerantzean, inork ez dezala pentsatu beste pertsona baten bizitza erabiltzeko eskubidea duela" eta "Oraina bizitzeko, etorkizunagatik borrokatzeko eta iragana ezagutzeko"; baita honako hau ere: "Justizia: indarrean dauden legeak lasterbiderik gabe aplikatzea". Memoria izan dezagun, ezinbestean izan behar dugu justizia, guztiok lasaia egon gaitzen.

-"Gauza bat da justizia, eta beste bat une bakoitzean indarrean dagoen legezkotasuna".

-"Nola eraiki etorkizuna iragana abiaburu hartuta". Garrantzitsua da, leku berean bi aldiz ez hutsik egiteko. Eta beste hau: "Etorkizuneko mezu eraikitzailea, ustel gainean itxi ez dadin, ahanzturan erori gabe".

-"Ikerketarik gabe ez dago memoriarik". "Inork ez du beste pertsona bati bizitza kentzeko eskubiderik; hala egitean, bizia kendu dioten pertsonaren oraingo eta etorkizuneko ingurunea ere txikitu egiten baita". Ezinbestekoa da iragana ezagutzea, iragan horrek zer orainalditara eraman gaituen jakitea eta etorkizuna eraikitzea. Nondik gatozen, non gauden eta nora goazen.

-"Egia guztiak onartzea, inolako bereizkuntzarik gabe", "Ahanzturarekin, birbiktimizazioa saihestea" eta "Argi ikusi ahal izateko".

-"Akatsak eta iluntasuna onartzeko adorea" eta "Egoera berrira egokitzea, bizitzeko eta bizi izaten uzteko; ahaztu gabe, baina etorkizunari begira". Kontua ez da gure seme-alabak zorionsuak izatea gertatu den guztia ezkutuan gordeta. Indartsuak gara, eta etorkizunari begira egokitzeak gauza gara. Akatsak onartzeaz gainera, garrantzitsua iruditzen zait alderdi guztien arteko onespina, inor ahanzturan gera ez dadin, horrek min handia egin baitio bati baino gehiagori denbora askoan. Ez dugu inor ahaztu behar.

-"Justizia; izan ere, justiziarik gabe bakea eta berreraikuntza bidegabeak baitira" eta "Justizia".

-"Gainerakoak eta geure burua barkatzeko eskuzabaltasuna". Iruditzen zait aipatu duzuen memoria konponarazlearen helburu honetan, eskuzabaltasuna behar dugula, akatsak egin ditugulako eta akatsak egin dituztelako, eta eskuzabaltasuna beharrezkoa delako gainerakoak barkatzeko. Pertsonak gara, eta

agian, sentimendu irrazionalek lerratu gaituzte. Hau ere aukeratu dut: “Erreparazioa, eta ez soilik diru aldetik. Dirua ez da beti baliagarria”. Uste dut dirua ez dela nahikoa, baina egoera jakin batzuetan, eta modu mugatuan, laguntzen duela esango nuke.

EGIN DEZAGUN ETENA ORDAIN EKONOMIKOAN.

–“Errepika ez dadin” eta “Minik gabe bizi, etorkizun hobe batekin amestu dezagun, iraganean baliogabea zer izan zen jakinda”. Niri minak ez zidan bizitzen uzten, eta hiltzea alferrikakoa izan zen; mina baino ez zuen eragin.

–“... Nire aitaren bizitzak eta amaren zein nire sufrimenduak ez dute idazpen bat balio... Ez dakit erosi nahi gaituzten, edo eman behar ligukeen pertsona kaudimengabea delako ematen diguten. Ilusiorik egiten ez dizun dirua da; ez du inolako poztasunik ematen. Ezin konta ahala diru emanagatik ere, egindakoa ezin da konpondu. Diru gehiago edo gutxiago emanda ere, ez dute lortuko biktimak isilaraztea... Une zailen batean dirua ondo etor daiteke, baina ez isilik egon gaitezen... Nire aitaren bizitza harena zen, eta ez dago hura berdinduko duen zenbakirik. Ezta nire amak eta biok izan dugun sufrimendua berdinduko duenik ere... ezta pentsatu ere!”.

–“Guri ukatu egin dizkigute Gobernu Zentraleko kalte-ordainak. Ez dakit ez ote diguten sinesten. Ez da diruagatik, baizik eta hainbeste urteren buruan, gertatua ez onartzeagatik... Aitorpen-gabezia horrek min handia egin digu, eta ustez aurrera goazen garaiotan, berriro dena nahasten zaigu”.

–“Pertsona batzuek esan dute ‘biktimek negozioa egin dute’, eta horrek min handia ematen dit. Biktima batzuek diru horren premia izango baitute”.

–“Eta badira senitarteko baten eraiketaz politikari aberastu diren biktimak ere. Nik sekula ez dut politikari sartu nahi izan, hori egin izan banu, aita zenaren memoria hutsaren hurrengo bihurtuko baitzen. Onartzen dut, halaber, pertsona horiek ausardia-pausoa eman zutela politikari jardunda, nahiz eta hala aberastu...”.

–“Nik kalte-ordaina eskatu dut, aitortza-modu bat dela iruditzen zaidalako”.

–“Nik gurasoentzat eskatu dut, iruditzen baitzait biktimak direla... baina alargunari eman diote... legeak ez baititu babesten pertsona ahulenak; kasu honetan, gurasoak”.

–“Horixe da, hain zuzen, kobratzeko eskubidea duten pertsonari begira legearen lehentasuna, gutxi-asko bidezkoa; edo gehiago edo gutxiago ematen denean, epaia dagoelako edo ez dagoelako. Beste kasu batzuetan, ordea, ez dute ezer ordaindu, ez dituztelako biktimatzat jo”.

–“Diruak beti ekartzen ditu horrelako arazoak”.

–“Aitorpen-gabeziak beti eragiten duen mina, esplizitua zein inplizitua, biktimaren mina etengabe zalantzan jartzen duena”.

–“Aitorpenak baretasuna ematen dizu”.

GIZARTEAK BIKTIMEI BEGIRA DUTEN ULERTU EZINARI BURUZ GALDETU DIEGU.

–“Gizarteak beti izan ditu beste kontu batzuk buruan. Beharbada, orain gutxiago. Gizartearentzat biktimak traba baino ez dira. Biktimarik izango ez balitz, adiskidetzeari ez litzateke beharrezkoa”.

–“Paradoxikoki, agian, orain ohartu gara gehiago zenbat galdu dugun biktimok”.

–“Biktimok ez gara erosoak gizartearentzat”.

–“Gaur egun, nola biktimak ala presoak traba daude, nahi duzun hurrenkeran izendatuta. Baina egon badauden pertsonak dira; hor daude eta uki daitezke”.

–“Alderdi guztiek erabili dituzte biktimak; batzuek beste batzuek baino gehiago... Traba gara, belarri atzeko euliak bezain gogaikarriak”.

–“... Biktima batzuk erabili egin dituzte, euren burua erabil zezaten utzi dutelako”.

–“Politikariak jakingo balute zer iritzi dugun hemen gauden guztiok...”.

–“Baina biktimen zer ehuneko gara gu?”.

–“Ikertuko bagenu zenbat diru mugitu den Espainian terrorismoaren biktimatzat, harri eta zur geratuko ginateke”.

–“Nire ustez, gutxi da”.

–“Zertarako ematen dira kalte-ordainak? Ea isilik eta trabarik egin gabe egoten garen”.

...

-“Gu ez gara sekula prentsan agertu” (GALen biktima).

-“Esaten dutenean ‘terrorismoaren biktimak’ eta ‘indarkeria politikoaren biktimak’, guztioz ari dira, guztiok baikara terrorismoaren biktimak. Ez da komeni hizkuntza-jokoan sartzea”.

-“Gizartea ez da berez hasi biktimei buruz hizketan. Administrazio publikoaren zati bat ohartu da ezin diela ez-ikusiarrena egin isilarazitako biktima batzuei... nazioarteko presio bat badela... Azkenean, ezinbestean, egiarako eskubideaz hasi behar izan du hizketan, errolda bat egiten, aitortzen... Eta biktima-talde jakin bakarrera ez mugatzen. ‘Egingo zuen zerbait’ dioen jendea ez da sekula aldatuko. Nola onartuko dute, bada, urtea joan urtea etorri, jarrera onartezina izan dutela? Eta ez dute onartzen jarrera horrekin eragindako kaltea, gizarteak berak ere kalte handia eragin baitu”.

-“Memoriak biktimen bizipenak jaso behar ditu”, “Justizia”, “Ez dadila iraganekoa berriz errepikatu”.

-“Ez ahaztea”. Denborak gure kontra egiten du beti. Adineko egiten ari gara. Biktima asko eta asko aspertuta daude jada, utzikeriagatik, eguneroko bizimoduagatik, euren arazoengatik... Zerbait egin beharko genuke gogorazteko. Gauza fisikoren bat, uki daitekeena eta iraungo duena; halakorik egin ezean, denboraren poderioz, amnesia selektiboa izango dugu. Politikariek ere ez dute interesik. Instituzioen bat edo beste zerbait izan beharko genuke. “Errespetua, pairatutako mina aitortzea, memoriaren egun bateratu bat antolatu ahal izateko”. Zentzu horretan, erabat eszeptikoa naiz. Ez dakit zenbat denboran biziko naizen, baina ziur nago ez dudala horrelakorik ikusiko. Erratuko ahal naiz! Oro har, guztiok goaz bide beretik: memoria, justizia, erreparazioa.

PERTSONA BATEK ALDE EGIN BEHAR DU, ETA TALDEA AGURTU DU.

BILDUTAKOAZ GAINERA, BESTERIK GEHITU NAHI DUTEN GALDETU DIEGU.

-“Hitz bakarra gehituko nuke: ‘errespetua’”.

-“Zer esan nahi duzue ‘minik gabe bizi’ esatean? Izan ere, egia da denborarekin ez dela gauza bera, baina minak hor jarraitzen du, aztarna hor dago, memoria izan ala ez”.

ARGITU DITZAGUN ‘DESBIKTIMIZAZIO’ ETA ‘ONERATZE’ KONTZEPTUAK, BIKTIMOLOGIAN.

-“Nik, lehen, mina nuen, eta horrek ez zidan bizi izaten uzten. Orain, ordea, mina izanagatik, bizi naiz, behinola ulertu bainuen neu bizi ez banaiz, ez diedala bizi izaten uzten nire alabari, nire gurasoei... Aurrera eginarazten dizun beste min-modu bat da”.

ARGITU DEZAGUN, HALABER, ‘BIZIRIK IRAUN DUEN PERTSONA’ KONTZEPTUA.

-“Sekula ez diogu utziko biktima izateari, baina, sufritu dugunetik, bagara ekarpen positiboren bat egiteko gai. Biktimizazio horretatik pixka bat ateratzen ari gara. Memoriaren kontakizunak barea izan behar du. Memorian, guztion aitortpenean, baretasunak izan behar du nagusi. Biktima izateari utziko diozu? Ez, dagoeneko izan zarelako; baina horixe... ‘izan zara’. Nik fase horretara pasa nahi dut; alegia, ‘biktima izan naiz, lehen nintzen’ fasera”.

MEMORIAREN KONPLEXUTASUNA ETA GARRANTZIA ISPILATU DUTE.

-“Nola idatz daiteke memoria bat, baldin eta gaur egun, nire ikuspuntutik, Euskal Herrian giza eskubideak nabarmen urratzen badira? Presoen urruntzeaz ari naiz, edo kartzelan dauden pertsona helduez...”.

-“Presoek, nire ustez, kartzelan egon behar dute”.

-“Nik ez dut esan hala izan behar ez duenik... Baina gaur egungo eskubide-urraketak eta memoria bateraezinak dira”.

-“Nire anaia hilerrian dago”.

-“Nirea ere bai”.

-“Bat nator esaten dutenarekin, baina horrek ez du esan nahi ezin denik hasi memoriaren zirriborro bat idazten. Hainbat kapitulu izan beharko ditu eta. Ezin dute parekoak izan, esaterako, eraildako pertsonen kapituluak eta torturatutako pertsonenak. Kapitulu batzuk dagoeneko idazten has daitezke, horrek eragin ditzakeen mesfidantza guztiak aintzat hartuta... Izan ere, gure oroimenaren biktimak ere bagara, eta denbora iragan ahala, gauzak ez ditugu kontatuko hasiera batean kontatzen genituen bezala, gerora bizitakoek eragina izango baitute gugan. Batek ez du modu berean gogoratzen ezkontza-eguna oraindik ere seko maiteminduta dagoenean edo banandu ondoren”.

-“Pertsonak erail dituztenei indultuak ematen ari zaizkie”.

-“Gauza batek ez du bestea justifikatzen”.

-“Nik ez dut hori esan nahi. Esan nahi dut batzuetan ez dela espetxe-legea betetzen, eta ETAKo kideei espetxealdia luzatu egiten zaiela; alabaina, beste talde batzuetako kide izateagatik zigortutako pertsona batzuei irteera malgutzen zaiela edo indultua ematen zaiela”.

-“... Gauza bat esan nahiko nuke. Egia esan, bekaitzez egoten gara ikusten dugunean udaletxe batek autobus bat antolatzen duela jendea senitartekoak ikustera kartzelara joateko. Bekaitz sanoa da. Haiek kezu dira distantziagatik, kilometro asko baitira, eta sakrifizio handia egin behar da, baina badakite merezi duela, eta geroago edo lehenago senitartekoa etxean izango dutela... Horregatik diogu beti, nahiz eta alderaketa bidegabea izan... guk ezin dugula horrelakorik egin. Eta jakin badakigu kartzelan daudenak ikustera zihoazela istripuak izan dituztela. Baina preso hori hurbilago egon izan balitz, eta halere istripua izango balute, orduan ere estatua al litzateke erruduna? Nik ez nuke urruntzearen kontua nahastuko”.

-”Asko haserretzen nau hori entzuteak. Zure aitaren drama nirearenarekin alderatzea... nire aita ere erail egin zuten... Ez dakigu nor den erantzulea, eta ez da ikerketarik egiten. Beste batzuei, berriz, espetxe-onurak eman zaizkie...”.

-“Nik ez dut inolako zerikusirik horrekin”.

BEROTUTA.

-“Emakume baten historia kontatuko dizuet, sakabanatzea hasi zenekoa... Semea espetxeratu zioten. Haren beste seme-alabek ez zuten babesten, baina ama beti ama izaten denez... amak bai. Eta nola egiten zuen negar emakume hark... Horixe da sakabanatzea. Eta beste kasu bat: haur txiki bat duen ama bat, haurrarekin joan, eta hark ez duela bisita-denbora jasaten, instalazioak ez direlako egokiak haurra han egoteko... Eta hori guztia arimara iristen zaio edonori: zuri, aita hil dizuten horri; niri, anaia hil didatenari.... Argi dago senitartekoak ez duela ezertxo ere egin. Hori guztia eskubide-urraketa dela iruditzen zait”.

-“Kito! Esan dugu, eta nahikoa da”.

GOGORARAZI DUGU HITZEKIN ERE MIN EGIN DAITEKEELA, NAHIZ ETA HORI EZ IZAN ASMOA. GURE MINA BESTE BATEN MINAREKIN ALDERATZEN DUGUNEAN, MINAGATIK LEHIAN HASTEN GARA. TALDEETAN SUMATU DEN ERRESPETUAREKIN POZIK GAUDE, ETA HORRELA JARRAITZEKO ESAN DIEGU.

-“Beste gauza bat: Noiztik hasiko da memoria? Zer urtetatik?”.

-“Ez dut ulertzen zergatik hasi behar den finkatutako data batetik, eta ez lehenagotik, pertsona batzuk ez baititu harrapatuko”.

1. TALDEAN EGIN BEZALA, ARGAZKI-LAN BATEN BIDEZ BEGIRADAREN PREMIA ETA BIKTIMEN PARTE-HARTZEA SINBOLIZATZEKO, EUREN BEGIEI ETA ESKUEI ARGAZKIAK ATERATZEKO AUKERA AIPATU DIEGU ATSEDENEAN. IKUSPEGI ARTISTIKOTIK ZERBAIT EGITEA DA HELBURUA. ARTEA, BESTE EZAGUTZA-MODU BAT BEZALA, ERREALITATEAREN, SENTIMENDUEN ETA ARRAZOIKETEN KONPLEXUTASUNA HARRAPATZEN LAGUNDUKO DUENA, IKUSI EZIN DEN HURA EDO ESATEKO ZEIN ZIENTZIA-IKEREKETA BATEAN BILTZEKO ZAILA DEN HURA. ZEHAZKI, BIKTIMAREN BEGIRADA, GAINERAKOOK IKUSTEN EZ DITUGUN ALDERDIAK ARGIZTATZEN DITUENA. BETIERE, PARTE-HARTZAILEAK EZ EZAGUTZEKO MODUAN EGINGO DUGULA ADIERAZI DIEGU.

III. SAIOA: PROPOSAMENEN BILKETA

AUTOBUSA HARTU BEHAR DUTEN PERTSONEN IRTEERA-ORDUA EGIAZTATU DUGU, LANA ANTOLATZEKO.

ADIERAZI DIEGU, JOAN AURRETIK, GUSTATUKO LITZAIGUKEELA ‘EZ NAZAZU AHAZTU’ DIOTEN LOREEN ARGAZKIARI BURUZKO HITZEN BAT IDAZTEA. HORI LITZATEKE, MODU APAL BATEAN, IVAC/KREI INSTITUTUKO GURE MEMORIA-PROIEKTUA; ETA BEHARREZKO IZAPIDE GUZTIAK EGIN ONDOREN, ONDO IKUSTEKO MODUKO TOKI EGOKIREN BATEAN JARRIKO DUGU.

UNIBERTSITATEAK EZ DU TERRORISMOAREN BIKTIMEI BURUZKO MEMORIA-PROIEKTU EDO -EKINTZA ASKORIK.

DINAMIKA HASI DUGU: NOLA EGITURATU, MODU ZEHATZEAN, MEMORIARAKO ETA PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA?

-“Nik gure herriko alkateari gogorarazi nizkion eskubide horiek, baina ez du ezer egin, esan baitzidan horrek mina egiten digula. Haserretu egin nintzen, iruditzen baitzait geuk erabaki behar dugula mina egiten digun ala ez”.

KONPROMISOA HARTU DUGU HERRI JAKIN BATEAN IDEIA JAKINEN BAT BADAGO, HORREN BERRI HERRIARI, EUDEL-I, EUSKO JAURLARITZARI ETA ARRATEKOARI EMATEKO, ETA PARTE-HARTZAILEAK HALA NAHI BADU, BERE IZENA ISILPEAN GORDEKO DUGU (UDALERRIAN BIKTIMA BAKARRA EGONEZ GERO, ZAILAGOA IZATEN DA).

ORRIAK BANATU, ETA ORDU-LAUDENEAN BAKARKA LAN EGITEN UTZI DIEGU, GALDEREN EGITURARI EGOKITZEKO PREMIARIK GABE.

MUSIKA.

NEKATUTA DAUDELA ADIERAZI DIGUTE, ETA EBALUAZIO-ORRIAK BANATU DIZKIEGU, BETE DITZATEN. HASIERAKO HELBURUAK GOGORARAZI DIZKIEGU. HALA, IDAZTEN AMAITUKO DUTE. PERTSONA BATEK ADIERAZI DU MUSIKA GUSTATU ZAIOLA.

-“Borondateaz eta gaitasunaz hitz egin behar dugu, baina nik ezin dut... Ez da inoren akatsa, baina goizegi dela iruditzen zait. Oso pozik nago etorri naizelako, baina, beharbada, belaunaldi pare bat beharko dira hau aurrera eraman artean. Ez da unea. Ezin izan dut gehiago idatzi, zauriak oso sakonak baitira. Pertsonok ez gaude soilik borondatez eta arrazoiz osatuta. Espero dut egunen batean aurrera eraman ahal izatea. Dena den, taldeen kontu hau ondo egon da”.

-“Egia da oraindik ere zauriak oso irekita ditugula. Agian, ez zaizkigu inoiz itxiko. Baina bizpahiru belaunaldi igarotzen badira, altxamendu faxistarekin gertatu zen gauza bera gerta liteke. Hainbeste itxaronez gero, biktima asko hilko dira, eta ez dute aitorpen hori jasoko. Aitorpena jasotzean sentitzen den pozbide txiki hori... Kontu handiarekin ibili beharra dago”.

-“Gerra Zibilari buruz ari garela, gogoan dut Errioxako herri batean bi alderdiek amildegi bera erabili zutela jendea hiltzeko... Herri txikietan bidegabekeria basatiak egin zituzten bi alderdiek. Nire familian ezagutu dut kasu hori...”.

‘GERRA ZIBILA’ KONTZEPTUARI ETA ESANAHIARI BURUZKO EZTABAIDA.

-“Zenbait ekintzek indarberritu egiten naute. Nire herrian, biktima guztiei egin zaie aitorpena, eta alderdi guztietako ordezkariak etorri dira... Lehenbizikoz egin denez, dena egin da kontu handiz, eta zailtasun dezente izan dituzte pertsona guztiei abisua emateko... Oso ekintza xumea izan da, baina guztiok geunden bertan... Ezinbestekoa da guztioi ematea hitza eta guztioi entzutea. Batak besteari entzun behar diogu, talde hauetan bezalaxe. Garrantzitsuena da guztion errespetua izatea, eta norbaitek bere burua biktimatzat badauka, ohartzea entzuten diotela, eta biktimatzat onartzen dutela ikustea”.

-“Egin al daiteke orain?”.

-“Nire herrian oso ekintza xumea egin da, baina, azken finean, egin egin da... Alderdi politiko guztietako ordezkariak antolatuta zuten, eta guztiak iristeko moduko pausoa eman zuten. Batzuek esaten zuten eta zergatik ez dugu... egiten?’, eta adostasunik ez zegoenez, adostu egin behar. Guztiei eskertu nien ahalegin hori egin izana. Eskubideak urratu dizkietela uste duten biktima guztiei iritsi behar zaie gonbidapena, nahiz eta gero agertu nahi ez izan edo ahal ez izan. Nire ustez, gauza txikiak egin daitezke, eta dagoeneko egiten ari dira”.

-“Gure herrian monolito bat jarri ziguten, eta ez ziren ausartu ere egin telefonoz deitzera, horren berri emateko. Non, eta gure herrian, denok elkar ezagutzen dugun tokian. Kontua da baldintzak ez direla egokienak, eta nik badakit zer ez dudan nahi; horregatik, ez dut horrekin inola ere bat egiten... Ausartzen ez bazara, ez ezazu egin”.

ZER DA NAHI EZ DUZUENA?

-“Nik ez dut nahi bizkarrean kolpetxorik. Orain artean eman ez didana ez dadila etorri, orain, horretara...”.

-“Ni zoratuta bezala nago; pozik, baina aldi berean nahastuta. Erabat apolitikoa naiz, eta ez dut zipitzik ere ulertzen gertatu zenaz, baina badakit desberdinak garela, eta elkar errespetatu behar dugula. Dena den, hemen oso gustura egon naiz”.

BIKTIMEI EUREN ESKUZABALTASUNA ESKERTU DIEGU.

ARGAZKIAN IDAZTEA ETA OPARIA.

TXOSTENA BIDALTZEKO ETA EUREN IRADOKIZUNAK JASOTZEKO KONPROMISOA HARTU DUGU.

IVAC/KREI INSTITUTUKO ZUZENDARIAREN AGURRA.

2. TALDEARI BURUZKO OHAR OROKORRAK:

Emoziozko une batzuk izan diren arren, giroa oso ona izan da.

BEREZIKI AIPATU DITUZTEN UDALERRIAK:

-HERNANI

-GETXO

-SONDIKA

BIKTIMA BATZUEK ADIBIDE ONTZAT JOTAKO UDALERRIAK

ERRENTERIA ETA TOLOSA

7.3. Eztabaida-taldeen materialen eta biltzeko erabilitako gelen argazkiak

Hona hemen eztabaida-taldeen materialen eta biltzeko erabilitako gelen argazki batzuk.



Expectativas

- Curiosidad y expectante
- No competición entre nosotros
- Contribuir a relato veraz, honestidad y dignidad de víctimas
- Humanización y escuchar a gente diferente de mí
- No tirarnos trastos
- Saber q podemos mirar al futuro
- Contribuir a sanar entre nosotros
- No contrapongo mi dolor al de otras
- Poder hablar a la cara y tenga efecto de terapia
- Enriquecerme de escuchar otras violencias
- Vengo por no sé qué y espero aprender algo
- Quiero respetar a todos; intentar comprender
- Vengo por curiosidad;
- Que cada uno se desahogue; pero cada uno hará su pensión

BIENVENIDA / PRESENTACIÓN

(1)

- Aprender
- Entender y que me entiendan
- Nunca hemos hablado de esto, ni nos hemos tratado con otros que han sufrido lo mismo. Curioso
- Esfuerzo costosísimo por salir adelante. El sufrimiento es igual para todas las víctimas. Estoy triste. Muy defraudada con el Estado de Derecho, con la Justicia. No quiero transmitir a mi hijo mi tristeza. Espero APRENDER y que el IUAE haga Informe donde conste qué piden las víctimas. Inculcar a mis hijas valores éticos. Estos grupos nos pueden ayudar. Apostar algo positivo a la sociedad para que podamos vivir en paz.

• He venido a ESCUCHAR, APRENDER y COMPARTIR. (2)

- Contraponer una violencia a otra es una locura.
- Estoy emocionado cuando tengo que contarlo.
- Espero que lo que salga de aquí tenga que ser BUENO.
- Espero de estos grupos que vayamos adelante. Todos somos víctimas. He estado muchos años muy triste. Mis hermanas no quieren tocar el tema y han pasado 30 años.
- Me pasó con 10 años. Gracias a mi familia que no me han inculcado el odio. Este grupo va a removerme muchas cosas.

Ahora veo que la gente se está olvidando de todo lo pasado. Recuerdo de niño y cuando he ido creyendo que nadie debía nada. Ahora empiezan por palabras bonitas.

- Me rebelo, a las víctimas nos se nos puede exigir NADA. Yo quiero MEMORIA y JUSTICIA. (3)
- Las instituciones han hecho una dejación de la defensa de los DDHH.
- Tiene que ser una MEMORIA RESPONSABLE. Se sospechaba que los que gobernaban estaban implicados en su muerte.
- Hacia el futuro tenemos que sembrar VALORES que después se cosecharán.

VÍCTIMAS sean reparadas, reconocidas. Si el Estado no tiene herramientas habrá que recurrir a instancias internacionales.

Quería tener compañerismo, salud, cultura, deporte y la ayuda de mis padres y la bondad infinita que me han demostrado algunas personas. Hay que humanizar el tratamiento sobre las víctimas y despojarle de su coriza política.

4

- Dolorosa también la asignación y cuantificación de las indemnizaciones
- Yo me niego a ser INVISIBLE porque eso es PERDER LA MEMORIA. La invisibilidad siempre da la razón al agresor. El allegado "visible" hace presente su memoria. Necesitamos un lenguaje que unifique, no que divida. No nos dejan a las víctimas dar un mensaje.

APOYO

- Mis dos hijos. Se lo digo a menudo. Como era pequeño. Tu madre y yo mismo que me he intentado superar. Nunca me han inculcado el odio. La familia. La seguridad de que lo violencia no es el camino. Como cristiana no podía aceptar la revancha.

ACTOS DIFÍCILES DE REALIZAR

Ver pueblos con anagramas ETA, pintados... Bares con esa simbología le cuesta salir al pueblo, estar con la gente.

• produce sufrimiento ir a un lugar X. Ahora, después de 30 años, creo que ha llegado el momento de ver el sitio donde los asesinaron. Yo quiero perdonar para seguir yo adelante. Quiero quitarme la tere.

• quería perdonarle a mi hermano por el dolor que nos causó. Acabé perdonándolo pp. fue una opción de él.

5

- No quisiera que hubiera una floor en ese lugar.
- No vamos a un sitio por la situación que vamos a crear por la incomodidad de las víctimas.

ENCUENTROS RESTAURATIVOS

- Si hubiera oportunidad quisiera facilitar el esclarecimiento de cara a la justicia si estaría dispuesta.

Tal y como los han presentado en los medios de comunicación no los quiero. Si se ha hecho justicia y el infractor lo quiere creo que le vendría en todo caso bien a él.

Con que se haga justicia me basta, si aporta una ayuda a la investigación y una asunción de lo realizado, en ese caso sí lo haría.

7

LA MEMORIA

Qué tipo de actividad le gustaría:

Comprendo que tiene que haber actos institucionales, pero me gustaría un momento personalizado. Prefiero una placa con su nombre. Memoria basada en la identidad de la víctima.

(RECONOCIMIENTO PERMANENTE) - Escribir los nombres de los fallecidos, personas heridas, secuestrados, desterrados, amenazados.

• RECONOCIMIENTO CONSTANTE

VIOLACIÓN DE DERECHOS HUMANOS [Testimonio de lo propio pasado y lo que ha pasado]

CHARLAS EN LAS AULAS → EDUCACIÓN - Se nos ha dado pocas unidades de participación. Se nos ha dado pocas se que criterios se utilizan para elegir quién va. Se nos ha dado pocas unidades de participación. Se nos ha dado pocas se que criterios se utilizan para elegir quién va.

RECONOCIMIENTO SOCIAL Y VERDAD - que se diga la verdad es que era un ser humano. Saber lo que pasó, dónde está la condición de ser humano.

CERCANÍA (sus datos de identidad devuelven a la víctima su condición de las víctimas)

DTD&RAFIAS: En un Centro de la Memoria. En su ambiente y tb. en el momento del atentado.

TESTIMONIOS - Se recupera al ser humano poniéndose uno en lugar del otro.

IDENTIFICAR A LAS PERSONAS

RECUERDO PERSONALIZADO PRESERVADO

MEMORIA

8

¿QUÉ OS PARECE QUE LAS VÍCTIMAS DE LA TORTURA Y DE LOS ABUSOS POLICIALES SIN CONFUSIÓN?

- No lo incluiría. Es otro tipo de victimización mezclando con lo que confundir.

Tampoco tenía malo decir: a causa de este terrorismo de ETA se han producido otros sufrimientos.

Ellos han tenido el apoyo de su entorno que no hemos recibido las víctimas del terrorismo.

Yo creo que debería tenerse constancia tb. de ello. Creo que políticamente se intenta mezclar, intentando confundir, hablando del "conflicto".

CATÁLOGO ABIERTO DE PROPUESTAS (18'30 hs.)

* Acto artístico o cultural (Instituciones, ayuntamiento que fueron las propias víctimas del que consensuaron el diseño del Acto.

- Audicionales
- Fotografías
- Lectura de textos

(No es un dislate, lo hago por lo que le hicieron a él)
A los actos que he asistido me han resultado impersonales, sensibleros, dirigidos sin preguntar a la víctima.

• Daría peso al ÁMBITO EDUCATIVO. Es una invite para el futuro si a los niños se les inculca unas pami.

Doy importancia al relato de la que ha sucedido. U relato colectivo veraz. Veo posible compartir un relato.

Las esculturas, previa consulta a las víctimas.

Fundamental RECOGIDA DE TESTIMONIOS.

EXPOSICIÓN ITINERANTE por los pueblos.

* DISEÑO DEL ACTO COMMEMORATIVO (10) CONSENSUADO, FINANCIADO INSTITUCIONALMENTE

- Testimonios víctimas
- Audicionales
- Lectura de textos

Lugar: Kutsaal

- Tal vez las víctimas por años.
- Dar voz a las víctimas que no han tenido la oportunidad de dar su testimonio. Si no quiere personalmente que lo transmita otro. Es importante que la sociedad conozca los secuelos que dejó en el entorno.

Un cartel en el periódico con los nombres de todas las víctimas. Anualmente, el Día de la Memoria

3) LUGAR:

- Una placa en el mismo lugar. Previa consulta de la familia.
- Una placa colectiva en cada Ayuntamiento.
- Una placa en el espacio virtual.
- Siempre para TODAS, no para las más conocidas.
- ¿Un símbolo para que aparezca ese día?

4) PARTICIPANTES:

- Muy abierto para la sociedad. Borramos a los políticos pero al resto: familia, compañeros, vecinos, ciudadanos.

EN CONCRETO, SOBRE EL DÍA DE LA MEMORIA:

La noticia es que no ha habido acuerdo. DESENCUEN me he enterado por los medios de comunicación, como víctima no me han invitado nunca.
A lo mejor, lo óptimo es música y silencio.

- Que animaran a Todas las víctimas para acudir quien quisiera al Parlamento Vasco. Una buena música, unos textos que hagan hincapié en la defensa de los derechos humanos.

EN CONCRETO, SOBRE EL MEMORIAL Y EL INSTITUTO DE LA MEMORIA



7.4. 2015eko agendetan bildutako hitzak

Egunean zehar, bi agenda banatu genituen bi taldeetan, oraindik egiteke dagoen memoriari buruzko zerbait idatz zezaten. Pertsona batzuek aurreneko orrialdeetan idatzi zuten, ulertaraziz-edo atzeratu ezin diren gaiak direla⁸³; baina gehienek beraiantzat garrantzitsua den egunen bat aukeratu zuten⁸⁴.

-“Guztiok gara biktimak; batak besteari babesa eman behar diogu, elkar errespetatu, eta gorrotoa atzean uzten saiatu”.

-“Inork ezin du, sekula, inola ere, ez hiltzea dioen agindua hautsi”.

-“GIZARTE EDO GIZADI GISA JASANDAKO KALTE MORALAK SAIHESTEKO ERANTZUKIZUNEZKO MEMORIA”.

-“Zauriak arintzen dituen memoria; justiziari hertsiki lotuta dagoen memoria, inpunitatea saihesten duena”.

-“Gorrotoa desagertu dadila, eta biktima-eragileek euren erantzukizuna onar dezatela”.

-“Berriz ere BAKEAREN eta GUZTION ZORIONTASUNAREN alde elkarrekin lan egin dezagun”.

-“ELKARREKIN AURRERANTZ”.

-“GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO ESKUBIDEA, ESTATUKO TERRORISMO-DELITUAK EPAITZEKO”.

-“Biktima-eragile ezberdinek kaltea eragindako ordezkari bakoitzaren hitzarekin sortutako errekonozimendu-ekitaldi bat. Izenak, zenbatekoak, etab. zehaztu gabe. Biktima guztiei. “ASKI DA, EZ DADILA ERREPIKA”.

-“Aurrera begiratzea; baina atzera, eta batez ere, barrura begiratu ondoren. Beldurrik gabe, ausardia, itxaropenez”.

-“19..(e)ko ...(a)ren ...(ea)n hil zuten. Izugarri maite zuen natura. ZUHAITZ BAT LANDATZEA”.

-“Horrelako egun batean jaio zen izan dudana anaia maite bakarra. Hura gogoratu nahi nuke, izan zuen zoritxarraren eraginez ezagutu dudana eta anaiak egin bezalaxe ezagunekin gizartiar jokatzeko duen jendearen bitartez”.

-“AMNISTIA”⁸⁵.

-“Eskerrik asko. Zuei esker, arinagoa izan da”.

-“Lore-eskaintza (bahitu eta torturatu zituzten tokian),-en oroimenez”.

7.5. Memoria-proposamenen artean irekitako katalogoko fitxari emandako erantzuna⁸⁶ (1. eta 2. taldeak)

Bi pertsonak, bata ETaren biktima eta bestea GALena, adierazi zuten ez zeukatela indarririk fitxa betetzeko. Lehenengoak esan zuen nahiz eta hamarkada batzuk pasa diren, oraindik ere goizegi dela.

1. Edukia

-Biktimen lekukotasunak jasotzea.

-Hezigarria (hitzaldiak ikasgeletan, artxibo digitaletan lekukotasunak jasotzea...).

-Hezigarria (hitzaldiak, lekukotzen artxibo digitalak...).

-Hezigarria (hitzaldiak, lekukotzen artxibo digitalak...).

-Oraingo, ez nator bat hitzaldien bidez ikasgeletan lekukotasunak ematearekin. Ezin baita ahotsik eman merezi duten pertsona guztiei. Iruditzen zait giza eskubideen errespetuari, bizitzaren errespetuari eta osotasunaren errespetuari buruzko irakasgai bat behar dela, bizitza kentzeko izan den arrazoia zeinahi delarik ere. Irakasgai hori beharrezkoa da; eta beharrezkoak dira, halaber, urraketak hautemateko eta kondenatzeko egin daitezkeen jarduerak guztiak.

83 Letra larriak erabili bezalaxe jarri ditugu.

84 Biktimen oroimenean egunerokoak duen garrantziarekin lotu daiteke hori. Eztabaida-taldeetan espezifikoki landutako gaia da, aurrera begira beste esku-hartze konponarazle bat egiten bada, aintzat hartzeko.

85 Biktimen memoriarekin baino gehiago aldarrikapen politiko batekin zerikusia duen hitza dela badirudi ere, idatzi zuen pertsonaren iritzia errespetatzeagatik txertatu egin dugu. Dena den, adierazi behar dugu eztabaida-taldeetan inortok ere ez zuela kontu hori aipatu.

86 Pertsona batzuek ezin izan zuten jarduerak honetan, Jardunaldiko azkenean, geratu. Gainerako pertsonak elkarrekin egin zuten.

- Nafarroako 'Alargunen herrian' bezalaxe.
- Ez litzaidake gustatuko gauzak dekretuz egitea.

2. Formatua

- Ez zait iruditzen ekintzak antolatzea denik kontakizuna gizarteari helarazteko biderik onena.
- Alderdi guztietako ordezkariak sustatutako ekintza xumeak behar ditugu. Ekintza irekiak, biktima guztiak gonbidatuta egongo diren ekintzak. Aurten, Tolosan, halaxe egin da lehenbizikoz; eta oso gauza baliagarria izan da.
- Ekintza xumeak.
- Ekintza xumeak.
- Ekintza xumeak eta hurbilekoak.
- Ekintza xumeak eta hurbilekoak. Hanpatasuna eta nabarmenkeria ez dira beharrezkoak; eta esango nuke kaltegarriak ere badirela.
- Nire gurasoei jakinaraztea euren semea ez dela ahanzturan geratu... Nahi nuke denek jakitea hainbat aldiz egin ziotela tiro bizkarrean.

3. Lekua

- Probintziako hiriburu guztietan... plaka bat edo hormairudi bat, hildako biktima bakoitzaren izenarekin eta lehen abizenarekin, nork hil zuen zehaztu gabe. Era berean aipatzea torturatutakoen eta bahitutakoen kopurua, eta azken batean, giza eskubideen urraketa oro.
- Udalerrietan; betiere, biktima errespetatuta. Ez litzaidake gustatuko politikariak han izatea, baldin eta aurretik ez badute ezer egin.
- Oraingoz, udalerrian, ohitzen joan gaitezen, gerora Euskal Herrian egin ahal izateko. Betiere, era guztietako biktimok parte hartzen badugu, baldintza berberetan.
- Nazioarteko ekintza handien alde eginez gero, berriz, kolektibo guztiek hartu beharko lukete parte.
- Atentatua gertatu zeneko tokoa, udalerrian; eta urtean behin, maila nazionalen.

4. Parte-hartzaileak

- Herritarrak, oro har; jende xumea. Politikariak saihestuko nituzke.
- Errespetu osoz, askotarikotasunari ateak irekitzen dizkion pertsona oro.
- Herritarrak, oro har.
- Hildako bakoitzari bereek egiten diote negar. Ez litzaidake gustatuko bertan izatea politikariak edo erakundeetako ordezkariak.
- Modu batean zein bestean, pertsona guztiek parte har lezakete.

5. Memoriaren eguna

- Memoria egunetik egunera landu behar da, eta pertsona guztien eskubide oro azpimarratu behar dira.
- Komunikabide guztiek gogoratu beharko lukete, eta minutu bateko isilunea egin.
- Iruditzen zait memoriaren eguna, inolako arazorik gabe, giza eskubideen eguna izan zitekeela. Eta hainbeste urraketaren kontakizunaren baitan, indarkeria politikoaz ere hitz egin beharko litzateke. 'Terrorismo' kontzeptua alde batera utziko nuke, eta indarkeria armatuaz hitz egingo nuke. Esanahi politikoa du. Hala egingo nuke, ez baitago behar adina ausardia 'Estatuaren terrorismoa' esateko.
- Oroitzapen baten gisa.
- Kontzertu klasiko bat antolatzea, hildakoen izenak dituzten globoak askatzea, giza kate bat egitea.

6. Memoriala eta Memoriaren Institutua

- Argazkiak, filmak eta prentsa-ebakinak txertatu behar dira. Eta senitartekoen lekukotasunak jasotzen dituzten garai hartako albistegiak eta bideo-grabazioak ikusi behar dira. Ikasleek ikustera joan beharko lukete, han hezteko eta informazioa jasotzeko, eta ez manipulatzeko, ez desitxuratzeko eta informazioa nahierara ez erabiltzeko.

Deigarria da ia ez dagoela erantzunik. Gainera, ezagutzarik eza handia da.

7.6. Parte-hartzaileen eta dinamizatzaileen ebaluazioa

1. Antolaketa⁸⁷: Pertsona guztiek 'ongi' adierazi zuten; bakar batek, berriz, 'hala-holakoa'.
2. Edukia: Gehienek 'ongi' jarri zuten; lau pertsonak, berriz, 'hala-holakoa'.
3. Dinamizatzaileak: Pertsona guztiek 'ongi' idatzi zuten; bik, berriz, 'hala-holakoa'.
4. Gehien gustatu zaiena: Zerbait adierazi zutenek, hau aipatu zuten: "era guztietako eta ideologia ugaritako biktimekin topaketak"; "beste ikuspegi batzuk dituzten biktimekin harremana izatea"; "hainbat eratako biktimen arteko elkarbizitza"; "errespetua, antolatzaileen presiorik eta tartean sartzerik gabe; tratu ona"; "errespetua, entzuteko prest egotea"; "iritzi-desberdintasuna"; "pentsatzeko hainbat era aurrez aurre jartzea"; "elkarrizketa"; "karta-jokoa"; "hitz egiteko eta elkarri entzuteko aukera; besteen esperientzietatik ikasiz"; "bizikidetzatza".
5. Hobetu daitekeena: "dena ondo, baina hurrengoan, beste gai batzuk landu beharko lirateke"; "bile-ara-egunaren aurretik galdetegiak edukitzea"; "gai gutxiago aukeratzea, eta gehiago zehaztea"; "dagoen bezala oso ondo dago"; "jende gehiagok parte hartzea"; "parte-hartzaile bakoitzak hitz egiteko duen denbora"; "eztabaida gai nagusira bideratzea"; "parte hartzen duten ikasleen kopurua handitzea"; "gure lanaren testuingurutik ez ateratzea, eztabaidatzen jarraitzeko behar adina astirik ez dagoelako; azkenean, mindu egin naiz"; "egiari eta aitopenerari begira aurrerapausoak eman aurretik, ez naiz gai memoriaz hitz egiteko".
6. Zer jaso behar da etorkizuneko egitasmoetan, batik bat, ikus-entzunezko formatuan? Hauek dira galderari erantzundakoak esandakoak: "gertatutakoari buruzko egiazko kontakizuna"; "biktimen lekukotasuna jasotzea"; "biktimizazio terroristari buruz hemerroteketan jasota dagoenaren gaineko dokumentazioa"; "terrorismoaren biktimen lekukotasuna, biktima bakoitzaren historia pertsonala"; "giza eskubideen urraketa guztiak"; "gertatutakoaren egia osoa, itzulingururik gabe"; "bestearen ikuspuntuan jartzeko prestutasuna, norbere minean itxi gabe, eta era horretan, gainerakoen mina hautematea"; "arazoaren ikuspegi orokorra izatea, ez ikuspegi alderdikoa"; "IVAC/KREI institututik egiten ari zareten ahalegin guztia aintzat hartu eta eskertzen dut, baina iruditzen zait oraindik ez dela unea ETaren biktimak eta beste erakundeetakoak elkarren aurrean jartzeko; eta egia esan, ez dakit inoiz iritsiko ote den une hori"; "Estatuaren terrorismoak egindakoa erabat onartezina da eta izugarria bi bider"; "biktima guztien errespetua eta berdintasuna, baita torturak eta polizia-jazarpena jasan dutenena ere"; "biktima guztien zerrenda, inor ahaztu gabe, egilearen arabera lehenengo eta bigarren mailakoen arteko bereizketarik egin gabe".

Pertsona gehienak ados zeuden ikus-entzunezko batean parte hartzearekin, baina egitasmoari buruzko informazio zehatzagoa jaso nahiko lukete. Pertsona batzuek nabarmendu zuten informazioa eta denbora eman behar dela, eta horretarako prestatu egin behar dutela. Beste batek, berriz, adierazi zuen parte hartuko duela, baldin eta errespetatuta sentitzen bada, eta biktima guztiek aukera bera baldin badute. Ebaluazioan egon ez zen pertsona batek honako mezua hau bidali zigun, terrorismoaren biktimekin egin beharreko ikerketa guztietan prestatzeko eta beti kontu handiz ibiltzeko eskakizunerako gidalerro gisa balio lezakeena.

"Eskerrak eman nahi nizkizueke Kriminologiako Gradutik egiten ari zareten lan guztiagatik. Kontu handia eskatzen duen lana dela esango nuke; izan ere, sufritu duten/dugun pertsonon sentiberatasuna ez mintzen ahalegintzeak sentiberatasun berezia eskatzen du, baita premiazko hainbat ezagutza edukitzea ere... Lasaigarria eta indargarria da bizitzak ekarri dizkigun sufrimendu bidegabe hauek jasan ostean ustez eman beharko liguketen tratua jaso izana. Eroso sentitu naiz zuen artean.

Interesgarria iruditzen zait, halaber, topaketa-lekuak izatea; alegia, guztiok parte hartu ahal izateko, elkar ezagutzeko, hitz egiteko, entzuteko eta beste pertsona batzuekin ikasteko lekuak. Nahiz eta pertsonalki ez ezagutu, ikusitako edo entzundako albisteekin lotzen ditugun pertsonekin elkartzeko tokiak.

Horregatik guztiagatik, mila esker, berriz ere, eta jakin hementxe naukazuela edozertarako".

Bestalde, **dinamizatzaileen ebaluazioak** emaitza orokor positiboak eman zituen (ikus 3. eranskineko ebaluazio-eskema). Hobetzeko alderdien artean aipatu zituzten, hain justu, dinamiken arteko koordinazio hobea eta laguntza gisa musika-piezak erabiltzeko aukera. Gainera, aurreko urteetan bezalaxe, emakume gehiagok parte hartu dute. Eta hori ez dago justifikatuta alargunen parte-hartzearekin; izan ere, oraingoan, alargun bakarrak parte hartu baitu.

87 Hauek ziren emandako aukerak: ongi, hala-holakoa, gaizki.

8. Laburpena

Onartzen dugu ikertzaileok mugak ditugula lortutako emaitzak aztertu eta moldatzeko; betiere, zientziaren zorrotasunari helduta, baina oraingoan, gizarte-zientzietan objektibotasun-eredu estutik areago joan gara. Hainbat zientzia-erakundek zorrotasun horretarako gidalerrotzat jo dituzte ikerketa honetan jarraitutako gidalerroak; hain zuzen, honako hauek: galdera garrantzitsuak aukeratzea, enpirikoki eta modu zuzenean iker daitezkeenak; horiek sendotutako teoriarekin duten lotura; argudio-lerroaren azalpen garbia; eta azterlanei erantzuteko eta beste ikertzaile batzuek emaitzak aztertzeko aukera izatea (Mayring 2014, 9).

Aurreko kapituluak hizpide hartuta, taldeetatik ondorioztatu den ideia nagusia da biktima gehienek memoriaren zereginari jarri diotela arreta, nahiz eta aitorten-eske azaldu diren, eta euren entzutea ere nahi duten; askotarikotasunaren barnean, hainbat memoria mota baztertu dituzte. Kapitulu honetako 1. idazpuruan adierazi dugun moduan, eztabaida-taldeen emaitzak honako txantilo honen arabera laburbil ditzakegu⁸⁹:

VI. Ondorioak

Memoriak hortxe jarraituko du, nahiz eta beti ez asmatu edo jakin nola iritsi bertara edo nola iritsi aringarria izan litekeen bere baliora. Pharmakon bat da, botika gisa zein pozoiz gisa joka dezakeena, baina, nolana ere, gizakiaren zuhaitza elikatzen duen sustraia da” (Díaz 2013, 49).

1. Memoria kontzeptua eta eskubidea

Lan honetan landutako memoriaren kontzeptu orokorra biktimizazio terroristaren, bigarren mailako biktimizazioaren eta bi horien bidegabekeriaren aitortenari lotzen zaio batik bat. Nolanahi ere den, biktima-esperientzietan, oso zaila izaten da ‘memoria’ kontzeptua ‘justizia’, ‘egia’, ‘erreparazioa’ eta ‘berri ez erreparazioa’ kontzeptuetatik bereiztea; izan ere, horiek guztiak biktimen eskubidetza jotzen dira giza eskubideen urraketa larri buruzko nazioarteko araudian eta baita barne-araudian ere, bereziki, terrorismoari dagokionez.

Memoria eskubide beregain gisa positibitzea, esaterako, terrorismoaren biktimen giza eskubideen aldeko pausotzat jo liteke. Landutako literatura espezializatu gehienak betebeharrak gisa aipatzen du memoria; batik bat, Filosofiatik, Historiatik, Zientzia Politikotatik eta Zuzenbidetik. Dena den, bestelako eztabaida baten sorrera sumatzen da, Latinoamerikan hasiberria. Han, hainbat legek espresuki aitortu dute memoriarako eskubidea, eta biktimen auzitegiaren egikaritu dute eskubide hori, baita nazioarera iritsi ere. Alabaina, oraindik ez dugu azterlan enpirikorik, biktimen eta gizartearen ongizateari eta interesari begirako erabaki judizial horien konponbidezko ondorioak ebaluatuko dituenik.

Inolako zalantzarik gabe, memoria kontzeptuak –bere ertz historiko, politiko, etiko eta espiritualekin– sobera gaintzen du dimentsio juridikoa; hala, araudi-kategoria batean txertatzeko zeinahi asmok (eskubide subjektibo zein kolektibo gisa) ezinbestean ekarriko ditu ezin konta ahala arazo legeak interpretatzeari eta aplikatzeari dagokienez, hitz hanpatsu baina sinbolikoekin itxaropen faltsuak sortzean bigarren mailako biktimizazioa eragiteaz gainera.

Boluntarismo-joeretan erori gabe, eta Historia ez bezalako zerbait dela jakinda –Historia beti da beharrezkoa egiari heldu ahal izateko–, badirudi egokiagoa dela memoria kontzeptua Etikaren esparruan⁹⁰ txertatzea; edo gutxienez, hortik abiatzea. Arlo horretan, eskubideez baino gehiago, betebeharrak hitz egin beharko genuke. Berezi, gizartearen betebeharrak, eta hala badagokio, erakundearen betebeharrak. Horrek guztiak jarduteko eta parte hartzeko ezin konta ahala modu ekarriko ditu.

Nolanahi ere, positibismoa versus iusnaturalismoa betiereko eztabaida mahai gainera ekarrita, literatura konparatuaren eta barne-literaturaren analisiaren bidez, ohartuko gara nola askotan ez dagoen adostasunik

⁸⁹ Gil Dekel-ek landutako Streaming knowledge research method (SKM) izeneko metodoaren baitan. Ikusi <http://www.poeticmind.co.uk/research/ideas-into-practice-words-into-objects-research-method-art/> orrialdea.

⁹⁰ Goffman-ek (1974) “analisi-esparrua” kontzeptuari ematen dion zentzuan.

giza eskubideetan oinarritutako balioen interpretazioari dagokionez, eta balio horiek dira, hain justu, memoriaren politika edo praktika ororen zimendu eta gidari. Balio horiek argi eta garbi adierazita egoten dira batzuetan legetan; horren lekuko ditugu Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeak, terrorismoaren biktimen memoriari dagokionez. Alabaina, edukiari buruzko era askotako interpretazioak egon daitezke, eta horrek memoria askotariko eta ireki baten kontzeptuarekin dauka harremana, nahiz eta biktimetako batzuek nahasgarritzat edo justifikatzailetzat jo.

2. Memoria kontzeptua eta biktimologia: biktimen ekarpena

Biktimologiari, hain zuzen, biktimen begirada, esperientzia eta isiltasuna⁹¹ interesatzen zaio. Biktimologiak giza bizitzaren zatitzat ulertzen du biktimizazioaren dimentsio narratiboa. Zoriontsu izatera behartutako eta soilik sintomak aztertzen dituen gizarte honetan, biktimen minak eta ezkortasunak aukera ematen du bertan eten laburra egiteko, plan hau edo pixkanaka baina etengabe aurrera egitea beste helbururik ez duen zeinahi plan zalantzan jarriz eta geldiaraziz. Eten bat egiteak ez du ezinbestean esan nahi ezintasuna dagoenik; baizik eta begiratzeko pedagogia ahalbidetzen duen beste indar mota bat dagoela (Han 2012, 53-60). Azken urteotan IVAC-KREI institutuak egindako hainbat eztabaida-taldetan eta elkarrizketatan oinarrituta, esan genezake biktima askori axola zaiela ez soilik memoriari buruz duten begirada aintzat hartzea, baizik eta gizarteak beste modu batera begiratzen ikastea. Min ematen diete herrikideen begirada errealek, eta baita aitortpenik gabeko, axolagabetasunezko, manipulaziozko zein mesprezuzko keinu bidezko begirada metaforikoek ere. Etena egin biktimen begirada nekatuan, baina ez akatuan, biktimen begirada geldian, eta beste errealtate batzuetan sartzeko aukera izango dugu, eta era horretan, nor bere buruari edo gizarteak inposatutakoak baino askoz ere konplexuagoak eta lausoagoak diren nortasunetatik besteekin topo egiteko, hurbiltzeko, hitz egiteko eta konfiantza hartzeko aukera izango dugu.

3. Espazio publikoa eta memoria: kultura, komunitateak eta memoriaren errituak

Memoria kontzeptua arlo honetan sortu berriak diren diziplinetatik era landu dugu: Giza Geografia eta Antropologia Kulturala, hain justu. Bietan egiten da 'kultura', 'espazio publikoa' eta 'herritarrekiko harremana' kontzeptuei buruzko gogoeta.

Ikusgaitasuna, espazio publikoan

Espazio kontzeptua ez da mugatzen toki fisikora, giza esperientzian eta haren oroitzapenean duen garrantzia gutxietsi gabe⁹². Ikuspegi zabalago batetik, espazioa ez da edukitzaille hutsa (Relph 1976), ezta memoriaren eszenatokia ere. Espazioa, haatik, alderdi fisikoen eta kulturalen multzoa da, bertan hamaika harreman gertatzen direla, eta sarri askotan, okerrekoa da azaldutako dikotomia: publikoa/pribatua. Horregatik, egile batzuek nahiago dute "atmosfera" hitz egin, espazio publikoaren alderdi ikusezinak, baina funtsezkoak halere, nabarmentzeko. Alderdi horiek adieraziko baitute zein den erreferentziako komunitatea.

Memoriaren denborak eta espazioak

Lanean zehar, memoriaren nonahikotasuna eta unibertsaltasuna izan ditugu hizpide. Hala, memoria digitalaren proiektuek tokia aurkitu dute ziberespazioan⁹³, ezagunagoa berehalakoa eta nonahikoa izateagatik, eta ez hainbeste bere izaera geografiko-fisikoagatik. Dena den, hurrengo atalean aipatuko ditugun abantaila guztiak izanagatik, aipatzekoa da espazio birtualean ez dagoela topaketarako eta eztabaidarako tokirik; ondorioz, memoriak hotzagoak edo urrunagoak izango lirateke.

Memoriaren ekonomia

Memoriaren ekonomiak zerikusia dauka memoriaren jardunen kostu eta onurekin. Asko eta asko ez dira ukigaiak, ezta neurgarriak ere. Modu zehatzagoan, bi erronka jarri behar ditu aurrez aurre (Varona 2014):

91 Ikusi isiltasunaren arte-interpretazioari buruzkoa, zentzu negatiboan, giza eskubideen urraketa larriekin lotuta, Rafael Landea artista argentinarraren erakusketa (<http://www.mapsofsilence.com/>), erreferentzia hemen duena: <http://www.corpsesofmassviolence.eu/field-notes/denial/2012/03/14/art-installation-map-of-silence/>.

92 Espazioa hautemateko modua eta harekiko lotura hizpide hartuta.

93 Cfr., esate baterako, <http://museum.gulagmemories.eu/en>.

MEMORIA										
ERAGINDAKO KALTE PERTSONALA ETA GIZARTE-KALTEA AITORTZEA										
GAIA	DEFINIZIOA	AURKEZPENAK				ZER DA MEMORIA? ETA ZERTARAKO BALIO DU?			PROPOSAMENAK BILTZEA	
		ENTZUTEKO ETA ENTZUNAK IZATEKO INTERESA, IKASTEA	BIKTIMEN KATEGORIARIK EZ EZARTZEKO INTERESA	MANIPULATUAK EZ IZATEKO INTERESA	TERRORISMOAREN DESLEGITIMAZIOA	GIZARTEARI INTERPELAZIOA	ETORKIZUNA	EKITALDI XUMEAK	ADOSTASUNA	MEMORIA DIGITALA
AZPIKATEGORIAK	MIN ETENGABEA	ERRESPETUA	ADOSTASUNA	EGIA, JUSTIZIA, ERREPARAZIOA, ERREPIKAPENIK EZA	GORROTORIK EZA	ETIKA ETA GIZA ESKUBIDEAK	GORROTORIK EZA	BEREZKERIARIK GABE	HEZIGARRIA	
		PERSONALIZATZEA	INPUNITATERIK EZA	OROITZAPENA	JUSTIFIKAZIORIK EZA	LEKUKOTASUNAK	NEGAR-EGINGARRIAK SAIHESTEA	HIZKUNTZA GARBIA ERABILTZEA	GIZARTEARI IREKIA	
		DIVERSIDAD	PARTE-HARTZEA	AITORPENA	GAZTEAK	ERANTZUKIZUNA EGOZTEA	PERTSONALIZATUAK	ZAJURIAK USTEL GAINEAN EZ IXTEA	KRITIKOA	
ONDORIOAK	Memoria kontzeptuak bidegabe egindako oso kalte sakonari eta premia zein sentimendu oso konplexuei (esaterako, terrorismoaren deslegitimazioa) esanahia ematen die				Esanahi hori izuli egin daiteke, bere konplexutasuna hobeto adierazteko, sorkuntzako moduetan (hezigarriak edo/eta artistikoak), erantzukizunezko memoria inklusiboa izateko			Sorkuntzako prozesu horretan (diseinuan, garapenean, ebaluazioan eta eguneratzean), biktime guztien parte-hartze aktiboa bermatu behar da, euren eskubide eta premiak errespetatuta		
ONDORIO OROKORRA	BIKTIMARIK GABE, EZINEZKOA DA MEMORIA ETIKO BAT EGITEA. MEMORIAK BERAREKIN DAKAR BIKTIMIZAZIOAREN IRAUNKORTASUNA AITORTZEA: EZ DA IRAGANEKO KONTU BAT, BAIZIK ETA GAUR EGUNGO SUFRIMENDU BAT, PERTSONENGANA, ESPAZIOETARA ETA DENBORAN HEDATZEN DENA; ETA BERE ARRETAK NEURRI OSAGARRIAK ETA KOHERENTEAK ESKATZEN DITU									

- Alde batetik, biktimizazio larriei buruzko dokumentazio idatzirako, ikus-entzunezko dokumentaziorako eta artxiboetarako sarbidea errazteko eta gordetzeko erronka.
- Eta, bestetik, etorkizuneko belaunaldientzat, memoriaren hizkuntza adierazgarriak aurkitzeko erronka (ikus-entzunezkoetan eta artean oinarritutako sorkuntza-lanarekin), zientzia-analisiaren garrantzia galdu gabe.

Ziberespazioan irekitako aukerei esker, memoriaren jarduera pribatu eta publiko ugari egin ahal izango dituzte, bereziki, belaunaldi gazteek. Hor txertatuko genuke komunikabide digitalen egitekoa; oso egiteko garrantzitsua, kontuan izanda, batzuetan, memoriarekin lotutako jardunei komunikabideetan ematen zaien tratamendua biktima gehienek esperientzietatik urrun dagoela (Kadmon 2014).

Memoriak, manipulatu izango ez bada, Historiak eta biktimen lekukotasunek argitutakoa izan beharko du. Botere-asimetriei galga jartzeko borondateak terrorismoaren biktima batzuen ahotsak beste batzuen ahotsen gainetik jartzea saihestu beharko du.

Nolanahi ere den, memoria beti izango da ez-perfektua, eta giza eskubideei dagokienez orainari lotuta joango da. Politiketan eraginkortasun kontzeptuaren intereseko ulermenagatik orrialdea pasatzeko eta aurrera egiteko premia hertsia izanda ere, topaketarako geldialdi barea izango da memoria.

Memoriak, etikoki koherentea izateko, parte-hartzea eta osagarritasuna eskatzen ditu, eta biktimek ez dute beti hala denik uste, nahiz eta, udaletxe batzuen salbuespenarekin, memoriaren jardunak ugariak izan euskal testuinguru publiko zein pribatuan –III. kapituluaren ondoriozta daiteke hori–.

4. Ikuspegi konponarazle batetik, memoriaren politika eta jardunetarako aholkuak

Memoria konponarazleak ekintza garrantzitsuak bilatzen ditu biktimentzat, sinbolikotik harago. Eta horretarako, biktima-eragilearen konponbidezko begirada txertatzen du. Ekintza horiek zerikusia dute biktimizazioaren dimentsio objektibo eta subjektiboekin (lehen mailakoa eta bigarren mailakoa), jasandako bidegabekeriaren aitortpenarekin eta biktima gisa behar duten aitortpenarekin. Memoriarekin lotutako ekintzak dira, gizarte pluralista batean duten parte-hartzea aitortuko dutenak. Ekintza horietan, onarpena, harrera, konfiantza eta lasaitasuna sentituko dute, eta ez ukoa, zalantza jartzea eta izua. Memoria konponarazlearekin lotutako jardunek hurbileko gizarteak eratutako mezua ere badaukate: terrorismoaren deslegitimazioa, eta bide horretatik, herritarren memoria konponarazle bati buruz hitz egin dezakegu.

Memoria konponarazlearekin lotutako jardueren helburua ez da bakarrak izatea, baizik eta bestelako memoria-jarduera batzuen osagarriak, eta nola ez, egiarako, justiziarako, erreparaziorako eta berriz ez errepikatzeko bermerako mekanismoen osagarriak izatea. Jardueren bazterreko izaeraren baitan, bermatu behar da parte hartzeko berdintasuna izatea, eta jarduerak adierazgarriak izatea kaltea jasan duten pertsonen eguneroko bizitzan, ñabarduratarako eta eraldaketarako ahalmenarekin. Horretarako, beharrezkoa da eragile publiko zein pribatu ugariren lankidetzaren izatea, eta prozesuetarako bideratzaile onak trebatzea.

Ikuspegi malgu eta sormeneko batetik, erreparazioa bultzatzeko topaketa baten bidez –berorren helburuen artean dago terrorismoaren deslegitimazioa, hurbileko komunitatearen laguntzarekin eta belaunaldi gazteengan eragina izanda–, biktimen parte-hartze aktiboa eta biktima-eragileek beren erantzukizuna onartzea ekarriko duen jardun oro (zentzu zabalean), gutxi-asko, memoria konponarazlearen jarduera bat litzateke.

5. Terrorismoaren biktima batzuen iritziarekin alderatzea

Ikerketa-lan honen atalean, alderatu egin ditugu, batetik, azterlan akademikoetako analisisetatik edo memoriaren ekintza politiko edo pribatutik eratorritako aurreko ondorioak, eta bestetik, hogeita bi biktimaren iritziak –EAE talde terroristek egindako hilketa edo hilketa-saialdietako biktima zuzenak edo zeharkakoak–, eta baita IVAC-KREI institutuak 2013. urtean egindako ikerketa-lanetik aterako ondorioak ere –EAE talde terroristek hildako pertsonen senitartekoei egindako 154 galdetegi eta zeharkako hogeita lau biktimarekin egindako bi eztabaida-talderen analisia–. 2013ko galdetegiaren emaitzak eta 2013 zein 2014ko eztabaida-taldeen emaitzak oso antzekoak dira. Horrek indartu egiten ditu horietan ateratako ondorioak; betiere, biktimen askotarikotasuna eta euren biktimizazioaren dimentsio subjektiboaren dinamismoa aintzat hartuta.

Biktima gehienek ez dute ikusten memoria eskubide gisa, edo ez dute, bederen, horren kontzientziarik –memoria, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Espainiako araudian jasota dagoen gisa, ez baitute ezagutzen–. Aitzitik, memoria hitza, lehenik eta behin, gizarteak oro har duen betebeharrarekin lotzen dute; eta bigarrenik, erakundeek duten betebeharrarekin. Era berean, taldeetan ez da hitz egin biktimek eurek memoriarako duten

betebeharraz, nahiz eta ispilatu duten beren senitartekoen memoriagatik duten konpromiso pertsonala⁹⁴, ondorengoekiko konpromisoari begira, etorkizunean, bakean eta bidezketasunean oinarritutako gizartea izateko.

Dena den, parte hartu duten biktimek memoriarako duten eskubide espezifikoaz daukaten ikuspegi orokorraren gabeziak eta udaletxe zein auzitegien aurrean erreklamazio formalik egin ez izanak (hein batean, erakundeei begira duten eszeptizismoa erakusten du horrek)⁹⁵, ez dute inolako zerikusirik memoriarekin lotutako ekintza parte-hartzaile, hurbileko eta pertsonalizatuak, espazio publikoan egindakoak, argi eta garbi eskatzearekin, era horretan, memoriaren gizarte-dimentsioa aitortu. Zaila da jakiten zer den zehazki biktima bakoitzak espazio publikoan “hurbiltasuna” hitzarekin esan nahi duena. Baina ondorioztatu genezake memoriarekin lotutako ekintza garrantzitsutzat jotzen dituztela, era batean zein bestean, euren parte-hartzea dutenak, eta parte-hartzeari, benekotasunari eta koherentziari begira berdintasuna ispilatzen dutenak, sinbolismo hutsetik harago. Horrekin lotuta, biktima batzuek uste dute memoriarekin lotutako ekintzak garaiz kanpokoak eta inkoherenteak direla, aurretik egiagatik, justiziagatik, erreparazioagatik eta oro har gizarte eta erakundeen babes zein aitorpenagatik inolako ahaleginik egin ez bada –batik bat, udalerrietan–.

94 Horrek azaltzen du, hein handi batean, nola hartu duten parte gure eztabaida-taldeetan.

95 Eta baita horiek legeetan daukaten izaera programatikoa dela tarteko.

Bibliografia

- Aguilar Fernández, Paloma. 2008. *Políticas de la memoria y memorias de la política*. Madrid: Alianza.
- Alexy, Robert. 1993. *Teoría de los derechos fundamentales*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales.
- Alonso Zarza, Martín, koord. 2012. *El lugar de la memoria. La huella del mal como pedagogía democrática*. Bilbo: Bakeaz.
- Alonso, Martín eta Alonso Martín Zarza, koord. 2012. *El lugar de la memoria. La huella del mal como pedagogía democrática*. Bilbo: Bakeaz 2012.
- Álvaro, Fransec-Marc. 2012. Elkarrizketa Francesc-Marc Álvaro, *La Vanguardia.com*, 28.03.12. Eskuragarria hemen <http://www.lavanguardia.com/libros/sant-jordi/20120328/54278348227/fransec-marc-alvaro-la-memoria-historica.html>.
- Anderson, B. 2009. Affective atmospheres, *Emotion, Space and Society* 2: 77-81.
- Andrea, Thoma. 2006. The making of place to enable memory, *Journal of Visual Art Practice* 5, 1-2: 83-93.
- Arana Mariscal, Ricardo. 2012. *Las víctimas en la educación vasca: un testimonio de valor*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central De Publicaciones Del Gobierno Vasco. Eskuragarria hemen: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43573/es/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/es_conviven/adjuntos/600018c_Pub_EJ_biktimak_c.pdf.
- Arendt, Hannah [1965] 2001. *Hombres en tiempos de oscuridad*. Bartzelona: Gedisa.
- Arnheim, R. 1969. *El pensamiento visual*. Bartzelona: Paidós, 1986.
- Arregi, Joseba. 2013a. Víctimas y democracia, *El Correo*, 13.11.23.
- Arregi, Joseba. 2013b. Aleccionando a las víctimas, *El Diario Vasco*, 13.10.29.
- Bandes, Susan A. 2013. Remorse and demeanor in the courtroom: cognitive science and evaluation of contrition, *DePaul University College of Law Legal Studies Research Paper Series* 14-05. Eskuragarria hemen: <http://www.depaul.edu>.
- Bandura, Albert. 1987. *Mechanism of moral disengagement*. Stanford: Stanford University.
- Banks, M. eta Ruby, J., arg. 2011. *Made to Be Seen. Perspectives on the History of Visual Anthropology*. Chicago: The University of Chicago Press.
- Bar, Moshe. 2011. *Predictions in the Brain: Using our Past to Generate a Future*. New York: Oxford University Press.
- Baratta, Alessandro. 1995. Ética e pós-modernidade. In *Ética na comunicação*, Ester Kosovski-k koordinatuta, 3. arg. Río de Janeiro: Mauad.
- Barbosa Delgado, Francisco R. 2013. La memoria, la historia y el derecho a la verdad en la Justicia Transicional en Colombia: una paradoja irresoluble en el conflicto armado colombiano, *Revista Derecho del Estado* 31: 97-117.
- Barrenetxea Maraón, Igor. 2015. ETA en el cine, *Deia*, 15.02.02, bertsioa linean.
- Barthes, R. 1980. *La chambre Claire. Note sur le photographie*. París: Gallimard.
- Bartlett, F. 1932. *Remembering: A Study in Experimental and Social Psychology*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bassi Follari, Javier (2014). Cualitativo/Cuanti: La distinción paleozoica. *Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social Research* 15, 2. Eskuragarria hemen: <http://nbn-resolving.de/urn:nbn:de:0114-fqs140279>.
- Benjamin, Walter. 1969. Theses on the Philosophy of History. En *Illuminations*. New York: Schocken Books.
- Benjamin, Walter. 1978. *Para una crítica de la violencia*. Mexiko: Premiá Editora.
- Beristain Ipiña, Antonio. 2007. *Víctimas del terrorismo. Nueva justicia, sanción y ética*. Valentzia: Tirant lo Blanch.
- Bernal Pulido, Carlos. 2007. Los derechos fundamentales y la teoría de los principios. ¿Es la teoría de los principios la base para una teoría adecuada de los derechos fundamentales de la constitución española? *DOXA, Cuadernos de Filosofía del Derecho* 30: 273-291.

-
- Bickford, Louis. 2014. Memoryworks/memory works. En *Transitional Justice, Culture and Society: Beyond Outreach*, Clara Ramírez-Barat-ek argitaratua. New York: Gizarte Zientziei buruzko Ikerketen Kontseilua.
- Bilbao, Galo, Felicísimo Martínez, Reyes Mate eta Marcos R. Ruiz. 2013. *Posterrorismo. De la culpa a la reconciliación*. Bartzelona: Anthropos.
- Bilbao, Galo, Francisco Javier Merino eta Izaskun Sáez de la Fuente. 2013. *Gesto por la Paz. Una historia de coraje y coherencia ética*. Bilbo: Bakeaz.
- Blagg, H. 2013. Restorative Justice in a Crowded Market Place of Ideas: Challenges & Opportunities for Relevant Practice in the Coming Years, *European Forum for Restorative Justice Newsletter* 14: 1.
- Bloor, Michael, Jane Frankland, Michelle Thomas eta Kate Robson. 2001. *Focus groups in social research*. Thousand Oaks, CA: Sage.
- Braithwaite, John. 1989. *Crime, shame and reintegration*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Braithwaite, J. 2006. Narrative and "Compulsory Compassion", 31 *Law & Social Inquiry* 31: 423-444.
- Braithwaite, John. 2014. Evidence for Restorative Justice, *Vermont Bar Journal* 40, 2: 18-27.
- Braithwaite, John eta Stephen Mugford. 1994. Conditions of successful reintegration ceremonies. Dealing with juvenile offenders, *British Journal of Criminology* 34, 2: 139-171.
- Bridge, G. and Watson, S. 2011. Reflections on Affect. En *The New Blackwell Companion to The City*, Argitaratzaileak: G. Bridge and S. Watson. Malden, MA: Wiley-Blackwell.
- Bueno Arús, Francisco. 2005. Hitzaurrea. En *Ley General Penitenciaria. Comentarios, jurisprudencia, concordancias, doctrina*. Madril: Colex.
- Butler, Judith. 2010. *Marcos de guerra. Las vidas lloradas*. Bartzelona: Paidós.
- Cabeza, José eta Julio Montero. 2012. El terrorismo de ETA en el cine documental. Dos ejemplos del uso de los recursos narrativos en la representación de las víctimas, *Palabra clave* 15, 3: 461-481.
- Cabrera Suárez, Lizandro Alfonso. 2013. El derecho a la memoria y su protección jurídica: avance de investigación, *Pensamiento Jurídico* 36: 173-188.
- Calvo Serraller, Francisco. 2014. Supervivencia, *El País Babelia*, 19 or.
- Canarias Fernández-Cavada, Esther eta Fernando Altamira Basterretxea. 2014. *Polifonía abierta. Voces que incorporan a la sociedad civil en la búsqueda de la paz*. Bilbo: Iniciativa de Cooperación y Desarrollo.
- Candau, J. 1998. *Memoire et identité*. Paris: Presser Universitaires de France [Ed. gazt. *Memoria e identidad*. Buenos Aires: Del Sol].
- Carlsmith, Kevin M., Timothy D. Wilson eta Daniel T. Gilbert. 2008. The Paradoxical Consequences of Revenge, *Journal of Personality and Social Psychology*: 1-9.
- Carmena, M., J. M. Landa, R. Múgica eta J. Uriarte. 2013. *Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en el caso vasco (1960-2013)* (Vitoria-Gasteiz, Basque Government). Eskuragarria hemen: <http://www.eskolabakegune.euskadi.net/web/eskolabakegune/informe-base-de-vulneraciones-de-derechos-humanos-en-el-caso-vasco-1960-2013>.
- Carrascosa, Alex. 2014. On The 'Dia-Tekhnē • Dialogue Through Art' Methodology, *Journal of Peace Education and Social Justice* 8, 1: 62-91.
- Case, C. eta T. Dalley. 1992. *The handbook of Art Therapy*. Londres: Routledge.
- Cava & Seguí. 2014. *Las oscuras manos del olvido*. Bartzelona: Norma.
- Chapman, Tim, Derick Wilson eta Hugh Campbell. 2012. Restorative approaches in local conflicts of Northern Ireland. Alternative. Developing alternative understandings of security and justice through restorative justice approaches in intercultural settings within democratic societies. Deliverable 7. 1.: Literature review on restorative approaches in local conflicts of Northern Ireland. Eskuragarria hemen: <http://www.alternativeproject.eu>.
- Clamp, Kerry. 2013. *Restorative justice in transition*. Londres: Routledge.
- Closa, C. 2010. Negotiating the Past: Claims for Recognition and Policies of Memory in the EU. Instituto de Políticas eta Bienes Públicos (IPP), CCHS-CSIC, Working Paper 8. Eskuragarria hemen: <http://hdl.handle.net/10261/24430>.
-

- Collier, J. J. eta M. Collier. 1986. *Visual Anthropology: Photography as a Research Method*. Albuquerque: University of New Mexico Press.
- Cuesta, Cristina. 2000. *Contra el olvido. Testimonios de víctimas del terrorismo*. Madril: Temas de Hoy.
- Dauber Konvisser, Zieva. 2013. Themes of Resilience and Growth in Survivors of Politically Motivated Violence, *Traumatology* 19(4) 292–302.
- De Baets, Antoon. 2004. A declaration of the responsibilities of present generations toward past generations, *History and Theory* 43: 130-164.
- De España, R. 2012. *La ola perfecta*. Bartzelona: EDT.
- De Greiff, Pablo. 2005. El deber de recordar ¿el peso muerto del pasado o el peso de los muertos del pasado? En *Razones de la justicia. Homenaje a Thomas McCarthy*, María Herrera eta Pablo de Greiff-ek bildutakoa. México: UNAM-Instituto de investigaciones filosóficas.
- De la Cuesta Arzamendi, J. L., zuz. 2014a. *Víctimas del terrorismo residentes en la CAV: Desazón y esperanza en víctimas indirectas de asesinatos*. Urtea: 2013. Donostia: UPV/EHU.
- De la Cuesta Arzamendi, José Luis. 2014b. Retos victimológicos para la convivencia pacífica en la sociedad vasca actual, *Eguzkiloare. Kriminologiaren Euskal Institutuaren Koaderno*, 28: 217-230.
- Dos Santos, Dailor. 2010. O direito à memória em face das violências autoritárias: os riscos e os desafios da (re) construção do passado a partir das possibilidades jurídicas e perspectivas éticas da memória. Disertación presentada en el Posgrado den Derecho del Área de Ciencias Jurídicas de la Universidad de Vale do Rio dos Sinos. São Leopoldo.
- Echeburúa, Enrique. 2013. Modulación emocional de la memoria: de las vivencias traumáticas a los recuerdos bibliográficos. Instituto Vasco de Criminología/Kriminologiaren Euskal Institutuaren 2013-2014 ikasturtearen hasierako hitzaldia. Donostia, 2013ko azaroaren 7a.
- Echeburúa Odriozola, Enrique. 2014. Modulación emocional de la memoria: de las vivencias traumáticas a los recuerdos biográficos, *Eguzkiloare. Kriminologiaren Euskal Institutuaren Koaderno* 28: 169-176.
- Edwards, I. 2004. An Ambiguous Participant: The Crime Victim and Criminal Decision-Making, *British Journal of Criminology*, 44: 967-982.
- Efrat Ben-Ze'ev, Efrat, Ruth Ginio eta Jay Winter, arg., 2010. *Shadows of War. A Social History of Silence in the Twentieth Century*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Egbo, Rina. 2008. *Memorializing the Victims of Terrorism*. Research and Statistics Division. Department of Justice Canada.
- Escudero Alday, Rafael. 2013. Los tribunales españoles ante la memoria histórica: el caso de Miguel Hernández, *HISPANIA NOVA. Revista de Historia Contemporánea* 11. Eskuragarria hemen: <http://hispanianova.rediris.es>.
- Estévez Araujo, José A., arg. 2013. *El libro de los deberes. Las debilidades e insuficiencias de la estrategia de los derechos*. Madril: Trotta.
- Etxebarria Mauleon, Xabier. 2010. Víctimas y memoria, *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global* 109: 57-65.
- Etxebarria Mauleon, Xabier. 2014. Del conocimiento de la memoria pasando por el reconocimiento. En *Justicia, verdad, reparación. De los derechos de las víctimas a las tareas de la sociedad*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Faro, Laurie. 2015. *Postponed monuments in the Netherlands. Manifestation, context, and meaning*. Tilburg-ko Unibertsitatean defendatutako tesia (Herbehereak).
- Fellegi, Borbála eta Dóra Szegó. 2013. *Handbook for facilitating peacemaking circles*. Project "Peacemaking circles in Europe". P-T Mühely. Eskuragarria linean.
- Ferenczy, Thomas, zuz. 2002. *Devoir de mémoire, droit à l'oubli*. París: Complexes.
- Fernández de Casadevante, C. 2012. Impacto de la normativa internacional en materia de víctimas de delitos graves, especialmente de terrorismo, y de abuso de poder, *Eguzkiloare. Kriminologiaren Euskal Institutuaren Koaderno*, 26: 157-171.
- Ferrándiz, Fernando. 2005. La memoria de los vencidos en la guerra civil: el impacto de las exhumaciones de fosas comunes en la España contemporánea. En *Las políticas de la memoria en los sistemas democráticos: poder, cultura y mercado*, J. N. Valcuendek eta S. Narotzky-k argitaratutakoa, argit. Sevilla: El Monte.

-
- Fonseca, Carlos, zuz. 2014. Informe sobre la situación procesal de los atentados perpetrados por organizaciones terroristas con resultado de muerte entre 1960 y 2014. Caso vasco. Vitoria-Gasteiz: Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia.
- Fraser, Ronald. 1979. *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*, I. Bartzelona: Crítica.
- G. Sánchez, s. f. El papel de las comisiones de verdad como motor de democracia deliberativa e inclusion social. Retos de la verdad y la memoria en medio del conflicto. Memorias, Enfrentando el pasado. Eskuragarria hemen: <http://www.ictj.org/images/content/1/1/1164.pdf>.
- Garaizábal, Juan. 2013. Elkarrizketa *El País Babelian*, 13.06.22, 10-11 or.
- Garay Salamanca, L.J. 2012. *Memoria y reparación: Elementos para una Justicia Transicional pro victim*. Bogota: Universidad Externado de Colombia.
- García Arrizabalaga, Iñaki. 2014. Las víctimas y los victimarios en la construcción de la memoria. En *XI Seminario Fernando Buesa. Políticas de memoria. Qué, cómo y para qué recordar*, Eduardo Mateo Santamaría y eta José A. Pérez-Pérezek koordinatuta. Fernando Buesa Fundazioa eta Valentín de Foronda Institutua.
- Garfinkel, Howard. 1956. Conditions of successful degradation ceremonias, *American Journal of Sociology* 61: 420-424.
- Gesto por la Paz. 2011. Lugares para la memoria. Prentsurrekoa, 2011ko abenduaren 13a.
- Gil, Alicia. 2010. Justicia transicional en España. En *Justicia de transición, justicia penal internacional y justicia universal*, J. M. Tamarit-ek argitaratua. Bartzelona: Atelier.
- Gil, Alicia eta Elena Maculan. 2014. Justicia restaurativa, justicia penal y justicia transicional ante crímenes de terrorismo. En *Actas VI Jornadas de Estudios de Seguridad. Madril, 2014ko maiatzaren 20, 21 eta 22a*, Miguel Requena argitaratuta. Madril: Gutiérrez Mellado Unibertsitate Institutu Orokorra.
- Goffman, Erving. 1974. *Frame analysis*. Boston: Northeastern University.
- Gómez Isa, Felipe, zuz. 2006. *El Derecho a la memoria*. Bilbo: Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.
- Gómez Moral, Ana Rosa. 2013. *Un gesto que hizo sonar el silencio*. Bilbo: Coordinadora Gesto por la Paz de Euskal Herria.
- González Calleja, Eduardo. *Memoria e historia. Vademécum de conceptos y debates fundamentales*. Madril: la catarata.
- Goodale, Mark. 2007. Locating Rights, Envisioning Law between the Global and the Local. En *The Practice of Human Rights. Tracking Law Between the Global and the Local*, Mark Goodale-k eta Sally Engle Merry-k argitaratua. Cambridge: Cambridge University Press.
- Goodman, Leo. 1961. Snowball sampling, *Annals of Mathematical Statistics* 32, 1: 148-170.
- Guenaga, Aitor. 2014. Euskadi se juega la batalla del relato, *eldiarionorte.es*, 14.11.09.
- Guri Tyldum (2012) Ethics or access? Balancing informed consent against the application of institutional, economic or emotional pressures in recruiting respondents for research, *International Journal of Social Research Methodology*, 15:3, 199-210.
- Han, Byung-Chul. 2012. *La sociedad del cansancio*. Bartzelona: Herder.
- Haque, Ahmadul eta María Oianguren Idigoras, koord. 2010. Historias de vida, lugares simbólicos y reconstrucción de identidades en la construcción de la paz. Gernikak Bakea eta Kulturaren Nazioarteko IX. Jardunaldiak, *Gernika Gogoratuz Fundazioaren laneko dokumentuak*, 17.
- Harley, J. B. 2001. *The New Nature of Maps: Essays in the History of Cartography*. Baltimore: The Johns Hopkins University Press.
- Havemann, Will. 2012. Priviledge and the Belfast Project, *Stanford Law Review*. Eskuragarria hemen: <http://www.stanfordlawreview.org/online/privilege-belfast-project>.
- Honneth, Axel. 2004. Recognition and justice: outline of a plural theory of justice, *Acta Sociologica* 47, 4: 351-364.
- Huyssen, Andreas. 2003. *Present Pasts: Urban Palimpsests and the Politics of Memory*. Stanford: Stanford University Press.

- Huyssen, Andreas. s. f. Derechos naturales, derechos culturales y política de la memoria. Eskuragarria hemen: www.hemisphericinstitute.org | www.emisferica.org.
- Impunity Watch. 2012. Perspective Series Conference Report "Breaking the Silence". International Memory Initiatives Exchange Forum, Phnom Penh, Cambodia, 25-29 September 2012. Utrecht: Impunity Watch.
- Impunity Watch. 2013. Policy Brief: Guiding Principles of Memorialisation. Utrecht: Impunity Watch.
- Jones, Owain eta Joanne Garde-Hansen. 2012. *Geography and memory: explorations in identity, place and becoming*. Londres: Macmillan.
- Judt, Tony eta Timothy Snyder. 2012. *Pensar el siglo XX*. Madril: Taurus.
- Juliá, Santos. 2010. *Hoy no es ayer*. Bartzelona: RBA.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiak. 2010. *Hutsuneak/Vacíos*. Donostia: Gipuzkoako Batzar Nagusiak.
- Kadmon Sella, Zohar. 2014. News media and the authority of grief. The journalistic treatment of terrorism victims as political activists. Columbiako Unibertsitatean defendatutako tesia.
- Karstedt, S, arg. 2009. *Legal Institutions and Collective Memories*. Oxford: Hart.
- Kenny, K. 2000. The Right to Participate in International Human Rights Fieldwork, *International Human Rights Network* 18.
- Landa, Jon-Mirena, zuz. 2014. *Justicia transicional: propuestas para el caso vasco*. Institut Universitaire Varenne.
- Leadith Díaz, Ivonne. 2009. El rostro de los invisibles. Víctimas y su derecho a la verdad, justicia, reparación y no repetición. Eskuragarria hemen: <http://www.observatori.org/documents/ivonne.pdf>.
- Lederach, John Paul. 2007. *La imaginación moral. El arte y el alma de la construcción de la paz*. Bilbo: Bakeaz eta Gernika Gogoratuz.
- Letschert, Rianne eta Conny Rijken. 2013. Rights of Victims : Tensions between an Integrated Approach and a Limited legal Basis for Harmonisation, *New Journal of European Criminal Law* 4, 3: 224-254.
- Levy , Daniel eta Sznajder Natan. 2010. *Human Rights and Memory (Essays on Human Rights)*. Penn State University Press.
- Littlejohn, S. W. 1989. *Theories of Human Communication*. Belmont: Wadsworth.
- López Romo, Raúl. 2015. *La gestión pública de la memoria traumática del siglo XX en Europa: Informe sobre dos Memoriales dedicados a las víctimas del Holocausto*. Vitoria-Gasteiz: Valentín de Foronda Institutua, UPV-EHU.
- Lozano, Pamela, Juan Carlos Villamizar eta Erika Antequera. 2014. *Informe Ejecutivo del Foro Internacional de Víctimas. Aporte desde el exilio y la migración colombiana al Proceso de Negociación de La Habana para una reparación integral y retorno digno*. Eskuragarria hemen: www.forointernacionalvictimas.com.
- Marín, Igor. 2014. Memoria que une, memoria que asusta, eldiarionorte.es, 14.11.09
- Martín Beristain, Carlos, Darío Páez, Bernard Rimé eta Patrick Kanyangara. 2010. Efectos psicosociales de la participación en rituales de justicia transicional, *Revista de Psicología* 28, 1: 9-35.
- Martín Pallín, José Antonio eta Rafael Escudero Alday, arg. 2008. *Derecho y memoria histórica*. Madril: Trotta.
- Martín, A. 2013. El viaje de Hades: una ida y vuelta a las ruinas de la violencia (el caso de Euskadi). In *Exilio y cine*, M. P. Rodríguezek argitaratua. Bilbo, Deustuko Unibertsitatea.
- Mate, Manuel Reyes, s. f. El progreso, la velocidad y los accidentes. Sobre la indiferencia moral a propósito de las víctimas de la carretera. Eskuragarria hemen: <http://www.proyectos.cchs.csic.es/fdh/sites/default/files/R.Mate%202011%20Victimas%20viales.pdf>.
- Mate, Manuel Reyes. 2011. *Tratado de la injusticia*. Bartzelona: Anthropos.
- Mate, Manuel Reyes. 2013. *La piedra desechada*. Madril: Trotta.
- Mayordomo Rodrigo, Virginia. 2014. La lucha internacional contra la impunidad. En *Terrorismo e impunidad. Significado y respuestas desde la justicia victimal*, J. L. de la Cuestak zuzendutakoa. Madril: Dilex.
- Mayring, Philipp. 2014. *Qualitative content analysis: theoretical foundation, basic procedures and software solution*. Klagenfurt. Eskuragarria hemen: <http://nbn-resolving.de/urn:nbn:de:0168-ssoar-395173>.

-
- McEvoy, Kieran eta Kirsten McConnachie. 2012. Victimology in transitional justice: Victimhood, innocence and hierarchy, *European Journal of Criminology* 9, 5: 527-538.
- McEvoy, Kieran eta Lorna McGregor, eds. 2008. *Transitional Justice from Below. Grassroots Activism and the Struggle for Change*. Oxford: Hart Publishing.
- Millard, Eric. 2014. ¿Por qué un derecho a la memoria? *Revista Derecho del Estado* 32. Eskuragarria hemen: http://www.scielo.org.co/scielo.php?pid=S0122-98932014000100008&script=sci_arttext&lng=es.
- Millard, Eric. 2014. ¿Por qué un derecho a la memoria? *Revista Derecho del Estado* 32: 145-156.
- Mir Curcó, Conxita eta Josep Gelonch Solé, arg. 2013. *Duelo y memoria. Espacios para el recuerdo de las víctimas de la represión franquista en la perspectiva comparada*. Lleida: Lleidako Unibertsitatea.
- Mitropolitski, Simeon. 2015. Interactive Interview: A Research Note. *Forum Qualitative Sozialforschung/Forum: Qualitative Social Research*, 16, 1. Eskuragarria hemen: <http://nbn-resolving.de/urn:nbn:de:0114-fqs150189>.
- Montero, Manuel. 2013. Recuerdos enfrentados, *El Correo*, 13.11.20.
- Montero, Rosa. 2013. *La ridícula idea de no volver a verte*. Barcelona: Seix Barral.
- Munté, Rosa-Auria. 2011. The Convergence of Historical Facts and Literary Fiction: Jorge Semprún's Autofiction on the Holocaust, *Forum: Qualitative Social Research* 12, 3.
- Nave, E. 2013. *A la hora, en el lugar*. Madrid: PHREE.
- Nora, Pierre. 1992. *Les Lieux du Mémoire*. III.- Le France. Paris: Gallimard.
- Nora, Pierre. 2002. Reasons for the current upsurge in memory, *Eurozine*. Eskuragarria hemen: <http://www.eurozine.com/articles/2002-04-19-nora-en.html>.
- Núñez Fernández, J. 2013. La "doctrina Parot" y el fallo del TEDH en el asunto Del Río Prada c. España: El principio del fin de un conflicto sobre el castigo de hechos acaecidos hace más de veinte años, *Revista de Derecho Penal y Criminología* 9: 377.
- O'Neill, S. eta N. H. Smith, arg. 2012. *Recognition Theory as Social Research. Investigating the Dynamics of Social Conflict*. New York: Palgrave Macmillan.
- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioa, s. f. A Practical Guide for Civil Society. How to follow up on United Nations human rights recommendations. Geneva: Nazio Batuek. Eskuragarria hemen www.ohchr.org/EN/AboutUs/Pages/CivilSociety.aspx.
- Oianguren Idigoras, María eta Karmel Soliño Queiruga, koord. 2010. *Experiencias pedagógicas en torno a la memoria de las víctimas del terrorismo y las dictaduras*. Bilbo: Bakeaz.
- Olalde Altarejos, Alberto. 2015. Estudio multidimensional de algunas prácticas de justicia restaurativa en el País Vasco con lentes de trabajo social (2007-2012). Murtziako Unibertsitatean defendatutako doktorego-tesia.
- Osasunaren Mundu Erakundea, RoadPeace eta European Federation of Road Traffic Victims. 2008. *Día Mundial de Conmemoración de las víctimas del tránsito: una guía para la organización de actividades*. Washington: Osasunaren Erakunde Panamerikanoa.
- Orozco Abad, I. 2009. *Justicia Transicional en tiempos del deber de memoria*. Bogota: Temis/Universidad de los Andes.
- Ortiz de Orruño, José M^a eta José Antonio Pérez, koord. 2013. *Construyendo memoria. Relatos históricos para Euskadi después del terrorismo*. Madrid: La Catarata.
- Osiel, M. 2012. *Mass atrocity, collective memory, and the law*. New Brunswick eta Londres: Transaction.
- Pali, Brunilda. 2014. Art for social change: exploring restorative justice through the new media documentary Inside the distance, *Restorative Justice: An International Journal* 2, 1.
- Pascual Rodríguez, Esther, koord. 2013. *Los ojos del otro. Encuentros restaurativos entre víctimas y ex miembros de ETA*. Santander: Sal Terrae.
- Peco, M. 2014. A cognitive-behavioral approach to violent radicalization, based on a real case, *Psicología Política* 29: 1-20. Eskuragarria hemen: <http://www.uv.es/garzon/psicologia%20politica/N49-2.pdf>.
- Pérez Pérez, José Antonio. 2010. La memoria de las víctimas del terrorismo en el País Vasco: un proyecto en marcha. En *Violencia política. Historia, memoria y víctimas*, Antonio Riverak eta Carlos Carnicero Herrerosek argitaratua. Madrid: Maia.
-

- Pérez, K. 2008. In memoriam 2008. *Reconocimientos sociales e institucionales a las víctimas del terrorismo*. Vitoria-Gasteiz: Giza Duintasunaren Aldeko Elkarte eta Eusko Jaurlaritza.
- Perlin, Michael. 2013. "The Ladder of the Law Has No Top and No Bottom": How Therapeutic Jurisprudence Can Give Life to International Human Rights. International Academy of Law and Mental Health-en nazioarteko kongresuan aurkeztutakoa, Herbehereak, 2013ko uztailaren 14a. Eskuragarria linean.
- Pollack, Michael. 1989. Memoria, olvido, silencio. Renata Oliveirak itzulita, UNLren "Maestría en Historia y Memoria" eta "Antropología de la Memoria y la Identidad" graduondoko ikastarorako. Jatorrizko testua portugesez idatzita dago *Revista de Estudios Históricos* aldizkarian, 2, 3: 3-15.
- Ptacek, James. 2009. Re-imagining Justice for Crimes of Violence against Women. En *Restorative Justice and Violence against Women*, James Ptacek-ek argitaratua. Oxford: Oxford University Press.
- Radstone, Susannah eta Bill Schwarz, arg. 2010. *Memory: Histories, Theories, Debates*. Nueva York: Fordham University Press.
- Raguer, Hilari. 2012. La historia, la memoria y el olvido, *El País* Cataluña, 12.04.17, eskuragarria hemen: http://ccaa.elpais.com/ccaa/2012/04/17/catalunya/1334689078_692318.html.
- Randall, Melanie eta Lori Haskell. 2013. Trauma-informed approaches to law: why restorative justice must understand trauma and psychological coping, *The Dalhousie Law Journal* 36: 501-533.
- Reading, Anna. 2011. Identity, memory and cosmopolitanism: The otherness of the past and a right to memory? *European Journal of Cultural Studies* 14, 4: 379-394.
- Rekarte Ibarra, Iñaki. 2014. Las víctimas y los victimarios en la construcción de la memoria. En *XI Seminario Fernando Buesa. Políticas de memoria. Qué, cómo y para qué recordar*, Eduardo Mateo Santamaría eta José A. Pérez-Pérezek koordinatuta. Fernando Buesa Fundazioa eta Valentín de Foronda Institutua.
- Relph, Edward. 1976. *Place and placelessness*. Londres: Pion.
- Resta, Eligio. 1994. El derecho fraterno. Igualdad y diferencia en el sistema de derecho, *Anales de la Cátedra Francisco Suárez* 31: 187-208.
- Rieff, David. 2011. *Against Remembrance*. Melbourne: Melbourne University Press.
- Rivera, Antonio. 2013. Elkarrizketa, *Boletín periódico digital de la Fundación Fernando Buesa* 43: 1-5.
- Rothberg, Michael. 2009. *Multidirectional Memory*. Standford: Standford University Press.
- Rueda Arenas, Juan Felipe. 2013. "Memoria histórica razonada". Una propuesta incluyente para las víctimas del conflicto armado interno colombiano, *Historelo. Revista de historia regional y local* 5, 10: 15-52.
- Ruiz Soroa, José María. 2013a. Privatizar las víctimas, *elpais.com*, 13.11.06
- Ruiz Soroa, José María. 2013b. La estrategia de las lágrimas, *El Diario Vasco*, 13.11.10, 32 or.
- Salling Olesen, Henning. 2012. The societal nature of subjectivity: An interdisciplinary methodological challenge, *Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social Research* 13, 3. Eskuragarria hemen: <http://nbn-resolving.de/urn:nbn:de:0114-fqs120345>.
- Salvat Bologna, Pablo. 2008. A favor del derecho a la memoria: cinco notas provisionarias. *Revista de Derechos Fundamentales* 2: 201-212
- SAMHSA (Substance Abuse and Mental Health Services Administration). 2014. *SAMHSA's Concept of Trauma and Guidance for a Trauma-Informed Approach*. Rockville, MD: Substance Abuse and Mental Health Services Administration.
- Santarén, Enrique. 2015. La memoria, el nuevo "conflicto", *Deia*, 15.01.11 Eskuragarria hemen: <http://www.deia.com/2015/01/11/politica/euskadi/memoria-conflicto-el-nuevo-la>.
- Sarlo, Beatriz. 2005. *Tiempo pasado: cultura de la memoria y giro subjetivo: una discusión*. Argentina: Siglo XXI Ediciones.
- Schatz, Edward, arg. 2009. *Political ethnography: What immersion contributes to the study of power*. Chicago, IL: University of Chicago Press.
- Schindel, Estela eta Pamela Colombo. 2014. *Space and the memories of violence. Landscapes of erasure, disappearance and exception*. Londres: Plagrove Macmillan.
- Schubotz, Dirk, Martin Melaugh eta Peter McLoughlin. 2011. Archiving Qualitative Data in the Context of a Society Coming out of Conflict: Some Lessons from Northern Ireland, *Forum: Qualitative Social Research* 12, 3.

-
- Schwartz, D. 1989. Visual Ethnography: Using Photography in Qualitative Research, *Qualitative Sociology* 12: 119-154. Eskuragarria hemen: http://sweb.cityu.edu.hk/sm6324/Schwartz_VisualEthno_using-photography.pdf.
- Seamon, David & Jacob Sowers. 2008. Place and placelessness, Edward Relph. En *Key texts in human geography*, P. Hubbard-ek, R. Kitchen-ek eta G. Vallentine-k argitaratua. Londres: Sage.
- Shafir, Michael. 2004. The politics of public space and the legacy of the Holocaust in postcommunist Hungary. Eskuragarria linean.
- Sherman, Lawrence W. eta Heather Strang. 2007. *Restorative justice: the evidence*. Londres: The Smith Institute.
- Sköld, J. 2013. Historical Abuse -A Contemporary Issue: Compiling Inquiries into Abuse and Neglect of Children in Out-of-Home Care Worldwide, *Journal of Scandinavian Studies in Criminology and Crime Prevention* 14: 5-23.
- Snyder, Timothy. 2011. *Tierras de sangre. Europa entre Hitler y Stalin*. Bartzelona: Galaxia Gutenberg.
- Sontag, Susan. 2003. *Regarding the Pain of Others*. New York: Picador.
- Sosa González, Ana María eta Maria Leticia Mazzucchi Ferreira. 2012. Derecho de memoria y búsqueda de la verdad: Un estudio comparativo entre Brasil y Uruguay, *Dialogos - Revista do Departamento de Historia e do Programa de Pós-Graduação em História* 16, 3: 873-896.
- Staiger, Ines. 2008. Restorative Justice and Victims of Terrorism, *Newsletter of the European Forum for Restorative Justice* 9: 1-2.
- Subijana Zunzunegui, Ignacio. 2014. Víctimas, memoria y justicia, *Eguzkilore. Kriminologiaren Euskal Institutuaren koadernoak*, 28: 177-182.
- Sykes, Gresham M. eta David Matza. 1957. Techniques of Neutralization: A Theory of Delinquency, *American Sociological Review* 22: 664-670.
- Tamarit, Josep María. 2012. Los límites de la justicia transicional penal: la experiencia del caso español, *Política criminal* 13: 74-93.
- Taubira, Christiane. 2006. Le droit à la mémoire, *Cités* 25: 164-166.
- Taylor, David. 2014. *Discussion paper. Victim participation in transitional justice mechanisms: real power or empty ritual?* Utrecht: Impunity Watch.
- Tota, Anna Lisa. 2005. Terrorism and Collective Memories: Comparing Bologna, Naples and Madrid 11 March, *International Journal of Comparative Sociology* 46, 12. 2007. El recuerdo colectivo y el terrorismo en Italia. Ceremonias conmemorativas: De los medios de comunicación de masas a los nuevos medios de comunicación, *Revista Andaluza de Ciencias Sociales* 7: 117-142.
- Traverso, E. 2007. *El pasado, instrucciones de uso. Historia, memoria, política*. Madril: Marcial Pons.
- Triponel, A. eta Pearson, S. 2010. What Do You Think Should Happen? Public Participation in Transitional Justice, *Pace International Law Review* 22, 1: 103-144.
- Uprimny Salazar, Catalina. 2012. La memoria en la Ley de Víctimas en Colombia: derecho y deber. En *Anuario de Derechos Humanos 2012*. Eskuragarria hemen: <http://www.anuariodh.uchile.cl>.
- Van der Velden, Peter G., Mark W. G. Bosmans eta Annette C. Scherpenzeel. 2013. The burden of research on trauma for respondents: a prospective and comparative study on respondents evaluations and predictors, *PLoS ONE* 8, 10.
- Varona Martínez, Gema. 2012. Justicia restaurativa en supuestos de victimización terrorista: hacia un sistema de garantías mediante el estudio criminológico de casos comparados, *Eguzkilore. Kriminologiaren Euskal Institutuaren koadernoak*, 26: 201-245.
- Varona Martínez, Gema. 2013. The Meaning of Impunity. What Do Victims, Offenders and Society Think of Restorative Encounters in the Context of ETA Terrorism in Spain?, *Restorative Justice: An International Journal* 2: 200-217.
- Varona Martínez, Gema. 2014. El concepto de memoria desde la Victimología, *Eguzkilore. Kriminologiaren Euskal Institutuaren koadernoak*, 28: 183-200.
- Vazquez, R. 2011. Writing Victims: Post-Terrorist Fiction(s) in the Basque Country and Spain. Eskuragarria hemen: <http://docs.lib.purdue.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1036&context=revisoning>.

- Veneros Ruiz-Tagle, Diana, María Isabel Toledo Jofré. 2009. Del uso pedagógico de lugares de memoria: visita de estudiantes de educación media al Parque por la Paz, Villa Grimaldi (Santiago, Chile), *Estudios Pedagógicos XXXV*, 1: 199-220.
- Viane, Lieselotte. 2013. La relevancia local de procesos de justicia transicional. Voces de sobrevivientes indígenas sobre justicia y reconciliación en Guatemala postconflicto, *Antípoda. Revista de Antropología Arqueológica* 16: 85-112.
- Viejo-Rose, Dacia. 2011. Memorial functions: intent, impact and the right to remember, *Memory Studies* 4, 4: 465-480.
- Villa Gómez, Juan David. 2013. Consecuencias psicosociales de la participación en escenarios de justicia transicional en un contexto de conflicto, impunidad y no-transición, *AGO.USB* 13, 2: 279-539.
- Wachtel, Ted. 2013. Defining restorative. Eskuragarria hemen: <http://www.iirp.edu>.
- Wagensberg, Jorge. 2014. El museo en aforismo, *El País Babelia*, 14.06.21, 2 or.
- Wemmers, Jo-Anne, ed. 2014. *Reparation for Victims of Crimes against Humanity: The Healing Role of Reparation*. Londres: Routledge.
- Wengraf, Tom. 2001. *Qualitative research interviewing*. Londres: Sage.
- Whelan, Kevin. 2005. Rights of memory. Ponencia presentada en la Conferencia "Story telling as a vehicle", Dunadry, 29 de noviembre, organizada por Healing Through Remembering.
- Williams, M. S. and Nagy, R. 2012. Introduction. En *Transitional Justice*, R. Nagy-k eta J. Elster-ek argitaratua. New York: New York University Press.
- Wolfe, A. 1987. Public and Private in Theory and Practice: Some Implications of an Uncertain Boundary. In *Public and Private in Thought and Practice. Perspectives on a Grand Dichotomy*, J. Weintraub-ek eta K. Kumar-ek argitaratua. Chicago: University of Chicago Press.
- Wutich, Amber, Timothy Lant, Dave White, Kelli Larson eta Meredith Gartin. 2010. Comparing focus group and individual responses on sensitive topics, *Field Methods* 22, 1: 88-110.
- Yasser Páez, Manuel. 2012. La justicia transicional desde abajo, *Revista de la Universidad Externado de Colombia. Facultad de Finanzas, Gobierno y Relaciones Internacionales*: 36-42. Eskuragarria hemen: http://190.7.110.123/pdf/5_revistaZero/ZERO%2026/ManuelYasser.pdf.
- Zaitu. 2014. *La huella de una lucha justa*. Zaitu Elkartea.
- Zenbaiten Artea. 2010. *Las víctimas y la justicia transicional. ¿Están cumpliendo los Estados latinoamericanos con los estándares internacionales?* Washington: Fundación para el debido proceso.
- Zinsstag, E eta M. Albertson Fineman, eds. 2013. *Feminist Perspectives on Transitional Justice. From International and Criminal to Alternative Forms of Justice*. Antwerp: Intersentia.

Eranskinak

“Munduan ongiak areagotzea, neurri batean, ekintza ez-historikoen menpe dago; eta mundu honetan zuei eta niri izan zitekeen bezain gaizki joan ez izana zor diegu, neurri handi batean, leialtasunez bizi anonimoa izan zuten eta inork bisitatzen ez dituen hilobietan atsedena hartzen duten pertsona guztiei “ (George Eliot).

1. Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak biktimei proiektua aurkezteko bidali beharreko gutunaren zirriborroa

Gasteiz, 2014ko irailaren 1ean

Jaun/andre agurgarria:

Euskal Herriko Unibertsitatearen Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC/KREI) gure lankidetzara eskatu du beste behin, zuzeneko edo zeharkako biktima gisa, biktimizazio terrorista bat jasan duten pertsonen harremanetan jarri ahal izateko. Horren arrazoiak eztabaida-talde bat egin nahi dela memoria eta parte-hartzearen kontzeptuaren inguruan, non parte-hartzaileek beren iritzia eman eta eztabaidatu ahal izango duten beren memoria eskubidea hobekien islatuko luketen proiektuei buruz (artistikoak, oroitzapenezkoak, hezkuntzakoak, kulturalak, etab.), bereziki herri mailan. Eztabaidak horiek ateak itxita egingo dira, modu anonimo eta konfidentzian.

Eztabaida-talde hori IVAC/KREI lantzen ari den proiektu baten barruan kokatzen da, eta haren izena honako hau da: *Memoria eta justizia: terrorismoaren biktimen memoria eta parte hartzeko eskubidea gauzatzea, euskal herritarren bake, askatasun eta bizikidetzarako eskubidearekin uztartuta*. Proiektua 2015eko otsailean amaituko da txosten batekin; dena dela, proiektua biktimizazio larrien memoriari buruzko ikerketa konparatu baten programan kokatzen da, Tilburgko (Herbehereak) Biktimologia Institutuak gidatzen duena eta hainbat urteko iraupena izango duena.

Eztabaida-taldea, ideien eztabaida askea, errespetuzkoa, informala, irekia eta malgua izan nahi duena, 2014ko azaroaren 28an, ostirala, egingo da, 12:00etatik 20:00etara,⁹⁶ Euskal Herriko Unibertsitateko Carlos Santamaría Zentroan, Donostian⁹⁷. Hamar lagun inguruko taldetan egingo da lana. Hori baino lehen, 10:00etan, leku berean, gaiari buruzko adituek hitzaldi bat emango dute, gaiaren sarrera egiteko, eta zu ere bertan egotera gonbidatuta zaude.

Zuk, edo zure senideren batek, topaketa horretan parte hartzeko interesa izanez gero, idatzi ----- andeari, edo deitu telefonoz, azaroaren erdialdea baino lehen; hartara, IVAC/KREIk interesa duten pertsona guztien parte-hartzea antolatu, eta jarduera horri buruzko informazioa igorri ahal izango die.

IVAC/KREIk, bere zuzendari José Luís de la Cuesta irakaslearen bidez, eskerrak ematen dizkizu laguntzeagatik. Zure erantzunaren zain, jardueran parte hartu nahi baduzu. Bien bitartean, jaso ezazu besarkada handi bat,

96 Antolakuntzak bere gain hartuko ditu bertaratutako pertsonen janari- eta garraio-gastuak.

97 UPV/EHuren egiaztagiria bat emango zaie lanean aurkezteko behar eta hala eskatzen dutenei.

2. EAE-n bizi diren terrorismoaren biktimek memoria-proiektuei buruz eztabaidatzeko taldeen gaineko informazio osagarria, 2014ko azaroaren 28a.

NORK ANTOLATZEN DITU?

Euskal Herriko Unibertsitatearen Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVAC/KREI). Jarduera akademiko bat da, IVAC/KREIk orain dela hainbat urte hasitako ikerketen barruan kokatzen dena. Terrorismoaren biktimei buruz argitaratutako azken ikerketa hemen kontsultatu daiteke: <http://www.ehu.es/es/web/ivac/victimtas-terrorismo-residentes-CAV>.

ZERGATIK? KONPROMISO ETIKO ETA ZIENTIFIKO BAT

Gazteen irakasle gisa egunero egindako lanean eta biktimen kezkei buruzko aurretiko azterketen emaitzetan, gogoeta-premia bat dagoela hauteman dugu, belaunaldi bakoitzak egin beharreko lan zehatzari buruz, terrorismoaren biktimek jasandako bidegabekeria ezagutzeko, terrorismoaren legitimazioa saihesteko, eta erreparazioa eta berriro ez gertatzeko bermeak bultzatzeko.

Euskal herritar gisa, biktimei egindako kalte handiaz eta bidegabeaz ohartu gara, biktimizazio terroristari buruz ikertzaile gisa egindako lanen bidez. Jakin badakigu kalte hori konponezina dela. Jakin badakigu, biktima asko adierazi digutelako, gehienek ezin dutela edo ez dutela horrelako proiektuetan parte hartu nahi, mesfidantzagatik, nekeagatik, oinazeagatik, urte asko edukitzeagatik, laneko konpromisoengatik... Nolanahi ere, seguru gaude, beste urte batzuetako emaitzak ikusita, parte-hartzaileak gustura ateratzen direla talde hauetatik. Badakigu, halaber, pertsona kaltetuenei entzutea dela errealtatearen eremu ezkutuenetara iristeko modu bakarra eta haien iritzia esanguratsuak direla beti Unibertsitateetik proposa daitezkeen neurri egokiak izateko.

Azterketa Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak finantzatu du badu ere, gure ikerlana guztiz independentea da erakunde horrekiko. IVAC/KREIk hautatu du aztergaia, ikerketa hark diseinatu eta egingo du, eta hark idatziko du amaierako txostena; hori guztia, analisi kritiko bat barne hartzen duen metodologia zorrotz batez. Ez da Zuzendaritzako kiderik izango eztabaida-taldeetan.

ZERTARAKO ETA NOLA? HELBURUA ETA METODOLOGIA:

Terrorismoaren biktimei buruz Euskadiko eta Espainiako araudian jasotako memoria eta partaidetzarako eskubidea abiapuntutzat hartuta, biktima batzuen iritzia entzun, jaso, aztertu eta sistematizatu nahi dugu, honako alderdi hauei erreparatu: zer da memoria, nola egituratu daitekeen, zergatik edo zertarako da garrantzitsua belaunaldi bakoitzean, bere kasu zehatzean eta orobat hartuta. Hori guztia biktimologiaren ikuspegi akademikotik. Biktimologia zientzia enpiriko eta diziplinarteko bat da, biktimizazio-, erreparazio- eta lehengoratzeko-prozesuak aztertzen dituena. Gure ustez, partaidetza-esparru lasaia eta orekatua eskain dezake, alderdi horiek zorrotzasan zientifikoz lantzeko, politikan eta hedabideetan emandako aurrez aurreko eztabaidetatik kanpo.

Horretarako, eztabaida-talde gisa ezagututako metodologia kualitatiboa erabiltzen dugu, non pertsonak, errespetuzko giroan, beren ideiak, interesak, eskaerak, lehentasunak eta/edo proposamen zehatzak adieraz ditzaketen. Biktimak dira protagonistak, ez antolatzaileak, eta taldeen edukian eta garapenean eragina izan dezakete. Hori dela eta, ikerketa parte-hartzailea bada ere, objektibotasunari eta zorrotzasan zientifikolari eusten zaio.

Eztabaida-taldeen emaitzak aztertu, eta testuinguru sozio-juridiko batean zehaztu ondoren, amaierako txostenean –parte-hartzaile guztiei bidaliko zaiena–, biktimen politiketarako proposamenak egingo dira. Horregatik hitz egiten dugu, hain zuzen, ikerketa-ekintza bati buruz. Edonola ere, ez dugu bilatzen akordioa edo adostasuna, ñabardurak dituen errealtate anitz batera ahal bezainbeste hurbiltzea baizik.

Itxaropen faltsuak sortu gabe, IVAC/KREIk azterketaren emaitzak eraginpeko erakunde eta gizarte-eragile guztiei helarazteko konpromisoa hartzen du, biktimen interesak azpimarratuz. Era berean, amaierako txostena terrorismoa deslegitimatzeke helburu pedagogikoetarako erabil dezaketen erakundeen esku geratuko da, eta, zentzu horretan, leku berezia izango dute Kriminologiako graduako ikasleek.

Joandako pertsonak banako gisa parte hartuko dute, eta ez talde baten ordezkari gisa. Gure asmoa ez da joandako pertsonen ordezkagarritasuna bilatzea, ideiak eta ñabardurak jasotzea ahalbidetuko duen

hurbilketa parte-hartzaile bat izatea baizik. Ez da hedabiderik izango eta taldeetan landutako edukiak ez dira hedabideetan zabalduko. Norberak nahi duen moduan aurkeztuko du beren burua taldean, baina amaierako txostenean ez dira jasoko izenak edo identifikazio-datuak. Hori guztia, jakina, gure esker onarekin batera, zuen partaidetza anonimo eta eskuzabalagatik.

NOR DIRA TALDEETAKO DINAMIZATZAILEAK?

José Luis de la Cuesta Arzamendi jauna, Zuzenbide penaleko irakaslea eta Terrorismoaren Biktimen Partaidetzarako Kontseiluko burua; Virginia Mayordomo Rodrigo andrea, Zuzenbide Penaleko eta Biktimologiako irakaslea; Alberto Olalde jauna, Gizarte Langintzako Unibertsitatea Eskolako irakaslea; eta, Gema Varona Martínez andrea, Biktimologiako irakaslea eta ikertzaile doktore iraunkorra.

Guztiak parte hartu dute terrorismoaren biktimekin egindako horrelako taldeetan, 2011. urteaz geroztik, eta esperientzia luzea dute lehendik ere, terrorismoaren biktimei egindako elkarrizketetan.

Hainbat hilabete daramatzagu 2014ko taldeetarako dinamika eta materialak prestatzen. Gure lehenengo helburua bigarren mailako biktimizazioa saihestea da; hots, talde hauetan parte hartzeagatik biktimek nolabaiteko kaltea edo eragozpena jasatea.

Erantzukizun handia dugula sentitzen dugu; izan ere, guri dagokigu, elkarrizketa-, errespetu-, konfiantza- eta askatasun-testuinguru dinamiko eta interesgarri bat sortzea, partaidetza eta gogoeta bultzatuz. Solasaldi erdi-egituratu baten bideratzaileak baino ez gara. Biktimak entzun nahi ditugu. Beti ikasi dugu haiengandik. Haien pentsaerak gure ikerketak aberastu dituzte beti. Ez ditugu biktimak aztergaitzat hartu nahi, gurekin elkarrekintzan diharduten subjektutzat baizik. Eskerrak ematen dizkiegu horregatik, jakin baitakigu ahalegin handi bat egiten dutela gurekin lankidetzan jarduteko.

ZENBAT PERTSONAK PARTE HARTUKO DUTELA ESPERO DA?

Kopurua zehazteko azken unera arte itxarongo dugu, baina, ziur asko, 10-20 pertsona inguruk parte hartuko dute. Pertsona horiekin harremanetan jartzeko, Eusko Jaurjaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak gutun bat igorri die; izan ere, beharrezkoa zen abiapuntua datu-base objektibo bat izatea, bere muga guztiekin, eta haien babeserako eskubidea zaintzea, baimen informatuak eskuratuta; ahalik eta biktima gehienengana iritsi nahi zen.

Azterketa honetarako, terrorismoaren biktimatzat hartu da ekintza terroristek kaltetu dituzten eta gaur egun EAEn bizi diren pertsonak. Lurralde-mugaketa hori egin da IVAC/KREIk azterketa egin dezan, biktima asko hemendik kanpo bizi direla ahaztu gabe.

Aipatutako datu-baseak ekintza terroristetan eraildako biktimen senideekin harremanetan jartzeko informazioa biltzen du. Nolanahi ere, Zuzendaritzari adierazi genion interesa genuela zauriak, mehatxuak, bahiketak eta/edo estortsioa jasandako pertsonen parte har zezaten.

SENIDE EDO LAGUNEKIN BATERA JOAN DAITEKE?

Bai, pertsona batzuek jada adierazi digute, eta norbaiten laguntzaz joango dira. Baten batek lagunduta etorri nahi badu, arazorik ez, kontrakoa. Senideak eta lagunak gonbidatuta daude ere zeharkako biktima modura parte hartzera eta jardunaldia gurekin batera partekatuz.

EGUN OSOA IGARO BEHAR DA?

Presentzia erabat borondatezkoa da. Parte-hartzaileak, edozer dela eta, aurreikusitako edo aurreikusi gabeko beste konpromiso batzuk ezin baditu saihestu, horretarako eskubide osoa du, eta bene-benetan eskertuko diogu etorri izana.

ZERGATIK DA INTERESGARRIA PARTE-HARTZEA?

Galdera horri pertsona bakoitzak erantzun behar dio, hemen emandako datuekin; edonola ere, adierazi nahi dugu aukera egokia izan daitekeela unibertsitate-eremuan entzuna izateko eta eremu horretan zer egiten den ikusteko, etorkizunerako ekintzak proposatzeko aukera izanik.

Lauhileko honetan biktimizazio terroristari buruzko lanetan emaitza onenak jaso dituzten Kriminologiako bost ikaslek parte hartuko dute. 19-20 urte ingurukoak dira, eta eskuratutako zenbait ezagutza kontrastatzeko eta galderak egiteko (ez pertsonalak, jakina) irrikaz daude, belaunaldi bakoitzak terrorismoa deslegitimatze zer egin behar duen jakiteko. Biktimentzat eta beren belaunaldiarentzat memoria-proiektu esanguratsuen eraikuntzan parte hartzeko interesa ere badute.

PROGRAMAN SARTZEKO PROPOSAMENAK AURKEZ DAITEZKE AZAROAREN 28A BAINO LEHEN?

Bai horixe! Hain zuzen, talde-lanean hasi aurretik, galdetuko dugu ea parte-hartzaileek, beren itxaropenei dagokienez, gai espezifikoaren bat sartu nahi duten.

ZER HIZKUNTZATAN EGINGO DIRA TALDEAK?

Izena eman duten pertsona gehienen nahia eta ezagutzak kontuan hartuta, gaztelaniaz egingo dira, baina duenak euskaraz hitz egiteko aukera izango du. Horrelakoetan, dinamizatzailerik interprete-lanak egingo dituzte.

ZEIN DA EGITARAU ZEHATZA (ORDUTEGIA, GAIK ETA DINAMIKAK)?

Une honetan, edukia eta dinamika zehatzak lantzen ari bagara ere, egitarauaren zirriborro hau aurreratu dezakegu.

EGITARAU:

I. SAIOA: SARRERAKO HITZALDIA 10:00-11:15

-Helburua: eztabaida-gaiaren eta abian den ikerketaren sarrera.

-Dinamika: sarrerako hitzaldia: "El derecho a la memoria de la víctimas del terrorismo en la CAV", Iñigo Lamarca Arartekoak egingo du, José Luis de la Cuesta irakasleak aurkeztuta.

Saio irekia izango da; batez ere, Zuzenbideko eta Kriminologiako ikasleentzat. Eztabaida-taldeetarako proposatutako gaia testuinguruan kokatu nahi da. Horretarako, Euskadiko eta Espainiako araudian terrorismoaren biktimen memoria eta partaidetzarako eskubideak nola uztartzen diren azalduko da, eta Arartekoak esparru horretan egindako ekimen zehatzen berri emango du.

Saioan galderak egin diezaiekezue hizlariari, zeinak ez baitu gero taldeetan parte hartuko.

Saioa amaitu aurretik, informazioa banatuko da jardunaldiaren ordutegi-plangintzari buruz eta parte-hartzaileek taldeetan banatzeko moduari buruz, eraikineko zer ikasgela erabiliko diren adierazita. Baten bat berandu iristen bada, Carlos Santamaría Zentroko sarreraren aurrean kokatutako atezaintzan galde dezake.

ATSEDENA. KAFAA

II. SAIOA: AURKEZPENA TALDEAN ETA IKASLEEN EKARPENAK. 11:45-14:00

-HELBURUAK:

1) Aurkezpena talde bakoitzean.

2) Biktimen irudia eta haien gizarte-ekarpena gaur egun eta etorkizunean.

-**DINAMIKA:** zirkuluan jarritako aukietan eseriko gara (horrela egingo ditugu saio guztiak), eta pertsona bakoitzak bere burua aurkeztu, eta zertara joan den azalduko du, eta/edo jardunalditik zer duen adieraziko du. Gero, une honetan nola sentitzen diren galdetuko diegu eta zergatik.

Ikasleak aurkeztuko ditugu. Horiek gogoeta bat egingo dute eskolan landutako gaiari buruz, eta hainbat galdera egingo dizkiete biktimei. Agian, parte-hartzaileek ikasleei zer iritzi duten galdetu nahi izango diete.

ETENALDIA. BAZKARIA ELKARREKIN

III. SAIOA: MEMORIA ETA BIKTIMIZAZIO TERRORISTA. ZER, NOLA ETA ZERTARAKO? 16:00-18:00

-HELBURUA:

1) Gogoetarako gaia izango da zer, nola eta zertarako edo zergatik gogoratu behar den, bai kasu partikular bakoitzean bai oro har.

-DINAMIKA:

IVAC/KREIk ikerketa honetan erabilitako memoria konponarazlearen eredu teorikoa azalduko dugu, labur-labur. Iritzia eskatzen zaie parte-hartzaileei powerpointean proiektatutako irudi edo esaldi jakin batzuei buruz, eta jarduteko lehentasunak jasotzen dira.

Taldeak dinamizatzeko partaidetza-teknika ugari erabiliko dira (ideia-jasa, gutunen dinamika, gogoeta-puzglea, alfonbra, agenda), eta amaieran, ondorio labur bat idazteko eskatuko zaio pertsona bakoitzari.

ATSEDENA. KAFA (ESKUEN ETA BEGIRADEN ARGAZKIAK ATERAKO DIRA)

IV. SAIOA. PROPOSAMENAK BILTZEA. 18.30-19.45

-HELBURUA:

1) Biktimen memoria-proposamen (tokikoak) indibidual eta orokorren katalogoko bat biltzea.

-DINAMIKA:

Atal honetan, proposatutako jarduerak nabarmentzea da garrantzitsua. Zein diren, haien iritziz, inplikaturako eragile nagusiak, nola gauzatu daitezkeen lehentasun horiek, zer gunetan egin behar diren, eta nola ebalua daitezkeen bete direla.

Memoria-proposamenen katalogo bat biltzean, unibertsitateko ikerketa-esparruan egindako jarduerak ere sartu behar dira.

Plakei lotutako esku-hartzea; argazki bat, IVAC/KREIren memoria-proiektu espezifiko gisa; mezu bat, botila batean; eta, titulu/edukiak proposatzea.

EBALUAZIOA, ARGAZKIAN ESKU-HARTZEA, LABURBILTZEA, ESKERRAK EMATEA, OPARIA ETA AGURRA (19:45-20:00).

ANTOLATZAILEEK TALDEETAN ERABILITAKO MATERIALAK:

Powerpointa, papelografoa, txartelak, kartoi-meheak, argazki-kamerak (lanerako erabilitako hainbat objekturen argazkiak ateratzeko), musika, "Ez nitaz ahaztu" argazkia.

AZPIEGITURARI ETA EGINGO DEN LEKUARI BURUZKO INFORMAZIOA

EGUNA: 2014ko azaroaren 28a

TOKIA: Carlos Santamaría Zentroa, Gipuzkoako Campusa, Elhuyar plaza 2, Donostia. Koordinatuak: 43.308687287766155,-2.0110130310058594.

Sarreraren egongo gara, sarrerako hitzaldia hasi baino 10 minutu lehenago arte. Beranduago iristen diren pertsonak Antonio Beristain entzunaretorra joan daitezke, sarreraren aurrean, inaugurazio-hitzaldia entzuteko eta eztabaidan parte hartzeko. Beranduago iritsiz gero, atezaindegian galde dezakete nora joan (atezaintza ere sarreraren aurrealdean dago). Dei dezakete, halaber, behean adierazitako mugikor-zenbakira.

Taldeetako antolatzaileek bere gain hartuko dituzte **garraio-gastuak**. Gorde, arren, txartelak edo tiketak, erakusteko.

Antolatzaileek kafea eskainiko dute saioetan, eta campusean **bazkaltzera** gonbidatzen zaituztet.

Antolatzaileek, unean bertan, aurretik edo taldeak amaitzean, beharrezkoak diren **egiaztagiria**k edo ziurtagiriak banatuko dituzte, parte-hartzaileekin adostutako baldintzetan, lantokian edo beste edonon entregatzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO: atseginez argituko ditugu sortutako zalantza guztiak, edo informazio gehiago emango dizuegu, posta elektronikoz edo telefonoz: _____.

3. DINAMIZATZAILEAK ETA EZTABAIDA-TALDEETAN ERABILITAKO MATERIALAK PRESTATZEA

PROGRAMA BIRPASATZEA.

KONTZIENTZIAN EDUKITZEA UNE ORO PROIEKTUAREN HELBURU NAGUSIA: TERRORISMOAREN BIKTIMEN MEMORARAKO ETA PARTAIDETZARAKO ESKUBIDEAK BATERA EGITURATZEARI BURUZKO GOGOETA EGITEA, ETA BIKTIMEN PROPOSAMEN ZEHATZAK JASOTZEA, MEMORIAREN INGURUAN (HALA NORBANAKO/SENIDEEN MAILAKOAK, NOLA GIZARTE MAILAKOAK). **NOLANAHI ERE, GURE FUNTSEZKO HELBURUA DA BIKTIMAK EROSO EGOTEA ETA ENTZUTEN ZAIELA SENTITZEA, ETA PROPOSATUTAKO EZTABAIDAN PARTE-HARTZEA.**

EZTABAIDA-TALDEEN MATERIALAK

ONGI ETORRI/AURKEZPENA

- Nor zara?
- Zer moduz zaude?
- Zer espero duzu talde hauetatik?

PARTE HARTU DUTEN IKASLEEN GOGOETAK

DONOSTIAKO ZUZENBIDE FAKULTATEKO KRIMINOLOGIAKO GRADUKO BOST IKASLEEI PROPOSATUTAKO JARDUERA (19-20 URTE)

LANDUTAKOA KONTUAN HARTUTA, GOGOETA EGIN IKASKIDE, SENIDE ETA/EDO LAGUNEKIN BATERA, ETA EGIN EZAZUE, ARREN, GOGOETA HORREN LABURPEN BAT ETA BIKTIMENTZAKO GALDERA BAT HONI BURUZ:

-ZER?

-NOLA?

-ETA, ZERTARAKO EDO ZERGATIK GOGORATU?

BIDALI, ARREN, GOGOETA (PARAGRAFO BAT EDO BI) ETA GALDERA POSTA ELEKTRONIKOZ IRAKASLEARI ... BAINO LEHEN. IDATZ DIEZAIKEZUE ZEINAHI ZALANTZA ARGITZEKO.

ZUEN MINTZALDIA PRESTATZEKO ELKARTUKO GARA.

IKUS INTERESA AZALDU DUTEN BIKTIMEI EMANDAKO INFORMAZIO OSAGARRIA.

IKASLEEK BEREN ESKU-HARTZEA PRESTATZEKO IGORRITAKO GOGOETAK

1.

Euskadi, XX. mendearen bigarren erdialdea. Ordukoak diren terrorismoaren lehen biktimak. Pertsona errugabeak modu bidegabean hil zituzten, ebatzi nahi zenaren gainean inolako errurik izan gabe. Erantzuleek ez zituzten kontuan hartu, jakina, horrek pertsona horien hurbilekoengan izango zituen ondorio larriak.

Urte batzuk igarota, zorionez, amesgaizto horiek guztiak amaitu dira. Beste garai batean bizi gara, beste belaunaldi bat. Gazteei, gaur egun, gehiago kezkatzen gaitu orainaldiak iraganak baino. Horregatik, gertatutakoa, zoritxarrez, aldatu ezin denez, agian zerbaite egin dezakezu etorkizunari begira. Aukera bat dugu pertsona horiek guztiak ahantz ez daitezen eta haien senide, lagun eta adiskideek merezi duten laguntza guztia jaso dezaten. Gogoratu ditzatela egoki irizten dieten moduan, eta izan dezatela erabateko askatasuna beren sentimenduak nahi bezala adierazteko; hartara, modu horretan, maite dituzten pertsonak gogoratuak izango dira. Izan ere, senideak eta lagunak dira adone-, indar- eta berreskuratze-historia honen protagonistak.

Aurrerapen handia izan baita zuzeneko nahiz zeharkako biktimentzat memoriarako eskubidea. Hortaz, probetxua ateratzea da gure helburua. Orain, izan ere, terrorismoaren biktimen memoria ohoratzea guztion esku dago. Edo, hobeto esanda, gure memorian dago. Memoria ahanzturaren antonimoa baita. Ahanztura erabateko heriotza da, garrantzizko ekarpenik egin ez duenaren lekua. Eta biktimak, bidegabeki hiltzen direnak edo

sufritzen dutenak, ez dira erabat hiltzen: argi bizidun bihurtzen dira, eta argi horiek mugak erakusten dizkigute gatazkak konpontzeko elkarrizketen eremuaren eta sufrimenduak ibilezin bihurtzen dituen bideak behin eta berriro bilatzen dituen indarkeriaren esfera ilunaren artean.

Gazteak gara (ez dugu gertaerek eragotzitako memoria bat, eta ez ditugu gure bizitzak mugatzen dituzten horizonteak ikusten); guk ditugun aukera gehien bidea behar baino lehen bidegabeki amaitu zutenen oroitzapena luzatzeko. Indarkeriak lokaztutako biktimak irudi gisa ikusten ditut, eta ematen du irudiek datozen belaunaldiei ohartarazi nahi dietela gazteen espirituarekin bat datozen inkonformismoak, errebeldiak eta aldaketa-nahiak ez dutela zertan indarkeriaren sinonimo izan. Haatik, elkarrizketa da haien aliatu onena. Gizarteak ahotsa eman behar die halabeharrez mututako irudi horiei, haien ohartarazpenak entzun daitezten.

Horregatik eta Jorge Manrique poetak oroitzapenez ere bizi daitekeela esaten zuelako, bada, ez dut gogoeta hau amaitu nahi zera esan gabe: senideekiko elkartasun adierazpenez harago, aita gogoratzeko obraren amaieran Manriquek idatzitako hiru bertsoak zentzua dutela hemen eta aplikagarriak direla biktimen pertsona maitatu guztientzat:

“...izan ere, bizia galdu bazuen ere,

utzi zigun kontsolatzeko

haren oroimena”

2.

Irakasleak terrorismoaren biktimen oroitzapenez egin beharrekoari buruzko gogoeta bat egiteko eskatu zigun, eta, egia esanda, ez nekien nola bideratu. Hori bizitu ez dudanez, pentsatzen dut ez dela erraza ikustea zer den egokia horrelako kasuetan. Atzo, Truman Capoteren “Odol hotzean” eleberria hasi nintzen irakurtzen. Irakurtzen ari nintzela, honako aipu hau aurkitu nuen: “Militarrek ez dute loa galtzen. Erailtzen dute, eta gainera dominak ematen dizkiete”. Beharbada, alderaketa desorekatu samarra da, baina nik horrela ikusten dut; ikusi dut jendea pertsona horiei “dominak” ematen; ikusi dut nola deitu dituzten “gudari” . Eta “gudari” horiek nik maite dudan pertsonaren bat hil ez badute ere, pertsona horiei “heroiak” deitzeak eta egindakoarengatik dominak emateak mina ematen dit, eragozten dit, eta etsipena sortzen dit. Hori dela eta, egoera aldatzeko garaia iritsi dela uste dut. “Dominak” benetan merezi dutenei emateko garaia da.

Eta zer hobe haiek gogoratzea baino? Gurekin egon zirela eta haien historia bidegabekoa izan zela gogoratzea baino? Badakit gaur egun hainbat ekintza egiten direla gaur lantzen ari garen gaiari buruz, baina ez dut uste hori nahikoa denik.

Nire iritziz, lehenik eta behin, etorkizunean biktimen ohorezko museo bat irekitzeko proiektu bat martxan jarri beharko litzateke. Museo bat leku finko bat da; hor beti izango dute leku bat, eta hori baliagarria izan daiteke etorkizuneko belaunaldiei erakusteko zer kalte egin zuen orain aztertzen ari garen demokraziaren eta bakearen aurkako gatazkak.

Horrez gain, beste pertsona askok adierazitako iritziarekin bat etorrita, udalek, agintean dagoen alderdi politikoa edozein dela ere, biktimen memoria ohoratu beharko lukete, biktimak ETA, GAL edo bestelako terrorismo mota batekoak izan. Izan ere, norbaiti bizitza kentzea, arrazoia edozein dela ere, gaizki egongo da beti, eta pertsona batek egin dezakeen ekintza bidegabeetako bat izango da beti. Nire iritziz, pertsona bat indarkeriaz hil den herrietan, gurean bezala, plakak jarri beharko lirateke, kaleak haien omenez izendatu, leku garrantzitsuei haien izenak jarri, etab. Bidegabekeria gogoratzeko.

Biktimen memoria ohoratzeko modu horien guztien alde egon arren, nire ustez erabateko garrantzia du etorkizuneko belaunaldiei bakearen araberrako hezkuntza emateak, elkarren arteko errespetua eta politika demokratikoa oinarri hartuta. Terrorismo mota honek egin duen mina helaraztea, egoera hori jasan dutenen bizipenak kontatzea, eta, batez ere, edozein indarkeria-ekintza anti-demokratikoaren ondorio negatiboak azpimarratzea. Nire iritzia zati bat utopikoa izango da agian; zehazki, udalei eskatzen diedana. Halere, uste dut derrigortuta egon beharko luketela horretara, eta ez daude. Horrelako ekintzak, udalek ez ezik, gobernu zentralak ere egin beharko lituzke; izan ere, ematen du iraganean utzi duela hainbat hamarkadetan gertatutakoa, pertsona askoren orainaldian egon arren. Eta, zintotasunez uste dut, gaur atera dezakegun zehazki ondorio errealista eta eskatzeko modukoa dela, eta ez, inondik ere, utopikoa.

Nire ikuspuntua:

Gaur azpimarratu nahi nuke terrorismoaren biktimak, zoritxarrez, ez direla soilik hildako pertsonen senideak edo beren aurkako eraso fisiko zuzenak jaso dituzten pertsonak ere. Gaur gogoratu nahi dut pertsona batzuk egunero eta urte askoan izan direla terrorismoaren biktimak, “kale borrokaren” eraginez edo talde armatuak euskal gizartean izandako eraginaren ondorioz. Badakit egindako mina eta sortutako sufrimendua ezin direla alderatu, baina horrek ez du esan nahi garrantzirik ez duenik.

Gaur, nire esperientzia pertsonala aipatu nahi dut, urteetan bizi izan dudana. Nire aita Ertzaintza da... Haren "amesgaiztoa" nik sei urte baino ez nituenean hasi zen, orduan aurkitu baitzituen lehenengoz mehatxuzko pintadak gure garajearen atean. Han hasi zen dena, eta orain dela sei urtera arte iraun zuen.

Gogoratzen dut mehatxuak topatzen genituela etxeko atean, garajea eta nire amaren dendako erakusleihoan. Gogoratzen dut nire amak sentitutako ezintasuna, erakusleihoaren kristalak aldatu behar izan zituen lau alditan, heroi horiek harrika hautsi zituztelako. Gogoratzen ditut nire amari buruan eman behar izan zizkieten zazpi puntuak. Buruan daukat, atzo gertatua balitz bezala, zer-nolako beldurra sentitzen nuen ETA kide baten ezkonarrebak mehatxatzen ninduen aldiro. Baina ia egunero gogoratzen dudana zera da: mespretxuzko begiradak, ukatutako agurrak, nire aurkako irainak, pertsona askok egin didaten "hutsa".

Eta hori guztia zergatik? Bada, herri txiki batean, non udalak ere "heroi" horiek saritzen baititu, zura aita Ertzaina bada, epaitzen zaituztelako eta bizi osorako markatuta geratzen zarelako. Nik eta nire familiak urte askoan sufritu duguna pertsona askok bizi izan dute, bai aita edo amaren lanbideagatik, bai ideologia jakin bat defendatzeagatik. Beharbada, seguru horrela dela, maite duzun pertsona bat galtzea ezin da alderatu nik kontatutakoarekin. Hala eta guztiz ere, urteetan egindako kalte bat da, eta oso gutxitan hartu da kontuan. Dena den, nik ez dut eskatzen kontuan hartzea, ezta gu terrorismoaren biktimatzat hartzea ere; izan ere, ez dut uste gure egoerak antzekoak direnik, ezta parean jar daitezkeenik ere; uste dut, ordea, noizean behin gogoratu beharko genukeela terrorismoak ez duela kalterik egin soilik bizitzak kentzen, oinazea eta sufrimendua ere eragin baitu pertsona askoren eguneroko bizitzan.

3.

Gaiari buruzko bi lantalde oso desberdin ditugu: memoria eta oroipena. Mendebaldeko filosofiaren arabera, memoria oroitzapenak atxikitzea da, pertzepzioetatik abiatuta, eta, oroipena, berriz, iraganean bilaketa aktibo bat egitea, orainaldira ekartzeko. Logika horri jarraitua, helburu komun batera iristen gara bi bide desberdinetatik. Horren arabera, beraz, bizi izan dutenek beren esperientziak (memoria-lana) partekatzen dituzte, belaunaldi berriei erakusteko, eta horiek, horrela, iragan horretan sar daitezke, ikertzeko eta halakorik berriro ez gertatzeko (oroipen-lana).

Terrorismoaren bidez egindako ankerkeriak gogoratu nahi ditugu, banaka nahiz taldeka egindako sufrimendua, indarkeria legitimatzen duen ikuspegi bat inposatzeko argudio faltsuak, indarkeriaz baliatzen diren kontzientziak isilarazteko.

Mezu hori ekintzetan gauzatu behar dugu; hitzak, nire esperientziaren arabera, haizeak eramaten baititu. Gauzatzeko modua korapilatsua da; besteak beste, desberdintasun indibidualak tartean daudelako. Pertsona bakoitza mundu bat da. Nik ez daukat soluziorik, baina eraikitzailea izateko ahalegina egingo dut, eta errealtate bihur daitezkeen ideiak aipatuko ditut, garatu gabe, gehiegi ez luzatzearen. Esate baterako, dokumentalak, filmak eta mintegiak ematea ikastoletan (eta adingabeen beste hezkuntza-zentro batzuetan, DBH 1 baino lehen); epaiketetan (epailea, fiskala, abokatua, akusatua...) barkamena eskatzea kaltetuari; egun sinboliko bat antolatzea, non egileak eta kaltetuak besarkatuko diren, botere publikoen ordezkariak egongo diren, diskurtsoak egingo diren; plakak jarri, monumentuak egin, kaleak izendatu, plazak eraiki...

Honen guztiaren xede nagusiak hauek dira: zigorgabetasunarekin amaitzea, indarkeriaren legitimazioa saihestea, Giza Eskubideak babestea, justizia eraginkorra bermatuz, eta indarkeriaren atzeraelikadura saihestea, menpean hartzen baititu bai egileak bai kaltetuak (askatasuna, elkarrizketa, norberaren eta taldearen aberastasuna mugatuz, baita bizitza bere ere). Horren bidez, garrantzitsuena lortu nahi dugu: ez ahaztea. Hori giltzarria da gizarteak une historiko batean gertatutakoa ezagutu, eta horren gaineko gogoeta egin dezan. Modu horretan, oinarri etiko bat sortuko da, terrorismoa berriro gertatzea errotik saihestuko duena. Horretan berebiziko garrantzia dauka belaunaldi berrien eginkizunak.

Aipatuko ditut, nire ustez, belaunaldi berriok aurrez aurre ditugun bi arazo handi:

1) Hainbat gizarte-taldetatik jasotako iritzi indibidualen aniztasuna, memoriaren kontzeptu bateratu bat eraikitzea zailduko duena.

2) Memoriaren Eskubidearen inguruan hartutako neurriek denborarekin jasan (eta aurre egin) beharko duten hutsaltzea.

Horregatik, nire ustez, beharrezkoa da belaunaldi berriek indarkeriaren aurkako ikurrak defendatzea eta iraunaraztea, eta horretarako oinarritzat hartzea etika, pertsonen eta taldeen datxekien eskubideak, tolerantzia, integrazioa, errespetua, osotasuna, duintasuna, etab. Helburua: iraganeko akatsak ikastea eta saihestea, terrorismoa errealtate ukigai bat izatetik gure historiaren orri ilun batera igaro dadin.

Horrek guztiak belaunaldi berrien konpromisoa eskatzen du, oro har, eta kaltetuena, egileena, botere publikoena eta kriminologoena, bereziki. Horren harira, helburu horiek lortzeko gaur egun eskura dugun tresnarik onenetako bat da Biktimologia, bera baita zientziarik humanoena eta gehien humanizatzen duena.

Debemos ser el cambio que esperamos del mundo/ Munduarengan itxaroten dugun aldaketa izan behar dugu.

4.

Hasteko, Sansoni buruzko kontakizun labur bat kontatu nahi nuke. Egun batean, lehoi batek egin zion eraso, eta Jainkoak hura garaitzeko indarrak eman zizkion; hurrengo egunean, itzuli, erle batzuek barruan abaraska bat egina zutela ikusi, eta asmakizun bat jarri zien zenbait pertsonari: Jaten duenetik atera zen janaria, eta indartsutik gozotasuna. Eta kontua zera da: nork asmatuko du, erantzuna bizipen pertsonal bat izanda. Sansonek bakarrik jakin dezake erantzuna. Horrekin esan nahi dut inork ezin dituela besteak erabat ulertu; izan ere, ez ditu jarrera eta ikuspegi jakin batzuk izatea ekartzen dituzten bizipenak. Nik bizipen hori izan ez dudanez, gogoeta-saio honetan, ulertzen eta nire iritzia adierazten saiatuko naiz.

Gogora ezazue, beraz, nire ikuspegia sinplista dela eta gainditzea bilatzen duela. Oroitzeko unean, bizipena oso gogorra eta, ziur asko, urrakorra dela ulertzen dut. Hori dela eta, memoria egun ilun horiek gogoratzeko erabiltzea baino gehiago, lehenetsi beharko genuke, batetik, pertsona horiek ez ahaztea, eta, bestetik, halako kalte handia jasan duten familia horien ongizatea mantentzen saiatzea. Nola egiten da hori? Egokia izan daiteke, agian, ekintza ez oso handiak edo sentsazionalistak egitea (eskulturak, oroitzapenerako egunen bat, bilerak, laguntzeko lekuak, etab.), interpretazio okerrak edo interes ez-etikoen erabilerak saihesteko. Nire ustez, bakearen eta ongizatearen gakoa ez dago ekintza mediatiko handietan, barne-bakean eta superazioan baizik, eta askotan ekintza xumeek horretan lagun dezakete.

Zergatik edo zertarako gogoratu hau? Nire iritziz, ekintza hauek ez dira soilik gizakiaren alderik ilunena jasandako pertsonak edo familiak gogoratzea; izan ere, horien bidez adierazten da ere lehentasuneko den giza duintasanaren balioa, aurrera jarraitzeko adore handiagoa emanez biktimei eta bakarrik ez daudela gogoratuz. Gizakia ongia egiteko gai dela gogorarazten zaie. Horrela, agian lagunduko diegu amesgaizto horien oihartzunetan gal ez daitezen, eta, seguru asko, haiek ere lagunduko digute guri indarkeriaren bultzaden aurrean adi egon gaitzen.

Amaitzeko, irakasleak utzi ninduen komiki batetik ateratako elezahar bat kontatu nahi nuke, non guztiok berdinak garela eta pertsonak baino ez garela ikustea eragozten diguten kate guztiak haustean jarrita daude helburua eta itxaropenak. Bazen behin, gizakiak sortutako bi estatua erraldoi. Estatuak elkarren aurka borrokatzen ziren etengabe. Baten ahoak zulotxo bat zeukan, eta horrek gizon baten jakin-mina pizten zuen; hala, egun batean, estatuara igo, eta zuloan sartzea erabaki zuen. Barruan zegoelarik, kolore biziz betetako zulo batetik erori zen. Amaierara iritsi zenean, bera bezalako pertsona asko zeudela ikusi zuen, eta orduan estatuak puskatzen hasi ziren, txiki-txiki eginda geratu arte. Hondakinetatik, sartutako gizona bezala ziren pertsonak ateratzen ziren. Haren parekoak ziren, haren kideak. Horrela amaitu zen kolosoen arteko borroka luze hura.

5.

Carlos Fuentes kazetari eta idazle mexikarrak zioen moduan "bestea suntsitzen dugu, hura imajinatzeko gai ez garenean". Daten, argazkien, lekuen, sentimenduen, pertsonen... bidez gogoratzen dugu. Bitarteko horiek guztiek gauza onak eta txarrak ekartzen dizkigute gogora, tristura eta zoriontasuna.

Terrorismoan arreta jarrita, gogoratu behar ditugu, lehenik eta behin, jomuga bihurtuta, beren buruak zentzurik gabeko borroka batean murgilduta ikusi zuten pertsona horiek guztiak. Dena den, gogoratzeak esan nahi du, halaber, berritua gertatzea nahi ez dugun egoerak gure burura ekartzea; iraganetik ikastea. Gogoratu behar dugu une jakin batean pertsona talde batek erabaki zuela indarkeria tresna gisa erabiltzea, gizarteak uzteko eta haren idealak inposatzeko.

Nola egiteari dagokionez, ezinbestekotzat jotzen dut ikastetxeetan ikasleei erakustea terrorismoa historiaren zati bat dela eta horren baitan egindako ekintza guztiak kondenatu egin behar direla. Ikasleen jarrera gogoetatsua bultzatu beharko litzateke, terrorismoaren eta haren ondorioen inguruan. Zuzeneko nahiz zeharkako biktimei dagokienez, arreta gehiago jarri behar dugu haien eskaeretan, are laguntza gehiago eman ere; izan ere, laguntzeak gogoratzea dakar. Horren harira, biktima askok agerian utzi dute zer babes gutxi jaso duten edo jasotzen duten gure aldetik.

Jakina, beharrezkotzat ikusten dut ere honen antzeko eztabaida-taldeak antolatzea, estatu mailan; izan ere, niri, pertsonalki, oso esperientzia aberasgarria dela iruditzen zait.

Amaitzeko, Jean Paul Sartre idazle eta filosofo frantsesaren aipu bat ekarri nahi dut: "indarkeria, edozein formatan adierazten dela ere, porrot bat da".

PARTE HARTU DUTEN IKASLEEK TALDEETAN EGINDAKO GALDERAK

- 1) Nork edo zerk lagundu dizue gehien unerik okerrenetan?
- 2) Urteak igarota ere, zuen eguneroko bizitzan min ematen jarraituko duela imajinatzen dugu. Badago gertatutakoaren ondorioz egitea zail gertatzen zaizuen ohiko zereginen bat?
- 3) Zer iritzi duzue konponketarako elkarretaratzeez?



BAKEOLAK MEMORIAREN EGUNERAKO (2014KO AZAROAK 10) EGINDAKO IRUDIA

Webgunean adierazten den bezala (<http://www.bakeola.org/>), BAKEOLA gatazkak modu egokian lantzeko espezializatuta dagoen zentro bat da, eta gizarte- eta hezkuntza-eragileekin egiten du lana, ikuspegi integral batetik. Oroimenari, aitortzari eta erreparazioari buruzko jardueren-ildo espezifikoa dauka (<http://www.bakeola.org/#oroimenarenbidean>), eta horren hartzailak honako hauek dira: udalak eta mankomunitateak (kargu politikoak eta teknikariak), diputazioak eta Eusko Jaurlaritza, elkarteak, eta ikastetxeak.

MEMORIA-PROPOSAMENEN KATALOGO IREKIA

Mesedez, adierazi zer jarduera-mota egitea gustatuko litzaizukeen, hauei dagokienez:

- 1) Edukiak –adibidez: oroitzapenezko ekitaldiak (plaka, lore eskaintzak eskulturak...), hezkuntzakoak (hitzaldiak ikasgeletan, lekukotzak jasotzea artxibo digitaletan...), artistikoak edo kulturalak (kontzertuak, ikus-entzunezkoak, testu-irakurketak, performanceak, argazkiak...).
- 2) Formatuak: ekitaldi xumeak, gertukoak edo ekitaldi handiak.

- 3) Lekua (adibidez: atentatua izan zen lekuan edo besteren batean; udalerrri-mailan, probintzian, maila autonomikoan, estatu mailan, mugaz gaindikoa edo nazioartekoa; ziberespazioan).
- 4) Parte-hartzaileak (adibidez: lagunak eta familiakoak; lankideak; bizilagunak; herritarak; politikariak; beste erakunde batzuetako ordezkariak; hezkuntza komunitatekoak –Unibertsitatea–...).

- 5) Zehazki, memoria-egunari dagokionez: zer gehiago egin daiteke esanguratsua gerta dakizuekeen? Zer jarduera proposatuko zenuke?
- 6) Zehazki, Memorialari eta Memoriaren Institutuari buruz, zer gehiago egin daiteke esanguratsua gerta dakizuekeen? Zer jarduera edo eduki proposatuko zenuke?

EZTABAIDA-TALDEEN EBALUAZIOA 2014/11/28

Mesedez, erabili koloretako post-itak alderdi hauei buruz duzun iritzia emateko: (berdea: ondo; urdina: erdipurdi; horia: gaizki).

- 1) ANTOLAKETA:
- 2) EDUKIA:
- 3) DINAMIZATZAILEAK:
- 4) IDATZI, MESEDEZ, ZER GUSTATU ZAIZUN GEHIEN:
- 5) IDATZI, MESEDEZ, ZER HOBETU DAITEKEEN HURRENGORAKO:
- 6) Hurrengo ikerketetan Kriminologiaren Euskal Institutuak EAEko terrorismoaren biktimizazioari buruzko dokumental bat landu nahi du.
 - 6.1. Zure iritziz, zer da jaso beharko litzatekeen gauzarik garrantzitsuena? Zer interesatzen zaizu dokumentalean agertzea, zuk zerorrek ikusi nahi izateko?
 - 6.2. Gustatuko al litzaizuke dokumental horretan parte hartzea? Dokumentalari ekiten badiote, jar gaitezke zurekin harremanetan proiektua zertan den adierazteko eta benetan interesatzen zaizun jakiteko? Baiezkoa bada, eman zure datuak aparteko orri batean.

DINAMIZATZAILEEN EBALUAZIOA

Zer moduz funtzionatu dute taldeek? Zergatik?

Nolakoa izan da dinamizatzaileen arteko koordinazioa?

Zer dago sobera eta zer falta da taldeetan?

Nola hobe daiteke horren garapena hurrengo edizioei begira?

4. Terrorismoagatik zigortutako pertsonentzako galdetegia

Jaun/andre agurgarria:

Zuregana jotzen dugu Kriminologiaren Euskal Institutuak (UPV/EHU) "Memoria eta justizia: terrorismoaren biktimen memoria eta parte hartzeko eskubidea gauzatzea, euskal herritarren bake, askatasun eta bizikidetzarako eskubidearekin uztartuta" izeneko azterketan zure laguntza eskatzeko. Azterketa diziplinarteko proiektu konparatu baten testuinguruan kokatzen da, eta Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren finantzaketa jaso du.

***Helburua:** azterketa honen bidez, analisi kritiko bat egin nahi da, biktimen memoriari buruzko ikerketen diziplinarteko arloan. Horretarako, dagozkion egokitzapenak eta eragin praktikoak erabiltzen ditu, honako hauek aintzat hartuta:

- a) alde batetik, ikerketa enpiriko batzuk (biktimen begiradak tokian tokiko biktimizazio- eta lehengoratzee-espazio eta -testuingurueta duen garrantziari buruzkoak, eta proiektu sortzaileetan haien parte-hartzeak duen izaera terapeutikoari buruzkoak).
- b) bestetik, hainbat ikuspegi teoriko (memoriaren kontzeptualizazioa, justizia gisa; biktimen parte hartzeko eskubidearen positibazioa; eta, biktimen eta gizartearen memoriarako eskubide partekatua).

Helburua memoriaren esanahiak modu teorikoan eta enpirikoan aztertzea da, biktimologiaren diziplinarteko ikuspegitik. Horretarako, bibliografia-berrikuspenean eta landa-lanean oinarrituta, memoria parte-hartzaile, inklusibo eta/edo konponarazle bat eraikitzeke lagungarriak diren edo ez diren faktoreak eta testuinguruak identifikatuko dira. Abiapuntua biktimen bizipenen narrazioak izango dira, eta haien esku-hartze proposamen zehatzak (artistikoak, hezkuntzakoak eta/edo sorkuntzakoak) espazio publikoetarako, baita eremu birtualerako ere⁹⁸.

Ikerketa kualitatibo parte-hartzaile baten barruan, aurten oinarrizko alderdiak planteatzea ahalbidetuko digun azterketa bat egiten hasiko gara, datozen urteetan alderdi horietan sakontzeari begira. Aditua edo pertsona inplikaturaren neurrian, gai hauei buruz egiten duzun balorazioa interesatzen zaigu. Hori dela eta, galdetegi hau betetzeko²⁰ bat minutu igarotzeko eskatzen dizugu.

***Hartzaileak eta galdetegiaren edukia:** gaian interesa duten eta euskal herritar gisa erantzun nahi duten pertsonak bilatzen ditugu. Galdetegia, funtsean, lau galderek osatzen dute. Terrorismoari buruz hitz egiten dugunean, Euskal Herrian jardun duten talde guztiak sartzen dira.

***Galdetegia betetzeko eta igortzeko modua:** galdetegiko galdera bakoitzean, word formatuan, kurtsorea jar dezakezu dagokion laukian, eta nahi duzun luzerako erantzuna idatz dezakezu. Zalantzaren bat edukiz gero, jar zaitez gurekin harremanetan telefono-zenbakira deituta, edo bidali zure erantzunak helbide elektronikora idatzita. Nolanahi ere, ahal bada, eskertuko genizuke **erantzunak 2014an bidaltzea, 2015aren hasierarako azterketa honen lehen txostena edukiko baitugu**. Horrek guztiak ez dio eragingo ikerketa-lerro hau etengabe irekita egoteko aukerari, nahi duten pertsona guztien erantzunak jaso ahal izateko; betiere, erabateko errespetua, anonimotasuna eta isilpekotasuna errespetatuz.

Iritziak **norberaren izenean** ematen direla ulertuko da, eta ziurtatzen dizugu zure datuak **anonimotasunez eta isilpekotasunez** erabiliko direla. Zure izena edo zure identifikazio-datuak ez dira inon agertuko. Kontrakoa adierazi ezean, sei hilabeteko epean azterketa honen emaitzak biltzen dituen txostena bidaliko dizugu.

Eskerrik asko laguntzeagatik!

98 Proposamenen edukien adibide gisa, pentsa ditzakegu kultura- edo hezkuntza-ekimenak (eztabaidak, lekuko baten irakurketa...), ekimen artistikoak (eskultura, pintura, musika, poesia, argazkia, performancea...) edo oroitzapenezkoak (inskripzioak, plakak, landaketak, lore-eskaintzak...) leku jakinetan, ziberespazioa barne. Leku horiek zuzenean edo zeharkako biktimen memoria eskubidea justizia bidez betetzeari lotuta egongo dira.

ELKARRIZKETATUTAKO pertsonaren datuak

<i>Sexua</i>	Gizona..... Emakumea.....
<i>Gaur egungo adina</i>	
<i>Gaur egungo lana</i>	

1. G. Memoriari dagokionez, biktimen eta gizartearen eskubide gisa, zein izan liteke terrorismo delitu larriengatik eta giza eskubideen beste urraketa larriengatik kondenatutako pertsonen zeregin nagusia?

- 1.- Indarkeriari deslegitimatzea.
- 2.- Giza eskubideak babestea.
- 3.- Nekez konpon daitezkeen kalteak konpontzea.
- 4.- Beste bat (azaldu, arren):

2. G. Zure esperientzia aintzat hartuta, uste duzu biktimenzat eta terrorismo-delituengatik zigortutako pertsonentzat, baita gizartearentzat ere, ona izan daitekeela herri mailako memoria-proiektuetan lana egitea modu parte-hartzailea batean? Zer aukera eta zailtasun ikusten dizkiozu horri, inplikaturako eragileak bereizita (biktimak, zigortutako pertsonak, elkarteak, gizartea, herriko agintariak, erkidegokoak, estatukoak...)?

3. G. Balizko zailtasun horiek alde batera utzirik, zer proiektu mota (inplikaturako gizarte-eragileen lekukotasunak jasotzen dituzten dokumentalak, testigantzak biltzen dituzten ahozko artxiboak, arte edo/eta kultur moldeko tokiko proiektuak...) gustatuko litzaizuke aurrera eramatea?

4. G. Jarraian, nahi duzuna adieraz dezakezu askatasunez. Galdetegiko erantzunen batean sakondu, edo aztertu ez den baina bereziki kezkatzen zaituen edo interesatzen zaizun beste edozein alderdiri buruzko iruzkina egin dezakezu.

Oharra

Azken lau galdera horiek gure azterketaren garapenari lotuta daude

5. G. Lehenengo aldia da ikertalde batek zuregana jotzen duela gai honi buruzko zure iritzia ezagutzeko?

Bai.....	
Ez.....	
ED/EE.....	

6. G. Kriminologiaren Euskal Institutuak (UPV/EHU), ikerketa kualitatibo honen barruan, eztabaida-taldeak antolatuko ditu 2014ko amaieran, landutako gai batzuetan gehiago sakontzeko, askatasunez eta anonimotasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuta. Eztabaida-talde horietan parte hartzeko prest egingo zinateke? Goiz bateko bilera izango da, Donostian.

Bai	
Ez	
ED/EE	

7. G. Galdetegi hau erantzuteko prest egon daitekeen eta azterketaren helburuari lotutako iritzi garrantzitsua eman dezakeen beste pertsona baten izena eta harekin harremanetan jartzeko datuak eman diezagukezu?

8. G. Sei hilabete barru eskuragarri egongo dira azterketa honen emaitzak. Horiei buruzko informazioa bidaltzea nahi duzu?

Bai	
Ez	
ED/EE	

5. Konponbiderako topaketak errazteko galdetegia

Jaun/andre agurgarria:

Zuregana jotzen dugu zure lankidetzara eskatzeko Kriminologiaren Euskal Institutuak (UPV/EHU) **Biktimen lehengoratzeko-kartografiak: terrorismo biktimizazioetan justizia berrezarlea den memoriari buruzko partaidetza-ekintzarako ikerketa-proiektu bat** izenburuarekin egindako azterketan. Azterketa Eusko Jaurlaritzak finantzaturako diziplinarteko proiektu konparatu baten testuinguruan kokatzen da.

***Aurrekariak eta esparru teorikoa:** Orain dela zenbait urtez geroztik, Justizia Konponarazlearen Europako Foroaren bultzadaz, biktimizazio terroristei aplikatutako justizia betearazlearen mugak eta onurak ikertzen ari dira. Reyes Mate filosofoak bidegabeko bizipenei buruzko ikerketan adierazi bezala, memoria kalte konponezinetan justizia egiteko modu bat da. Era berean, ikerketa honetan, biktimak lehengoratzeko askotariko arte- eta sorkuntza-adierazpenak modu parte-hartzailean erabiltzeak dituen eragin positiboak buruzko azterketa enpirikoen emaitzak aintzat hartzen dira.

***Helburua:** Azterketahonen helburu adar memoriaren inguruan egin daitezkeen tokiko proiektu parte-hartzaileen diziplinarteko esparru teorikoan eta jarduera praktikoetan sakontzea, justizia konponarazlea gauzatzeko bitarteko gisa. Azken batean, terrorismoaren biktimen eta gizartearen memoriarako –ardatz konponarazle gisa– eskubidearekin lana egitearen onurak eta zailtasunak aztertu nahi dira⁹⁹. Gizarte-eragileen laguntza, banakako proposamen bakoitzean, batez ere, biktimek parte hartuko lukete, baina, baita, hala nahi bada, biktimak eragin dituztenek ere, konponbide-prozesuekin konprometituta egonez gero. Parte-hartzaileek egin ditzaketen proposamenen edukien adibide gisa, pentsa ditzakegu kultura- edo hezkuntza-ekimenak (eztabaidak, lekuko baten irakurketa...), ekimen artistikoak (eskultura, pintura, musika, poesia, argazkia, performancea...), edo oroitzapenezko ekimenak (inskripzioak, plakak, landaketak, lore-eskaintzak...) leku jakinetan, ziberespazioa barne. Ekimen horiek zuzeneko edo zeharkako biktimen memoriarako eskubidea justizia konponarazlearen bidez betetzeari lotuta egongo dira. Proposamenekin batera, elkarrizketen eta eztabaida-taldeen analisi sakona egingo da, askotariko biktimen memoriaren esanahi konponarazlearen konplexutasuna, memoria gauzatzeko modua eta denboran egin daitezkeen jarduerak aztertzeke.

Ikerketa kualitatibo parte-hartzaile horren barruan, aurten oinarrizko alderdiak planteatzea ahalbidetuko digun azterketa bat egiten hasiko gara, datozen urteetan alderdi horietan sakontzeari begira. Horretarako, biktimizazioan, justizia konponarazlean eta/edo terrorismoan aditua zarenez, bi galderari erantzuteko 15 minutu hartzea eskatzen dizugu, beharrezkotzat jotzen dituzun ñabardurak eginez, ikerketaren diseinuan eta garapenean kontuan har ditzagun.

***Galdetegia betetzeko eta igortzeko modua:** galdetegiak, word formatuan, galdera bakar bat du. Kurtsorea dagokion laukian jarri, eta egoki irizten diozun luzerako erantzuna idatz dezakezu. Zalantzaren bat edukiz gero, jar zaitez gurekin harremanetan _____ telefono zenbakira deituta, edo bidali zure erantzunak _____ helbide elektronikora idatzita. Nolanahi ere, ahal bada, eskertuko dizugu **2014ko ekaina baino lehen** bidaltzea. Iritziak **norberak** emandakotzat hartuko dira, eta ziurtatzen dizugu zure datuak **anonimo-tasunez eta konfidentziasunez** erabiliko direla. Zure izena edo zure identifikazio-datuak ez dira inon agertuko. Kontrakoa adierazi ezean, azterketa honen emaitzak biltzen dituen txostena bidaliko dizugu.

99 Ikus Terrorismoaren biktimen aitortzea eta erreparazioa arautzen dituen ekainaren 19ko Euskadiko 4/2008 Legearen hitzaurrea eta 8. artikulua, eta Terrorismoaren Biktimen Aitortza eta Babesa arautzen duen irailaren 22ko 29/2011 Legearen 2. eta 56. artikulua. Haren muga guztiekin, legearen esparruan, Barne Ministerioak 2012ko apirilean banakako gizarteratzeko espetxe-politika garatzeko aurkeztutako Programak erreferentzia egiten dio, konponbiderako topaketetan, konponbide moralari eta sinbolikoari, konponbide materialaz harago.

ELKARRIZKETATUTAKO pertsonaren datuak

<i>Sexua</i>	Gizona Emakumea
<i>Gaur egungo adina</i>	
<i>Gaur egungo lana</i>	

1. Aintzat harturik justizia konponarazlearen gaian eta/edo terrorismo delituen biktimen eta biktimak eragin dituztenen gaian duzun eskarmentua, eta justizia berrezartzailearen nazioarteko estandarrei dagokienez, zein izango lirateke, zure aburuz, memoria konponarazlea osatzeko balizko proiektuen (tokikoak eta parte-hartzaileak) funtsezko ezaugarriak?¹⁰⁰⁵

2. Aintzat harturik justizia konponarazlearen gaian eta/edo terrorismo delituen biktimen eta biktimak eragin dituztenen gaian duzun eskarmentua, zure ustez onuragarria izan liteke bientzat eta gizartearentzat memoriari eusteko herri mailako proiektuetan zuzenean parte hartzea? Bide ezberdinak eta haietan inplikaturako agenteak bereizirik (biktimak, biktimak eragin dituztenak, gizartea, presondegi erakundeak, tokiko agintariak...), zer aukera eta zailtasun ikusten dituzu horretan?

Nahi izanez gero, galdetegi hau erantzuteko prest egon daitekeen eta azterketaren helburuari lotutako iritzi garrantzitsua eman dezakeen beste pertsona baten izena eta harekin harremanetan jartzeko datuak eman diezagukezu.

Eskerrik asko, parte-hartzeagatik eta laguntzeagatik!

100 Ikus balizko proiektuen adibideak, aurreko azalpen-laukian, "helburua" atalaren barruan.

6. Nazio batuen giza eskubideetarako goi ordezkariaren bulegoko kultura eskubideetarako txostengile bereziak, Farida Shaheed-ek, 2014ko urtarrilaren 23an memoria historikoa zaintzeko prozesuei buruz idatzitako txostenaren ondorioak eta gomendioak A/HRC/25/49¹⁰¹

98. *Gertaera tragikoen edo giza eskubideen urraketa masibo nahiz larrien biktimek justizia eta memoria kolektiboan inskribatuta geratzeko modu bat behar izaten dute: beharrezkoak eta elkarren osagarriak dira biak, bata ez du bestea ordezkatzen. Halere, konponbideen alderdi juridikoari nabarmen erreparatu bazaio ere, memoria historikoaren zaintza gutxitan sartzen da gatazken ondoreko demokratizazio- eta trantsizio-estrategia orokorretan.*

99. *Memoria historikoa zaintzeko dinamikak prozesu politikoak izaten dira beti. Horri dagozkion jarduerak politika-, gizarte- eta kultura-testuinguru zehaztetan gauzatzen dira, eta hainbat indar politikoek, interes-taldeek eraginak, gizartearen kezka aldakorrek eta eragile garrantzitsuen interesek moldatzen dituzte. Monumentu batzuek indiferentzia topatzen dute; beste batzuk emozioak eta tentsioak azalarazteko gune bihurtzen dira, eta beste batzuk, berriz, desagertu egiten dira, aro-aldaketa baten ageriko zeinu gisa. Eremu publikoan, kasu bakoitzean egin eta eztabaidatu beharreko galderak honako hauek dira: Zer helburu zehatz lortu nahi dira oroitzapenezko monumentu batez? Norentzat sortzen da? Zer eragin soziopolitiko izango du? Nork parte hartu du sorkuntzan (sorreran, gauzapenean eta administrazioan)? Askotariko ikuspuntuak jasotzen ditu?*

100. *Memoria historikoaren zaintza emankorra izateko, oinarrizkoa da agintarien, herritarren eta gizarte zibilaren arteko lankidetzaz izatea, eta, batez ere, iraganako gertaerek zuzenean kaltetutako pertsonen ordezkariaren artekoa. Agintariek funtsezko eginkizuna dute: espazio publikoa kudeatzeko erantzukizuna dute, eta monumentu eta museoak mantentzeko eta lurralde osorako estrategia nazionalak epe luzera egiteko gaitasuna, kontakizunen askotariko ikuspuntuak aintzat hartuta. Gizarte zibilak herritar-taldeak mobilizatzeko eta herriaren zilegitasuna emateko gaitasuna du, eta ekitaldiak antolatu eta eztabaida publikoak sor ditzake.*

101. *Halere, nekeza izaten da askotariko eragileen arteko osagarritasuna lortzea. Agintariek epe laburreko onura politikoak eskuratzeko tentazioa izan dezakete, gizartearen eztabaidetan oihartzun txikia izango duten baina gaia berehala ixteko (edo hala espero dute) baliagarriak izango diren monumentuak eraikita. Biktimak eta memoria kolektiboak zaintzeko ekimenak egiten dituztenek desadostasunak izan ditzakete, nor edo zer oroitze behar den erabakitzeko unean. Arrisku ugari daude, baina askotariko eragileen arteko sinergia oinarrizkoa da, iraganaren ordezkariari eta horri lotutako gai demokratikoei buruzko eztabaida zabala pizteko, eta ezinbestekoa da adiskidetzeko eraginkorra eta iraunkorra lortzeko. Tragediak berriro ez geratzeko bermea indartzeari begira, memoria historikoaren zaintzak eskatzen du iraganak orainaldia argitzea, eta demokratizari, giza eskubideei eta berdintasunari lotutako egungo gertaerak ulertzen laguntzea.*

102. *Pilaka izandako krimenen oroitzapenezko jarduerak oreka konplexua eskatzen dute, batetik, iraganaren oroimenak sortutako emozio pertsonalen, eta, bestetik, erresistentziari eta gizarte desobedientziari buruzko hausnarketa ekar dezakeen kontakizun historiko hotzaren artean. Zaila izan arren, ezinbestekoa da dimentsio emotiboaren eta analisi hotzaren arteko bizikidetzaz. Emoziorik gabe, gertakizun tragikoen kontakizunak oihartzun eskasa du; ikuspegi gabe, memoria biktimista bat eraikitzeak arriskua handia da, non etorkizuneko indarkeria saihesteko beharrezko ikuspegiak gal daitezkeen. Oreka hori lortzeko, emozioen dimentsioari tarte bat eskaintzeaz gain, oroitzapenezko jardueren oinarria eta testuingurua ikerketa eta azterketa historiko zorrotzek izan behar dute.*

103. *Txostengile Bereziak estatuei eta beste interes-talde batzuei gomendatzen die laguntza emateko giza eskubideen urraketa larri edo masiboen edo gertaera traumatikoen biktimei eta haien senideei, iragana oroitzeko ahalegina eginez. Memoria historikoaren zaintza ulertu beharko genuke prozesuen multzo gisa, zeinetan kaltetuei beren askotariko kontakizunak kulturalki modu egokian azaltzeko behar duten espazioa ematen zaion. Prozesu horien barruan askotariko esku-hartzeak sartzen dira, eta, monumentu materialak eraiki ez ezik, bestelako jarduerak eta adierazpen kulturalak ere egin daitezke.*

104. *Oroitzapenezko monumentuei lotutako helburuak banan-banan eztabaidatu eta erabaki behar dira. Estatuak eta interesa duten beste alde batzuek ez dituzte erabiliko zaintza-prozesuak beren helburu politikoak lortzeko, eta arretaz babestuko dute memoria historikoa zaintzeko politikak, bereziki, alderdi*

101 Eskuragarria hemen: <http://www.ohchr.org/EN/Issues/CulturalRights/Pages/AnnualReports.aspx>.

hauek lortzeko lagungarriak izatea:

- a) Gorrotoa, erresumina eta indarkeria sortzen duten ukapenak gainditzea;
- b) Erreparazio sinbolikoa eta aitortza publikoa eskaintzea, orain dela gutxi edo asko zapalduak izandako biktima guztien beharrei erantzuteko eta haien zauriak ixten laguntzeko;
- c) Gatazketan aurkariak izandako taldeak adiskidetzeko politikak egitea, egindako delitu guztien aitortza-prozesu ofizial eta publiko baten bidez;
- d) Prebentzio-politika bat aplikatzea, neurri pedagogikoetan eta esku-hartze kulturaletan oinarrituko dena eta iraganean aurkari izandako taldeen artean indarkeria agertzeko arriskua gutxituko duena.
- e) Nazio-identitatea berriro definitzea, komunitate guztiak aintzat hartuko eta alde guztiek egindako delituak onartuko dituen politika pluralista baten bidez.
- f) Herritarren konpromisoa eta pentsamendu kritikoa sustatzea, eta eztabaida bat bultzatzea bai iraganeko errepresentazioari buruz bai bazterkeria eta indarkeria irudikatzen duten egungo erronkei buruz.

105. Eginkizun horretan, estatuak eta intereseko beste alde batzuek kontuz ibili behar dute biktimen eta kriminalen definizio adiskideezinekin, eta kontakizun eta planteamendu anitzak adierazteko tartea utzi behar dute. Bestalde, ez dituzte egin edo babestu behar oroitzapenezko monumentuen eraikuntza edo memoria historikoa zaintzeko prozesuak eragotziko dituzten ukapen-politikak, eta ez dituzte eraiki, babestu edo finantzatu behar indarkeria bultzatzen duten obrak .

106. Estatuak eta gainerako interesdunen eginbeharrak honako hauek dira:

- a) Egia eta adiskidetzarako batzordeek memoria historikoa zaintzeari buruz adierazitako gomendioak aplikatzea, nazioarteko arauekin bat etorrira; ezagutza teknikoak ematea, horien beharra duten nazio-agintariei; eta, interes-taldeak eztabaidetan sartzera.
- b) Memoria historikoa zaintzeko prozesuen gardentasuna zaintzea, eta gizartearen parte-hartzea sustatzea etapa guztietan, oroitzapenezko monumentuak eraikitzeke erabaki-prozesuak barne. Prozesu horiek biktimengan jarri behar dute arreta, eta haien ahalduntzea lortzeari begira egin behar dira.
- c) Iraganeko gertaerei buruzko gogoeta kritikoa sustatzea, memoria historikoa zaintzeko prozesuetan historia ezagutzeko neurriak bultzatzen direla bermatuta, eta kalitate handiko ekimen pedagogikoak eta pertsonen parte-hartze zuzena sustatutako dituzten esku-hartze kulturalak eta ikerketa-proiektuak egiteko eta dibulgatzeko laguntza ematea.
- d) Erakusketa-komisarioen eta museo-kontserbatzaileen iritzi- eta adierazpen-askatasuna errespetatzea, haien gainean kontrol politikoa edo finantza-presioa egin gabe.
- e) Arte-adierazpen eta -sorkuntzarako askatasunerako eskubidea errespetatzea, memoria historikoa zaintzeari lotutako gaietan, eta artistekin lankidetzan jardutea. Estatuak espazio publikoak daudela zaindu behar dute, arte-adierazpenen bidez transmititutako kontakizun anitzak jartzeko, eta aukerak biderkatu behar dituzte, kontakizun horiek elkarren artean egituratzeari begira.
- f) Giza eskubideen urraketa larri edo masiboetan parte-hartzeari uko egin zioten, zapalkuntzaren aurrean erresistentzia erakutsi zuten eta komunitateen arteko desberdintasunen gainetik elkarri lagundu zioten pertsonen memoria gordetzea.
- g) Memoria historikoa zaintzeko prozesuen alderdi kulturala aintzat hartzea, baita zapalkuntza herri indigenen aurkakoa izan zenean ere.
- h) Esklabotasunaren biktimen memoria historikoa zaintzeko beharrari erantzutea, esklaboak hartzeko eta eramateko lekuetan, bereziki.
- i) Kanpoko eragileen esku-hartzea arretaz neurtzea, besteren memorien inposizioa saihesteko, eta arretaz prestatutako esku-hartzeak bultzatzea, hainbat talderen kalteberatasunarekin amaitzeko eta iraganeko akatsak aitortzeko.
- j) Herrialdearen oroitzapenezko egoera kartografiatzea, gizarte zibilarekin lankidetzan jarduteko planteamendu batetik abiatuta; iraganeko erregimen zapaltzaileak eta gertaerak oroitzeko modua era kritikoa ebaluatzea; giza eskubideen urraketa larrien erantzule diren erregimenei sortutako leku sinbolikoei buruzko informazioa ematea herritarrei; eta, pertsonen eta, bereziki, gazteen parte-hartzea bilatzea, bakearen kontakizun berriak egiteko.

-
- k) Gatazken ondoren eraikitzen edo berreraikitzen ari diren paisaia kultural eta sinbolikoak zentzuz aztertzea, pertsonen ikuspegi eta gogo guztiak biltzen direla eta pentsamendu kritikoa, ezagutza historikoa eta komunitateen arteko elkar ulertzea ahalbidetzen dela ziurtatzeko.

107. Txostengile Bereziak estatuei gomendatzen die memoria historikoa zaintzeko prozesuetarako ildoak zehaztuko dituzten legeak adierazteko, nazioarteko arauekin bat etorrira eta azaldu berri diren ondorioak eta gomendioak aintzat hartuta.

108. Estatuak eta gainerako interes-taldeek memoria historikoa zaintzeko ekimenetan planteatutako erronkei eta lortu diren aurrerapenei buruzko informazioa eman behar diete dagozkien bitartekariari, besteak beste: kultura-eskubideei buruzko Txostengile Berezia; egia, justizia, erreparazioa eta berriro ez geratzeko bermeak bultzatzeari buruzko Txostengile Berezia; bortxazko edo borondatez kontrako desagerpenei buruzko Lan Taldea; herri indigenen eskubideei buruzko Txostengile Berezia; eta, gaur egungo esklabotasun moduei –horien arrazoiak eta ondorioak barne– buruzko Txostengile Berezia; baita giza eskubideen itunen bertutez sortutako organoak ere.

109. Txostengile Bereziak gomendatzen du, halaber, memoria historikoa zaintzeko jarduera egokien bilduma bat egitea, eta aurkitutako zailtasunak eta lortutako emaitzak bertan jasotzea.

7. Terrorismoaren biktimen memoriari buruzko araudiaren zatiak

A) 4/2008 LEGEA, EKAINAREN 19KOA, TERRORISMOAREN BIKTIMEI AITORPENA ETA ERREPARAZIOA EGITEKOA

Zioen azalpena

Euskadin, hartara, bai Jaurlaritzak bai Legebiltzarrak irmotasun eta seriotasun osoz adierazi dute gure elkarbizitzaren etorkizuna biktimekiko memorian oinarritua eraiki beharko dela, halabeharrez. Gehien sufritu dutenak oroitu nahi ditugu, historia, gure historia, ez dadin errepika. Terrorismoaren biktimei aitorpena egitea, horrenbestez, justizia-ekintza bat da, baina baita gizarte baten egiazko adierazpena ere, gure gizarteak ez du-eta berriz bizi nahi haiek nozitutako bidegabeko sufrimendua... Gaiari buruzko nazioarteko tresnen erreferentziak hartuta, adierazten dugu giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoen ondorioz sortzen diren biktimen eskubideek hiru oinarritzko euskarri dituztela, hau da: egia ezagutzeko eskubidea, justiziarako eskubidea eta erreparaziorako eskubidea. Gure kasuan ere oinarritzotzat jotzen dugu memoriarako eskubidea gehitzea, biktimen esanahi politikoari berebiziko garrantzia ematearekin batera. Horiei duintasuna erantsi behar zaie, eta horrekin batera, bakerako, askatasunerako eta elkarbizitzarako eskubideak sartu behar dira terrorismoaren biktimen eskubideen erreferentziazko beste euskarri bat diren aldetik.

Gehienbat izaera programatikoa duten eskubide hauek jasotzailearen arabera antolatu dira legean, eta eskubide bakoitzarekin batera jarduera jakin batzuk adierazi dira kasuan kasuko eskubidea zehazten dutenak. Lehenengoz, biktimen eskubideak: justizia, duintasuna, aitorpena eta erreparazioa. Bigarrenaz, biktimek eta gizarteak partekatzen dituzten eskubideak: egia eta memoria, eta haien esanahi politikoa. Eta, hirugarrenez, euskal herritar guztiak eskubideak: bakea, askatasuna eta elkarbizitza.

Laburbilduz, abiapuntua egia eta memoria dira, eta hortik abiatuta finkatzea zer gertatu den eta zer gertatzen ari den, eta zergatik oraindik ere gertatzen ari den. Eta, gertatu denaren ezagutzatik eta esanahitik, aitortzea biktimek jasan dituzten era askotako sufrimendua, baita era askotako beren beharrez ere, eta erreparazio eta laguntza integraleko sistema bat ezartzea, sufrimendu eta beharrez horiek ahal den neurrian arindu ahal izateko, nola alderdi materialean hala alderdi moralean.

Memoriarako eskubidea, 8. artikuluan jasotakoa. Egiak gertakariak ezagutzea esan nahi badu; memoriak, berriz, gizarteak gertakari horiek aitortzea esan nahi du. Jendaurrean eta ofizialki aitortzea errugabe bati eragindako sufrimendua eta biktima izateagatik duen esanahi politikoa. Terrorismoaren biktimek pairatutako bidegabekeriak eta sufrimenduen memoria, erailketena, bahiketena, estortsioena eta mehatxuena. Memoria, lehenik, absenteena, eraildakoena, baina baita bizirik irtendakoena, zaurituena, bahitutakoena, estortsionatutakoena, mehatxutakoena eta haien guztien familiakoena eta lagunena. Memoria gizartearen eta terrorismoaren biktimen topaleku gisa. Elkarrekiko memoria, gizarte libre eta gehitzailea eraikitzeko, biolentziaren ezbeharra berriro egon dadin saihesteko, ezer gertatu ez balitz bezala bukatu ez dadin onartzeko. Eta memoria, azken batean, exijitzeko terroristek ez dezatela gizartearen etorkizuna baldintzatzea lortu, etorkizun horretarako gizartearen bazterketak eta askatasun faltak ez baitu lekuri izan behar. Alde

horretatik, memoria terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako funtsezko elementua da. Eta memoriaren funtsezko alderdia da terrorismoaren esanahi politikoa, izan ere, ekintza terroristak egiten dituztenek motibazio politikoak bultzatuta jarduten dute. Esanahi politiko horren baitan ETAk bere proiektu totalitarioa eta baztertzaila inposatze aldera suntsitu nahi zuen eta suntsitu nahi duena dago: askatasuna, gure eskubideen eta askatasunen bermatzaile den Zuzenbide Estatu demokratikoan eta elkarbizitza barneratzailearen arauetan gauzatzen dena.

Zeren eta biktimen esanahi politikoak gairitu egiten baitu biktima izatea bera. Biktima izatea ez da bilatu den zerbait, biktimek ez zuten beren bizia mean, kendu egin zieten bizia. ETAk berak, bere proiektu totalitarioa eta baztertzaila inposatu nahian, eman die biktimei haien esanahi politikoa, desagerraraztean bizitzeko eskubidea ez ezik herritarrak izateko eskubidea ere ukatzen baitie.

...

Erreparazioarako eskubidea, 5. artikuluan jasotakoa. Ekintza terroristen ondorioz nozitu dituzten kalte mota desberdinengatik biktimei ordaina emateko erabil daitezkeen neurri guztiak biltzen ditu artikulua horrek. Testuinguru horretan, arauak ezartzen duenez, eragindako kalteen erreparazioa egiteak zenbait neurri mota jaso ditzake: lehengoratzak, kalte-ordainak ematekoak, errehabilitatzekoak eta laguntza integrala zein ordain morala ematekoak.

7. artikulua. Egia

Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek ekintza terroristengatik eratorzen diren giza eskubideen urraketek buruzko egia eta biktimizazioaren benetako arrazoiak ezagut daitezzen lagunduko dute, bai eta egia hori jendaurrean aitortu dadin ere, biktimek eta haien familiakoek horretarako duten eskubidea betetzeko.

2.- Horretarako, neurri aktiboak hartuko dituzte:

- a) Biktimen memoria eta aitortpena ziurtatzeko, lege honetako 4. artikuluan aipatzen diren ekimenetan biktimek parte har dezaten, presentzia izan dezaten eta arretaren erdian egon daitezzen bultzatuz.
- b) Biktimek eta haien familiakoek beren eskubideen defentsarako eta ikerketa historikorako datu edo informazio garrantzitsua dagoen artxibategi ofizialetara jotzeko duten eskubidea bermatzeko eta/edo sustatzeko.
- c) Biktimak identifikatzeko, haien nortasuna edo egonlekua ezezagunak direnean, edo heriotza bada, lurperatuta dauden tokia ezagutzeko.

8. artikulua. Memoria

1.- Memoriako eskubideak bere gain hartuko ditu ekintza terroristak jasan dituzten herritar errugabe guztiak nozitutako bidegabekeriak. Euskal botere publikoek bakean eta askatasunean oinarritutako elkarbizitza lortzen eta biolentzia erabat eta errotik deslegitimatzeko lagunduko duen memoria kolektiboa finka dadin sustatuko dute.

2.- Memoriarako eskubidean, halaber, funtsezko elementua izango da terrorismoaren biktimen esanahi politikoa, eta esanahi horren baitan terrorismoak bere proiektu totalitarioa eta baztertzaila inposatze aldera suntsitu nahi duen guztia dago: Zuzenbide Estatu demokratikoaren ezaugarri diren askatasunak eta elkarbizitza integratzailea izateko herritarrek duten eskubidea. Terrorismoaren biktimen esanahi politikorako ezinbestekoa da herritarrek horren aitortpena gizaratean egitea.

3.- Memoria eta terrorismoaren biktimen esanahi politikoa iraunaraztea funtsezko tresna da orobat terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikoa egiteko.

ELKARTEEN JARDUERAK SUSTATZEA

27. artikulua. Ekintzak sustatzea

1.- Eusko Jaurirlitzak izaera osagarria duten jarduerak bultzatuko eta sustatuko ditu, ordaina jasotzeko eta laguntzeko lege honetan ezarritako xedeak hobeto bete ahal izateko komenigarriak edo beharrezkoak badira.

2.- Sustapen-politika horren helburua elkarteek eta erakundeek sustatutako egitarauak eta jarduerak

bultzatzea izango da, egitarau eta jarduera horien xedea honako hau denean: batetik, biktimei arreta eta giza laguntza ematea, lagunekin eta familiakoekin batera epaiketetara laguntzea, terrorismoaren biktimei orientazio edo laguntza psikosoziala ematea; edo, bestetik, gai honi buruzko foroak, ikastaroak eta mintegiak egitea eta hezkuntzara edo balio etiko eta demokratikoen sustapenera bideratutako bestelako jarduera eta proiektuak lantzea.

3.- Aipatutako laguntzen onuradun izendatzen dira ohiko jarduera terrorismoaren biktimen eremuan gauzatzen duten erakundeak eta elkarteak, elkartearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute, bai eta eremu geografiko horretatik kanpo egon arren, beren kideen artean ekintza terroristak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan nozitu dituzten herritarrak dituztela behar bezala egiaztatzen duten elkarteak eta biktimen kolektiboak ere.

B) 29/2011 LEGEA, IRAILAREN 22KOA, TERRORISMOAREN BIKTIMEN AITORTZEARI ETA OSORIK BABESTEARI BURUZKOA.

Zioen azalpena

Lortu nahi den babes osoak biktimek eta haien familiek merezi duten erreparaziorako ahalegin partekatua ordezkatzeko du, eta, besteak beste, memoria, duintasuna, justizia eta egia...printzipioetan oinarritzen da.

Memoriaren balioa berme gisa, Espainiako gizarteak eta hura ordezkatzeko erakundeek sekula ahantz ez ditzaten fanatismo terroristaren ondorioz bizitza galdu zutenak, zauri fisikoak edo psikologikoak jasan zituztenak edo askatasuna galdu zutenak. Horrela, Estatuak terrorismoaren biktimen oroimena gordetzen du, arreta berezia jarrita haren esanahi politikoan, eta hori gauzatzen da terrorismoak bere proiektu totalitarioa eta baztertzaila inposatzeko ezabatu nahi duen guztiaren defentsan. Biktimen adiera politikoak haien gizarte-aitortza eskatzen du, eta funtsezko tresna bat da, terrorismoaren deslegitimazio etiko, sozial eta politikorako. Oroitzapena, horrela, justizia-ekintza bat da, eta, aldi berean, tresna zibilizatzaile bat, balioetan oinarritutako heziketarako eta ideia politikoak inposatzeko indarkeriaren erabilera, gizartearen deslegitimazioaren bidez, erabat desagerrarazteko.

2. art.

1. Lege hau memoria, duintasun, justizia eta egiaren balioetan oinarritzen da. Haien aitortza sozial eta politikoa zaindu eta iraunaraziko duen memoria...

56. artikulua. Terrorismoaren biktimen aitortza eta memoria.

Botere publikoek neurri aktiboak bultzatuko dituzte, biktimekiko erabateko errespetuz eta haien duintasuna bilatuta, eta ekitaldi, ikur, monumentu edo antzeko elementuen bidez, terrorismoaren biktimak oroitu eta aitortuko dituzte.

57. artikulua. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentro Nazionala

Gobernuak Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentro Nazionala eraikiko du, eta horren helburua izango da terrorismoaren biktimengan gauzatzen diren balio demokratikoak eta etikoak zaintzea eta zabaltzea, biktimen memoria kolektiboa eraikitzea, eta herritarrak kontzientziaztea, askatasunaren eta giza balibideen alde eta terrorismoaren aurka egin dezaten. Terrorismoaren Biktimen Memoriarako Zentro Nazionalaren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egongo da.

60. artikulua. Terrorismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko eguna

Urtero, ekainaren 27a izango da terrorismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko eguna.

Urtero, martxoaren 11n ospatuko da terrorismoaren biktimen Europako eguna.

Erakunde publikoek, egun horietan, terrorismoaren biktimen aitortzerako ekitaldiak bultzatuko dituzte, haien memoria iraunarazteko eta haien mezu etikoa zabaltzeko.

ZAZPIGARREN TITULUA. Erakundeen babesa eta terrorismoaren biktimentzako laguntza

LEHEN KAPITULUA. Erakundeen babesa

61. artikulua. Biktimen ohorea eta duintasuna defendatzea

1. Estatuak bere gain hartzen du biktimen duintasunaren defentsa, eta debekatzen du erakunde terroristak, terroristak edo terrorismoa banaka edo taldeka goraiatzeko monumentuak, armariak, intsigniak, plakak eta beste objektu edo oroitzapenezko aipu batuk jendaurrean erakustea.

2. Administrazio Publikoek, beren eskuduntzak gauzatzean, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte debeku hori bete dadin. Hori guztia ez da oztopoa izango biktimek eta haien senideek beren ohorea eta duintasuna defendatzeko jarduerak egin ditzaten.

3. Era berean, biktimen eta haien senideen izenaren galera, gutxiespena edo umiliazioa, terrorismoaren goratzea, eta terroristei omenaldi publikoa egiteko xedea duten ekimenak aurreikusi eta saihestuko dituzte.

4. Autonomia erkidegoetako gobernu ordezkariak tokiko korporazioek aurreko ataletan ezarritako betebeharrak betetzen dituztela zainduko dute, eta horien ofiziozko erreklamazioa egingo dute, justizia-epaitegi eskudunen aurrean.

63. artikulua. Terrorismoaren biktimen egoerari buruzko txostenak

1. Barne Ministerioak, aholkularitza, ebaluazio eta lankidetzaren instituzionaleko funtzioak betetzean, txostenak eta azterketak egingo ditu, baita jarduteko proposamenak ere, terrorismoaren biktimen laguntzaren arloan.

2. Terrorismoaren biktimen egoerari buruzko txosten horiek nabarmenduko dute, halaber, lege-erreformak egitearen beharrak, hartutako babes-neurrien aplikazioaren bidez terrorismoaren biktimentzako babes-maila gorenari ziurtatzeari begira. Urtero, Barne Ministerioak txosten bat igorriko dio Parlamentuari terrorismoaren biktimen kolektiboaren egoerari buruz eta, hala behar izanez gero, jarduteko proposamenak jasoko ditu.

3. Azterketa eta txosten horiek egiteko, autonomia erkidegoen, tokiko erakundeen, gizarte-eragileen eta biktimen elkarten parte-hartzea bilatuko da, edonola ere.

BIGARREN KAPITULUA. Elkarrekin eta fundazioak sustatzea.

64. artikulua. Elkarrekin eginkizuna eta garrantzia onartzea

1. Terrorismoaren biktimen elkarteak eta fundazioak biktimen arteko batasuna sustatzeko, beren interesak defendatzeko eta beren egoera hobetzeko laguntza ematen dute, eta terrorismoaren aurkako eta memoriaren zaintzarako gizarte-kontzientziak sustatzen dute. Hori dela eta, haien jarduerak gizartearen aitortza jasotzen du, eta, beraz, administrazio publikoek horien sorrera eta iraunarazpena susta dezakete.

2. Terrorismoaren biktimen elkarteak eta fundazioak biktimen ordezkari gisa onartzen ditu Lege honek.

671/2013 ERREGE DEKRETUA, IRAILAREN 6KOA, TERRORISMOAREN BIKTIMEN AITORTZA ETA BABESA ARAUTZEN DUEN IRAILAREN 22KO 29/2011 LEGEAREN ARAUDIA ONARTZEN DUENA.

65. artikulua. Terrorismoaren biktimak aitortzeko eta omentzeko ekimenak

Gobernuak terrorismoaren biktimen aitortza bultzatu, eta haien memoria zaindu ahal izango du, eta, bereziki, dominak emango ditu, Terrorismoaren Biktimen Aitortza Zibileko Errege Aginduaren babespean; era berean, erakunde gisa bertaratuko da ekainaren 27an, terrorismoaren biktimak oroitzeko eta omentzeko egunean, eta martxoaren 11n, terrorismoaren biktimen Europako egunean.

8. Eztabaida-taldeetan aipatutako lekuen argazkiak



1. Biktimizazio-leku bat, non zabor-edukiontzia jarri diren.



2. Cristina Iglesiasen gauerdiko iparrorrazak (2008), Eusko Legebiltzarraren egoitzan.



3. Agustin Ibarrolak terrorismoaren biktimei eginiko monumentua, Gasteizen (Forondako Atea)

